ESTATISTIKA ORGANOA
ORGANO ESTADÍSTICO

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA
*Zerbitzu Zuzendaritza*
*Estatistika Organo Berezia*

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA
*Dirección de Servicios*
*Órgano Estadístico Específico*

# EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

# ETXEBIZITZA-BEHARREI ETA -ESKAERARI BURUZKO INKESTA (EBEI) - 2015

*Emaitza nagusiak*

*Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren*
*Estatistika Organo Berezia*

# AURKIBIDEA


1. HITZAURREA ... 4

2. ETXEBIZITZA ESKURATZEKO BEHARRAK ... 6

2.1. Biztanleria potentzialaren ezaugarriak eta beharrizanen eta eskaeraren kuantifikazioa ... 6

2.1.1. Gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18-44 urte arteko pertsonen ezaugarriak. 9

2.1.2. Etxebizitza premiaren kuantifikazioa guztira ... 20

2.1.3. Beharraren eta eskaeraren kuantifikazioa, diru-sarrera edo errenta propioekin 21

2.2. Diru-sarrera edo errenta propioak izanik beharra duten pertsonen ezaugarriak ... 26

2.2.1. Ezaugarri sozio-demografikoak ... 26

2.2.2. Etxebizitza eskuratzeko beharraren arrazoiak ... 31

2.2.3. Beharrizanaren eta eskaera-epeen maila subjektiboa ... 34

2.2.4. Behar diren etxebizitzen ezaugarriak ... 39

2.3. Etxea behar duten pertsonen finantza gaitasuna ... 45

2.3.1. Diru-sarreren maila ... 45

2.3.2. Hilero ordaintzeko gaitasuna ... 48

2.3.3. Ordain daitekeen gehieneko prezioa ... 49

2.3.4. Finantzaketa-formulak ... 50

2.4. Etxe premian dagoen kolektiboaren ezaugarriak, generoaren ikuspegitik ... 52

2.5. Etxe premian dagoen kolektiboaren ezaugarriak, diru-sarrerak izatearen edo ez izatearen arabera ... 61

2.6. Etxea eskuratzeko beharraren adierazle nagusien laburpena eta ondorioak ... 69

3. ALDAKETA-BEHARRA DUTEN ETXEBIZITZEN EZAUGARRIAK ... 74

3.1. Aldaketa-beharraren eta eskaeraren kuantifikazioa ... 74

3.2. Aldaketa-beharra duten etxebizitzen ezaugarriak ... 78

3.2.1. Gizarte- eta egoitza-ezaugarriak ... 78

3.2.2. Etxebizitza aldatzeko beharraren arrazoiak ... 85

3.2.3. Ingurunearekiko / auzoarekiko asebetetze maila ... 88

3.2.4. Beharraren eta eskaera-epeen gradu subjektiboa ... 91

3.2.5. Behar den etxebizitzaren ezaugarriak ... 95

3.3. Aldaketa-beharra duten familien finantza-gaitasuna ... 98

3.3.1. Diru-sarrerak ... 98

3.3.2. Hilean ordaintzeko gaitasuna eta ordain daitekeen prezio maximoa ... 99

3.3.3. Finantzaketarako formulak ... 104

3.4. Aldaketa-beharraren adierazle nagusien laburpena eta ondorioak ... 106

4. BIRGAITZEKO BEHARRA DUTEN ETXEBIZITZEN EZAUGARRIAK ....................110
4.1. Birgaitze-beharraren eta -eskaeraren kuantifikazioa ....................110
4.2. Birgaitze-beharra duten etxebizitzen ezaugarriak ....................114
4.2.1. Gizarte- eta egoitza-ezaugarriak....................114
4.2.2. Birgaitzeko beharraren arrazoiak eta birgaitzearen ezaugarriak ....................120
4.2.3. Ingurunearekiko / auzoarekiko asebetetze-maila ....................126
4.2.4. Beharraren eta eskaera-epeen gradu subjektiboa ....................129
4.2.5. Etxebizitza aldatzea, birgaitzearen alternatiba gisa ....................131
4.3. Etxea birgaitzeko beharra duten familien finantza-ahalmena....................132
4.3.1. Diru-sarrerak ....................132
4.3.2. Birgaitzearen kostu aurreikusia ....................134
4.3.3. Birgaitze-laguntzak ezagutzea eta eskatzea ....................136
4.4. Birgaitzeko beharraren adierazle nagusien laburpena eta ondorioak....................137
ERANSKIN METODOLOGIKOA: ....................141
DEFINIZIOAK: ....................142
TAULEN AURKIBIDEA ....................143
GRAFIKOEN AURKIBIDEA....................147

# 1. HITZAURREA

Jarraian aurkeztuko den txostena Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Estatistika Organoak egindako Etxebizitza-beharrei eta -eskaerari buruzko 2015eko Inkestan (EBEI) bildutako datuetan oinarrituta egin da[1].

Dokumentu honetan Euskadiko etxebizitza beharren adierazle kuantitatibo eta kualitatibo nagusiak jorratzen dira. Batetik, lehen etxebizitza eskuratzeko banako beharrak aztertzen dira eta, bestetik, etxebizitza aldatzeko edo birgaitzeko familia-beharrak. Bi kasuetan, beharrak etxebizitza nagusiari dagozkio bakarrik.

Dokumentuan biltzen dira azken urteotako adierazle eta aldagai nagusien portaeraren ikuspegi dinamiko bat eskaintzea helburu duten eboluzio-azterketa batzuk. Helburua EAEko biztanleriaren etxebizitza-beharren eboluzioa adieraztea da.

Sarrera honen ondoren, txostenaren 2. kapituluan etxebizitza beharraren eta eskaeraren kuantifikazioa egiten da, eta behar hori duten pertsonen kolektiboaren ezaugarriak zehazten dira, horiek etxebizitza eskuratzeko beharra estaltzeko duten finantza-ahalmena aztertuz.

2. kapitulu honetan aztertzen den kolektiboa honako hau da: Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) bizi diren 18 eta 44 urte bitarteko pertsonak, diru-sarrera propioak dituztenak, guraso edo tutoreekin bizi direnak eta lehen etxebizitza eskuratzeko beharra dutenak. Beren diru-sarrera propioak dituzten pertsonen azterketa luze eta zabalagoa egin da, baina atal laburrago batean jaso dira beharrizana bai baina diru-sarrerarik ez duten pertsonak ere.

3. kapituluan euskal etxeetan ohiko bizilekua aldatzeko beharra aztertzen da. Horretarako, eskaera horren garrantzi erlatiboa eta aurreikusitako eskaera-epeak kuantifikatzen dira.

Kapituluan etxebizitza horien eta okupatzen dituzten etxebizitzen azterketan sakontzen da, eta aldaketa-beharra eta horren intentsitatea azaltzen duten arrazoiak aztertzen dira, baita behar duten etxebizitza mota eta aldaketa egin ahal izateko behar duten finantza-ahalmena ere.

4. kapituluan EAEko etxeetan ohiko bizilekua birgaitzeko beharra aztertzen da. Horretarako, eskaera horren garrantzi erlatiboa eta aurreikusitako eskaera-epeak kuantifikatzen dira. Etxebizitzaren birgaitze-ezaugarriak eta hori egin ahal izateko finantza-gaitasuna ere kontuan hartzen dira.

[1] Sail berria eratu den arte, egungo Enplegu eta Gizarte Politika Saileko Estatistika Organo Bereziko langileek ere hartu dute parte inkestaren garapenean.

Hiru kapitulu handi hauen bukaeran, emaitza nagusien laburpen bat jasotzen da eta, horrekin batera, 2005-2015 aldirako etxebizitza eskuratzeko eta aldatzeko (hurrenez hurren) beharraren adierazle nagusien ebaluazioaren laburpen-koadro batekin.

Azterketaren emaitza nagusiak, batetik lehen etxebizitza eskuratzeko beharra kuantifikatzeari dagokionez eta, bestetik, etxebizitza nagusia birgaitzeari edo aldatzeari dagokionez, laburbilduta ageri dira ondorengo taulan. Datuak lurralde historikoaren arabera antolatuta daude.

## 1. taula. Etxebizitza eskuratzeko, aldatzeko eta birgaitzeko beharra, lurralde historikoaren arabera. 2015

(Balio absolutuak eta ehuneko bertikalak)

| EAE-KO ETXEBIZITZA-BEHARREI ETA -ESKAERARI BURUZKO INKESTA | | 2015 | 2013. urtearekiko aldakuntza | |
|---|---|---|---|---|
| | | | GUZTIZKOA | % |
| Euskal Autonomia Erkidegoa | Sarbidea[2] | 64.290 | 4.972 | 8,4 |
| | Aldaketa | 53.132 | -8.489 | -13,8 |
| | Birgaitzea | 58.017 | -32.122 | -35,6 |
| | Etxeak | 863.530 | -8.970 | -1,0 |
| Araba | Sarbidea[1] | 8.362 | 1.696 | 25,4 |
| | Aldaketa | 9.307 | 489 | 5,5 |
| | Birgaitzea | 6.684 | -11.448 | -63,1 |
| | Etxeak | 131.889 | -2.410 | -1,8 |
| Bizkaia | Sarbidea[1] | 34.949 | 5.004 | 16,7 |
| | Aldaketa | 26.042 | -15.241 | -36,9 |
| | Birgaitzea | 27.612 | -16.886 | -37,9 |
| | Etxeak | 450.493 | -6.908 | -1,5 |
| Gipuzkoa | Sarbidea[1] | 20.979 | -1.728 | -7,6 |
| | Aldaketa | 17.784 | 6.263 | 54,4 |
| | Birgaitzea | 23.720 | -3.788 | -13,8 |
| | Etxeak | 281.148 | 348 | 0,1 |

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza beharren eta eskaeraren Inkesta. 2015*

[2] Diru-sarrera edo errenta propioak dituzten pertsonak soilik hartuko dira kontuan

# 2. ETXEBIZITZA ESKURATZEKO BEHARRAK

## 2.1. Biztanleria potentzialaren ezaugarriak eta beharrizanen eta eskaeraren kuantifikazioa

2015ean, EAEko 18 urtetik gorako 1.814.659 pertsonetatik 321.760 pertsona gurasoen edo tutoreen etxean bizi ziren. Horien % 57,6 gizonezkoak dira (185.201 pertsona) eta gainerako % 43,4 emakumezkoak (136.556 pertsona). Adinak gora egin ahala, jaitsi egiten da emantzipatu gabeko pertsonen kopurua. 30 urtez azpiko populazioan, gehienak gurasoekin edo tutoreekin bizi dira (18-19 urte arteko taldearen % 94,4; 20-24 urte arteko kolektiboaren % 87,5; eta 25-29 urte artekoen % 67,7). Proportzio hori murriztu egiten da 30-34 urte arteko adin-taldean non hiru pertsonatatik bat baino gehixeago dagoen emantzipatu gabe (% 35,7). 35-44 urte arteko pertsonen kasuan, proportzioa % 10 eta % 16 artean dago: % 15,9 dira 35-39 urte arteko adin-taldean eta % 10,3 40-44 urtekoen taldean. 45 urtetik gorako pertsonei dagokienez, % 10 baino gutxiago dira talde guztietan. 45-54 urte artekoak % 8,6 dira eta 64 urtez goikoak, berriz, % 0,4 baizik ez.

Ikusten da, adin-talde guztietan, emakumezkoen emantzipazio-tasa handiagoa dela gizonezkoena baino. 18-24 urte arteko adin-taldean, gizonezkoen % 91,2 emantzipatu gabe daude; emakumezkoetan, ordea, ehunekoa hiru puntu txikiagoa da (% 87,8). Alderik handiena 25-34 urtekoen taldean dago. Kasu honetan, gizonezkoen % 56,9 emantzipatu gabe daude, hau da, 14 puntu portzentual gorago emakumezkoak baino (% 42,3). 35-44 urte arteko pertsonei dagokienez, gizonezkoen kasuan, populazioaren % 16,9 dira, baina emakumeenean % 9,2an gelditzen da proportzioa. 44 urtez goitiko pertsonen taldean, berriz, aldea ez da horren nabarmena, emantzipazio-faltaren oso proportzio apalak erregistratzen baitira sexu bietan. Emakumeen artean, egoera hori guztizkoaren % 2,6ari dagokio, eta gizonen artean % 5ari.

Emantzipatu gabeko pertsonen taldearen barruan, hirutatik bat baino gehixeagok (% 34,5) etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra adierazi dute; apur bat gehiago gizonen artean (% 35,2) emakumeen artean baino (% 33,5). Aitzitik, adin txikiagoko taldeetan, emakumeek pisu handiagoa dute gizonek baino: 18-24 urte arteko taldean, % 20,1 emakumeek eta % 19,1 gizonek; 25-34 artekoetan, berriz, % 53,5 emakumeek eta % 50,8 gizonezkoek. 35 urtetik gora, aldiz, emantzipatu gabeko gizonezkoek behar handiagoa adierazten dute emantzipatu gabeko emakumezkoek baino. 35-44 urte arteko pertsonen kasuan, emantzipatu gabeko gizonezkoen % 40,5ek diote etxebizitza bat modu independentean eskuratzeko beharra dutela (% 37,5ek, emakumezkoen kasuan). Emantzipatu gabeko 44 lau urtetik gorako pertsonen taldeari dagokionez (adin horretako gizonen % 1,1 eta emakumeen % 0,2 baizik ez dira), beharra adierazi dute gizonezkoen % 21,7k eta emakumezkoen % 7,9k, betiere emantzipatu gabeen artean.

## 2. taula. Populazioaren egoera etxea eskuratzeko beharrari dagokionez, adinaren eta sexuaren arabera, 2015

(Pertsona kopuruak eta ehunekoak pertsonen guztizkoarekiko eta emantzipatuekiko)

| | | | | | Etxe beharrean dauden emantzipatu gabeak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Guztizkoa | Emantzipatu gabeak | Guztizkoaren gaineko % | Kop. | Guztizkoaren gaineko % | Emantzipatu gabekoen gaineko % |
| **Guztizkoa** | | **1.814.659** | **321.760** | **17,7** | **110.878** | **6,1** | **34,5** |
| **Guztizkoa** | **Emakumea** | 941.905 | 136.556 | 14,5 | 45.705 | 4,9 | 33,5 |
| | **Gizona** | 872.754 | 185.201 | 21,2 | 65.172 | 7,5 | 35,2 |
| **18-24 urte artean** | **Emakumea** | 60.699 | 53.272 | 87,8 | 10.730 | 17,7 | 20,1 |
| | **Gizona** | 63.735 | 58.117 | 91,2 | 11.078 | 17,4 | 19,1 |
| **25-34 urte artean** | **Emakumea** | 122.456 | 51.776 | 42,3 | 27.718 | 22,6 | 53,5 |
| | **Gizona** | 124.978 | 71.117 | 56,9 | 36.158 | 28,9 | 50,8 |
| **35-44 urte artean** | **Emakumea** | 174.855 | 16.099 | 9,2 | 6.044 | 3,5 | 37,5 |
| | **Gizona** | 182.031 | 30.698 | 16,9 | 12.446 | 6,8 | 40,5 |
| **44 urtetik gora** | **Emakumea** | 583.895 | 15.409 | 2,6 | 1.213 | 0,2 | 7,9 |
| | **Gizona** | 502.010 | 25.269 | 5,0 | 5.490 | 1,1 | 21,7 |

| | | | | Etxe beharrean dauden emantzipatu gabeak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztizkoa | Emantzipatu gabeak | Guztizkoaren gaineko % | Kop. | Guztizkoaren gaineko % | Emantzipatu gabekoen gaineko % |
| **Guztizkoa** | **1.814.659** | **321.760** | **17,7** | **110.878** | **6,1** | **34,5** |
| 18-19 urte artean | 35.857 | 33.842 | 94,4 | 2.001 | 5,6 | 5,9 |
| 20-24 urte artean | 88.577 | 77.547 | 87,5 | 19.808 | 22,4 | 25,5 |
| 25-29 urte artean | 108.128 | 73.211 | 67,7 | 36.324 | 33,6 | 49,6 |
| 30-34 urte artean | 139.306 | 49.682 | 35,7 | 27.552 | 19,8 | 55,5 |
| 35-39 urte artean | 177.853 | 28.269 | 15,9 | 11.315 | 6,4 | 40,0 |
| 40-44 urte artean | 179.033 | 18.529 | 10,3 | 7.175 | 4,0 | 38,7 |
| 45-54 urte artean | 340.411 | 29.208 | 8,6 | 4.300 | 1,3 | 14,7 |
| 55-64 urte artean | 287.098 | 9.603 | 3,3 | 2.403 | 0,8 | 25,0 |
| 64 urtetik gora | 458.396 | 1.867 | 0,4 | 0 | 0,0 | 0,0 |

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Emantzipazio premia handiena duten pertsonen taldean zentratzen bagara, 18-44 urte arteko pertsonak, alde nabarmenak identifikatzen dira bizilekutzat duten lurralde historikoaren arabera. EAEn, oro har, esandako adineko pertsonen % 38,6 emantzipatu gabe daude. Hala ere, bost puntu portzentual gutxiagoko zifrak jaso dira Arabaren kasuan (% 32,7) eta puntu bat apalagoa Gipuzkoarenean (% 37,2). Bizkaian, ordea, emantzipazioaren ehunekoa gainerako lurralde historikoetan baino txikiagoa da, hain zuzen, 5 pertsonatatik 2 emantzipatu gabe daudelako (% 41,1).

## 3. taula. 18-44 urte arteko populazioaren egoera emantzipazioari dagokionez, lurralde historikoaren, adinaren eta sexuaren arabera, 2015

(Pertsona kopuruak eta ehunekoak 18-44 urte arteko pertsonen guztizkoarekiko)

| | Guztizkoa | Emantzipatuak | | Emantzipatu gabeak | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Kop. | %. | Kop. | %. |
| **EAE** | **728.754** | **447.672** | **61,4** | **281.082** | **38,6** |
| **ADINA** | | | | | |
| 18-24 urte artean | 124.434 | 13.044 | 10,5 | 111.390 | 89,5 |
| 25-34 urte artean | 247.434 | 124.540 | 50,3 | 122.894 | 49,7 |
| 35-44 urte artean | 356.886 | 310.089 | 86,9 | 46.797 | 13,1 |
| **SEXUA** | | | | | |
| Emakumea | 358.010 | 236.862 | 66,2 | 121.148 | 33,8 |
| Gizona | 370.744 | 210.811 | 56,9 | 159.933 | 43,1 |
| **ARABA** | | | | | |
| **Guztizkoa** | **112.494** | **75.709** | **67,3** | **36.785** | **32.7** |
| **ADINA** | | | | | |
| 18-24 urte artean | 18.505 | 2.449 | 13,2 | 16.056 | 86,8 |
| 25-34 urte artean | 38.934 | 23.883 | 61,3 | 15.051 | 38,7 |
| 35-44 urte artean | 55.054 | 49.378 | 89,7 | 5.676 | 10,3 |
| **SEXUA** | | | | | |
| Emakumea | 54.964 | 39.844 | 72,5 | 15.120 | 27,5 |
| Gizona | 57.529 | 35.864 | 62,3 | 21.665 | 37,7 |
| **GIPUZKOA** | | | | | |
| **Guztizkoa** | **236.170** | **148.217** | **62,8** | **87.953** | **37,2** |
| **ADINA** | | | | | |
| 18-24 urte artean | 42.104 | 3.671 | 8,7 | 38.433 | 91,3 |
| 25-34 urte artean | 78.520 | 39.895 | 50,8 | 38.625 | 49,2 |
| 35-44 urte artean | 115.546 | 104.650 | 90,6 | 10.896 | 9,4 |
| **SEXUA** | | | | | |
| Emakumea | 115.260 | 77.400 | 67,2 | 37.860 | 32,8 |
| Gizona | 120.910 | 70.816 | 58,6 | 50.094 | 41,4 |
| **BIZKAIA** | | | | | |
| **Guztizkoa** | **380.091** | **223.746** | **58,9** | **156.345** | **41,1** |
| **ADINA** | | | | | |
| 18-24 urte artean | 63.825 | 6.924 | 10,8 | 56.901 | 89,2 |
| 25-34 urte artean | 129.980 | 60.762 | 46,7 | 69.218 | 53,3 |
| 35-44 urte artean | 186.286 | 156.061 | 83,8 | 30.225 | 16,2 |
| **SEXUA** | | | | | |
| Emakumea | 187.786 | 119.617 | 63,7 | 68.169 | 36,3 |
| Gizona | 192.305 | 104.130 | 54,1 | 88.175 | 45,9 |

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

18-44 urte arteko pertsonaren generoaren arabera, kasu honetan independizatutako pertsonen ehunekoa kontuan harturik, egiaztatu da Arabako emakumezkoak direla neurri handienean emantzipatuta daudenak (% 72,5). Neurri apalagoan baina % 60tik gorako zifrekin ditugu gainerako lurraldeetako emakumeak ere (% 67,2 gipuzkoarrak, eta % 63,7 bizkaitarrak). Arabar gizonezkoen emantzipazio-tasa Bizkaiko emakumezkoenaren antzekoa da (% 62,3); gainerako bi lurraldeetan, ordea, % 60tik beherako zifrekin agertzen zaizkigu: % 58,6 Gipuzkoan, eta % 54,1 Bizkaian.

### 2.1.1. Gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18-44 urte arteko pertsonen ezaugarriak.

2015ean, 104.176 pertsonak lehen etxebizitza eskuratzeko beharrizana adierazi dute; horien artean sartzen dira, inkesta egin zen momentuan, inolako diru-sarrerarik edo errenta propiorik ez zutenak (31.340 pertsona). Aipatutako 104.176 pertsonako kolektiboak guraso edo tutoreekin bizi diren 18-44 urte arteko 281.082 pertsonen % 37,1 ordezkatzen du. Proportzioa % 14,3ra murriztu da 18-44 urte arteko EAEko biztanleria osoa kontuan hartzen bada.

Guraso edo tutoreekin bizi eta lehen etxebizitza eskuratzeko beharra adierazi duten 18 eta 44 urte arteko pertsonen kolektibotik, 72.836 pertsonak etxebizitza eskuratzeko prozesu hori finantzatzeko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzte. Azken zifra hori % 11,5 hazi da 2013. urtearekin alderatuta, orduan 65.346 pertsonak azaldu baitzuten premia hori zutela.

Termino erlatiboetan, diru-sarrerak edo errenta propioak izanik lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonak beren guraso edo tutoreekin bizi diren 281.082 pertsonen % 25,9 dira. Azken proportzio hori % 7,8koa da 25 urtetik beherako pertsonen kasuan, baina % 40,4ra igotzen da 25 eta 34 urte bitarteko pertsonen kasuan, eta % 30,9ko mailan mantentzen da 35 eta 44 urte bitartekoetan.

**4. taula. Lehen etxebizitza eskuratzeko beharren eta eskaeraren kuantifikazioa, adin- eta sexu-taldeen arabera, EAE. 2015**

(Balio absolutuak eta ehunekoak pertsonen guztizkoaren eta beharra duten pertsonen gainean)

| | Etxebizitza beharrean dauden pertsonak | | 18-44 urte arteko populazioa | | Gurasoekin bizi dira | | Diru-sarrera edo errenta propioak izanik beharra duten pertsonak | | Aurre egiteko behar beste diru-sarrera edo errenta propio izanik beharra duten pertsonak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kop. | Etxebiz. % | Kop. | Beharraren % / biztanleria | Kop. | Beharraren % / biztanleria | Kop. | Errenta propioen % / erabateko premia | Kop. | Errenta nahikoen % / erabateko premia |
| **Guztizkoa** | **104.176** | **100,0** | **728.754** | **14,3** | **281.082** | **37,1** | **72.836** | **69,9** | **15.645** | **15,0** |
| **18-24 urte artean** | 21.809 | 20,9 | 124.434 | 17,5 | 111.390 | 19,6 | 8.692 | 39,9 | 1.400 | 6,4 |
| **25-34 urte artean** | 63.877 | 61,3 | 247.434 | 25,8 | 122.894 | 52,0 | 49.687 | 77,8 | 9.788 | 15,3 |
| **35-44 urte artean** | 18.489 | 17,7 | 356.886 | 5,2 | 46.797 | 39,5 | 14.456 | 78,2 | 4.456 | 24,1 |
| **Emakumea** | 44.493 | 42,7 | 358.010 | 12,4 | 121.148 | 36,7 | 30.812 | 69,3 | 5.578 | 12,5 |
| **Gizona** | 59.683 | 57,3 | 370.744 | 16,1 | 159.933 | 37,3 | 42.024 | 70,4 | 10.067 | 16,9 |

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

## 5. taula. Lehen etxebizitza eskuratzeko beharren eta eskaeraren kuantifikazioa adin- eta sexu-taldeen arabera, eskura dituzten diru-sarrerak edo errenta propioak kontuan hartuta, EAE. 2015

(Balio absolutuak eta ehunekoak pertsonen guztizkoaren eta beharra duten pertsonen gainean)

| | **Diru-sarrera edo errenta propioren bat dutenak** | | | | | | | | | | | | Diru-sarrerarik gabe | | | | **Beharra dutenen guztizkoa** | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Behar beste diru-sarrera | | | | Diru sarrera gutxiegi / ezegonkorrak | | | | **Diru-sarrerak dituztenen guztizkoa** | | | | | | | | | | | |
| | Kop. | Etxe biz. % | Fam. % (1) | Fam. % (2) | Kop. | Etxe biz. % | Fam. % (1) | Fam. % (2) | Kop. | Etxe biz. % | Fam. % (1) | Fam. % (2) | Kop. | Etxe biz. % | Fam. % (1) | Fam. % (2) | Kop. | Etxe biz. % | Fam. % (1) | Fam. % (2) |
| **Guztizkoa** | **15.645** | **100** | **2,1** | **5,6** | **57.191** | **100** | **7,8** | **20,3** | **72.836** | **100** | **10,0** | **25,9** | **31.340** | **100** | **4,3** | **11,1** | **104.176** | **100** | **14,3** | **37,1** |
| **18-24 urte artean** | 1.400 | 8,9 | 1,1 | 1,3 | 7.292 | 12,8 | 5,9 | 6,5 | 8.692 | 11,9 | 7,0 | 7,8 | 13.117 | 41,9 | 10,5 | 11,8 | 21.809 | 20,9 | 17,5 | 19,6 |
| **25-34 urte artean** | 9.788 | 62,6 | 4,0 | 8,0 | 39.899 | 69,8 | 16,1 | 32,5 | 49.687 | 68,2 | 20,1 | 40,4 | 14.190 | 45,3 | 5,7 | 11,5 | 63.877 | 61,3 | 25,8 | 52,0 |
| **35-44 urte artean** | 4.456 | 28,5 | 1,2 | 9,5 | 10.000 | 17,5 | 2,8 | 21,4 | 14.456 | 19,8 | 4,1 | 30,9 | 4.033 | 12,9 | 1,1 | 8,6 | 18.489 | 17,7 | 5,2 | 39,5 |
| **Emakumea** | 5.578 | 35,7 | 1,6 | 4,6 | 25.234 | 44,1 | 7,0 | 20,8 | 30.812 | 42,3 | 8,6 | 25,4 | 13.681 | 43,7 | 3,8 | 11,3 | 44.493 | 42,7 | 12,4 | 36,7 |
| **Gizona** | 10.067 | 64,3 | 2,7 | 6,3 | 31.957 | 55,9 | 8,6 | 20,0 | 42.024 | 57,7 | 11,3 | 26,3 | 17.659 | 56,3 | 4,8 | 11,0 | 59.683 | 57,3 | 16,1 | 37,3 |

*(1) Beharra duten pertsonen ehunekoa, 18-44 urte arteko populazio osoarekiko*
*(2) Beharra duten pertsonen ehunekoa, guraso edo tutoreekin bizi diren 18-44 urte arteko populazio osoarekiko*

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

## 6. taula. Lehen etxebizitza eskuratzeko beharren eta eskaeraren kuantifikazioa diru-sarrera edo errenta propioak dituzten pertsonen adin- eta sexu-taldeen arabera, EAE. 2015

(Balio absolutuak eta ehunekoak pertsonen guztizkoaren eta beharra duten pertsonen gainean)

| | **Etxebizitza beharrean dauden eta diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsonak** | | **18-44 urte arteko populazioa** | | **Gurasoekin bizi dira** | | **Diru-sarrera edo errentak propioak dituzte** | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Kop.** | **Etxebiz. %** | **Kop.** | **Beharraren % / biztanleria** | **Kop.** | **Beharraren % / biztanleria** | **Kop.** | **Beharraren % / biztanleria** |
| **Guztizkoa** | **72.836** | **100,0** | **728.754** | **10,0** | **281.082** | **25,9** | **155.077** | **47,0** |
| **18-24 urte artean** | 8.692 | 11,9 | 124.434 | 7,0 | 111.390 | 7,8 | 26.598 | 32,7 |
| **25-34 urte artean** | 49.687 | 68,2 | 247.434 | 20,1 | 122.894 | 40,4 | 91.364 | 54,4 |
| **35-44 urte artean** | 14.456 | 19,8 | 356.886 | 4,1 | 46.797 | 30,9 | 37.115 | 38,9 |
| **Emakumea** | 30.812 | 42,3 | 358.010 | 8,6 | 121.148 | 25,4 | 63.606 | 48,4 |
| **Gizona** | 42.024 | 57,7 | 370.744 | 11,3 | 159.933 | 26,3 | 91.472 | 45,9 |

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Guraso edo tutoreekin bizi diren eta diru-sarrera edo errenta propioak dituzten 18 eta 44 urte arteko pertsonei dagokienez (155.077 guztira), etxe beharra eta diru-sarrerak dituzten 72.836 pertsonak guztizkoaren % 47,0 dira. Egoera horretan dauden 25-34 urte arteko pertsonen % 54,4k lehen etxebizitza eskuratzeko beharra aipatzen duten arren, proportzioa % 38,9ra jaisten da 35 eta 44 urte bitartekoen artean, eta % 32,7ra 18 eta 24 urte bitartekoen artean. 25-34 urte arteko pertsonak, izatez, diru-sarrerak eta lehen etxebizitza eskuratzeko premia duten biztanle guztien % 68,2 dira.

Generoaren faktoreari dagokionez, diru-sarrerak eta errenta propioak izanik gurasoekin edo tutoreekin bizi diren herritarren artean, 18 eta 44 urte arteko emakumeen artean emantzipatzeko premia handixeagoa hauteman da (% 48,4koa; gizonezkoen artean zifra % 45,9koa da). Hala ere, diru-sarrerak eta lehen etxebizitzaren premia duen populazioan, emakumeak kolektiboaren % 42,3 dira (30.812 pertsona), gainerako % 57,7 gizonei dagokie (42.024 pertsona). Antzeko egoera gertatzen da emantzipatzeko premia duten pertsona guztiak aintzat hartuz gero, diru-sarrerak izan zein ez (% 42,7 eta

% 57,3, hurrenez hurren). Lehen etxebizitza eskuratzeko premian gizonezko gehiago egotearen arrazoia da, 18-44 urte arteko biztanleen artean emakume emantzipatuen proportzioa handiagoa dela (% 66,2; gizonena, aldiz, % 56,9koa da).

Puntu honetan bereziki nabarmendu beharreko alderdi bat da, 2013. urtearekin alderatuta, diru-sarrerak dituzten 18 eta 44 urte arteko herritarren artean premia areagotu arren, egoera horri aurre egiteko behar beste diru-sarrera duela uste duen populazio taldea premian dagoen populazio osoaren (104.176 pertsona) % 15 baino ez dela. Izan ere, diru-sarrerak izan arren, prozesu horri aurre egiteko txikiegiak edo ezegonkorrak direla uste dutenena da talde nagusia (% 54,9); gainerako % 30,1ek ez du inolako diru-sarrerarik. Diru-sarrera prekarioak dituzten pertsonen barruan, diru-sarrera txikiegi eta ezegonkorrak dituzten pertsonak nabarmentzen dira (% 25,8), eta ondoren datoz diru-sarrera egonkorrak baina txikiegiak dituztenak (% 21,2). Gainerako % 7,9ak baditu behar beste diru-sarrera, baina ezegonkorrak denboran.

### 1. grafikoa. Gurasoekin edo tutoreekin bizi diren eta lehen etxebizitzaren premian dauden 18 eta 44 urte arteko pertsonen diru-sarrera maila, adin-tarteen arabera. 2015




*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Adin-taldeak aztertuz gero, deigarria da 18 eta 24 urte arteko taldean premia duten pertsona gehienek ez dutela inolako diru-sarrerarik (% 60,1); gainerako adin-taldeetan proportzio hori % 22 ingurukoa da (25 eta 34 urte artekoen taldean % 22,2, eta 35 eta 44 urte artekoen taldean % 21,8). Aitzitik, adinak gora egiten duen neurrian, behar beste diru-sarrera dituzten pertsonen ehunekoak ere gora egiten du. Egoera honek 18 eta 24 urte arteko taldearen % 6,4 ordezkatzen du, 25 eta 34 urte arteko taldearen % 15,3, eta 34 urtetik gorakoen kasuan, % 24,1eko maximoa harrapatzen du. Antzeko egoera gertatzen da diru-sarrera egonkorrak baina txikiegiak dituzten pertsonei dagokienez; horrela, gazteenen kasuan % 7,3koa da, tarteko adinekoen taldean % 24,8koa eta nagusienen kasuan % 25,2koa. Diru-sarreren tipologia hori da hedatuena 35 eta 44 urte artekoen artean (% 25,2); 25 eta 34 urte artekoen taldean, berriz, diru-sarrera txikiegi eta

ezegonkorrak dituztenen taldea da nagusi (% 28,3; ondoren, 18 eta 24 urtekoen artean % 22,9 eta 35 eta 44 urte artekoen artean % 20,4).

Zehaztu behar da, hala ere, 35 eta 44 urte arteko pertsonen artean, populazioaren gehiengoa dagoeneko emantzipatuta dagoela. Gurasoekin bizi diren 46.797 pertsonek adin-tarte horretako herritarren % 13,1 baino ez dute ordezkatzen; zifra horrek bost puntu baino gehiagotan egin du gora 2013. urtearekin alderatuta, orduan % 7,6 ordezkatzen baitzuen. 25 eta 34 urte arteko herritarren artean, ostera, proportzioa % 49,7koa da (2013ko % 49,8koaren antzekoa), eta herritar gazteagoen artean (18-24 urte) % 89,5era iritsi da, 2013ko zifra baino puntu portzentual bat gorago (% 88,3).

Orotara, gurasoekin edo tutoreekin bizi diren pertsonen taldearen barruan deigarria da 2015ean diru-sarrerarik ez daukaten pertsonen taldea, guztiaren % 42,6; horien artean lautatik batek esan du lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duela (% 11,1). Aztertutako populazio taldearen % 25,9k adierazi du lehen etxebizitza eskuratzeko premia duela eta badituela horretarako diru-sarrerak; hala ere, bostetik batek soilik uste du horri aurre egiteko behar beste diru-sarrera baduenik (% 5,6), gainerako % 20,3k ez du behar beste diru-sarrera edota emantzipazioa oztopatzen duten diru-sarrera ezegonkorrak ditu. Beste % 6,1ek emantzipazioa planteatu ere ez du egiten, behar beste diru-sarrera ez duelako edo diru-sarrera ezegonkorrak dituelako; gainerako % 11,8k adierazi du diru-sarrerak izan arren ez duela emantzipatzeko premiarik. Nabarmendu behar da, orobat, gurasoekin bizi diren 18 eta 44 urte arteko pertsonen % 7,8k etxebizitza bat duela, baina nahiago dutela gurasoen etxean bizi. Gainerako % 5,6 beste egoera batean daude, aurrez kontuan hartu gabeko beste batzuetan.

### 2. grafikoa. Guraso edo tutoreekin bizi diren 18 eta 44 urte arteko biztanleak, etxebizitza-beharrarekiko duten egoeraren arabera. 2015




*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Bilakaerari dagokionez, 2013 eta 2015 artean 18 eta 44 urte bitarteko pertsonen populazioak % 2,7 egin zuen behera; 2013an 749.081 pertsona ziren, eta 2015ean, berriz, 728.754. Bi urteko aldi berean, gurasoekin eta tutoreekin bizi diren pertsonen artean, ostera, % 5,2ko igoera antzeman da (267.256 pertsonatik 281.082 pertsonara). Talde horrek 18 eta 44 urte arteko pertsona guztien % 35,7 ordezkatzen zuen 2013an, eta % 38,6ra igaro da 2015ean. Aztertutako adin-taldean emantzipatutako pertsonen bolumena, aldiz, murriztu egin da, 481.825 pertsonatik 447.672 pertsonara.

Dinamika horrekin batera, diru-sarreraren bat eskura izateari lotutako etxebizitza premia egoeren hazkundea gertatu da. Hala, diru-sarrerak izan eta premia egoeran dauden pertsonen bolumenak % 11,5 egin du gora 2013 eta 2015 artean; erreferentziazko aldian 65.346 pertsonatik 72.836 pertsonara igaro da kopurua. 18 eta 44 urte arteko populazioaren barruan, lehen etxebizitza eskuratzeko premian dauden eta diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsonen ehunekoa % 24,5 izatetik (2013) % 25,9 izatera pasatu da (2015).

## 7. taula. Lehen etxebizitza eskuratzeko beharrarekiko egoera, EAE. 2010-2015

(Guraso edo tutoreekin bizi diren 18 eta 44 urte bitarteko pertsonen guztizkoaren gaineko ehunekoak eta pertsona kopurua)

| | 2010 | | 2011 | | 2013 | | 2015 | | Aldaketa 2013-2015 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % |
| **18-44 urte arteko pertsonen guztizkoa** | **775.705** | **100,0** | **776.012** | **100,0** | **749.081** | **100,0** | **728.754** | **100,0** | **-20.327** | **-2,7** |
| Pertsona emantzipatuak: | 472.972 | 61,0 | 492.827 | 63,5 | 481.825 | 64,3 | 447.672 | 61,4 | -34.153 | -7,1 |
| Emantzipatu gabeko pertsonak | 302.733 | 39,0 | 283.185 | 36,5 | 267.256 | 35,7 | 281.082 | 38,6 | 13.826 | 5,2 |
| **Oinarria: Emantzipatu gabeko pertsonak** | | | | | | | | | | |
| **Etxea eskuratzeko premia duten pertsonak** | **108.131** | **35,7** | **88.128** | **31,1** | **65.346** | **24,5** | **72.836** | **25,9** | **7.490** | **11,5** |
| . Behar beste diru-sarrera | - | - | - | - | - | - | 15.645 | 5,6 | - | - |
| . Diru sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak | - | - | - | - | - | - | 57.191 | 20,3 | - | - |
| **Diru-sarrerarik gabeko pertsonak** | **136.386** | **45,1** | **147.881** | **52,2** | **141.120** | **52,8** | **119.782** | **42,6** | **-21.338** | **-15,1** |
| . Etxea eskuratzeko premia duten pertsonak | - | - | - | - | - | - | 31.340 | 11,1 | - | - |
| . Etxea eskuratzeko premiarik ez dutenak | - | - | - | - | - | - | 88.442 | 31,5 | - | - |
| Ez du emantzipatzea planteatu. Diru-sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak | 9.355 | 3,1 | 14.446 | 5,1 | 27.287 | 10,2 | 17.154 | 6,1 | -10.133 | -37,1 |
| Etxebizitza du jada | 23.667 | 7,8 | 21.934 | 7,7 | 9.206 | 3,4 | 21.970 | 7,8 | 12.764 | 138,6 |
| Beharrik ez. Diru-sarrera batzuk | 22.833 | 7,5 | 7.815 | 2,8 | 14.100 | 5,3 | 33.243 | 11,8 | 19.143 | 135,8 |
| Beste egoera batzuk | 2.361 | 0,8 | 2.981 | 1,1 | 10.197 | 3,8 | 16.097 | 5,7 | 5.900 | 57,9 |

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Bestalde, % 15,1 egin du behera diru-sarrerarik ez duten pertsonen bolumenak, eta 2013an 141.120 pertsona izatetik 2015ean 119.782 izatera igaro dira. Beherakada nagusia emantzipazioa planteatzen ez duten pertsonei dagokie, behar beste diru-sarrerarik ez dutelako edo diru-sarrera ezegonkorrak dituztelako (-10.133 kasu, -% 37,1 termino erlatiboetan). Aitzitik, handitu egin da nabarmen 2015ean, beren etxebizitza propioa eduki arren familiaren etxebizitzan bizi diren pertsonen kolektiboa, 2011koen antzeko mailetara itzulirik. 2015ean egoera horretan dauden 21.970 pertsonak (% 7,8) 2013. urteko 9.206 pertsonen kopuruaren bikoitza baino gehiago da (% 3,4), eta 2011. urteko 21.934 pertsonen kopurutik oso hurbil dago (% 7,7).

2010 eta 2011 artean beheraldi handia jasan ondoren (22.833 kasutatik 7.815era), urte horretatik aurrera era deigarrian eta jarraituan hazi da diru-sarrerak dituzten baina etxea eskuratu beharrik ez duten pertsonen zenbatekoa. 2015ean, 33.243 dira guztira, hau da, gurasoekin edo tutoreekin bizi den 18 eta 44 urte bitarteko populazioaren % 11,8.

### 3. grafikoa. Guraso edo tutoreekin bizi diren 18 eta 44 urte arteko biztanleak, etxebizitza-beharrarekiko duten egoeraren arabera. EAE 2010-2015

Oinarria: Gurasoekin edo tutoreekin bizi den 18-44 urte arteko populazioa




*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

18-44 urte arteko populazioaren % 61,4 beren guraso eta tutoreetatik emantzipatuta dago gaur egun, nahiz eta proportzio hori oso lotuta dagoen populazioaren adinarekin. 35 eta 44 urte bitarteko adin-tartean hamar pertsonatik zortzi baino gehiago emantzipatuta daude (% 86,9), baina ehuneko horrek % 50,3raino egiten du behera 25 eta 34 urte artekoen kasuan eta % 10,5eraino, 18 eta 24 urte artekoetan.

Bestalde, 18 eta 24 urte bitarteko taldean, nabarmentzekoa da berezko errentarik ez duten pertsonen proportzio handia, gaur egun prestakuntza akademikoa jasotzen ari diren pertsona gehiago baitaude. Adin-tarte horren barruan, populazioaren % 65,6k ez dute errenta propiorik (horien barruan, % 10,5ek adierazi dute etxebizitza premian daudela, errenta propiorik ez eduki arren). Ehuneko hori % 11,7ra murriztu da (% 5,7 emantzipatzeko beharrarekin) 25 eta 34 urte arteko pertsonen artean, eta % 2,5era (% 1,1 lehen etxebizitzaren premian), 35-44 urtekoen taldean.

Tarteko adin-tartean (25 eta 34 urte bitartekoak), nabarmentzekoa da biztanleen % 20,1ek errenta propioak dituela eta lehen etxebizitza eskuratzeko beharra adierazten duela, eta % 5,7k emantzipazio beharra aitortzen duela, nahiz eta errenta propiorik ez izan independizatzea planteatu ahal izateko.

18 eta 24 urte bitarteko taldean, % 7ra murriztu da lehen etxebizitza eskuratzeko beharra eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak adierazten dituzten biztanleen pisua. Aitzitik, handiagoa da diru-sarrerarik ez izan arren, beren kabuz bizitzeko premia dutela adierazi duten pertsonen ehunekoa (% 10,5).

Adin handiagoko tartean (35 eta 44 bitartean), biztanleria-talde horiek askoz murritzagoak dira: % 4,1 dira, diru-sarrerak edo errenta propioak izanik, lehen etxebizitza eskuratzeko premia adierazten dutenak; eta % 1,1 diru-sarrerarik ez izan arren premia horretan daudenak.

**4. grafikoa. 18 eta 44 urte arteko biztanleak, lehen etxebizitza eskuratzeko beharraren arabera banatuta, adina kontuan hartuta. EAE 2015**




*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Guraso edo tutoreekin bizi diren 18 eta 44 urte bitarteko biztanleengan zentratzen bagara, ikus daiteke lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta, gainera, horri aurre egiteko diru-sarrerak dituzten biztanleak nagusitzen direla 25 eta 34 urte bitarteko adin-taldean (% 40,4); baita, neurri txikiagoan izan arren, 35-44 urte arteko taldean ere: % 30,9. Aldiz, hirugarren aukera da 18 eta 24 urte bitarteko taldean, adin horietako populazioaren % 7,8ra baizik ez baita heltzen.

18-24 urte arteko adin-talde horri dagokionez, errenta propiorik gabeko pertsonena da kategoria nagusia, % 73,3 ordezkatzen baitute; horietatik % 61,5 dira emantzipazio beharrik ez dutela adierazten dutenak eta % 11,8 diru-sarrera edo errenta propiorik izan ez arren, etxebizitza premia dutenak. 25-34 urte arteko pertsonen artean, diru-sarrerarik gabeko taldea % 23,6 dira, horietatik % 11,5ek etxebizitza eskuratzeko premia adierazi dute eta gainerako % 12,1ek ez dutela premiarik. Proportzioa % 19,3ra murriztu da 35-

44 urte arteko taldean; horietatik % 8,6k etxebizitza premia adierazi dute eta % 10,7k ez.

Bestalde, esanguratsua da etxebizitza badutela dioten, baina, era berean, gurasoekin edo tutoreekin bizitzen jarraitzen duten pertsonen proportzioa (% 7,8, oro har), bereziki adin handieneko taldeen artean. 35-44 urte arteko kolektiboan hauteman da ehuneko altuena (% 13,3), hau da, 25 eta 34 urte arteko taldean jasotako % 9,4ren gainetik. 18 eta 24 urte arteko pertsonen taldean, ostera, egoera horretan % 3,8 baizik ez dago.

### 5. grafikoa. Guraso edo tutoreekin bizi diren 18 eta 44 urte arteko biztanleak etxebizitza eskuratzeko beharraren arabera, adina kontuan hartuta. EAE 2015

Oinarria: Gurasoekin edo tutoreekin bizi den 18-44 urte arteko populazioa




*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Emantzipaziorako joera handiagoa hauteman da 18-44 urte arteko emakumezkoen artean (% 66,2) adin bereko gizonezkoen artean baino (% 56,9).

Jatorrizko familiarekin bizitzen jarraitzen duten pertsonen artean, apur bat apalagoa da lehen etxebizitza eskuratzeko premia emakumeen artean, gizonen artean baino. Aztertutako emakumezkoen % 25,4 daude aipatutako egoera horretan, eta gizonezkoen kasuan, berriz, % 26,3 dira. Gurasoekin edo tutoreekin bizi diren pertsonen talde horretan, elkarren hurbil daude diru-sarrera propiorik ez izan arren etxebizitza eskuratzeko premia adierazten dutenen proportzioak, kasu honetan emakumeen artean zertxobait handiagoa (% 11,3) gizonen artean baino (% 11). Jada etxebizitza baten jabe diren pertsonei dagokienez, % 7,8 dira, hala emakumeen nola gizonen artean.

**6. grafikoa. 18 eta 44 urte arteko biztanleak, lehen etxebizitza eskuratzeko beharraren arabera banatuta, sexua kontuan hartuta. EAE 2015**




*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Aitzitik, diru-sarrerarik ez duten eta etxebizitza premiarik ere ez duten pertsonen pisu erlatiboa handiagoa da emakumeen taldean (% 34,7) gizonenean baino (% 29). Kontrako norabidean, diru-sarrerarik ez izan arren, emantzipazio premiarik ez dutela adierazten duten gizonen multzoa handiagoa da (% 13,7) emakumeena baino (% 9,4).

**7. grafikoa. Guraso edo tutoreekin bizi diren 18-44 urte arteko biztanleak, etxebizitza-beharrarekiko duten egoeraren eta sexuaren arabera, EAE. 2015**

Oinarria: Gurasoekin edo tutoreekin bizi den 18-44 urte arteko populazioa




*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Azterketa lurraldeka egiten badugu, ikus daiteke Arabako 18 eta 44 urte arteko biztanleria dela neurri handienean emantzipatuta dagoena. Talde horretakoak 18-44 urte arteko pertsona guztien % 67,3 baitira, hau da, Gipuzkoan 4,5 puntu gehiago gutxi gorabehera (% 62,8) eta Bizkaian 8,4 puntu gehiago gutxi gorabehera (% 58,9). Inguruabar horren eraginez, Araban daude beste egoera batean dauden pertsona gutxien (% 6,7) eta, lurralde hori da, errenta propioak izanik, lehen bizitzaren premian dauden pertsona gutxien dituena (18-44 urte arteko populazioaren % 8; aldiz, % 9,9 Gipuzkoan eta % 10,6 Bizkaian).

Bizkaiaren egoera konparazioz okerragoa beste alderdi batzuetan ere hautematen da. Bizkaian 18 eta 44 urte arteko pertsonen % 17,3 ez dago emantzipatuta eta ez du diru-sarrerarik (% 4,7k adierazi dute etxebizitza premian daudela, diru-sarrerarik ez izan arren). Gipuzkoan, diru-sarrerarik ez duen emantzipatu gabeko populazioa % 15,2 da (% 3,7k etxe beharra adierazten dute, sarrerarik ez izan arren). Araba bien tartean dago adierazle honi dagokionez, populazioaren % 16,1 baita diru-sarrerarik ez duena eta emantzipatu gabe dagoena (% 4,3, lehen etxebizitza eskuratzeko premiarekin).

**8. grafikoa. 18 eta 44 urte bitarteko biztanleak, lehen etxebizitza eskuratzeko beharrarekiko, lurralde historikoaren arabera. EAE 2015**




*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Guraso edo tutoreekin bizi diren 18 eta 44 urte bitarteko pertsonen kasuan, lurraldeen arteko diferentziak esanguratsuak dira. Horrela, lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta diru-sarrerak edo errentak dituzten pertsonen ehunekoari dagokionez, aldaketa arinak hautematen dira Gipuzkoan hautemandako % 26,7ren eta Arabako % 24,4ren artean. Bizkaia tartean dago % 25,8ko zifrarekin.

Emantzipatu gabeko talde horretako beste elementu diferentzial nabarmen bat, diru-sarrerarik izan gabe, etxea eskuratzeko beharra duten biztanleen pisu erlatiboarekin

lotzen da. Zifra hori guztizkoaren % 13,3ra iristen da Araban, ondotxoz proportzio handiagoa Bizkaiko % 11,4 eta Gipuzkoako % 9,8 baino.

Ez diru-sarrerarik eta ez etxebizitza premiarik ez duten pertsonen taldearen pisua ere handiagoa da Araban, 18 eta 44 urte arteko emantzipatu gabeko pertsonen % 36 baitaude egoera horretan. Proportzio hori nabarmen apalagoa da Gipuzkoan eta Bizkaian, % 31 eta % 30,7, hurrenez hurren.

### 9. grafikoa. Guraso edo tutoreekin bizi diren 18 eta 44 urte arteko biztanleak etxe beharrarekiko egoeraren eta lurralde historikoaren arabera. EAE 2015

Oinarria: Gurasoekin edo tutoreekin bizi den 18-44 urte arteko populazioa




*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

### 8. taula. Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18 eta 44 urte bitarteko biztanleen banaketa, lurralde historikoaren arabera, EAE. 2015

(Balio absolutuak eta ehunekoak pertsonen guztizkoaren eta beharra duten pertsonen gainean)

| | Etxebizitza premia duten pertsonak (diru-sarrerak dituztenak) | | Etxebizitza premia duten pertsonak guztira | | 18-44 urte arteko populazioa | | | Gurasoekin bizi dira | | | Diru-sarrera edo errentak propioak dituzte | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kop. | Etxebiz. % | Kop. | Etxe biz. % | Kop. | Fam. % (1) | Fam. % (2) | Kop. | Fam. % (1) | Fam. % (2) | Kop. | Fam. % (1) |
| **Guztizkoa** | **72.836** | **100,0** | **104.176** | **100,0** | **728.754** | **10,0** | **14,3** | **281.082** | **25,9** | **37,1** | **155.077** | **47,0** |
| Araba | 8.980 | 12,3 | 13.858 | 13,3 | 112.493 | 8,0 | 12,3 | 36.784 | 24,4 | 37,7 | 18.282 | 49,1 |
| Gipuzkoa | 23.484 | 32,2 | 32.144 | 30,9 | 236.170 | 9,9 | 13,6 | 87.953 | 26,7 | 36,5 | 51.187 | 45,9 |
| Bizkaia | 40.372 | 55,4 | 58.173 | 55,8 | 380.091 | 10,6 | 15,3 | 156.345 | 25,8 | 37,2 | 85.609 | 47,2 |

*(1) Etxebizitza beharrean dauden eta diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsonak*
*(2) Etxebizitza beharrean dauden pertsonak, diru-sarrerak dituzten edo ez kontuan hartu gabe*

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Diru-sarrerak izanik, etxebizitza premiarik ez dutela adierazten duten populazio zatia Gipuzkoan guraso edo tutoreekin bizi diren 18 eta 44 urte arteko pertsonen % 15,8 dira. Proportzioa nabarmen apalagoa da gainerako lurraldeetan: % 10,3 Bizkaian eta % 8,8 Araban.

Alde handiak ikusten dira, etxebizitza baten jabe izan arren, gurasoekin edo tutoreekin bizitzen jarraitzen duten biztanleetan ere. % 10,6 daude egoera horretan Bizkaian, % 5,9 Araban eta % 3,7 baizik ez Gipuzkoan.

### 2.1.2. Etxebizitza premiaren kuantifikazioa guztira

Txostenaren aurreko atalean aipatu den bezala, 18 eta 44 urte arteko 104.176 pertsonak etxebizitza eskuratzeko beharra adierazi dute 2015ean. Hala ere, horietatik 72.836 pertsona baizik ez dira, aldi berean, prozesuari aurre egiteko behar diren baliabideak dituztenak.

EBEIk etxebizitza eskuratzeko modua, banaka edo bikotean, aztertzen du, etxebizitza lehen aldiz eskuratzea bermatzeko beharrezkoak diren etxebizitzak zenbatesteko. Zifra hori, 2015ean, 91.693 etxebizitzatakoa da, EAE osorako, beharrean dagoen populazio guztia kontuan hartzen bada, edota 64.290 etxebizitzatakoa, diru-sarrerak dituzten pertsonak soilik hartzen badira kontuan. Azken zifra horrek esan nahi du % 8,4ko hazkundea egon dela 2013arekin alderatuta, urte hartan 59.318 etxebizitza eskatu baitziren guztira, EAE osoa kontuan hartuta.

Diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsonek eskatutako 64.290 etxebizitzak honela banatzen dira: 13.338 etxebizitza emantzipazio prozesuari aurre egiteko behar beste diru-sarrera dutela esan duten pertsonei dagozkie, eta 50.951 etxebizitza, berriz, diru-sarrerak izan arren diru-sarrera txikiegiak edo ezegonkorrak dituzten pertsonei.

Herritar multzo horretaz gainera, 31.340 pertsonak ez dute diru-sarrera propiorik, baina etxebizitzaren premia dutela adierazi dute. Eskaera horri erantzun ahal izateko 27.404 etxebizitza gehiago beharko lirateke eta, hau da, 91.693 etxebizitzako eskaera globala, guztira.

**9. taula. Lehen etxebizitza eskuratzeko premiaren kuantifikazioa diru-sarrera edo errenta propio erabilgarrien arabera. EAE 2015**

(Balio absolutuak eta ehunekoak, familien eta pertsonen guztizkoaren gainean)

| | **Diru-sarrera edo errenta propioren bat dutenak** | | | Diru-sarrerarik gabe | **Beharra dutenen guztizkoa** |
|---|---|---|---|---|---|
| | Behar beste diru-sarrera | Diru sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak | **Diru-sarrerak dituztenen guztizkoa** | | |
| **Behar diren etxebizitzak** | | | | | |
| **Kop.** | 13.338 | 50.951 | **64.290** | 27.404 | **91.693** |
| **%** | 14,5 | 55,6 | **70,1** | 29,9 | **100,0** |
| **Beharra duten pertsonak** | | | | | |
| **Kop.** | 15.645 | 57.191 | **72.836** | 31.340 | **104.176** |
| **%** | 15,0 | 54,9 | **69,9** | 30,1 | **100,0** |

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

### 2.1.3. Beharraren eta eskaeraren kuantifikazioa, diru-sarrera edo errenta propioekin

EAE osoa kontuan hartuta, eta diru-sarrerak dituzten pertsonei dagokienez, hautemandako joera da gorakada nabarmena egon dela lehen etxebizitzari loturiko beharrean. Dauden familia-etxebizitzen bolumenari dagokionez, 2015ean eskatutako % 7,4 etxebizitzako zifra nabarmen urruntzen da 2013an eskatutako % 6,8tik. Hala ere, eskaera oraindik, argi eta garbi, 2008 eta 2011 urteetako % 9aren azpitik mantentzen da. Distantzia are handiagoa da 2007 eta 2010eko zifretatik (% 10,4 eta 11,7) eta 2009ko % 13 baino gehiagotik (% 13,2).

Nahiz eta ez den parte hartzen duen faktore bakarra, krisi ekonomikoak lehen etxebizitza eskuratzeko beharrean duen eragina erabakigarria izan da. Hala, 2008 eta 2009 bitartean hautemandako % 9tik % 13,2rako gorakadaren ostean, krisiak etxe premiaren adierazlea etengabe jaistea eragin du; 2010ean % 11,7koa izan zen, 2011n % 9koa, 2013an % 6,8koa eta 2015era arte itxaron behar izan da berriro igoera txiki bat erregistratzeko (% 7,4).

Nolanahi ere, 2013 eta 2015 artean hauteman den lehenengo etxebizitza eskuratzeko premiaren igoerari dagokionez esan behar da ez dela zabaldu urtebeteko eskaerara. Horrela, lehen etxebizitza eskuratuko luketen diru-sarrera edo errenta propioak dituzten pertsonek osatutako 64.290 etxebizitza berri potentzialetatik, % 2,7k soilik aurreikusten du hurrengo urtean etxebizitza eskuratzeari aurre egin ahal izatea; 2013ko % 9,9tik edo 2011ko % 6,3ren oso azpitik. Termino absolutuetan, eskaera 2013ko 5.843 etxebizitzatik, 2015eko 1.745 etxebizitzara jaitsiko litzateke (% 70,1eko beherakada erlatiboa). Zifra hori nabarmen urruntzen da 2009an eta 2010ean eskatzen ziren 20.000 etxebizitzetatik, 12 hilabeteko epean etxebizitzarako sarbide ikuspegia zeukaten pertsonen proportzioa bi urteetan % 21 ingurukoa zenean.

Hurrengo bi edo lau urteetan lehenengo etxebizitza izateko sarbideari dagokionez, bestalde, 2015. urtean prozesu horri aurre egiteko gaitasuna izan eta beharrizana daukaten pertsonen proportzioa nabarmen areagotu zen aurreko urteekin alderatuta. Horrek adierazten du etxebizitzen sarbide erabakiak atzeratu egin direla, baina baita eskaera nolabait berreskuratu egin dela ere.

Bi urteko epean etxebizitzara sarbidea izateko ikuspegiari dagokionez, lehenengo etxebizitzen eskaerak behera egin du etengabe 2013. urtera arte. Hala, 2009ko 42.215 etxebizitzatatik 2010eko 35.843, 2011ko 25.535 eta 2013ko 21.111ra igaro da. 2015ean dinamika hori hautsi egin da eta bi urteko eskaera 29.356 etxebizitzatara heldu arte igo da, behar diren etxebizitzen % 45,7. 8.245 etxebizitzako igoera horrek esan nahi du, 2013 eta 2015 artean, termino erlatiboetan % 39,1eko gorakada izan dela. 2010ean hautemandako bi urteko eskaeraren oso azpitik dagoen arren (35.843 etxebizitza), 2011 eta 2013ko mailak aise gainditu dira; baita 2007 eta 2008koak ere.

Lau urtera etxebizitza eskuratzeari dagokionez, eskaerak beherakada nabarmena izan arren 2011ko 45.288 etxebizitzatara eta 2013ko 33.954ra arte, 2015ean hautsi egin da joera negatiboa. Eskaerak 42.233 etxebizitzatara arte egin du gora; zifra horrek, 2013ko datuekin alderatuta % 24,4ko igoera adierazten du, eta 2011 eta 2007ko mailetara hurbiltzen da.

Epe ertain eta luzeko perspektiban, beraz, 2015ak EAEn lehen etxebizitza eskuratzeko eskaeraren errekuperazio fase bat islatzen du. Lau urteko epeari dagokionez, zifrak 2011ko mailetara soilik hurbiltzen diren arren, 2011 eta 2013ko zifrak gainditzen dituzte bi urterako eskaeran. Arlo honetan, egoera ez da asko urruntzen 2007-2008 inguruan hautemandako datuetatik. Hala ere, erantsi behar da urtebeteko eskaera oso txikia da, hain zuzen ere, EBEI egiten denetik apalena.

## 10. grafikoa. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonen lehenengo etxebizitza eskuratzeko premien bilakaera. EAE 2007-2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsonen balio absolutuak)




* 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharrei eta Eskaerari buruzko Inkesta 2007-2015.

## 10. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonen lehenengo etxebizitzarako sarbide eskaera eta beharrizanen kuantifikazioa EAE. 2007-2015

(Balio absolutuak eta ehunekoak, familien guztizkoaren gainean. Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsonak hartu dira kontuan)

| | 2007 | | 2008 | | 2009 | | 2010 | | 2011 | | 2013 | | 2015 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | % | Etxebiz. Kop. | % | Etxebiz. Kop. | % | Etxebiz. Kop. | % | Etxebiz. Kop. | % | Etxebiz. Kop. | % | Etxebiz. Kop. | % | Etxebiz. Kop. |
| **Beharrizana (*)** | **10,4** | **82.891** | **9,0** | **74.461** | **13,2** | **110.677** | **11,7** | **97.800** | **9,0** | **76.360** | **6,8** | **59.318** | **7,4** | **64.290** |
| Eskaera, 4 urtera (**) | 54,4 | 45.073 | 68,4 | 50.954 | 51,6 | 57.091 | 64,7 | 63.254 | 59,3 | 45.288 | 57,2 | 33.954 | 65,7 | 42.233 |
| Eskaera, 2 urtera (**) | 26,2 | 21.708 | 32,7 | 24.378 | 38,1 | 42.215 | 36,6 | 35.843 | 33,4 | 25.535 | 35,6 | 21.111 | 45,7 | 29.356 |
| Eskaera, urtebetera (**) | 18,5 | 15.298 | 20,9 | 15.547 | 20,5 | 22.648 | 21,2 | 20.746 | 6,3 | 4.786 | 9,9 | 5.843 | 2,7 | 1.745 |

*(*) etxe guztien %;*
*(**) beharra duten familien %*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

## 11. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonen lehenengo etxebizitzarako sarbide-eskaeraren eta premien aldaketa, EAE. 2007-2015 eta 2013-2015

(Balio absolutuak eta ehunekoak, familien guztizkoaren gainean. Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsonak hartu dira kontuan)

| | | | | | | | 2007-2015 aldakuntza | | | | 2013-2015 aldakuntza | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2007 | | 2013 | | 2015 | | Absolutuak | | % | | Absolutuak | | % | |
| | % | Etxebiz. Kop. | % | Etxebiz. Kop. | % | Etxebiz. Kop. | % | Etxebiz. Kop. | % | Etxebiz. Kop. | % | Etxebiz. Kop. | % | Etxebiz. Kop. |
| **Beharrizana (*)** | **10,4** | **82.891** | **6,8** | **59.318** | **7,4** | **64.290** | **-2,9** | **-18.602** | **-28,2** | **-22,4** | **0,6** | **4.972** | **9,5** | **8,4** |
| Eskaera, 4 urtera (**) | 54,4 | 45.073 | 57,2 | 33.954 | 65,7 | 42.233 | 11,3 | -2.840 | 20,8 | -6,3 | 8,4 | 8.278 | 14,8 | 24,4 |
| Eskaera, 2 urtera (**) | 26,2 | 21.708 | 35,6 | 21.111 | 45,7 | 29.356 | 19,5 | 7.648 | 74,4 | 35,2 | 10,1 | 8.245 | 28,3 | 39,1 |
| Eskaera, urtebetera (**) | 18,5 | 15.298 | 9,9 | 5.843 | 2,7 | 1.745 | -15,7 | -13.553 | -85,3 | -88,6 | -7,1 | -4.098 | -72,4 | -70,1 |

*(*) etxe guztien %;*
*(**) beharra duten familien %*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Epe luzeko bilakaeraren ikuspegitik, 2015eko datu garrantzitsuena da hautsi egin dela 2009 (% 13,2ko maximoa) eta 2013 (% 6,8) artean hautemandako etxebizitza premian zeuden familien beheranzko indizea, izan ere, 2015ean, igo egin baita apur bat 2013ko zifratik % 7,4 iritsi arte. Horrela, 2013arekin alderatuta (59.318 etxebizitza), % 8,4ko hazkundea erregistratu da eskatutako etxebizitzen guztizko kopuruan.

Hala eta guztiz ere, ekonomia-hedapeneko aldiaren azkenarekin alderatzen badugu, beharrizana % 22,4 murriztu da 2015ean, konparazioa 2007arekin egiten badugu (82.891 etxebizitza). 2013 eta 2015 artean 0,6 puntu portzentualeko igoera izan den arren, 2009tik 2015era 5,8 puntu portzentualeko erorketa erregistratu da etxea eskuratzeko premiaren indizean.

## 11. grafikoa. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonen lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharrizan-indizearen bilakaera, EAE, 1996-2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)




** 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Oso epe luzeko perspektibatik ikusita, 2015eko etxea eskuratzeko beharrizan-indizea maila konparatiboki murritzetan kokatzen da. 1998-2000 aldian erregistratutako balioen antzekoak lortu baditu ere, kontuan izan 1996 eta 1998 artean erregistraturiko zifrak eta 2013an jasotakoa soilik gainditzen dituela. 2015eko % 7,4 horrek, beraz, 2005-2015 aldiko ehuneko txikienetako bat izaten jarraitzen du eta urruti geratzen da 2005 eta 2011 artean erregistratutako % 9 edo hortik gorako zifretatik.

Lurraldeen ikuspegitik, 2013 eta 2015 artean diru-sarrerak dituzten pertsonengan hauteman den lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharrizanaren hazkundea Bizkaia eta Arabarekin lotzen da. Bizkaian, 18-44 urte arteko biztanleek 34.949 etxebizitza behar zituzten 2015ean, 2013an baino 5.004 gehiago (% 16,7ko gorakada). Lurralde horretan, lehen etxebizitza eskuratzeko eskaera etxebizitza nagusien guztizkoaren % 7,8koa da; zifra horrek, hala ere, 2005-2015 aldia hartzen badugu, 2013an erregistratutako % 6,5eko zifra soilik gainditzen du. 2008ko % 8,8tik urruti ez badago ere, 2015ean hautemandako beharrizana, argi eta garbi, Bizkaian 2011ra arte hautemandako % 10etik gorako zifren azpitik geratzen da, 2008a salbuetsita.

Diru-sarrera edo errenta propioak zituzten 18 eta 44 urte arteko Arabako biztanleek lehen etxebizitza gehiago eskatu zituzten 2013an baino; hala, 6.666 etxebizitza behar zituzten 2013an, baina 8.362 2015ean, % 25,4ko igoera (1.696 etxebizitza gehiago). Kasu horretan, lehen etxebizitza eskuratzeko eskatzen direnak lurraldeko etxebizitza nagusien guztizkoaren % 6,3 dira. 2005 eta 2015 artean, zifra horrek 2013an erregistratutako % 5,0koa baino ez du gainditu nahiz eta 2011ko % 6,6ra ere hurbiltzen den. Adierazlea, nolanahi ere, 2008-2009 edizioetako % 9,2-9,3 arteko zifratik urrun dago.

Araban eta Bizkaian ez bezala, Gipuzkoako 18 eta 44 urte bitarteko biztanleen artean lehen etxebizitza eskuratzeko beharrak behera egin du. Behar hori 22.707 etxebizitzakoa izatetik 20.979 etxebizitzakoa izatera pasa da 2013 eta 2015 artean, alegia, % 7,6ko beherakada egon da. Lurralde horretan, lehen aldiz eskuratzeko behar diren etxebizitzak existitzen diren etxebizitza nagusien % 7,5 dira, alegia, beherakada 2013ko % 8,1 eta 2011ko % 7,8rekin alderatuta. 2015ean erregistratutako zifra (% 7,5), hala, 2005-2015 aldiko apalena da.

### 12. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonen etxebizitza eskuratzeko beharrizanaren kuantifikazioa, lurralde historikoen arabera. EAE 2005-2015

(Balio absolutuak eta ehunekoak, familien guztizkoaren gainean. Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsonak hartu dira kontuan)

| | EAE | | Araba | | Bizkaia | | Gipuzkoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kop. | Familia guztien gaineko % | Kop. | Familia guztien gaineko % | Kop. | Familia guztien gaineko % | Kop. | Familia guztien gaineko % |
| 2005 | 90.815 | 11,7 | 13.217 | 12,1 | 49.348 | 11,8 | 28.290 | 11,4 |
| 2006 | 92.788 | 11,8 | 13.156 | 11,8 | 48.613 | 11,5 | 31.019 | 12,3 |
| 2007 | 82.891 | 10,4 | 12.424 | 10,9 | 46.299 | 10,8 | 24.167 | 9,4 |
| 2008 | 74.461 | 9,0 | 10.992 | 9,2 | 39.052 | 8,8 | 24.417 | 9,2 |
| 2009 | 110.677 | 13,2 | 11.476 | 9,3 | 66.418 | 14,8 | 32.783 | 12,2 |
| 2010 | 97.800 | 11,7 | 15.246 | 12,3 | 54.157 | 12,1 | 28.397 | 10,6 |
| 2011 | 76.360 | 9,0 | 8.306 | 6,6 | 46.808 | 10,4 | 21.246 | 7,8 |
| 2013 | 59.318 | 6,8 | 6.666 | 5,0 | 29.945 | 6,5 | 22.707 | 8,1 |
| **2015** | **64.290** | **7,4** | **8.362** | **6,3** | **34.949** | **7,8** | **20.979** | **7,5** |

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

## 12. grafikoa. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonen etxebizitza eskuratzeko beharrizana urtearen eta lurralde historikoaren arabera. 18-44 urte arteko pertsonak. 2005-2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko)




*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

## 13. grafikoa. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonen etxebizitza eskuratzeko beharrizana, urtearen eta lurralde historikoen arabera. 18-44 urte arteko pertsonak. 2005-2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko)




*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

## 2.2. Diru-sarrera edo errenta propioak izanik beharra duten pertsonen ezaugarriak

Jarraian, lehen etxebizitza eskuratzeko beharra adierazten duten eta lehen emantzipazio horretarako lehen urratsa emateko baliabideak dituzten pertsonen ezaugarriak zehaztea ahalbidetzen duten emaitza nagusiak aurkeztuko ditugu.

### 2.2.1. Ezaugarri sozio-demografikoak

Azterketaren xede diren pertsonetara etorrita (18-44 urte artekoak, diru-sarrera edo errenta propioak dituztenak) lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen batez besteko adina 30,3 urtekoa izan da 2015ean, 2013ko 28,8 urte baino handiagoa.

2013ra arte, lehen etxebizitza eskatu eta diru sarrera propioak zituzten pertsonen kolektiboaren batez besteko adina ez zen ia aldatu azken 15 urteetan, izan ere, 27 urte (1997) eta 29,1 urte (2007) bitartean mugitu baitzen. 2015ean, ordea, gorakada garrantzitsua izan da, 30,3 urte iritsi arte, hau da, 1997tik hona erregistratu den zifra handiena. 2015era arte, zifra maximoa 2007an erregistratu zen, 29,1 urtekoa iritsi zenean.

2015eko gorakada indartsuak, nolanahi ere, aurreko hamarraldiaren erdialdetik hona jada nabarmentzen hasita zegoen populazio eskatzailearen adinaren hazkunde prozesu bati erantzuten dio. Horrela, 1997 eta 2006 artean, esandako adina 27 eta 28 urteen artean mantendu ondoren, 2007 eta 2013 artean –2009ko 27,8 urteko salbuespen bakarrarekin– kolektibo eskatzailearen batez besteko adina 28,5 eta 29,1 urteen artean kokatu zen. Datuek erakusten dute, hortaz, bistakoa dela Euskadin lehen etxebizitza eskatzen duten pertsonen adinaren epe luzeko hazteko joera.

**14. grafikoa. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izanik, lehen etxebizitza eskuratzeko premia duten pertsonen batez besteko adinaren bilakaera 1997-2015**

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko)




* 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharrei eta Eskaerari buruzko Inkesta 1999-2015.

Bestalde, batez besteko adinaren bereizketa bat hauteman da, etxebizitza-eskaera motaren arabera, alegia, banaka edo bikotean. Horrela, 2015ean diru-sarrera propioak eta etxebizitza premia zuen populazioaren batez besteko adina 30,9 urtekoa izan da, etxebizitza banaka eskuratu nahi duten pertsonak direnean. Adin txikiagoa dute, ostera, etxebizitza bikotean eskuratzea aurreikusten duten pertsonek (29,6 urte). Deigarria da ikustea, bi kasuetan, eskatzaileen adina handiagoa dela behar beste diru-sarrera dituztenean (% 33,4 eta % 30,4, hurrenez hurren).

Lurralde historikoei dagokienez, Bizkaiak erkidegoko batez bestekoa baino zifra zertxobait handiagoak ditu, 30,8 urte diru-sarrerak dituzten pertsona guztiak kontuan hartuta, eta horren hurbileko zifra, 31,2 urte, etxebizitza premiari aurre egiteko behar beste diru-sarrera dituztenen kasuan. Araba EAEko zifretatik hurbilekoetan kokatzen da, 30,4 urte, nolabaiteko sarreraren bat edo errenta propioak dituen populazioaren artean, baina batez besteko adina apalagoa da, 30,1 urte, behar beste diru-sarrera dituztenen kasuan. Bestalde, Gipuzkoa da etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen batez besteko adin txikiena duen lurraldea, 29,2 urte, beren errenta propioak dituztenen artean. Aldi berean, ordea, eskatzaileen batez besteko adin altuena ere badu, 32,5 urte, behar beste diru-sarrera dituzten pertsonen artean.

### 13. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonen etxebizitza eskuratzeko beharrizanaren kuantifikazioa, lurralde historikoen arabera. EAE 2015

(Beharra duten pertsonen batez besteko balioak)

| | | EAE | Lurralde historikoa | | | Eskuratze mota | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia | Banaka eskuratzea | Bikotean eskuratzea |
| **Pertsona kopurua** | **Diru-sarrerak dituztenen guztizkoa** | **72.836** | **8.980** | **23.484** | **40.372** | **36.310** | **36.526** |
| | . Behar beste diru-sarrera | 15.645 | 2.776 | 4.090 | 8.779 | 4.856 | 10.789 |
| | . Diru sarrera gutxiegi/ezegonkorrak | 57.191 | 6.204 | 19.394 | 31.593 | 31.454 | 25.737 |
| **Batez besteko adina** | **Diru-sarrerak dituztenen guztizkoa** | **30,3** | **30,4** | **29,2** | **30,8** | **30,9** | **29,6** |
| | . Behar beste diru-sarrera | 31,4 | 30,1 | 32,5 | 31,2 | 33,4 | 30,4 |
| | . Diru sarrera gutxiegi/ezegonkorrak | 30,0 | 30,6 | 28,6 | 30,7 | 30,5 | 29,3 |

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Diru-sarrera edo errenta propioak izanik lehen etxebizitzaren eskatzaileen adinaren araberako banaketa xeheki aztertuz gero, talde garrantzitsuena 25 eta 34 urte artekoa da, % 68,2 baitira; 35 eta 44 urte arteko pertsonak, berriz, % 19,8 dira, eta 18 eta 24 urte bitartekoak, % 11,9.

Bilakaeraren ikuspegitik, egiaztatu da 18 eta 24 urte arteko taldeak azken urteetan garrantzia galdu duela pixkanaka; 2007an etxebizitza eskuratzeko premia zutenen % 30,2 izatetik, 2015ean, % 11,9 izatera pasatu baitira. 35 eta 44 urte arteko pertsonen presentziak, berriz, gora egin du. 2007an % 17,9ko pisu erlatiboa izatetik 2009an % 6,9 izatera igaro ondoren, 2010-2013 aldian adin-tarte horretako pertsonen maila % 13-14koa izan zen, eta 2015ean, berriz, % 19,8koa. 25 eta 34 urte arteko taldeak beharrizanaren % 55 baino gutxiago hartzen zuen 2007an eta 2008an, eta % 70etik gorako mailetan egon zen 2011n eta 2013an; gero, 2015ean, apur bat erortzeko: % 68,2.

2015ean hazteko joera hartu du etxebizitza eskaeran gizonezkoen parte-hartze erlatiboak duen bereizkuntzak. Hala, emakumearen pisua % 48tik gorakoa izan zen 2011n (% 48,1) eta 2013an (% 48,6), baina 2015ean % 42,5era jaitsi zen. Kontrara, gizonezkoen populazioaren parte-hartzeak gora egin du, 2013ko % 51,4tik 2015eko % 57,5era igaro baita, eta era horretan erreproduzitu egin da 2007 eta 2011 artean hautemandako gizonezkoen alderako desoreka. Emaitza horretan eragin handienetakoa duen faktoreetako bat, gizonen populazio emantzipatuaren pisu txikiagoa da, emakumeenekin alderatuta (18-44 urte arteko pertsona guztietatik emakumeen % 66,2 emantzipatuta daude, eta gizonezkoak, berriz, % 56,9 dira).

## 14. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izan eta lehen etxebizitzaren premia duten pertsonen ezaugarri sozio-demografikoak, EAE. 2007-2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)

| | 2007 | | 2008 | | 2009 | | 2010 | | 2011 | | 2013 | | 2015 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kop. | %. | Kop. | %. | Kop. | %. | Kop. | %. | Kop. | %. | Kop. | %. | Kop. | %. |
| **Guztizkoa** | **92.365** | **100** | **91.353** | **100** | **125.514** | **100** | **108.131** | **100** | **88.128** | **100** | **65.346** | **100** | **72.836** | **100** |
| **Beharra duen pertsonaren adina** | | | | | | | | | | | | | | |
| 18-24 urte artean | 27.894 | 30,2 | 29.130 | 31,9 | 27.273 | 21,7 | 21.379 | 19,8 | 12.964 | 14,7 | 8.431 | 12,9 | 8.692 | 11,9 |
| 25-34 urte artean | 47.938 | 51,9 | 50.026 | 54,8 | 89.633 | 71,4 | 72.038 | 66,6 | 63.342 | 71,9 | 47.861 | 73,2 | 49.687 | 68,2 |
| 35-44 urte artean | 16.533 | 17,9 | 12.197 | 13,4 | 8.608 | 6,9 | 14.714 | 13,6 | 11.821 | 13,4 | 9.053 | 13,9 | 14.456 | 19,8 |
| **Batez besteko adina (urteak)** | **29,1** | | **28,7** | | **27,8** | | **28,5** | | **28,8** | | **28,8** | | **30,3** | |
| **Sexua** | | | | | | | | | | | | | | |
| Emakumea | 41.287 | 44,7 | 39.724 | 43,5 | 55.227 | 44,0 | 48.029 | 44,4 | 42.420 | 48,1 | 31.777 | 48,6 | 30.957 | 42,5 |
| Gizona | 51.078 | 55,3 | 51.630 | 56,5 | 70.287 | 56,0 | 60.102 | 55,6 | 45.708 | 51,9 | 33.569 | 51,4 | 41.879 | 57,5 |
| **Ikasketa-maila** | | | | | | | | | | | | | | |
| Ikasketarik gabe/Lehenengo maila | 15.240 | 16,5 | 13.177 | 14,4 | 20.961 | 16,7 | 15.269 | 14,1 | 15.837 | 18,0 | 7.451 | 11,4 | 8.292 | 11,4 |
| Lanbide ikasketak | 28.633 | 31 | 33.982 | 37,2 | 39.327 | 31,3 | 35.705 | 33,0 | 22.949 | 26,0 | 21.248 | 32,5 | 25.644 | 35,2 |
| Bigarren mailako ikasketak | 9.698 | 10,5 | 10.376 | 11,4 | 14.292 | 11,4 | 11.885 | 11,0 | 9.188 | 10,4 | 6.917 | 10,6 | 6.203 | 8,5 |
| Unibertsitateko ikasketak | 38.793 | 42 | 33.543 | 36,7 | 50.934 | 40,6 | 45.271 | 41,9 | 40.154 | 45,6 | 29.730 | 45,5 | 32.698 | 44,9 |
| Ed/Ee | - | - | 275 | 0,3 | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| **Lan egoera** | | | | | | | | | | | | | | |
| Soldatapekoak ez direnak[3] | 5.810 | 6,3 | 5.926 | 6,5 | 15.296 | 12,2 | 7.953 | 7,4 | 6.983 | 7,9 | 7.161 | 11,0 | 9.695 | 13,3 |
| Lanean, kontratu finkoa | 47.162 | 51,1 | 47.145 | 51,6 | 59.581 | 47,5 | 53.744 | 49,7 | 60.880 | 69,1 | 28.821 | 44,1 | 27.472 | 37,7 |
| Lanean, aldi baterako kontratua | 33.307 | 36,1 | 29.614 | 32,4 | 35.749 | 28,5 | 36.552 | 33,8 | 12.848 | 14,6 | 23.885 | 36,6 | 32.556 | 44,7 |
| Lanik gabe | 4.332 | 4,7 | 6.390 | 7,0 | 8.083 | 6,4 | 6.415 | 5,9 | 5.089 | 5,8 | 3.608 | 5,5 | 2.162 | 3,0 |
| Beste egoera bat | 1.755 | 1,9 | 1.750 | 1,9 | 6.248 | 5,0 | 3.467 | 3,2 | 2.329 | 2,6 | 1.341 | 2,1 | 952 | 1,3 |
| Ed/Ee | - | - | 528 | 0,6 | 557 | 0,4 | - | - | - | - | 530 | 0,8 | - | - |

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Ikasketa mailari dagokionez, eskatzaileen % 44,9k unibertsitate mailako titulazioa dauka, eta % 35,2k, berriz, lanbide-ikasketak. Lehen mailako ikasketak (% 11,4) eta bigarren mailakoak (% 8,5) dituztenen presentzia, ostera, txikiagoa da.

Aldagai honetan, lehenengo etxebizitza eskatzen dutenen artean egonkortu egin da unibertsitate ikasketak dituztenen pisu erlatiboa; 2010. urtera arte % 42ren inguruko edo azpiko zifrak jaso ziren, baina % 45etik gorakoak 2011n (% 45,6) eta 2013an (% 45,5), 2015eko mailatik hurbilekoak (% 44,9). 2013 eta 2015 artean antzemandako alde handiena bigarren mailako ikasketak zituzten pertsonetatik (2013an % 10,6 eta 2015ean

[3] Besteen konturako langileak eta kooperatibako bazkideak barne

% 8,5) lanbide ikasketak zituztenetarako aldaketari dagokio; 2013ko % 32,5etik 2015eko % 35,2ra pasatu baitira.

### 15. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izan eta lehenengo etxebizitzara sarbidea behar duten pertsonen ezaugarri sozio-demografikoen aldakuntza, EAE. 2007-2015 eta 2013-2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)

| | 2007 | | 2013 | | 2015 | | 2007-2015 aldakuntza | | 2013-2015 aldakuntza | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kop. | %. | Kop. | %. | Kop. | %. | Kop. | %. | Kop. | %. |
| **Guztizkoa** | **92.365** | **100** | **65.346** | **100** | **72.836** | **100** | **-19.529** | **-21,1** | **7.490** | **11,5** |
| **Beharra duen pertsonaren adina** | | | | | | | | | | |
| 18-24 urte artean | 27.894 | 30,2 | 8.431 | 12,9 | 8.692 | 11,9 | -19.202 | -68,8 | 261 | 3,1 |
| 25-34 urte artean | 47.938 | 51,9 | 47.861 | 73,2 | 49.687 | 68,2 | 1.749 | 3,6 | 1.826 | 3,8 |
| 35-44 urte artean | 16.533 | 17,9 | 9.053 | 13,9 | 14.456 | 19,8 | -2.077 | -12,6 | 5.403 | 59,7 |
| **Batez besteko adina (urteak)** | **29,1** | | **28,8** | | **30,3** | | **1,2** | **4,1** | **1,5** | **5,2** |
| **Sexua** | | | | | | | | | | |
| Emakumea | 41.287 | 44,7 | 31.777 | 48,6 | 30.957 | 42,5 | -10.330 | -25,0 | -820 | -2,6 |
| Gizona | 51.078 | 55,3 | 33.569 | 51,4 | 41.879 | 57,5 | -9.199 | -18,0 | 8.310 | 24,8 |
| **Ikasketa-maila** | | | | | | | | | | |
| Ikasketarik gabe/Lehenengo maila | 15.240 | 16,5 | 7.451 | 11,4 | 8.292 | 11,4 | -6.948 | -45,6 | 841 | 11,3 |
| Lanbide ikasketak | 28.633 | 31 | 21.248 | 32,5 | 25.644 | 35,2 | -2.989 | -10,4 | 4.396 | 20,7 |
| Bigarren mailako ikasketak | 9.698 | 10,5 | 6.917 | 10,6 | 6.203 | 8,5 | -3.495 | -36,0 | -714 | -10,3 |
| Unibertsitateko ikasketak | 38.793 | 42 | 29.730 | 45,5 | 32.698 | 44,9 | -6.095 | -15,7 | 2.968 | 10,0 |
| Ed/Ee | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| **Lan egoera** | | | | | | | | | | |
| Soldatapekoak ez direnak[4] | 5.810 | 6,3 | 7.161 | 11,0 | 9.695 | 13,3 | 3.885 | 66,9 | 2.534 | 35,4 |
| Lanean, kontratu finkoa | 47.162 | 51,1 | 28.821 | 44,1 | 27.472 | 37,7 | -19.690 | -41,7 | -1.349 | -4,7 |
| Lanean, aldi baterako kontratua | 33.307 | 36,1 | 23.885 | 36,6 | 32.556 | 44,7 | -751 | -2,3 | 8.671 | 36,3 |
| Lanik gabe | 4.332 | 4,7 | 3.608 | 5,5 | 2.162 | 3,0 | -2.170 | -50,1 | -1.446 | -40,1 |
| Beste egoera bat | 1.755 | 1,9 | 1.341 | 2,1 | 952 | 1,3 | -803 | -45,8 | -389 | -29,0 |
| Ed/Ee | - | - | 530 | 0,8 | - | - | - | - | - | - |

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Lehenengo etxebizitza eskatzen duten pertsonen % 44,7k besteen konturako lanpostua dute, aldi baterako kontratuarekin, 2013an erregistratutako zifra baino zortzi puntu altuagoa (% 36,6). 2007tik erregistratutako zifrarik altuena da, urte hartan % 36,1 jaso baitzen.

Kontratu finkoaren kasuan aurkakoa gertatzen da; izan ere, etxebizitza behar duten pertsonen artean duen presentzia % 44,1era jaitsi zen 2013an, eta % 37,7ra 2015ean. Horrela, 2011. urtera arte erregistratzen ziren zifrekin erkatuta (% 50 baino altuagoak, oro har) beheranzko joera argia sendotzen ari da. Soldatapekoak ez ziren langileak (norberaren kontura ari zirenak eta kooperatibistak) % 13,3 ziren, goranzko joera argia erakusten duen zifra; gainerako kategoriak, bitartean, % 5 baino gutxiago ziren.

[4] Besteen konturako langileak eta kooperatibako bazkideak barne

### 16. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izanik etxebizitza premia duten pertsonen ezaugarri sozio-demografikoak, urtearen eta eskuratze motaren arabera, 2009-2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)

| Ezaugarriak (*) | 2009 | 2010 | 2011 | 2013 | 2015 Guztizkoa | 2015 Banaka eskuratzea | 2015 Bikotean eskuratzea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Beharra duen pertsonaren adina** | | | | | | | |
| 18-24 urte artean | 21,7 | 19,8 | 14,7 | 12,9 | 11,9 | 9,5 | 14,4 |
| 25-34 urte artean | 71,4 | 66,6 | 71,9 | 73,2 | 68,2 | 68,7 | 67,7 |
| 35 urte eta gehiago | 6,9 | 13,6 | 13,4 | 13,9 | 19,8 | 21,8 | 17,9 |
| **Batez besteko adina (urteak)** | **27,8** | **28,5** | **28,8** | **28,8** | **30,3** | **30,9** | **29,6** |
| **Sexua** | | | | | | | |
| Emakumea | 44,0 | 44,4 | 48,1 | 48,6 | 42,5 | 43,2 | 41,8 |
| Gizona | 56,0 | 55,6 | 51,9 | 51,4 | 57,5 | 56,8 | 58,2 |
| **Ikasketa-maila** | | | | | | | |
| Ikasketarik gabe/Lehenengo maila | 16,7 | 14,1 | 18,0 | 11,4 | 11,4 | 12,4 | 10,4 |
| Lanbide ikasketak | 31,3 | 33,0 | 26,0 | 32,5 | 35,2 | 34,9 | 35,5 |
| Bigarren mailako ikasketak | 11,4 | 11,0 | 10,4 | 10,6 | 8,5 | 9,2 | 7,9 |
| Unibertsitateko ikasketak | 40,6 | 41,9 | 45,6 | 45,5 | 44,9 | 43,5 | 46,2 |
| **Lan egoera** | | | | | | | |
| Lanean, bere kontura | 12,2 | 7,4 | 7,9 | 11,0 | 13,3 | 13,0 | 13,6 |
| Lanean, kontratu finkoa | 47,5 | 49,7 | 69,1 | 44,1 | 37,7 | 36,4 | 39,1 |
| Lanean, aldi baterako kontratua | 28,5 | 33,8 | 14,6 | 36,8 | 44,7 | 43,7 | 45,7 |
| Lanik gabe | 6,4 | 5,9 | 5,8 | 5,5 | 3,0 | 4,6 | 1,4 |
| Bestelako egoerak (ikasleak...) | 5,0 | 3,2 | 2,6 | 2,6 | 1,3 | 2,3 | 0,3 |
| **Eskuratze mota** | | | | | | | |
| Banaka eskuratzea | 51,0 | 57,8 | 47,4 | 52,3 | 49,9 | 100,0 | 0,0 |
| Bikotearekin eskuratzea | 49,0 | 42,2 | 52,6 | 47,7 | 50,1 | 0,0 | 100,0 |

(*): % bertikala (beharra duten pertsona guztiekiko).
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Eskuratze motaren arabera etxe beharra duten pertsonen kolektibora hurbilketa bat eginez gero, agerian geratzen da, diru-sarrera propioak izanik, lehen etxebizitza eskuratzeko premia duten eta banaka eskuratzea erabakitzen duten pertsonen ehunekoak behera egin duela apur bat azken bi urteetan, 2013ko % 52,3tik 2015eko % 49,9ra. Handitu egin da, aitzitik, etxebizitza bikotean eskuratzea planteatzen duten pertsonen pisu erlatiboa (2013ko % 47,7tik 2015eko % 50,1era), biak antzeko pisuarekin geratu direlarik 2015ean.

Zenbait diferentzia garrantzitsu ikusten dira eskuratzeko moduan, adinaren arabera. Hala, hazi egin da populazio gazteenaren pisu erlatiboa etxebizitza bikotean eskuratzeko orduan: 18-24 urte arteko pertsonen artean, % 14,4 dira aukera horren aldekoak eta % 9,5 banaka eskuratu nahi dutenak. 25-34 urte arteko adin-taldean ia ez dago alderik: % 67,7 bikotean eskuratu nahi dutenak eta % 68,7 banakako aukeraren aldekoak. Bestalde, 35 urte edo hortik gorako pertsonei dagokienez, % 17,9 dira etxebizitza bikotean eskatzen dutenak eta % 21,8 etxebizitza banaka eskatzeko asmoa dutenak.

### 17. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izanik, etxebizitza premia duten pertsonen familien bizitegi-ezaugarriak, 2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)

| Ezaugarriak (*) | Guztizkoa | Behar beste diru-sarrera | Diru-sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak | Banaka eskuratzea | Bikotearekin eskuratzea |
|---|---|---|---|---|---|
| **Familiaren tamaina** | | | | | |
| 2 pertsona | 8,1 | 8,8 | 7,9 | 10,6 | 5,5 |
| 3 pertsona | 47,8 | 54,7 | 45,9 | 51,4 | 44,2 |
| 4 pertsona | 30,2 | 26,5 | 31,2 | 23,1 | 37,3 |
| 5 pertsona edo gehiago | 13,9 | 10,0 | 15,0 | 14,8 | 13,0 |
| **Pertsona kopurua batez beste** | **3,6** | **3,4** | **3,6** | **3,5** | **3,6** |
| **Etxebizitza babestua (BOE edo Etxebizitza Sozialak)** | | | | | |
| Bai | 10,3 | 14,6 | 9,2 | 8,8 | 11,8 |
| Ez | 89,7 | 85,4 | 90,8 | 91,2 | 88,2 |
| **Etxebizitzaren azalera erabilgarria** | | | | | |
| 60 $m^2$ra arte | 7,7 | 8,4 | 7,5 | 7,8 | 7,7 |
| 61 $m^2$tik 75era | 23,1 | 23,9 | 22,8 | 26,0 | 20,2 |
| 76 $m^2$tik 90era | 35,8 | 41,6 | 34,2 | 32,9 | 38,7 |
| 90 $m^2$ baino gehiago | 21,1 | 15,1 | 22,8 | 20,6 | 21,6 |
| Ed/Ee | 12,2 | 10,9 | 12,6 | 12,7 | 11,8 |
| **Batez besteko azalera ($m^2$)** | **92,6** | **98,6** | **90,9** | **89,2** | **96,0** |

(*): % bertikala (beharra duten pertsona guztiekiko).
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

Sexuari erreparatzen badiogu, emakumezkoen pisu erlatiboa (% 43,2) zertxobait handiagoa da lehen etxebizitzaren eskaera osotasunean hartuta, eskaera bikotean eginda baino: (% 41,8), nahiz eta bi kasuetan, gizonen eskuratze eskaera handiagoa den emakumeena baino. Gizonezkoen kolektiboa % 56,8koa da banakako eskaeran eta % 58,2koa bikotean egindakoan.

Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonak bizi diren familien ezaugarrietan arreta jartzen badugu, ikus daiteke 2015ean batez besteko tamaina 3,6 pertsonakoa zela familiako. Pertsona gazte eskatzaileen % 47,8 hiru pertsonaz osatutako familietan bizi dira; % 30,2 lau kidekoetan eta, azkenik, % 13,9, bost kide edo hortik gorako familietan.

Familia hauek okupatutako etxebizitzen tamainari dagokionez, batez besteko azalera erabilgarria 92,6 $m^2$koa da; batez besteko hori pixka bat handiagoa da lehen etxebizitza bikotean eskuratzeko beharra adierazten duten pertsonen kasuan (96 eta 89,2 $m^2 m^2$ , berriz, banaka eskuratzea aukeratzen duten lehen etxebizitzen eskatzaileen kasuan).

## 2.2.2. Etxebizitza eskuratzeko beharraren arrazoiak

Lehen etxebizitza eskatzen duten lau pertsonatatik ia hiruk familiatik emantzipatzea argudiatzen dute arrazoi nagusi gisa: % 73,8; aldiz, independizatzea bikotearekin

bizitzearekin lotzen dute % 24,0k. Gainerako % 2,2 honela banatzen da: lan-arrazoiak (% 1,5) edo bestelakoak (% 0,7).

### 15. grafikoa. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izanik, gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18-44 urteko pertsonen lehen etxebizitza eskuratzeko arrazoia. EAE 2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)




*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Eskaeraren hazkunde garrantzitsuak markatutako testuinguruan, 2015eko igoerak esan nahi du gehiago hazi direla bikotean bizitzea xede duten emantzipazio-proiektuei lotutako beharrizanak (% 20,5eko igoera), emantzipatzea beste helbururik ez duten pertsonen beharrizanak baino (% 10,1eko hazkundea). Horrela, bikotean bizitzeko asmoa zuten pertsonen taldea 2013an % 22,2 ziren bitartean, 2015ean % 24 dira asmo hori dutenak. Bestalde, helburu nagusia independizatzea dutela dioten pertsonak 2013an 48.816 pertsona izatetik 2015ean 53.754 izatera igaro diren arren, murriztu egin da pixka bat berorien parte-hartze portzentuala, 2013ko % 74,7tik 2015eko % 73,8ra pasatu baitira.

### 18. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izanik, lehen etxebizitza eskuratzeko premia duten pertsonen arrazoi nagusia, EAE. 2007-2015

(Pertsonen kopurua eta ehunekoak, beharra duten pertsonen guztizkoaren gainean)

| | 2007 | | 2008 | | 2009 | | 2010 | | 2011 | | 2013 | | 2015 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kop. | %. | Kop. | %. | Kop. | %. | Kop. | %. | Kop. | %. | Etxebiz. Kop. | %. | Kop. | %. |
| Etxebizitza eskuratzeko premia | 92.365 | 100 | 91.353 | 100 | 125.514 | 100 | 108.131 | 100 | 88.128 | 100 | 65.346 | 100 | 72.837 | 100 |
| Bikotekidearekin bizitzea / ezkontzea | 21.115 | 22,9 | 25.031 | 27,4 | 31.630 | 25,2 | 25.303 | 23,4 | 29.369 | 33,3 | 14.519 | 22,2 | 17.498 | 24,0 |
| Independizatzea | 70.253 | 76,1 | 63.216 | 69,2 | 90.119 | 71,8 | 79.476 | 73,5 | 57.264 | 65 | 48.816 | 74,7 | 53.754 | 73,8 |
| Beste arrazoiren bat | 998 | 1,1 | 3.106 | 3,4 | 3.765 | 3 | 3.352 | 3,1 | 1.494 | 1,7 | 2.010 | 3,1 | 1.585 | 2,2 |

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

### 19. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izanik, lehen etxebizitza eskuratzeko premia duten pertsonen arrazoi nagusiaren aldakuntza, EAE. 2007-2015 eta 2013-2015

(Pertsonen kopurua eta ehunekoak, beharra duten pertsonen guztizkoaren gainean)

| | 2007 | | 2013 | | 2015 | | 2007-2015 aldakuntza | | 2013-2015 aldakuntza | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % | Abs. | % | Abs. | % |
| Etxebizitza eskuratzeko premia | 92.365 | 100 | 65.346 | 100 | 72.837 | 100 | -19.528 | -21,1 | 7.491 | 11,5 |
| Bikotekidearekin bizitzea / ezkontzea | 21.115 | 22,9 | 14.519 | 22,2 | 17.498 | 24,0 | -3.617 | -17,1 | 2.979 | 20,5 |
| Independizatzea | 70.253 | 76,1 | 48.816 | 74,7 | 53.754 | 73,8 | -16.499 | -23,5 | 4.938 | 10,1 |
| Beste arrazoiren bat | 998 | 1,1 | 2.010 | 3,1 | 1.585 | 2,2 | 587 | 58,8 | -425 | -21,1 |

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Duela gutxiko dinamika gorabehera, ezkonduta edo bikotean bizitzearen perspektiba, epe luzera, indarra galtzen ari da lehen etxebizitza eskatzeko elementu erabakigarri nagusi modura. 1997 eta 2000 urteen bitartean, ezkontzaren edo bikotean bizitzearen perspektibak zehazten zituen lehen etxebizitza eskaeren % 42 eta 46 (zifra horiek ez ziren familiatik independizatzeko eskaeren % 50 eta 53 bitarteko mailetatik gehiegi urruntzen). 2000. urtetik aurrera, bikotean bizitzeari loturiko aukeran beherakada bat hauteman da, eta 2001ean % 42,7 izatetik 2006an % 21,3ko minimo historikora pasatu zen. Modu paraleloan, % 52,8tik (2000. urtea) % 76,8ko maximora igo da familiatik independizatze soilari dagokion aukera.

### 16. grafikoa. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonen lehen etxebizitza eskuratzeko beharraren arrazoi nagusien bilakaera. EAE, 1997-2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)




* 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

Ekonomiaren une oparoenetan, 2006 eta 2008 bitartean, % 21,3tik % 27,4ra errekuperatu zen bikotearekin bizitzearen aukera etxebizitza eskatzeko elementu erabakigarri gisa. Ondorengo krisialdian, proportzioak jaisteko joera izan zuen, eta

% 22,2ra itzuli zen 2013an. Horren paraleloan, 2006ko % 76,8ko maximoaren ondoren, independentzia pertsonalaren aukera % 65era jaitsi zen 2011n, eta 2013an % 74,7ra egin zuen gora berriro, 2015ean arinki murrizteko (% 73,8).

Gaur egungo egoeran igo egin da pixka bat bikotean bizitzeari lotutako etxebizitza eskaeraren pisua, 2015ean % 24koa baita eskaera hori; nolanahi ere, 1997 eta 2005 artean erregistratutako zifren azpitik geratzen da.

## 2.2.3. Beharrizanaren eta eskaera-epeen maila subjektiboa

18 eta 44 urte bitarteko biztanleek adierazten duten lehen etxebizitza eskuratzeko beharraren intentsitate mailak behera egin du azkeneko lau urteotan. 0 eta 100 arteko eskala batean, etxebizitza eskuratzeko beharraren indize subjektiboa[5] 60,7 puntutan kokatu da, batez beste, 2015ean. Oro har, krisiak adierazlearen beheranzko joera eragin du, 2009an 69,7 puntu izatetik, 2010ean 67,5 izatera, 2013an 62,8 eta 2015ean % 60,7 izateraino.

**20. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonen lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharraren maila subjektiboa, 2009-2013**

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)

| Beharraren maila | 2009 | 2010 | 2011 | 2013 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| Handia | 36,9 | 35,2 | 42,1 | 26,0 | 31,2 |
| Dezentea | 41,1 | 39,3 | 31,9 | 41,9 | 33,1 |
| Pixka bat | 17,2 | 18,9 | 20,6 | 27,6 | 23,1 |
| Txikia | 4,9 | 6,5 | 5,4 | 4,5 | 12,6 |
| **Beharraren batez besteko indizea. (0-100)** | **69,7** | **67,5** | **70,0** | **62,8** | **60,7** |

(*): % bertikala (mota bakoitzean beharra dutenen guztizkoaren gainean).
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

2013 eta 2015 artean beharraren pertzepzioa murriztu izana bat dator lehen etxebizitza eskuratzeko dezenteko beharra duten pertsonen proportzioa gutxitzearekin eta behar txikia dutela adierazi dutenen hazkundearekin. Hala, nahiz eta aintzat hartutako biurtekoan % 26tik % 31,2ra handitu lehen etxebizitza eskuratzeko behar handia dutela dioten pertsona eskatzaileen ehunekoa, neurri handiagoan murriztu baita dezenteko premia dutela irizten diotenen proportzioa, ez da alferrik igaro 2013ko % 41,9tik 2015eko % 33,1era. Era berean, hazkunde adierazgarria izan du oso behar txikia dutela irizten dioten pertsonen proportzioak (2013ko % 4,5etik 2015eko % 12,6ra).

Behar handia eta dezentekoa dutela adierazten duten pertsonak batera hartuta, proportzio hori % 64,3koa da 2015ean. 2007az geroztik beheranzko joera argian dagoen zifra da, urte hartan % 87,8ko maximoa lortu baitzen. Proportzioa % 80tik behera zegoen 2008rako (% 79,5), eta % 74-74,5eko mailetara hurbildu zen 2010ean eta 2011n. 2013an, aztertutako proportzioa % 67,9raino jaitsi zen, aurretik 1997an baizik

[5] Beharraren batez besteko indizea 0 eta 100 bitarteko eskalan kalkulatzen da. Elkarrizketatutako pertsonen banakako iritziei dagozkien erantzunen batez bestekoa erakusten du, honako eskala honen arabera: 100, handia; 66, dezentea; 33, pixka bat; eta 0, txikia.

erregistratu gabeko zifra batera (% 68), harik eta 2015ean beste minimo historiko bat lortu den arte (% 64,3).

Adierazle horretan, krisiak aldaketa sakona markatu du, eta etxebizitza behar altuetan (handia edo dezentekoa) aurrerapen ia jarraituak egon dira 1997tik 2007ra, 2002ko haustura garbi bakarrarekin. Aurrerapen horien norabidea aldatu egin da 2007az geroztik, eta beharraren maila 23,5 puntu inguru erori da 2015era arte.

### 17. grafikoa. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonen premia mailaren bilakaera (premia handi edo dezenteko kategoriak), 1997-2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)




Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

Pertsona eskatzaileen % 61,7k bi urte baino gutxiago daramate lehen etxebizitza eskuratzeko premia egoeran, eta % 16,5ek, berriz, bi eta lau urte artean daramate. Gainerako % 21,9k lau urte baino gehiago daramatzate lehen etxebizitza eskuratzea eskatzen.

### 21. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonek lehen etxebizitza eskuratzeko premian daramaten denbora, 2009-2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)

| Zenbat denbora premia egoeran | 2009 | 2010 | 2011 | 2013 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| Urtebete baino gutxiago | 13,8 | 19,9 | 23,5 | 16,6 | 25,0 |
| Urtebete eta 2 urte artean | 26,1 | 34,5 | 28,9 | 34,2 | 36,7 |
| 2 eta 4 urte artean | 29,0 | 18,6 | 11,4 | 26,0 | 16,5 |
| 4 urtetik gora | 31,2 | 27,0 | 36,3 | 23,2 | 21,9 |
| **GUZTIZKOA** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

(*): % bertikala (mota bakoitzean beharra dutenen guztizkoaren gainean).
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

Bilakaerari dagokionez, 2015ean hautsi egin da 2010 eta 2013 artean, premia egoeran 2 urte baino gutxiago zeramaten pertsonen proportzioan hautemandako nolabaiteko beheranzko joera. Proportzio hori 2010eko % 54,4tik 2013ko % 50,8ra murriztu zen, baina gorako joera argia hartu du 2015ean, % 61,7raino igo baita. Balio horrek 1997tik hautemandako zifra maximoa harrapatu du, urte hartan % 60,8 baitziren etxe premia zuten pertsonak.

2015ean, aitzitik, murriztu egin da premia egoeran 4 urtetik gora daramatzaten pertsonen proportzioa (% 21,9). 2011ko igoeraren salbuespen bakarrarekin (% 36,3), beheranzko joeraren hasiera, kasu honetan, 2008an kokatu zen. 2008 eta 2015 bitartean, talde horren proportzioa % 31,8tik % 21,9ra jaitsi da. 2005. urteraino atzera egin beharra dago (% 20,7) 2015ekoa baino zifra txikiagoa aurkitzeko.

Ildo berean, 2013 eta 2015 bitartean, % 26tik % 16,5era gutxitu da tarteko egoeran dagoen pertsona taldea, zeinak 2 eta 4 urte artean daramatzan etxebizitza eskuratzeko premian. EBEI egiten hasi zenetik, 2011n soilik erregistratu zen (% 11,3) 2015ekoa baino proportzio txikiagoa.

### 18. grafikoa. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izanik etxe premia egoeran dauden pertsonen itxaron-denboraren bilakaera, 1997-2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)




Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

Premia egoeran egondako denborak erlazio estua du etxebizitza eskuratzeko beharrari buruz egiten den balorazioarekin. Hori dela eta, premia egoeran emandako urteek gora egiten duten heinean, gora egiten du adierazitako beharraren intentsitateak. Horrela, lehen etxebizitza eskatzeko egoeran urtebete daramaten pertsonek beharrizan maila txikiagoa adierazten duten bitartean (36,5 puntu, 2015ean, 1etik 100era bitarteko behar-indizean), egoera horretan bi urtetik gora daramaten pertsonek askoz intentsitate handiagoko beharrizan maila erakusten dute (74,5 puntukoa 2 eta 4 urtekoen artean eta 70,0 puntukoa 4 urte edo hortik gorakoen artean). Lehen etxebizitza eskatzeko egoeran urtebete eta 2 urte artean daramaten pertsonak tarteko posizioan kokatzen dira, nahiz eta itxarote-denbora luzeeneko taldetik hurbilago egon (65,4 puntu).

### 22. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonen beharrizanaren batez besteko maila, lehenengo etxebizitza eskuratu zain daramaten denbora kontuan hartuta, 2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko)

| Zenbat denbora premia egoeran | Batez besteko maila (0-100) |
|---|---|
| Urtebete baino gutxiago | 36,5 |
| Urtebete eta 2 urte artean | 65,4 |
| 2 eta 4 urte artean | 74,5 |
| 4 urtetik gora | 70,0 |
| **GUZTIZKOA** | **60,7** |

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

Etorkizunari begira, etxe beharra duten pertsonen % 45,6k uste dute aukera asko edo dezente dituztela bi urteko epean lehen etxebizitza eskuratzeko. Proportzio hori % 65,7ra igotzen da denbora-tarte hori 4 urteko epera zabaltzen denean.

### 23. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonek 2tik 4 urtera artean lehen etxebizitza eskuratzeko premia asetzeko aukera, 2009-2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)

| Zenbat denbora premia egoeran | 2009 | 2010 | 2011 | 2013 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| **2 urterako aukera** | | | | | |
| Aukera asko | 12,2 | 14,4 | 10,9 | 14,7 | 12,4 |
| Aukera dezente | 25,9 | 22,2 | 22,6 | 20,9 | 33,2 |
| Aukera gutxi | 54,6 | 46,8 | 56,3 | 44,9 | 40,6 |
| Aukerarik ez | 7,2 | 16,5 | 10,2 | 19,5 | 13,8 |
| **GUZTIZKOA** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100** |
| **4 urterako aukera** | | | | | |
| Aukera asko | 12,7 | 15,2 | 34,1 | 37,4 | 46,2 |
| Aukera dezente | 38,9 | 49,4 | 25,2 | 19,8 | 19,5 |
| Aukera gutxi | 42,5 | 28,7 | 34,5 | 31,3 | 26,9 |
| Aukerarik ez | 6,0 | 6,6 | 6,2 | 11,4 | 7,4 |
| **GUZTIZKOA** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

(*): % bertikala (mota bakoitzean beharra dutenen guztizkoaren gainean).
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

2013ari dagokionez, datuek hamar puntuko gorakada erakusten dute lehen etxebizitza eskuratzeko beharra bi urteko epean asetzea aurreikusten duten pertsonen kolektiboan: % 35,6 zen 2013an eta % 45,6, berriz, 2015ean. Gorakada horrek 2011z geroztik hauteman den goranzko joera sendotzea dakar, esandako adierazlea 2009ko % 38,1etik 2011ko % 33,5era modu jarraituan erori ostean. 2015eko erregistroak, oro har, gainditu egiten ditu, bestalde, 2003-2013 aldian % 32,6 eta % 40 artean kokatzen ziren ehunekoak. Horrela, 2002 urteko % 45,3ren hurbileko mailetara itzuli da.

Beraz, dinamika positiboa da. Alde batetik, 2011tik hautemandako handitze-ildoak haustura markatzen duelako 2009 eta 2011 arteko gainbeherarekiko, eta 2007an ekindako errekuperazioari berriro heltzen diolako, urte hartaz geroztiko maila handienera iritsi delarik. Eta bestetik, aipatutako dinamikak kontrastea egiten duelako 1998ko % 55,7tik 2007ko % 26,5a arteko adierazlearen gainbehera ia jarraituarekin.

Esan behar da, hala ere, 2-4 urtera etxea lortzeko aukera duten pertsonen proportzioa oraindik 1996-2001 aldiko % 48tik gorako zifren azpitik mantentzen dela.

Aipatutako dinamika positiboa sendotzera dator, 4 urteko epean beren beharra asetzea aurreikusten duten pertsonen proportzioan azken bi urteetan hauteman den errekuperazioa ere. Proportzio hori 2013ko % 57,2tik 2015eko % 65,7ra igaro baita, 2009tik honako maila gorenean kokatuz. Kasu honetan, nolanahi ere, errekuperazio-dinamika ez da hain aldekoa. Zentzu horretan, adierazlearen epe luzeko gainbeherako joera zela medio –1997ko % 87,5etik 2009ko % 51,6ra– oraingoak baino zifra handiagoak bildu ziren 2005, 2006 eta 2008an, esandako balioak % 67,5-68 inguruan kokatzen zirenean.

### 19. grafikoa. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonek 2tik 4 urtera artean etxebizitza premia asetzeko aukeraren bilakaera, 1996-2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)




* 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

Edonola ere, baldin eta arreta, hain zuzen ere, 4 urteko epean lehen etxebizitza eskuratzea aurreikusten duten pertsonengan jartzen badugu, 2015eko emaitzek erakusten dute kolektibo horren % 27,4 besterik ez direla ari aktiboki etxebizitzaren bila. Ehuneko horrek murrizketa adierazgarria erakusten du 2011ko % 52,5 eta 2013ko % 44,6rekiko. Izatez, 2015eko datua 1997tik hautemandako zifra apalena da; argi eta garbi txikiagoa 2000. urteko % 34 baino ere, berori izan baitzen 1997-2013 aldi osoko balio txikiena. Bi urte horiek kenduta, gainera, lehen etxebizitza eskuratzeko aurreikuspenekin bilaketa aktiboa zuten pertsonen proportzioa ez zen inoiz % 41etik jaitsi. 2011 ondorengo gainbeherako ildoak aldaketa oso esanguratsua markatzen du horrela, oraindik emantzipatu gabeko pertsonen artean etxebizitza berriaren bilaketa aktiboari lotutako joeran.

### 20. grafikoa. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izanik etxe premian dagoen populazioaren bilakaera etxebizitzaren bilaketa aktiboari dagokionez, 1997-2015

**Oinarria: 4 urteko epean lehen etxebizitza eskuratzea aurreikusten duten pertsonak**

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)




(1) 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.
* 2015ean, emantzipatzeko behar beste diru-sarrera badutela irizten dioten pertsonak soilik hartu dira kontuan
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

## 2.2.4. Behar diren etxebizitzen ezaugarriak

Argigarria gertatzen da lehen etxebizitza eskatzen duten 18-44 urte arteko biztanleek behar dituzten etxebizitzen ezaugarrien azterketa. Etxebizitzaren edukitze-erregimenari dagokionez, 2015ean diru-sarrerak edo errenta propioak zituen 18-44 urte arteko populazioaren % 52,2k alokairu-erregimeneko etxebizitza eskatzen zuen; proportzio horrek alde handiz gainditzen du jabetza nahiago dutenen % 26,6ko zifra. Gainerako % 21,2k edukitze-erregimen bat zein bestea aukeratuko luke, etxebizitza eskuratzean.

Zifra horiek aldaketa historiko garrantzitsua erakusten dute, etxebizitza jabetzan izateko eskaera esklusiboa pixkanaka murrizten ari baita. Mota horretako etxebizitzaren eskaera 2007an eskatzaileen % 67,8 izatetik 2015ean % 26,6 izatera pasatu da. Kontrako norabidean, alokairu-erregimena esklusiboki hautatzen duten pertsonen proportzioak gora egin du 2007ko % 8,3 xumetik etxebizitza eskatzen duten erdiak baino gehiago izateraino (% 52,2) 2015ean.

Jabetzan edo alokairuan, batean zein bestean eskuratuko luketen pertsonak barnean hartzen badira, 2011 urteak muga garbia markatzen du. 2007ko % 91,7arekiko beheranzko joera nabarmena zen arren, 2010ean eta 2011n, artean, etxebizitza eskatzen zuen populazioaren lautatik hiruk baino gehiagok jabetzan eskuratzearen aldeko hautua egiten zuen (% 76,8 eta 82,2, hurrenez hurren). Baina proportzio hori bat-batean eroriko zen urte hartatik aurrera: 2013an % 61,3ra jaitsi zen, eta % 47,8ra, berriz, 2015ean. EBEI egiten denetik lehenengo aldiz, gutxiengoan geratu da jabetzaren aldeko aukera egiteko prest dauden pertsonen proportzioa (kontuan hartutako pertsonen % 47,8k jabetzaren alde edo bata zein bestea hautatu dute, % 71,2, erosteko aukera duen alokairua planteatzen duten pertsonak barnean hartzen badira).

Bilakaera kontrako norabidean doa alokairuari dagokionez. 2007an, eskatzaileen % 32,2k planteatzen zuten aukera hau (alokairua edo bata zein bestea), eta proportzio

hori artean gutxiengoan zegoen 2010 eta 2011n, % 48tik hurbileko zifrekin. Baina aukera horren aldeko planteamendua % 63,3raino hazi zen 2013an, eta argi eta garbi nagusitzera pasatu zen 2015ean, pertsona eskatzaileen % 73,4 aukera hori kontuan hartzeko prest agertu baitziren.

### 24. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izanik, lehenengo etxebizitzaren premia duten pertsonek behar dituzten etxebizitzen ezaugarriak, 2007-2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten familia guztiekiko ehunekoak)

| | 2007 | | 2008 | | 2009 | | 2010 | | 2011 | | 2013 | | 2015 * | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Etxebiz. Kop. | %. | Etxebiz. Kop. | %. | Etxebiz. Kop. | %. | Etxebiz. Kop. | %. | Etxebiz. Kop. | %. | Etxebiz. Kop. | %. | Etxebiz. Kop. | %. |
| Etxebizitza eskuratzeko premia | 82.891 | 100 | 74.461 | 100 | 110.676 | 100 | 97.800 | 100 | 76.360 | 100 | 59.318 | 100 | 72.835 | 100 |
| **Baldintza** | | | | | | | | | | | | | 15.645* | |
| Berria | 19.396 | 23,4 | 13.031 | 17,5 | 21.072 | 19,0 | 21.034 | 21,5 | 18.583 | 24,3 | 11.019 | 18,6 | 2.734 | 17,5 |
| Erabilitakoa | 4.476 | 5,4 | 2.274 | 3,1 | 6.816 | 6,2 | 8.432 | 8,6 | 1.742 | 2,3 | 5.661 | 9,5 | 1.511 | 9,7 |
| Bata zein bestea | 58.024 | 70,0 | 58.725 | 78,9 | 79.970 | 72,3 | 66.845 | 68,3 | 55.307 | 72,4 | 41.215 | 69,5 | 9.474 | 60,6 |
| Ed/Ee | 995 | 1,2 | 430 | 0,6 | 2.818 | 2,5 | 1.489 | 1,5 | 727 | 1,0 | 1.422 | 2,4 | 1.926 | 12,3 |
| **Azalera erabilgarria** | | | | | | | | | | | | | 15.645* | |
| 60 $m^2$ baino gutxiago | 23.732 | 28,6 | 27.503 | 36,9 | 13.532 | 12,2 | 28.141 | 28,8 | 15.314 | 20,1 | 16.828 | 28,4 | 3.136 | 20,0 |
| 61 $m^2$tik 75era | 28.216 | 34,0 | 28.595 | 38,4 | 48.052 | 43,4 | 32.873 | 33,6 | 27.158 | 35,6 | 17.882 | 30,1 | 4.260 | 27,2 |
| 76 $m^2$tik 90era | 21.908 | 26,4 | 14.506 | 19,5 | 32.881 | 29,7 | 25.641 | 26,2 | 30.355 | 39,8 | 15.653 | 26,4 | 4.840 | 30,9 |
| 91 $m^2$tik 120ra | 2.570 | 3,1 | 709 | 1,0 | 8.309 | 7,5 | 2.748 | 2,8 | 1.768 | 2,3 | 4.520 | 7,6 | 1.148 | 7,3 |
| Ed/Ee | 6.465 | 7,8 | 3.148 | 4,2 | 7.903 | 7,1 | 8.397 | 8,6 | 1.764 | 2,3 | 4.436 | 7,5 | 2.261 | 14,5 |
| **Batez besteko azalera ($m^2$)** | 67,8 | | 64,1 | | 73,6 | | 67,3 | | 71,2 | | 69,8 | | 75,8 | |
| **Edukitze-erregimena** | | | | | | | | | | | | | | |
| Jabetza | 56.200 | 67,8 | 44.373 | 59,6 | 65.835 | 59,5 | 50.486 | 51,6 | 39.717 | 52,0 | 21.796 | 36,7 | 19.392 | 26,6 |
| Alokairua | 6.880 | 8,3 | 7.331 | 9,8 | 18.136 | 16,4 | 22.703 | 23,2 | 13.566 | 17,8 | 22.940 | 38,7 | 37.989 | 52,2 |
| - Alokairua, erosteko aukerarik gabe | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | 20973 | 28,8 |
| - Alokairua, erosteko aukerarekin | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | 17016 | 23,4 |
| Bata zein bestea | 19.811 | 23,9 | 22.757 | 30,6 | 26.705 | 24,1 | 24.611 | 25,2 | 23.076 | 30,2 | 14.582 | 24,6 | 15.454 | 21,2 |

** 2015ean, emantzipazioari aurre egin ahal izateko behar beste diru-sarrera badituztela irizten dioten pertsonen informazioa dagoenean soilik sartzen da.*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Eskatzen den etxebizitzaren azalerari dagokionez, 76 eta 90 $m^2$bitarteko azalera duten etxebizitzak dira etxebizitza eskuratzeko premian dauden pertsonek gehien eskatzen dituztenak, % 30,9k, zehatzago esanda. Tamaina txikiagoko etxebizitzak datoz ondoren: % 27,2 dira 61 $m^2$tik 75era artekoak nahiago dituztenak eta % 20, berriz, 60 $m^2$baino gutxiagokoak. % 7,3 baizik ez dira 91 eta 120 metro karratu bitarteko etxebizitza eskatzen dutenak.

Bilakaerari erreparatuta, hala ere, 2015ean, aurreko urteetan baino tamaina handiagoko etxebizitzak aukeratzeko joera hauteman da. Horrela, 2007, 2008, 2009, 2010 eta 2013ko edizioetan gehien eskatu zen kategoria 61 eta 75 $m^2$ arteko etxebizitzena izan zen; 2011n eta 2015ean, proportzio konparatiboki handiagoak eskatu zituen 76 eta 90 $m^2$ bitarteko etxebizitzak.

Etxebizitza eskuratzeko bilatzen den modua kontuan hartuta, egiaztatu da alokairuaren aldeko aukera esklusiboa nabarmen hazi dela aurreko urteekin alderatuta, bai bikotean etxebizitza eskuratzea planteatzen duten pertsonen artean eta bai banaka planteatzen

dutenen artean. Hala ere, adierazleak aldaketak ditu 2015ean, etxea bikotean eskuratzea planteatzen duten % 46,2aren eta etxebizitza banaka eskuratzeko asmoa duten % 58,1en artean. Etxebizitza jabetza-erregimenean edukitzeari buruz, aldeak ez dira hain adierazgarriak: % 26,2 dira banaka eskuratzearen taldekoak eta % 27 bikotean.

Bata zein bestea berdin zaiena kontuan hartuz gero, datuek eskaintzen dute beste ñabarduraren bat. Era horretan, alokairuaren aldeko hautua oso antzekoa da eskaera banaka egiten dutenen edo bikotean egiten dutenen artean (% 73,8 eta 72,9, hurrenez hurren). Aitzitik, jabetzaren aukerak presentzia handiagoa du bikoteen kasuan (% 53,7k baina, aldiz, %41,9k banakako eskaeran; % 74,7 leudeke alde batean, eta % 67,6 bestean, erosteko aukera lotuta daraman alokairua kontuan hartzen bada).

### 25. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izanik, etxebizitza premian dauden pertsonek eskatutako edukitze-erregimena, eskuratze motaren arabera, 2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)

| Etxebiz. % | GUZTIZKOA | ESKURATZE MOTA | |
|---|---|---|---|
| | | Banaka | Bikotean |
| **Guztizkoa** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| **Edukitze-erregimena** | | | |
| Jabetzan | **26,6** | 26,2 | 27,0 |
| Alokairuan | **52,2** | 58,1 | 46,2 |
| - Alokairua, erosteko aukerarik gabe | **28,8** | 32,4 | 25,2 |
| - Alokairua, erosteko aukerarekin | **23,4** | 25,7 | 21,0 |
| Bata zein bestea | **21,2** | 15,7 | 26,7 |

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Alokairu-erregimena aukeratzen duten pertsonak ugaldu diren arren, ikusi da, era berean, baliabide ekonomikoak eskura izateak mesede egiten diola jendeak jabetza-erregimena nahiago izaten jarraitzeari. Izan ere, emantzipatzeari ekiteko nahikoa baliabide dituztela dioten pertsonen taldean % 42,5ek nahiago dute jabetza-erregimenaren alde egin; zifra hori, ordea, % 22,3ra jaisten da baliabide ekonomiko prekarioagoak dituztenen kasuan.

Ildo beretik, emantzipatzeko behar beste diru-sarrera dituzten 18 eta 44 urte arteko pertsonen taldean alokatzea aukeratzen dutenek, gehienek, erosteko aukera ematen duen alokairua hautatzen dute (% 27,3; erosteko aukerarik ematen ez duen alokairua % 19,3k aukeratzen dute). Erosteko aukera ematen duen alokairua % 22,3ra jaitsi da diru-sarrera gutxiago edota diru-sarrera ezegonkorrak dituzten pertsonen kasuan; % 31,4k erosteko aukerarik ematen ez duen alokairua hautatzen du.

Oro har, bata zein bestea berdin dienen hautua eta erosteko aukera duen alokairua kontatuta, jabetzaren aldeko aukeraren diferentzia mantendu egiten da behar beste diru-sarrera dituzten eskatzaileen artean, baina apur bat txikiagoa da (% 80,6 bata eta % 68,7 bestea).

### 26. taula. Diru-sarrerak edo errenta propioak izanik, lehen etxebizitzaren premia duten pertsonek eskatutako etxebizitzen edukitze-erregimena, EAE 2015

(Balio absolutuak eta ehunekoak, familien guztizkoaren gainean)

| | Behar beste diru-sarrera | | Diru sarrera gutxiegi / ezegonkorrak | | Diru-sarrerak dituztenen guztizkoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % |
| **Guztizkoa** | 13.338 | 100,0 | 50.951 | 100,0 | 64.290 | 100,0 |
| Jabetza | 5.668 | 42,5 | 11.354 | 22,3 | 17.021 | 26,5 |
| **Alokairua** | 6.224 | 46,7 | 27.341 | 53,7 | 33.564 | 52,2 |
| *- Erosteko aukerarik gabe* | 2.580 | 19,3 | 15.989 | 31,4 | 18.569 | 28,9 |
| *- Erosteko aukerarekin* | 3.644 | 27,3 | 11.352 | 22,3 | 14.996 | 23,3 |
| Bata zein bestea | 1.447 | 10,8 | 12.257 | 24,1 | 13.704 | 21,3 |

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Alokairuaren aukeraren epe luzeko eboluzioa aztertuz gero (bai lehen aukera gisa eta bai jabetzarekin batera ageri den aukeran), aldaketa handia hautematen da etxebizitzen eskaeran aurreko hamarraldiaren erdialdetik hona. 2004ra arte, alokairu-eskaeraren pisua maila apaletan mantendu zen eta zifrek oso gutxitan gainditu zuten % 20ko muga; batzuetan, % 15etik behera ere jaitsi ziren, 1998an eta 1999an gertatu zen moduan.

2004az geroztik jarrera-aldaketa hautematen da, eta alokairu-eskaerak goranzko joera argia agertzen du. Egonkortze-une bakan batzuk kenduta, eskaera orientatuaren proportzioa (lehen aukera gisa edo bata zein bestea) 2004an % 17,7 izatetik 2015ean % 73,4ko maximora igaro da. Goranzko prozesu horretako zedarri nagusiak honako hauek izan ziren: 2004ko % 17,7tik 2006ko % 33,8rako gorakada, eta, ondoren, hazkunde aldi bat, baina moderatuagoa, 2010 eta 2011ko % 48 inguruko zifretara iritsi arte. Hortik aurrera, alokairuak gorakada indartsuko beste aldi bat erregistratu du, 2011ko % 48,1eko adierazlea 2013ko % 63,3ra eta 2015eko % 73,4raino igo delarik.

### 21. grafikoa. Etorkizuneko etxebizitzarako alokairua aukeratzearen eboluzioa (lehen aukera edo bata zein bestea) nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak izanik, etxebizitza premia duten pertsonen artean, 1997-2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)




* 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

2015ean, 18 eta 44 urte arteko pertsonek behar zituzten etxebizitzen tamaina 75,8 $m^2$[6]koa zen batez beste. Etxebizitza banaka eskuratu nahi dutenen kasuan, eskatzen den batez besteko azalera bikotean eskatzen duten pertsonek eskatutakoa baino ondotxoz txikiagoa da (69,7 $m^2$lehen kasuan eta 78,2 $m^2$, bigarrenean).

Eskuratze mota banakakoa denean, 61 eta 75$m^2$ bitartekoak dira gehien eskatzen diren etxebizitzak, % 45,3k eskatzen baititu (% 19,1ek eskuratzea bikotean denean). Bestalde, etxea bikotean hartzeko asmoa duten pertsonen artean, 76 eta 90$m^2$ artekoa da gehien eskatzen den kategoria, % 37,6ko zifrarekin (% 16,1ekoa banakako eskuratzearen kasuan). Banaka eskuratu nahi dutenen taldeari dagokionez, bigarren aukera garrantzitsuena 60 $m^2$arteko etxebizitzena da (% 17,3); etxea bikotean eskuratzeko asmoa dutenen artean (% 21,3).

**27. taula. Behar beste diru-sarrera edo errenta propioak izanik, etxe premian dauden pertsonek eskatzen dituzten etxebizitzen azalera, eskuratze motaren arabera, 2015**

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)

| Etxebiz. % | GUZTIZKOA | ESKURATZE MOTA | |
|---|---|---|---|
| | | Banaka | Bikotean |
| **Guztizkoa** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| **Azalera** | | | |
| 60 $m^2$ra arte | **20,0** | 17,3 | 21,3 |
| 61 $m^2$tik 75era | **27,2** | 45,3 | 19,1 |
| 76 $m^2$tik 90era | **30,9** | 16,1 | 37,6 |
| 90 $m^2$ baino gehiago | **7,3** | - | 10,6 |
| Ed/Ee | **14,5** | 21,3 | 11,4 |
| **Batez besteko azalera ($m^2$)** | **75,8** | 69,7 | 78,2 |

** 2015ean, emantzipazioari aurre egin ahal izateko behar beste diru-sarrera badituztela irizten dioten pertsonen informazioa dagoenean soilik sartzen da.*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Bilakaerari dagokionez, ikusten da 2015ean behar den etxebizitzaren tamaina (75,8 $m^2$) modu esanguratsuan hazi dela azken bi urteotan (69,6$m^2$ en 2013an), bereziki, bikotean eskuratu nahi dutenek tamaina handiagoa eskatzen dutelako. 2015eko zifrak argi eta garbi gainditzen ditu 2005 eta 2013 artean eskatutako batez besteko tamainak. Horrela, aldagai horri dagokionez, 1997 eta 2000 urteen artean hautemandako eskaeraren dinamikara itzuli gara, orduan 73-75$m^2$ bitarteko etxebizitza eskatzen baitzen; gero, 2009an soilik iritsiko ziren neurri horiek, eta 2015ean, berriro.

[6] *2015ean, emantzipazioari aurre egin ahal izateko behar beste diru-sarrera badutela irizten dioten pertsonen informazioa dagoen kasuan soilik sartzen da*

### 22. grafikoa. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izanik, premia duten pertsonek behar dituzten etxebizitzen batez besteko azaleraren bilakaera, 1997-2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)




** 2015ean, emantzipazioari aurre egin ahal izateko behar beste diru-sarrera badituztela irizten dioten pertsonen informazioa dagoenean soilik sartzen da.*

* 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

Etxebizitza-eskaera barne hartzen duen lurralde-esparrua aztertuz gero, ikus daiteke bizi diren udalerri berari loturiko eskaera nabarmen nagusitzen dela; horrela, % 66,8 hori honela banatzen da: % 12,3k jatorrizko auzoan bilatzen du etxebizitza eta % 54,5ek udalerri berean. Orientazio hori are argiagoa da etxebizitza bikotean eskuratu nahi duten pertsonen artean (% 68,8), banaka eskuratu nahi dutenen artean baino (% 64,9).

Nolanahi ere, nabarmentzekoa da hasieran udalerri berean bizitzeko asmoa duten pertsonen % 57,2k udalerria aldatzeko aukera kontuan hartzen dutela, beren behar eta aukeretara egokitutako prezio eta ezaugarriak dituen etxebizitza bat eskuratu ahal izateko.

2015ean, eskaeraren % 20,6 bizi diren udalerriaz kanpoko udalerrietara orientatzen dira, baina betiere eskualde berean; orientazio horrek zortzi puntuko beheraldia jasan du 2013arekiko (% 28,6). Puntu honetan ez dago diferentzia nabarmenik aurreikusitako eskuratze motaren arabera. Hala, banaka eskuratzea hautatu duten pertsonen % 20k adierazi dute eskualde berean bizi nahi dutela; baina bikotean eskuratu nahi dutenen kasuan erreferentziako proportzioa % 21,1ekoa da.

Dena dela, datuek agertzen dute etxebizitza-eskaera pertsonen jatorrizko lurralde-ingurune berean mantentzera orientatzen dela, bai udalerri berean edota hurbilen den eskualdean. Beharra duten pertsonen % 7,4k bakarrik adierazi du etxebizitza egun duenetik kanpoko beste eskualde batean egotea aukeratuko lukeela.

### 28. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izanik, premian dauden pertsonek behar dituzten etxebizitzen kokapena. 2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)

| Etxebiz. % | GUZTIZKOA | ESKURATZE MOTA | |
|---|---|---|---|
| | | Banaka | Bikotean |
| **Guztizkoa** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| **Nora aldatu** | | | |
| Auzo berean | **12,3** | 12,4 | 12,2 |
| Udalerri berean | **54,5** | 52,5 | 56,6 |
| Eskualde berean | **20,6** | 20,0 | 21,1 |
| Beste eskualde batean | **7,4** | 8,4 | 6,5 |
| Ed/Ee | **5,2** | 6,7 | 3,6 |
| **Udalerria aldatzeko prestasuna (**)** | | | |
| Bai | **57,2** | 52,6 | 61,8 |
| Ez | **31,1** | 32,6 | 29,6 |
| Ed/Ee | **11,7** | 14,8 | 8,6 |

*(*): % bertikala (etxe beharrean daudenen guztizkoa).*
*(**): % bertikala (hasieran udalerri berean bizitzeko asmoa duten eta beharra duten pertsonen guztizkoarekiko)*

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

## *2.3. Etxea behar duten pertsonen finantza gaitasuna*

### 2.3.1. Diru-sarreren maila

2015ean, etorkizuneko etxebizitzaren finantzaketan parte hartuko luketen pertsonen hileroko diru-sarrera garbien maila, batez beste, 1.297,8 eurokoa da[7]. Batez besteko diru-sarrera hori % 5 jaitsi da 2013an hautemandakoarekiko, urte hartan, batez beste, 1.365,9 euroko zifra iritsi baitzen hileko.

Termino arruntetan, lehen etxebizitza eskuratzea eskatzen duten pertsonen batez besteko diru-sarrera mailak gainditu egiten ditu 1997-2004 aldiko ia urte guztietan hautemandako batez besteko mailak eta 2010eko batez besteko errenta (1.251,2 euro). Hala ere, 2005 eta 2013 artean hautemandako 1.350 eta 1.600 euro artean kokatutako zifretatik dezentez beherago geratu da (jada aipatutako 2010eko salbuespenarekin).

[7] Diru-sarrerek etorkizuneko etxebizitza ordaintzen parte hartuko duten pertsonen multzoari dagozkio. Nabarmentzekoa da diru-sarreren eskuragarritasuna dela etxebizitza eskuratzeko premia eginkorra dagoela irizteko baldintzetako bat.

## 23. grafikoa. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izanik, etxe premian dagoen populazioaren diru-sarreren bilakaera, 1997-2015

(Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izanik beharra duten pertsonak)




* 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharrei eta Eskaerari buruzko Inkesta 1997-2015.

2013arekiko, gorakada nabarmena ikusten da diru-sarrera txikiagoak dituztenen tartean dauden eta etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen proportzioan. Horrela, 2015ean, lehen etxebizitza eskuratu nahi duten pertsonen kolektiboaren % 23,2k 840 eurotik beherako batez besteko diru-sarrerak ditu. Proportzio hori 2009tik bildu den handiena da; aurreko zifra maximoa 2010ekoa zen (% 21,5). Egoera horretako pertsonen ehunekoa argi eta garbi handitu da azken urteotan, 2011ko % 9,9tik 2015eko % 23,2ra igaro baita.

Ildo berean, diru-sarrera handienen tartean, hilean 1.411 euro baino gehiago irabazten duten pertsonen pisu erlatiboa murriztu egin da 2013. urtearekiko. Alegia, 2013an, diru-sarrera horiek gainditzen zituzten pertsonen pisu erlatiboa % 27,8koa zen bitartean, 2015ean, aldiz, % 18,3raino murriztu da.

## 29. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izanik, etxebizitza eskuratzeko premian dauden pertsonen diru-sarrera maila, 2009-2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)

| | | | | | 2015 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Hileko Sarrera Garbiak** | **2009** | **2010** | **2011** | **2013** | **Guztizkoa** | **Behar beste diru-sarrera** | **Diru-sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak** |
| 840 eurora arte | 14,1 | 21,5 | 9,9 | 18,1 | 23,2 | 12,5 | 26,2 |
| 841 eta 1.140 euro bitartean | 16,6 | 21,1 | 12,8 | 18,1 | 11,4 | 10,5 | 11,7 |
| 1.141 eta 1.410 euro bitartean | 16,2 | 15,8 | 21,6 | 19,2 | 15,6 | 22,5 | 13,8 |
| 1.411 eta 1.650 euro bitartean | 11,3 | 10,0 | 9,6 | 7,5 | 5,5 | 5,2 | 5,6 |
| 1.651 eta 2.160 euro bitartean | 12,9 | 11,6 | 13,5 | 9,6 | 5,7 | 8,3 | 5,0 |
| 2.160 euro baino gehiago | 11,4 | 6,1 | 11,1 | 10,7 | 7,0 | 4,8 | 7,6 |
| Ed/Ee | 17,5 | 13,9 | 21,5 | 16,8 | 31,5 | 36,3 | 30,1 |
| **Batez bestekoa (euroak)** | **1.427,2** | **1.251,2** | **1.564,4** | **1.365,9** | **1.297,8** | **1.313,8** | **1.293,8** |

(*): % bertikala (mota bakoitzean beharra dutenen guztizkoaren gainean).
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

Etorkizuneko etxebizitzaren erosketa finantzatzeko beharrezko hileroko diru-sarrerak biltzen parte hartuko duten pertsona kopuruari dagokionez, 2015ean % 55,9k diote pertsona bakarra arduratuko dela diru-sarrera horiek ekartzeaz, alegia, 2013koaren antzeko proportzioa (% 56,9), baina 2010ekoa baino ia zazpi puntu apalagoa (% 62,8).

2013arekin alderatuta, ordea, handitu egin da, etxebizitza premian egonik, etxearen erosketa bikoteko bi kideen diru-sarrerak erabilita finantzatuko dutela adierazi duten pertsonen proportzioa (% 33,6 zen 2013an eta % 35,2, berriz, 2015ean). Azken urteetan hautemandako proportzioak 1997-2002 aldian behatutakoetatik urrun daude, beharra zuten pertsonen % 40 baino gehiagok finantzaketa partekatzea planteatzen baitzuten orduan.

Argitu behar da, hala ere, bikote batek etxebizitza eskuratzeko finantzaketara egindako ekarpenak, historikoki, murrizteko joera izan duela, 1998ko % 48ko maximotik 2008ko % 23,6ko minimora igaro baitzen. Gerora, hala ere, gorakada garrantzitsua hauteman zen 2009an, % 38ra iritsi zena. Gorabehera batzuekin izanik ere, 2008koak baino maila altuagoetan, gainbeherako joera nagusitu zen berriro harik eta gaur egungo % 35,2ra iritsi arte. Zifra horrek, hala ere, krisialdiko erregistro gehienak gainditzen ditu, zehazkiago, 2007, 2008, 2010 eta 2013koak, era berean, 2011 % 36,2ko zifrara hurbiltzen delarik. Izatez, 1997-2002 aldian erregistratu ziren % 42tik gorako datuak soilik geratzen dira, argi eta garbi, azken zifra honen gainetik.

**24. grafikoa. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izanik, etxe premian dauden biztanleen finantzaketa partekatuaren bilakaera. 1997-2015**

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)




** 2015ean, emantzipazioari aurre egin ahal izateko behar beste diru-sarrera badituztela irizten dioten pertsonen informazioa dagoenean soilik sartzen da.*

* 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

### 30. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izanik, etorkizuneko etxebizitzaren erosketarako finantzaketan –alokairuan– parte hartuko duten pertsona kopurua, 2009-2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)

| Hileko Sarrera Garbiak | 2009 | 2010 | 2011 | 2013 | 2015* |
|---|---|---|---|---|---|
| Eskuratzeko beharra duen pertsona | 54,1 | 62,8 | 57,1 | 56,9 | 55,9 |
| Bikoteko pertsona bat | 6,0 | 5,1 | 4,3 | 6,2 | 7,4 |
| Bikoteko bi pertsonak | 38,0 | 31,0 | 36,2 | 33,6 | 35,2 |
| Beste egoera bat | 2,0 | 1,1 | 2,4 | 3,3 | 1,5 |
| **Guztizkoa** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100** |

** 2015ean, emantzipazioari aurre egin ahal izateko behar beste diru-sarrera badituztela irizten dioten pertsonen informazioa dagoenean soilik sartzen da.*
(*): % bertikala (mota bakoitzean beharra dutenen guztizkoaren gainean).
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

## 2.3.2. Hilero ordaintzeko gaitasuna

Aurreko atalean aipatu dugun bezala, diru-sarreraren bat duten eta lehen etxebizitza eskuratzeko premian dauden pertsonen hileko batez besteko diru-sarrerek nabarmen egin dute behera 2013 eta 2015 artean. Hala ere, aztertutako kolektiboak etxebizitza eskuratu ahal izateko eskuragarri duela adierazten duen hilero ordaintzeko gaitasunak igoera nabarmena izan du. Horrela, 2013ko 385,2 euroko batez bestekotik 2015eko 484 eurotara igo da. Kasu honetan, 2009koa ere gainditzen duen (470,3 eurokoa zen urte hartan) hilero ordaintzeko gaitasuna hauteman baita.

Behatutako aldaketa esplikatzen duen azpiko faktorea tarteko ordaintzeko gaitasuna duen taldeak pisua irabazi izana da, maila ekonomiko txikiagoa duenaren kaltetan. Etxe premian dauden eta 300 eurotik beherako ordaintzeko gaitasuna duten pertsonen proportzioari dagokionez, 2013an % 40,4 izatera iritsi ostean, % 24,1eko minimoa erdietsi du 2015ean.

### 31. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izanik, etxe premian dauden pertsonek adierazitako hilero ordaintzeko gaitasuna, 2009-2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)

| Hilero ordaintzeko gaitasuna | 2009 | 2010 | 2011 | 2013 | 2015* |
|---|---|---|---|---|---|
| 240 eurora arte | 11,1 | 14,8 | 4,8 | 12,7 | 8,3 |
| 241 eta 300 euro bitartean | 16,8 | 16,1 | 24 | 27,7 | 15,8 |
| 301 eta 450 euro bitartean | 21 | 20,8 | 31,5 | 29,2 | 17,7 |
| 451 eta 600 euro bitartean | 24,7 | 24,4 | 18,8 | 18,9 | 35,7 |
| 601 eta 750 euro bitartean | 9,9 | 9 | 10,8 | 4,2 | 2,9 |
| 750 euro baino gehiago | 11,5 | 7,4 | 4,8 | 2,8 | 4,9 |
| Ed/Ee | 5,0 | 7,5 | 5,3 | 4,6 | 14,7 |
| **Batez bestekoa (euro hilean)** | **470,3** | **435,4** | **434,6** | **385,2** | **484,0** |

** 2015ean, emantzipazioari aurre egin ahal izateko behar beste diru-sarrera badituztela irizten dioten pertsonen informazioa dagoenean soilik sartzen da.*
(*): % bertikala (mota bakoitzean beharra dutenen guztizkoaren gainean).
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

450 eta 600 euro arteko ordainketari aurre egin diezaioketen pertsonen proportzioa, 2009 eta 2013 artean % 18 eta 25 artean kokatu ondoren, % 35,7ra hazi da 2015ean. Bestalde, hilero ordaintzeko gaitasun handiagoen kasuan, 600 eurotik gorakoak maila apaletan mantentzen dira. 2015eko % 7,8a, 2013ko % 7aren antzekoa, urruti geratzen da 2009ko % 21,4ko zifratik, bai eta 2010 eta 2011ko % 16tik hurbileko mailetatik ere.

Ordaintzeko gaitasunaren eta hileko diru-sarreren arteko erlazioa aztertuz gero,[8] ikus daiteke lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonek diru-sarreren % 36,8 etxebizitza erostea edo alokatzea ordaintzera bideratzea aurreikusten dutela 2015ean. Ehuneko horrek argi eta garbi gainditzen du 2011n eta 2013an jasotako % 28ren hurbileko zifra, eta 1997aren ondorengo aldiko datu altuagoetara hurbiltzen da, % 35,8 eta 37,2 artean kokatu baitziren 1998-2001 aldian eta 2008an.

**25. grafikoa. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izanik, etxe premia duten pertsonen finantza-ahaleginaren bilakaera, 1997-2015**




** 2015ean, emantzipazioari aurre egin ahal izateko behar beste diru-sarrera badituztela irizten dioten pertsonen informazioa dagoenean soilik sartzen da.*

** 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

## 2.3.3. Ordain daitekeen gehieneko prezioa

Jabetza-erregimenaren aukera planteatzen duten eta etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonek adierazten duten etxebizitzaren batez besteko prezio ordaingarri maximoa[9] 135.593 eurokoa da 2015ean. 2013koaren oso antzeko zifra da (135.060 euro) baina oso urruti dago 2009 eta 2010eko 153.000 eurotik hurbileko edo hortik gorako zifretatik eta 2011ko 145.833 euroetatik.

Etxe premian dauden pertsona gehienek (% 51,4) adierazten dute ezin dutela 150.000 eurotik gorako prezioa ordaindu. Proportzio hori modu esanguratsuan murriztu bada ere

[8] Finantza-ahalegina kalkulatzeko, hilean ordaintzeko batez besteko gaitasunaren eta hileko batez besteko diru-sarrera garbien arteko ratioa hartzen da.

[9] 2009az geroztik, jabetza-erregimenaren aldeko aukera planteatzen duten pertsonek adierazitako prezioa soilik hartzen da kontuan. Honako oinarri hau aplikatu da: **Aurreikusitako edukitze-erregimena: jabetzan edo bata zein bestea.**

2013ko % 58,9rekiko, dezentez handiagoa da oraindik 2009tik 2011ra arteko % 40,2 eta 43,9 bitarteko zifrak baino.

2013 eta 2015 artean, erosteko ahalmen gutxieneko taldearen parte-hartzearen jaitsiera 150.000 eta 180.000 € arteko etxebizitza baten ordainketari aurre egingo lioketen pertsonak ugaltzearekin konpentsatu da. Aipatutako proportzio hori 2013ko % 9,8ko zifratik 2015eko % 13,6ra igaro da, baina askoz beherago dago oraindik, 2009 eta 2011 artean hauteman ziren % 16,7 eta % 18,7 arteko zifrak baino.

Nahiz eta 2013ko % 11,2tik 2015eko % 12,7ra apur bat igo den, erosteko ahalmen handieneko kolektiboaren –180.000 eurotik gora– epe ertaineko beheranzko joera mantendu egiten da. Hala, 2017ko maila 2009 eta 2010eko % 20tik gorako zifretatik urrun geratzen da.

**32. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izanik, etxe premia duten pertsonek ordain dezaketen prezio maximoa, 2009-2015**

**Oinarria: Aurreikusitako edukitze-erregimena: jabetzan edo bata zein bestea**

| Ordain daitekeen gehieneko prezioa | 2009 | 2010 | 2011 | 2013 | 2015* |
|---|---|---|---|---|---|
| 96.000 euro baino gutxiago | 14,5 | 17,4 | 11,7 | 15,2 | 25,9 |
| 96.001 eta 120.000 euro bitartean | 9,4 | 9,4 | 14,9 | 17,6 | 13,9 |
| 120.001 eta 150.000 euro bitartean | 16,3 | 15,1 | 17,3 | 26,1 | 11,6 |
| 150.001 eta 180.000 euro bitartean | 16,7 | 17,0 | 18,7 | 9,8 | 13,6 |
| 180.001 eta 240.000 euro bitartean | 13,1 | 12,3 | 11,1 | 8,1 | 6,5 |
| 240.001 eta 300.000 euro bitartean | 3,8 | 6,6 | 2,8 | 2,3 | 3,0 |
| 300.000 euro baino gehiago | 3,2 | 4,3 | 0,5 | 0,8 | 3,2 |
| Ed/Ee | 23,0 | 18,0 | 23,0 | 20,1 | 22,2 |
| **Batez bestekoa (euroak)** | **152.886** | **154.420** | **145.833** | **135.060** | **135.593** |

** 2015ean, emantzipazioari aurre egin ahal izateko behar beste diru-sarrera badituztela irizten dioten pertsonen informazioa dagoenean soilik sartzen da.*
(**): % bertikala (mota bakoitzean beharra dutenen guztizkoaren gainean).
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

## 2.3.4. Finantzaketa-formulak

Etxebizitza nagusia erosteko (edo erosteko aukerarekin alokatzeko) finantzaketarako formulen artean, orokortuena kreditua da oraindik, ez baita ahaztu behar formula horrek garrantzia berreskuratu duela 2013arekiko. 2015ean, etxe premian dauden pertsonen % 82,4k kreditura joko luke bere lehen etxebizitza erosteko, eta proportzio hori 2 puntu goitik dago 2013an baino (% 80,4). Proportzioak ez ditu harrapatzen, hala ere, EBEIren aurreko edizioetan hautemandakoak (% 97,9, 2009an; % 90,8, 2010ean eta % 93, 2011n).

Etxebizitzaren beharra duten pertsonek adierazitako bigarren finantzaketa-formula norberaren aurrezkiena da. Bide hori aipatzen dute 2015ean aztertutako pertsonen % 57,6k. 2013ko % 42,7 eta 2010eko % 45,1 baino dezentez ehuneko handiagoa da, hartaraino non 2011ko % 58,4ra hurbiltzen baita. 2009ko % 77,9ko zifra geratzen da soilik oso gainetik.

Familiaren laguntzari dagokionez, 2015ean aztertutako pertsonen % 11,8k aipatutako finantzaketa-bidea da. Kasu honetan, adierazlearen beheranzko joera oso bistakoa da aurreko urteekin alderaketa eginda: 2010ean % 46,6 eta % 55etik gorako zifrak, berriz, 2009an nahiz 2011n. Azken urte horretatik aurrera, gainbeherako ildo argia hautematen da: % 28,5eko zifra 2013an eta % 11,8koa, 2015ean.

Halaber, laguntza publikoak lortzeko itxaropenak zorrotz murriztu dira azkeneko bi urteetan. 2009an maila altuetatik abiaturik, urte hartan etxe premian zeuden pertsonen erdiek etxebizitzaren finantzaketarako bide hori erabiltzea pentsatzen baitzuten (% 52,5), proportzioa % 29ra murriztu zen 2010ean eta % 20 ingurura 2011n eta 2013an. 2015ean, aztertutako pertsonen % 1,4 baizik ez dira mota horretako laguntzak espero dituztenak.

### 33. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izanik, etxe premian dauden pertsonek aurreikusitako finantzaketa-formulak, 2009-2013

| | 2009 | 2010 | 2011 | 2013 | 2015* |
|---|---|---|---|---|---|
| **Finantzaketa-iturriak (*)** | | | | | |
| Kredituak | 97,9 | 90,8 | 93,0 | 80,4 | 82,4 |
| Norberaren aurrezkiak | 77,9 | 45,1 | 58,4 | 42,7 | 57,6 |
| Familiaren laguntza | 56,8 | 46,6 | 59,8 | 28,5 | 11,8 |
| Beste ondasun baten salmenta | 5,3 | 1,8 | 2,0 | 1,2 | 2,0 |
| Diru-laguntza publikoak | 52,5 | 29,0 | 20,0 | 19,1 | 1,4 |
| Beste bitarteko batzuk | 31,2 | 1,7 | 4,6 | 1,0 | 8,1 |
| **Oinarria: Aurreikusitako edukitze-erregimena: jabetzan, alokairua erosteko aukerarekin edo bata zein bestea** | | | | | |
| **Kredituaren % / prezioa** | | | | | |
| % 0 (ez du krediturik eskatzen) | 0,7 | 7,9 | 3,8 | 16,7 | 13,0 |
| % 1 - % 25 | 0,7 | 1,6 | 0,2 | 1,5 | 8,9 |
| % 25 eta % 49 bitartean | 5,3 | 10,1 | 2,9 | 5,2 | 11,8 |
| % 50 eta % 74 bitartean | 26,1 | 21,8 | 25,8 | 25,1 | 15,2 |
| % 75 eta % 100 bitartean | 55,3 | 45,4 | 62,4 | 31,7 | 9,8 |
| Ed/Ee | 12,0 | 13,2 | 4,9 | 19,8 | 41,2 |

** 2015ean, emantzipazioari aurre egin ahal izateko behar beste diru-sarrera badituztela irizten dioten pertsonen informazioa dagoenean soilik sartzen da.*
(**): Erantzun anitzaren % (mota bakoitzean beharra dutenen guztizkoarekiko).
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

Etxebizitza jabetzan erosteko estaldura maximoa (etxebizitzaren prezioaren % 75 baino gehiago) emango dion kreditu bat eskatzea aurreikusten duten pertsonen proportzioa nabarmen murriztu da 2013arekiko. 2013an pertsona guztien % 31,7 ziren bitartean, 2015ean % 9,8 dira. Zifra horiek erakusten dute beheranzko joera gogorra jasan dutela 2009tik 2011ra arteko % 50etik hurbileko edo hortik gorako mailekiko.

2013ko % 16,7arekiko murriztu den arren, hipoteka-kreditu bat eskatu gabe etxebizitza eskuratzea aurreikusten duten pertsonen proportzioa argi eta garbi gainetik mantentzen da 2009-2011 aldiko % 8tik beherako zifrekin alderatuta. 2015ean, % 13an kokatu da.

Bada, hala ere, aurreko datu horiek baldintzatzen dituen gertaera bat: 5 pertsonatatik 2k (% 41,2) ez dakite zenbateko mailegua eskatu (zer ehuneko) etxebizitzaren erosketa finantzatzeko. 2013an kreditu eskaerari buruz beren posizioa erabaki gabe zeukaten % 19,8ko zifra baino askoz proportzio handiagoa da.

## *2.4. Etxe premian dagoen kolektiboaren ezaugarriak, generoaren ikuspegitik*

Atal honetan EAEn eta 2015ean diru-sarrerak edo errenta propioak izanik, lehen etxebizitza eskuratzea planteatzen duten pertsonen analisi xehakatua aurkezten da, beharra duen pertsonaren sexuaren arabera. Genero-ikuspegitik egindako azterketa honetan sakontzea ahalbidetzen duten adierazle eta aldagai nagusiak hartzen dira kontuan.

2015ean, diru-sarrera propioak izanda, etxe premian zeuden pertsona guztien % 57,5 gizonezkoak ziren eta % 42,5 emakumezkoak. Zifra horiek 2013an behatutakoetatik nabarmen bestelakoak dira, orduan % 51,4 baitziren gizonezkoak eta % 48,6 emakumezkoak. Horrela, emakumezkoen parte-hartzeak 6 puntu portzentualeko beherakada izan du 2015eko zifrekin alderatuta. 2015ean hautemandako banaketa 2009 eta 2010eko edizioetakoen hurbilekoa da, etxe premian zegoen taldean % 56 gizonezko inguru baitzeuden orduan.

**26. grafikoa. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izanik, etxe premian dauden pertsonak sexuaren arabera. 2009-2015**

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)




Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen batez besteko adina handiagoa da gizonezkoen artean: 30,9 urte; emakumezkoen artean, berriz, 29,5 urte. Bi kasuetan, 2015eko zifrek 2009tik hona izan diren maila altuenak islatzen dituzte, baina jauzi nagusia gizonen artean gertatu da. Emakumeen artean, 2015eko zifrak sei hamarrenetan gainditzen ditu 2013ko 28,9 urteak; gizonezkoen arteko batez besteko adina, ordea, ia bi puntu handiagoa da 2011 eta 2013ko 29 urtetik hurbileko zifrak baino.

Adinaren araberako kolektiboaren banaketak, izatez, diferentzia batzuk erakusten ditu, sexuaren arabera. Horrela, 2015ean, 25 urtez azpiko taldeek eta 25-34 urte artekoek ordezkapen handiagoa dute emakumezkoen populazioan. Lehenengo kasuan, etxe premian dagoen emakume populazioaren % 13,2 dira; kasu horretan dauden gizonezkoak, berriz, % 11,0. Portzentajeak % 71,6 eta % 65,7 dira, hurrenez hurren, 25etik 34 urtera bitarteko pertsonei dagokienez. Aitzitik, 35 eta 44 urte arteko pertsonen pisua askoz handiagoa da gizonen artean: % 23,3, baina % 15,2 emakumeen artean.

Eboluzioari dagokionez, ikus daiteke 18 eta 24 urte bitarteko pertsonen artean lehen etxebizitzaren eskaeraren pisu erlatiboa murriztu egin dela, eta dinamika hori bi sexuetan agertzen dela; hori premiari aurre egiteko behar adina diru-sarrera gutxiago izateari lotzen zaio pertsona gazteen kasuan. 2009an etxe premia zuten emakumeen % 23,8k eta gizonen % 20,1ek 18 eta 24 urte bitartean zituzten; baina proportzio hori, 2015ean, % 13,2ra eta % 11ra murriztu da, hurrenez hurren.

Gizonek nahiz emakumeek presentzia handiagoa dute 35 eta 44 urte bitarteko eskatzaileen artean. 2009an, emakumeen % 4,4k eta gizonen % 8,8k bakarrik osatzen zuten adin-tarte hori. 2015ean, ordea, emakumeen % 15,2 eta gizonen % 23,3 dira.

25 eta 34 urte artekoen taldean sexuaren araberako dinamika pixka bat desberdina da. Emakumeen kasuan, adin-talde horren pisua, 2015ean, 2009an behatutakoaren antzekoa da (% 71,6 eta % 71,8). Gizonezkoen artean, ordea, beheranzko joera hautematen da adin-talde horretan, 2015ean, % 65,7 baitziren gizon eskatzaileak; aurreko urte gehienetan, aldiz, % 71tik gorako zifrak lortu zituzten (2010eko % 66,9 salbu).

Etxebizitzaren premian dauden pertsonen prestakuntza mailari erreparatuz gero, ikusten da unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonen garrantzi erlatiboa handiagoa dela emakumeen artean (% 62,5) gizonen artean baino (% 31,9). Aitzitik, lanbide-heziketako ikasketak dituzten pertsonei erreparatuta, gehiago dira gizonezkoak (% 42,5) emakumezkoak baino (% 25,3). Diferentzia horiek, hein handi batean, eskaeraren barruan unibertsitate-ikasketak dituzten emakumeei eta ikasketa profesionalak dituzten gizonei egotz dakizkieke 2009-2015 aldian.

Sexuaren eta jarduerarekiko erlazioaren araberako aldeak oso murritzak dira. Lanean ari diren emakumeen pisu erlatiboa (% 96,1) zertxobait handiagoa da gizonezkoen artean hautemandakoa baino (% 95,4). Horren aurkakoa gertatzen da emakume langabeen artean (% 2,2 dira, eta gizonezkoak, % 3,5). Biztanleria ez-aktiboaren pisua, pixka bat handiagoa da emakumeen kasuan (% 1,7, eta % 1 gizonenean). Nolanahi ere, pertsona ez-aktiboen proportzioa erori egiten da 2009 eta 2015 artean, bai gizonen eta bai

emakumeen kasuan. Emakumeen artean, proportzio hori % 6,8tik % 1,7ra jaitsi da aldi horretan.

Lana duten pertsonen taldean, epe ertaineko dinamika nagusiari dagokionez, goranzko joera erakusten du aldi baterako lan-kontratua duten pertsonen parte-hartzeak. Emakumeen kasuan, kolektibo eskatzailearen % 35,9 ziren talde horretakoak 2009an, eta % 49,7, 2015ean. Ehuneko horiek % 22,6 eta % 41 dira gizonezkoen artean.

Etxebizitza premian dagoen emakumezkoen populazioari dagokionez, aldi baterako kontratazioaren hazkundea lan-kontratu finkoa duen populazioaren jaitsierarekin lotzen da (2011ra arte % 45etik hurbileko edo hortik gorako zifrak izatetik, 2013an % 42,7ra eta 2015ean % 37,9ra erori zen). Kontratazio finkoaren erorketarekin batera, beren kontura lan egiten duten emakumeen parte-hartzea, 2009tik (% 7,4) 2013ra (% 6) etengabe erori ondoren, handitu egin da azkeneko bi urteetan, % 6tik % 8,5era igaro baita 2013 eta 2015 artean.

### 34. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izanik, etxebizitza premian dauden pertsonen ezaugarri sozio-demografikoak, sexuaren arabera. 2009-2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)

| | 2009 | | 2010 | | 2011 | | 2013 | | 2015 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **EZAUGARRIAK** | **Emakumea** | **Gizona** | **Emakumea** | **Gizona** | **Emakumea** | **Gizona** | **Emakumea** | **Gizona** | **Emakumea** | **Gizona** |
| **Beharra duen pertsonaren adina** | | | | | | | | | | |
| 18-24 urte artean | 23,8 | 20,1 | 17,4 | 21,7 | 17,4 | 12,2 | 13,7 | 12,1 | 13,2 | 11,0 |
| 25-34 urte artean | 71,8 | 71,1 | 66,3 | 66,9 | 70,2 | 73,4 | 70,6 | 75,7 | 71,6 | 65,7 |
| 35-44 urte artean | 4,4 | 8,8 | 16,3 | 11,4 | 12,4 | 14,4 | 15,7 | 12,1 | 15,2 | 23,3 |
| **Batez besteko adina (urteak)** | **27,4** | **28,1** | **28,7** | **28,4** | **28,5** | **29,1** | **28,9** | **28,8** | **29,5** | **30,9** |
| **Ikasketa-maila** | | | | | | | | | | |
| Ikasketarik gabe/Lehenengo maila | 12,1 | 20,3 | 8,8 | 18,4 | 15,0 | 20,7 | 7,9 | 14,7 | 4,1 | 16,8 |
| Lanbide ikasketak | 27,6 | 34,3 | 27,3 | 37,6 | 21,6 | 30,1 | 24,8 | 39,8 | 25,3 | 42,5 |
| Bigarren mailako ikasketak | 10,5 | 12,1 | 9,2 | 12,4 | 7,7 | 13,0 | 9,0 | 12,1 | 8,1 | 8,8 |
| Unibertsitateko ikasketak | 49,9 | 33,3 | 54,8 | 31,5 | 55,6 | 36,2 | 58,2 | 33,4 | 62,5 | 31,9 |
| **Lan-egoera** | | | | | | | | | | |
| Lanean, bere kontura | 7,4 | 15,9 | 6,7 | 7,9 | 6,5 | 9,3 | 6,0 | 15,7 | 8,5 | 16,9 |
| Lanean, kontratu finkoa | 44,5 | 49,8 | 45,4 | 53,1 | 70,2 | 68,0 | 42,7 | 45,4 | 37,9 | 37,6 |
| Lanean, aldi baterako kontratua | 35,9 | 22,6 | 38,0 | 30,5 | 15,9 | 13,3 | 42,3 | 31,7 | 49,7 | 41,0 |
| Lanik gabe | 4,3 | 8,1 | 5,6 | 6,2 | 3,9 | 7,5 | 5,1 | 5,9 | 2,2 | 3,5 |
| Bestelakoak (ikaslea...) | 6,8 | 3,5 | 4,4 | 2,3 | 3,5 | 1,9 | 3,9 | 1,4 | 1,7 | 1,0 |

(*): % bertikala (beharra duten pertsona guztiekiko).
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

Lanean ari diren gizonei dagokienez, kontratu mugagabea dutenen proportzioak behera egin du 2011ra arteko % 50etik hurbileko edo hortik gorako zifretatik 2013ko % 45,4ra eta 2015eko % 37,6ra. Beren kontura lan egiten zuten gizonen proportzioa 2009 eta 2011 bitartean % 15,9tik % 7,9ra erori ostean, arlo horretan lan egiten zuten gizonek gora egin zuten berriro 2013an % 15,7an kokatu arte, eta 2015ean % 16,9raino iritsi dira.

Etxebizitza erosteko finantza-betebeharrei aurre egiteko dituzten baldintza eta ezaugarriek adierazten digute alde nabarmenak daudela gizonen eta emakumeen artean. Izan ere, emakumeen diru-sarreren zenbatekoa 2015ean (1.395,6 euro hilean) gizonezkoena baino nabarmen handiagoa baita (1.272,1 euro).

Bi kasuetan, 2011ko errenta baino dezentez apalagoa da, urte hartan emakumeen batez besteko diru-sarrerak 1.512,7 eurokoak baitziren eta 1.612,9 eurokoak, gizonenak. 2009arekin erkatuta, etxebizitza eskatzen duen emakumezkoaren diru-sarrera maila ere txikiagoa da 2015ean (1.395,6 euro, baina 1.468,4 euro 2009an); jaitsiera hori, dena dela, gizonen artean ere gauzatu da (1.272,1 euro 2015ean, eta 1.395,6 euro, berriz, 2009an). 2011n ez bezala, 2009. urtean emakumezkoek diru-sarrera maila altuagoak zituzten gizonezkoek baino.

Etxebizitza eskuratzeko premian dauden gizonezkoak diru-sarrera maila apalagoko egoerara itzuli izana 2013-2015 biurtekoan gertatutakoarekin lotzen da. Emakumezkoen diru-sarrerak igo egin diren bitartean (2013ko 1.291,9 eurotatik 2015eko 1.395,6 eurotara), gizonezkoenak jaitsi egin dira (2013ko 1.426,2 eurotatik 2015eko 1.272,1 eurotara).

Etxe premian dauden emakumeen diru-sarrerak gizonenak baino handiagoak diren arren, etxebizitzaren hileroko ordainketa beren gain hartzeko emakumeen gaitasuna (436,7 € hilean), gizonena baino txikiagoa da 2015ean (510,5 € hilean). Bi kasuetan, hileroko ordainketa-ahalmena hazi egin da 2013arekiko. Orduan emakumeek 368 euro ordain zitzaketen hilean, eta gizonek 400,9 euro. Ildo berean, bi sexuek partekatzen dute, epe ertainera, gastu-ahalmenaren igoera, 2010-2013 aldiarekin erkatzen bada. Ondorioz, 2009ko gastu-ahalmeneko zifretara (442,7 euro emakumeen kasuan eta, 491,7 euro gizonenean) hurbildu dira, edo gainditu, gizonezkoen artean gertatu den bezala.

Aurreikusitako finantza-ahalegina kontuan hartzean, ordea –gastu-ahalmena eta hilean eskuragarri dituzten diru-sarrerak erlazionatuta–, 2015ak markatzen du distantzia handiena gizonen eta emakumeen artean. Hala, nahiz eta emakumeek gizonek baino diru-sarrera handiagoak dituzten, diru-sarreren % 31,3 baizik ezin dezakete bideratu etxebizitza ordaintzera 2015ean; gizonek, aldiz, % 40,1. Ia 9 puntuko alde hori 2009tik erregistratu den handiena da, urte hartan, 5,1 puntuko gizonen aldeko diferentzia jaso baitzen (% 35,2, baina % 30,1 baino ez emakumeen artean). Nahiz eta bi sexuetan 2015eko finantza-ahalegina 2009an, 2011n eta 2013an hautemandakoa baino handiagoa den, gizonen artean lortu duen maximoa ia 5 puntu altuagoa da aurreko urteetakoa baino. Aitzitik, emakumeen artean, 2015eko erregistroa aurreko zifretatik hurbilago mantentzen da eta ia 4 puntu azpitik 2010ean lortutako erregistroarekiko (% 31,3, baina % 35,2, 2010ean).

2015ean lehen etxebizitza erosteko planteatutako prezio maximoari[10] dagokionez, jabetzaren aukera planteatzen duten gizonezkoen kasuan altuagoa da aipatutako prezioa emakumezkoen artean hautematen dena baino. Prezio maximo hori 143.116 eurokoa da, guztira, etxebizitza bakoitzeko, gizonen kasuan, eta hori emakumeek adierazitako prezio maximoa baino (119.968 euro) % 19,3 handiagoa da.

Emakumeen kasuan, 2013 eta 2015 artean hileroko diru-sarrerak hazi zaizkien arren, murriztu egin da ordain dezaketen prezio maximoa (2013ko 129.235 eurotatik 2015eko 119.968 eurotara). Gizonen artean, kontrara, gutxitu egin dira diru-sarrerak, baina handitu egin da prezio ordaingarri maximoa. Prezio hori 2013ko 139.851 eurotatik 2015eko 143.116 eurotara igo baita.

## 35. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izanik, etxebizitza premian dauden pertsonen finantza-gaitasuna, sexuaren arabera. 2009-2013

**Oinarria: Jabetzan edo batean zein bestean eskuratzea aurreikusten duten pertsonak**

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)

| | 2009 | | 2010 | | 2011 | | 2013 | | 2015* | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona |
| Batez besteko diru-sarrerak | 1.468,4 | 1.395,6 | 1.191,2 | 1.296,3 | 1.512,7 | 1.612,9 | 1.291,9 | 1.426,2 | 1.395,6 | 1.272,1 |
| Hilero ordaintzeko batez besteko gaitasuna | 442,7 | 491,7 | 419,0 | 447,5 | 401,4 | 465,4 | 368 | 400,9 | 436,7 | 510,5 |
| Aurreikusitako finantza-ahalegina (diru-sarreren gaineko %) | 30,1 | 35,2 | 35,2 | 34,5 | 26,5 | 28,9 | 28,5 | 28,1 | 31,3 | 40,1 |
| Ordain dezaketen gehieneko prezioa (**) | 145.939 | 158.436 | 136.860 | 167.689 | 144.714 | 146.754 | 129.235 | 139.851 | 119.968 | 143.116 |

** 2015ean, emantzipazioari aurre egin ahal izateko behar beste diru-sarrera badituztela iritzen dioten pertsonen informazioa dagoenean soilik sartzen da.*
(**): % bertikala (beharra duten pertsona guztiekiko).
(*) 2015etik aurrera: Oinarria: Aurreikusitako edukitze-erregimena: jabetzan, alokairuan erosteko aukerarekin edo bata zein bestea
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

Bai gizonen kasuan eta bai emakumeen kasuan, familiatik independizatzeko eta beren kabuz bizitzeko desioa da lehen etxebizitza eskuratzeko arrazoi ohikoena. Hala adierazten dute emakumeen % 73,1ek eta gizonen % 74,3k. Ez kasu batean eta ez bestean, 2015ak ez ditu faktore horri lotutako erregistro maximoak markatzen. 2009-2015 aldian, 2013an erregistratu zen emakumeen arteko maximoa (% 77,3), eta 2009an gizonen artekoa (% 78,9).

Bestalde, 2015ean, bikotearekin/ezkonduta bizitzen hasteko desioa aipatzen dute emakumeen % 25,7k eta gizonen % 22,8k. Emakumeen kasuan, 2015eko ehuneko horrek nolabaiteko errekuperazioa markatzen du aurreko urteekiko (% 19, 2013an; eta % 23, 2010ean). Nolanahi ere, zifra urruti dago oraindik 2009 eta 2011ko % 32-33ko

---

[10] 2009az geroztik, jabetza-erregimenaren aldeko aukera planteatzen duten pertsonek adierazitako prezioa soilik hartzen da kontuan. Honako oinarri hau aplikatu da: **Aurreikusitako edukitze-erregimena: jabetzan edo bata zein bestea**

maileteatik. Gizonen kasuan, berriz, 2009 eta 2011 artean igoera bat izan ondoren (% 19,3tik % 34,2ra), bikotean bizitzeari lotutako eskaera jaitsi egin da urte hartatik 2015eko % 22,8ra iritsi arte.

### 36. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonen lehenengo etxebizitza eskuratzeko premiaren arrazoia, sexuaren arabera. 2009-2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)

| ARRAZOIAK (*) | 2009 | | 2010 | | 2011 | | 2013 | | 2015 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona |
| Ezkontzea, bikotean bizitzea | 32,7 | 19,3 | 23,0 | 23,8 | 32,3 | 34,2 | 19,0 | 25,3 | 25,7 | 22,8 |
| Familiatik independizatzea, bere kontura bizitzeko | 62,9 | 78,9 | 74,5 | 72,6 | 65,7 | 64,3 | 77,3 | 72,3 | 73,1 | 74.3 |
| Beste arrazoiren bat | 4,5 | 1,8 | 2,5 | 3,6 | 1,9 | 1,5 | 3,8 | 2,4 | 1,2 | 2,9 |
| **GUZTIZKOA** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** |

(*): % bertikala (beharra duten pertsona guztiekiko).
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

Etxea eskuratzeko beharra kalifikatzeko orduan, 2015eko emaitzek erakusten dute premia maila subjektiboa[11] pixka bat handiagoa dela emakumeen artean (62,7 puntu) gizonen artean baino (59,2 puntu). Hautemandako premia maila horiek jaitsi egin dira 2013arekiko, orduan emakumeek 63,4 puntuko zifra eman baitzuten, eta 62,2koa gizonek. Izatez, 2009tik hona, 2015ak markatu ditu premia maila subjektiboaren maila apalenak, hala gizonen nola emakumeen artean.

### 27. grafikoa. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonen etxebizitza premiaren maila subjektiboa, sexuaren arabera, 2009-2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)




Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

[11] Beharraren batez besteko indize subjektiboa 0 eta 100 bitarteko eskalan kalkulatzen da. Elkarrizketatutako pertsonen banakako iritziei dagozkien erantzunen batez bestekoa erakusten du, honako eskala honen arabera: 100, handia; 66, dezentea; 33, pixka bat; eta 0, txikia.

Etxea eskatuta daukaten pertsonen itxarote-denborari erreparatuta, alde adierazgarriak hautematen dira sexuen artean. Bereziki nabarmena da etxe premian dauden emakumeen denbora laburragoa. Horrela, lehen etxebizitza eskuratzeko zain bi urte baino gutxiago daramaten emakumeen proportzioa % 65,6koa da 2015ean, eta % 58,7koa gizonengan. Bi kasuetan ikusten da, nolanahi ere, mota honetako premia goraka doala, % 42 eta % 38,1eko zifrak eman baitituzte, hurrenez hurren, 2009an.

### 37. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonek lehen etxebizitza eskuratzeko zain daramaten denbora, sexuaren arabera. 2009-2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)

| Zain daramaten denbora | 2009 | | 2010 | | 2011 | | 2013 | | 2015 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona |
| Urtebete baino gutxiago | 15,2 | 12,6 | 22,2 | 18,1 | 22,8 | 24,1 | 15,6 | 17,6 | 26,1 | 24,2 |
| Urtebete eta 2 urte artean | 26,8 | 25,5 | 33,8 | 35 | 34,8 | 23,4 | 39,0 | 29,6 | 39,5 | 34,5 |
| 2 eta 4 urte artean | 30,7 | 27,7 | 18,3 | 18,8 | 9,4 | 13,2 | 22,2 | 29,7 | 16,4 | 16,5 |
| 4 urtetik gora | 27,3 | 34,2 | 25,7 | 28,1 | 33 | 39,3 | 23,3 | 23,1 | 18,0 | 24,7 |
| **Urte-kopurua batez bestez** | **2,6** | **2,7** | **2,3** | **2,4** | **2,4** | **2,6** | **2.3** | **2.4** | **2,3** | **2,4** |

(*): % bertikala (beharra duten pertsona guztiekiko).
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

Etxebizitzaren zain denbora gehien daramaten taldeen artean, lau urte edo gehiagoz itxaroten dauden pertsonei dagokien pisua handiagoa da gizonengan, 2015ean (% 24,7, baina % 18 emakumeengan). Esan behar da, hala ere, aurreko urteetan hautemandako zifrak baino askoz txikiagoak direla (adibidez, % 39,3 eta % 33, gizonek eta emakumeek, hurrenez hurren, 2011n).

Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen denbora-aurreikuspena antzekoa da bi sexuen kasuan. Horrela, emakumeen % 45,4k eta gizonen % 45,8k irizten diote aukera handiak edo dezente dituztela 2 urteko epean lehen etxebizitza eskuratzeko. Ehuneko horiek % 65,7raino igotzen dira, bi sexuetan, aurreikuspena 4 urtera egiten bada.

Sexuaren araberako dimentsio honetako desberdintasun deigarri bakarra etxebizitza eskuratzea bi urteko epean lortzeko aukera handia ikusten duten gizonen proportzio handiagoan dago (% 16,3 dira, eta % 7,2, aldiz, emakumeen artean, zeinak jaitsiera handia izan baitu 2013ko % 13,5arekiko).

Bi urtera begira, dena den, etxe premia duten pertsonen erdiek baino gehiagok uste dute ez dagoela aukerarik edo aukera gutxi dutela lehen etxebizitza eskuratzeko 2015ean (emakumeen % 54,6 eta gizonen % 54,2 iritzi horretakoak dira). Hala ere, 2009tik erregistratutako zifra apalenetako bat da. Ehuneko horiek esan nahi dute, izatez, hamar puntutik hurbileko jaitsiera izan dutela 2013arekiko (% 64,9 emakumeen artean eta % 64 gizonen artean).

## 38. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak dituzten pertsonek etxebizitza eskuratzeko premia asetzeko aukera, 2 eta 4 urtera, sexuaren arabera. 2009-2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)

| | 2009 | | 2010 | | 2011 | | 2013 | | 2015 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona |
| **2 urterako aukera** | | | | | | | | | | |
| Aukera asko | 13,4 | 11,2 | 14,3 | 14,5 | 10,1 | 11,6 | 13,5 | 15,8 | 7,2 | 16,3 |
| Aukera dezente | 28,7 | 23,8 | 25,0 | 20,0 | 23,9 | 21,4 | 21,6 | 20,2 | 38,2 | 29,5 |
| Aukera gutxi | 50,9 | 57,5 | 42,2 | 50,5 | 58,7 | 54,0 | 43,8 | 46,0 | 36,7 | 43,4 |
| Aukerarik ez | 6,9 | 7,4 | 18,5 | 15,0 | 7,3 | 13,0 | 21,1 | 18,0 | 17,9 | 10,8 |
| **Guztizkoa** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** |
| **4 urterako aukera** | | | | | | | | | | |
| Aukera asko | 13,9 | 11,8 | 14,3 | 16,0 | 34,5 | 33,8 | 37,9 | 36,9 | 46,0 | 46,4 |
| Aukera dezente | 42,0 | 36,4 | 55,1 | 44,9 | 26,5 | 24,0 | 21,4 | 18,4 | 19,7 | 19,3 |
| Aukera gutxi | 38,9 | 45,3 | 23,4 | 33,0 | 36,2 | 32,9 | 30,4 | 32,2 | 26,5 | 27,2 |
| Aukerarik ez | 5,1 | 6,6 | 7,2 | 6,1 | 2,8 | 9,2 | 10,2 | 12,5 | 7,8 | 7,1 |
| **Guztizkoa** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** |

(*): % bertikala (beharra duten pertsona guztiekiko).

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

4 urtera begirako epea kontuan hartzean, etxebizitza eskuratzeko aukerarik ez dagoela edo aukera gutxi dutela irizten dioten pertsonen proportzioaren jaitsiera are deigarriagoa da, populazioaren % 34,3k horixe uste baitu, sexuen artean alderik gabe. 2009an edo 2013an hautemandakoetatik oso urrun dauden zifrak dira, urte haietan % 40tik gorakoak erregistratu baitziren.

Eskuratu nahi diren etxebizitzen ezaugarrietan arreta jarriz gero, eta etxebizitza erabiliak edo berriak nahiago diren behatzen badugu, ikusten da pertsonen erdiei baino gehiagori berdin zaiela etxebizitzaren izaera. Planteamendu hori askoz argiagoa da emakumeen artean, % 70,7k hala adierazi baitu; gizonen artean, % 54,9k.

Gizonek nahiago dute etxebizitza berria, haien % 22,6k hala eskatzen baitute; emakumeen artetan, % 8,1 dira hori eskatzen dutenak. Etxebizitza erabiliari dagokionez, gizonen % 11,4k eta emakumeen % 6,5ek eskatzen dute.

## 39. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izanik, lehen etxebizitza eskuratzeko premia duten pertsonek behar dituzten etxebizitzen izaera, sexuaren arabera. 2009-2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)

| | 2009 | | 2010 | | 2011 | | 2013 | | 2015* | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Etxebizitzaren izaera** | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona |
| Berria | 16,1 | 21,4 | 26,7 | 17,3 | 25,5 | 23,3 | 17,1 | 19,9 | 8,1 | 22,6 |
| Erabilitakoa | 7,9 | 4,7 | 6,7 | 10,2 | 1,8 | 2,7 | 9,9 | 9,2 | 6,5 | 11,4 |
| Bata zein bestea | 73,2 | 71,4 | 66,6 | 69,8 | 72 | 72,9 | 71,5 | 67,5 | 70,7 | 54,9 |
| Ed/Ee | 2,7 | 2,4 | 0,0 | 2,7 | 0,7 | 1,2 | 1,5 | 3,3 | 14,6 | 11,0 |
| **GUZTIZKOA** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** |

** 2015ean, emantzipazioari aurre egin ahal izateko behar beste diru-sarrera badituztela irizten dioten pertsonen informazioa dagoenean soilik sartzen da.*

(**): % bertikala (beharra duten pertsona guztiekiko).

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

Eskatutako etxebizitzaren batez besteko tamaina antzekoa da emakumeen eta gizonen artean (76$m^2$ eta 75,6 $m^2$, hurrenez hurren). Alde handienak 60 $m^2$ra arteko taldean identifikatzen dira, talde hori emakumeen % 5,9k eta gizonen % 27,9k aipatzen baitute. Bestalde, 90 $m^2$tik gorako azalera adierazten duten gizonen taldea emakumeena baino handiagoa da (% 10,4 eta % 1,9, hurrenez hurren). Emakumeek, ordea, nahiago dituzte tarteko azalerako etxebizitzak: % 37,5ek 61etik 75 $m^2$ra artekoak eskatzen dituzte, eta % 36,2k 76 eta 90$m^2$ artekoak. Gizonen kasuan, zifra horiek % 21,6ra eta % 28ra jaisten dira, hurrenez hurren.

### 40. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izanik, lehen etxebizitza eskuratzeko premia duten pertsonek behar dituzten etxebizitzen azalera erabilgarria sexuaren arabera. 2009-2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)

| Azalera erabilgarria | 2009 | | 2010 | | 2011 | | 2013 | | 2015* | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona |
| 60 $m^2$ra arte | 15,7 | 9,5 | 9,5 | 28,2 | 19,5 | 20,5 | 30,8 | 26,1 | 5,9 | 27,9 |
| 61 $m^2$tik 75era | 43,9 | 42,9 | 42,9 | 34,1 | 37,1 | 34,2 | 31,3 | 29,0 | 37,5 | 21,6 |
| 76 $m^2$tik 90era | 28,4 | 30,9 | 30,9 | 25,4 | 36,2 | 43,1 | 26,8 | 26,0 | 36,2 | 28,0 |
| 90 $m^2$ baino gehiago | 7,1 | 7,9 | 7,9 | 1,9 | 4,0 | 0,8 | 3,9 | 11,1 | 1,9 | 10,4 |
| Ed/Ee | 4,9 | 8,8 | 8,8 | 10,5 | 3,3 | 1,4 | 7,2 | 7,8 | 18,5 | 12,2 |
| **Batez besteko azalera ($m^2$)** | **72,4** | **74,6** | **74,6** | **67,0** | **71,4** | **71,0** | **67,6** | **71,5** | **76** | **75,6** |

** 2015ean, emantzipazioari aurre egin ahal izateko behar beste diru-sarrera badituztela irizten dioten pertsonen informazioa dagoenean soilik sartzen da.*
(**): % bertikala (beharra duten pertsona guztiekiko).
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

2015ean alokairua nahiago izatea nagusi bada ere bi sexuetan, emakumeen artean handiagoa da bide horren aldeko apustua. Emakumeen populazioaren % 55,9k alokairuaren aldeko hautua egiten du; gizonen artean % 49,4 dira. Bi sexuen kasuan, azken bi urteetan modu ikusgarrian handitu da aukera hori, 2011n alokairuaren aukera emakumeen % 18,8k eta gizonen % 16,8k baizik ez baitzuten adierazi.

Etxebizitza eskuratzeko erregimenari dagokionean ere argi agertzen da bi sexuen arteko dibergentzia jabetza-erregimenaren aukera esklusiboa kontuan hartzean. 2015ean, emakumeen % 24,9k aukera horren alde egin zuten, eta gizonen % 27,9k ere bai. 2010. urtea salbuetsita, 2009 eta 2015 artean jabetza-erregimenaren aldeko aukera esklusiboak maila handiagoak izan ditu gizonen artean, nahiz eta aldeak murriztu diren 2013ko zifrekiko. 2013an, berriz, jabetzaren aldeko aukera esklusiboa gizonen % 44,7k eta emakumeen % 28,4k izan zuten nahiago.

Jabetzaren auziari buruzko hurbilpen zabalago bat eginik, eta kontuan hartuta nahiago den aukera edota bata zein bestea (alokairua edo jabetza) ez ezik, erosteko aukera duen alokairua, egoera askoz gehiago hurbiltzen da bi sexuen artean. Gizonezkoen % 71,5 esandako aukera horietako baten alde agertzen da 2015ean, eta proportzioa oso antzekoa da emakumeen artean (% 70,8).

### 41. taula. Diru-sarrerak edo errenta propioak izanik, lehen etxebizitzaren premia duten pertsonek behar dituzten etxebizitzen edukitze-erregimena, sexuaren arabera. 2009-2015

(Premian dauden eta nolabaiteko diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten pertsona guztiekiko ehunekoa)

| Edukitze-erregimena | 2009 | | 2010 | | 2011 | | 2013 | | 2015 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona |
| Jabetza | 57,5 | 61,1 | 56,8 | 47,5 | 50,3 | 53,5 | 28,4 | 44,7 | 24,9 | 27,9 |
| Alokairua | 17,8 | 15,3 | 19,7 | 26,0 | 18,8 | 16,8 | 39,9 | 37,5 | 55,9 | 49,4 |
| . Erosteko aukerarik gabe | - | - | - | - | - | - | - | - | 29,2 | 28,5 |
| . Erosteko aukerarekin | - | - | - | - | - | - | - | - | 26,7 | 20,9 |
| Bata zein bestea | 24,7 | 23,6 | 23,5 | 26,5 | 30,9 | 29,6 | 31,7 | 17,9 | 19,2 | 22,7 |
| **GUZTIZKOA** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

(*): % bertikala (beharra duten pertsona guztiekiko).

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

## 2.5. Etxe premian dagoen kolektiboaren ezaugarriak, diru-sarrerak izatearen edo ez izatearen arabera

Aurrez aipatu den bezala, 2015ean, 104.176 pertsona daude, 18 eta 44 urte bitartekoak, lehen etxebizitza eskuratzeko premian. 72.836 pertsonak, guztizkoaren % 69,9, diru-sarrera edo errenta propioak ditu, EBEIk premia efektiboa irizten diona osatzen dutela, potentzialki gauza daitekeena diru-sarrera horien bitartez. Hala ere, kolektibo osoaren (15.645 pertsona) % 15ek soilik irizten diote behar beste diru-sarrera badutela emantzipazio premia horri aurre egiteko; % 54,9k, ordea, (57.191 pertsona) ez du diru-sarrera egonkorrik edota nahikorik esandako premiari era egokian aurre egiteko. Bestalde, inkesta egin den momentuan, 31.340 pertsonak, lehen etxebizitza eskuratzeko beharrizana adierazten zuten arren, ez zuten inolako errentarik ez diru-sarrera propiorik (premian dauden pertsonen % 30,1).

2015eko edizioan, lehen aldiz EBEI egiten denetik, informazioa sartu da elkarrizketa egin den momentuan ez dutela inolako diru-sarrerarik esan duen kolektiboak adierazitako lehen etxebizitza eskuratzeko premiari buruz. Helburua pertsona horiek etorkizunean diru-sarrerak izan ditzaketen kasuan gerta litekeen etxebizitza eskaera hipotetikoa sartzea da.

Lurralde historikoen araberako azterketari dagokionez, alde nabarmenak hauteman dira lehen etxebizitza eskuratzeko premia duten pertsonan banaketan, dituzten diru-sarrera edo errenten arabera. Lehen etxebizitza eskuratzeko premia adierazten duen kolektiboaren barruan, Araba da, 2015ean, sarrera gabeko pertsonen proportzio handiena duena: guztizkoaren % 35,2; Bizkaian, bitartean, % 30,6 dira, eta Gipuzkoan % 26,9. Hala eta guztiz ere, Araba da, aldi berean, lehen etxebizitza eskuratzeari aurre egin ahal izateko behar beste diru-sarrera badituztela adierazten duten pertsona gehien dituen lurraldea. Talde hori, Araban, etxe premian dagoen populazioaren % 20 da; Bizkaian % 15,1 eta Gipuzkoan, berriz, % 12,7. Azken bi lurralde horietan, presentzia erlatibo handiagoa dute tarteko egoerek, izan ere, aztertutako populazioaren erdiak baino gehiagok badituzte diru-sarrera edo errenta propioak, baina ez dute uste nahikoa direnik emantzipazioari aurre egiteko (% 60,3 Gipuzkoan eta % 54,3 Bizkaian). Arabako lurraldean, aitzitik, tarteko egoera horien inpaktua 10 eta 15 puntu portzentual artean murritzagoa da (% 44,8).

Eskuratzeko moduari dagokionez, ez da alderik antzematen diru-sarrerarik ez duten pertsonen taldearen pisu erlatiboan, izan ere, bai eskuratzea banaka eskatzean eta bai bikotean egitean, hautemandako premiaren % 30,1 baitira. Hala ere, etxebizitza banaka eskuratzea eskatzen duten pertsonek zailtasun handiagoak dituzte beharrizanari aurre egiteko, berorien artean, % 9,3 baizik ez baitira behar beste diru-sarrera badituztela irizten diotenak; etxea bikotean eskatzen dituzten pertsonen artean, berriz, % 20,7 dira. Diru-sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak dituzten pertsonak etxebizitza banaka eskuratzeko premia duten biztanleen % 60,5 dira, eta % 49,3 etxea bikotean eskuratzea planteatzen dutenen artean.

### 42. taula. Pertsonen etxebizitza eskuratzeko beharrizanaren kuantifikazioa, diru-sarrerak edo errenta propioak izatearen arabera, lurralde historikoa eta eskuratze mota kontuan hartuta. EAE 2015

(Beharra duten pertsonen balio absolutuak eta ehuneko bertikalak)

| | | EAE | Lurralde historikoa | | | Eskuratze mota | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia | Banaka eskuratzea | Bikotean eskuratzea |
| **Pertsona kopurua** | **Guztizkoa** | **104.176** | **13.858** | **32.144** | **58.173** | **51.948** | **52.228** |
| | Diru-sarrerekin | 72.836 | 8.980 | 23.484 | 40.372 | 36.310 | 36.526 |
| | . Behar beste diru-sarrera | 15.645 | 2.776 | 4.090 | 8.779 | 4.856 | 10.789 |
| | . Diru sarrera gutxiegi/ezegonkorrak | 57.191 | 6.204 | 19.394 | 31.593 | 31.454 | 25.737 |
| | Diru-sarrerarik gabe | 31.340 | 4.878 | 8.660 | 17.801 | 15.638 | 15.702 |
| **Etxebiz. %** | **Guztizkoa** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| | Diru-sarrerekin | 69,9 | 64,8 | 73,1 | 69,4 | 69,9 | 69,9 |
| | . Behar beste diru-sarrera | 15,0 | 20,0 | 12,7 | 15,1 | 9,3 | 20,7 |
| | . Diru sarrera gutxiegi/ezegonkorrak | 54,9 | 44,8 | 60,3 | 54,3 | 60,5 | 49,3 |
| | Diru-sarrerarik gabe | 30,1 | 35,2 | 26,9 | 30,6 | 30,1 | 30,1 |

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Lehen etxebizitza eskuratzeko premia duten pertsonen batez besteko adinari dagokionez, ikusi da diru-sarrera gabeko pertsona premiadunak gazteagoak direla. 27,2 urteko adina dute, batez beste; diru-sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak dituztenen kasuan 30, eta 31,4 behar beste diru-sarrera dituen populazioan.

Talde desberdinetan, banaka eskuratzea planteatzen duten pertsonen batez besteko adina handiagoa da bikotean eskuratu nahi dutenena baino. Baina taldeen arteko aldeak areagotu egiten dira diru-sarreren egoera hobetu ahala. Horrela, aldea 0,8 urtekoa da sarrerarik gabeko pertsonen artean (26,8 urte bikotean eskatzen dutenen artean eta 27,6 banaka eskuratu nahi dutenek) eta 1,2 urtekoa diru-sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak dituztenen artean (29,3 urte batzuek eta 30,5 urte besteek). Baina 3 urtekoa izatera iristen da behar beste diru-sarrera adierazten dituztenen artean (33,4 urte eta 30,4). Lehen etxebizitza eskuratzeko premian dagoen populazio osoa hartuta, 2015ean, batez besteko adina 29,9 urtekoa da banaka eskuratu nahi duten pertsonen kasuan, eta zifra hori 1,1 urtetan handiagoa da etxea bikotean eskuratu nahi duten pertsonena baino (28,8 urte).

Lurralde historiko guztietan, diru-sarrera gabe etxe premian dauden pertsonen batez besteko adina txikiagoa da premian dauden pertsona guztien batez besteko adina baino. Batez besteko adin apalena Arabari dagokio, 26,4 urterekin, gero Gipuzkoa dator 27rekin eta Bizkaia, azkenik, 27,5 urterekin.

Adinaren aldagaiari dagokionez, azpimarra daitekeen beste alderdi bat, kasu honetan Gipuzkoan, sarrera gabe etxe premian dauden pertsonen batez besteko adinaren eta diru-sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak dituen taldearen adinaren arteko hurbiltasuna da, 27 eta 28,6 urte, hurrenez hurren. Bai Araban eta bai Bizkaian, aldiz, diru-sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak dituzten pertsonen batez besteko adina 30 urtetik gorakoa da, eta horrela, argi eta garbi urruntzen da sarrera gabeko taldetik (30,6 eta 26,4 Araban; eta 30,7 eta 27,5 Bizkaian).

Bestalde, hala Arabak nola Bizkaiak, antzeko batez besteko adinak dituzte etxe premian dagoen populazioaren artean, sarrerak dituzten talde desberdinetan, kasu guztietan 30,1 eta 31,2 urteren arteko zifretan. Gipuzkoa puntu honetan ere bereizten da, batez besteko adin altuagoa baitute behar beste diru-sarrera adierazten duen kolektiboan, 32,5 urte, ia lau puntu handiagoa diru-sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak dituen kolektiboko 28,6 urteak baino.

### 43. taula. Pertsonen batez besteko adina, diru-sarrerak edo errenta propioak izatearen arabera, lurralde historikoa eta eskuratze mota kontuan hartuta. EAE 2015

(Beharra duten pertsonen batez besteko adina)

| | EAE | Lurralde historikoa | | | Eskuratze mota | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia | Banaka eskuratzea | Bikotean eskuratzea |
| **Guztizkoa** | **29,3** | **29,0** | **28,6** | **29,8** | **29,9** | **28,8** |
| Diru-sarrerekin | 30,3 | 30,4 | 29,2 | 30,8 | 30,9 | 29,6 |
| . Behar beste diru-sarrera | 31,4 | 30,1 | 32,5 | 31,2 | 33,4 | 30,4 |
| . Diru sarrera gutxiegi/ezegonkorrak | 30,0 | 30,6 | 28,6 | 30,7 | 30,5 | 29,3 |
| Diru-sarrerarik gabe | 27,2 | 26,4 | 27,0 | 27,5 | 27,6 | 26,8 |

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Lehen etxebizitza eskatzen duten pertsona guztien profila aztertzen bada, alde nabarmenak antzematen dira adinaren araberako banaketan. Alde batetik, 35 urtetik gorako pertsonen proportzioa handitu egiten da diru-sarreren egoera hobetu ahala (etxe premian dagoen sarrera gabeko populazioaren % 12,9; diru-sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak dituztenen % 17,5; eta behar beste diru-sarrera dutenen % 28,5). Bestetik, 25 urtez azpiko kolektiboaren pisua nabarmen areagotzen da burujabetasun ekonomikoa jaitsi ahala. Azken kasu horretan, egiaztatu da emantzipazio premia duela dioen diru-sarrera gabeko populazioaren % 41,9k 25 urte baino gutxiago dituela; proportzio hori % 12,8koa da etxe premian egonik sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak dituen populazioan, eta % 8,9koa behar beste diru-sarrera dutenen artean.

### 44. taula. Lehen etxebizitzaren premia duten pertsonen adinaren araberako banaketa, dituzten sarrerak edo errenta propioak kontuan hartuta, EAE. 2015

(Beharra duten pertsona guztien gaineko ehunekoak)

| | Diru-sarrera edo errenta propioren bat dutenak | | | | | | Diru-sarrerarik gabe | | Beharra dutenen guztizkoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Behar beste diru-sarrera | | Diru sarrera gutxiegi / ezegonkorrak | | Diru-sarrerak dituztenen guztizkoa | | | | | |
| | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % |
| **Guztizkoa** | **15.645** | **100** | **57.191** | **100** | **72.836** | **100** | **31.340** | **100** | **104.176** | **100** |
| **Beharra duen pertsonaren adina** | | | | | | | | | | |
| 18-24 urte artean | 1.400 | 8,9 | 7.292 | 12,8 | 8.692 | 11,9 | 13.117 | 41,9 | 21.809 | 20,9 |
| 25-34 urte artean | 9.788 | 62,6 | 39.899 | 69,8 | 49.687 | 68,2 | 14.190 | 45,3 | 63.877 | 61,3 |
| 35-44 urte artean | 4.456 | 28,5 | 10.000 | 17,5 | 14.456 | 19,8 | 4.033 | 12,9 | 18.489 | 17,7 |
| **Batez besteko adina (urteak)** | **31,4** | | **30,0** | | **30,3** | | **27,2** | | **29,3** | |

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Etxe premian dagoen diru-sarrera gabeko taldeak inpaktu eskasa du etxebizitzen eskaera potentzialean, urtebetera begirako perspektiban, baina handixeagoa bi urtera eta, batez ere, lau urte begirakoan.

Urtebeterako eskaerari dagokionez, diru-sarrera gabeko taldearen ekarpena, izatez, zero da, baina mota horretako eskaera ia paralizatua dagoen testuinguru batean, 91.693 etxebizitza berri potentzialetatik % 1,9 baizik ez baitira hurrengo urtean etxea eskuratzeari aurre egiteko gai. Urtebeterako etxe eskaera xede horretarako behar beste diru-sarrera badituztela irizten dioten pertsonek soilik aurreikusten dute, eta hala ere, talde horren % 13,1 besterik ez dira (diru-sarrerak dituzten egoera guztien % 2,7).

Bi urterako eskaeraren perspektiban, ekarpena apur bat garrantzitsuagoa da. Sarrera gabeko pertsonen % 18k etxebizitza eskuratzearen beharrizana asetzea aurreikusten dute, denbora epe horren barruan. Kolektiboko gainerakoenak baino askoz zifra apalagoak diren arren (% 61,5 behar beste diru-sarrera dituztenen kasuan eta % 41,5, diru-sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak dituztenen artean), eskaera potentzialaren % 14,4 izatera hel litezke bi urtera begira.

### 45. taula. Lehen etxebizitza eskuratzeko eskariaren kuantifikazioa, urtebetera, 2ra eta 4 urtera egindako eskaera motaren arabera, dituzten sarrerak edo errenta propioak kontuan hartuta. 2015

(Beharra duten pertsonen balio absolutuak eta ehuneko bertikalak eta horizontalak)

| | Beharrizana | | Urtebete | | | 2 urte | | | 4 urte | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Etxebiz. kop. | Etxebiz. % | Etxebiz. kop. | Etxebiz. % | Fam. % | Etxebiz. kop. | Etxebiz. % | Fam. % | Etxebiz. kop. | Etxebiz. % | Fam. % |
| **Beharra dutenen guztizkoa** | **91.693** | **100,0** | **1.745** | **100,0** | **1,9** | **34.284** | **100,0** | **37,4** | **55.435** | **100,0** | **60,5** |
| **Diru-sarrerak dituztenen guztizkoa** | **64.290** | **70,1** | **1.745** | **100,0** | **2,7** | **29.356** | **85,6** | **45,7** | **42.233** | **76,2** | **65,7** |
| . Behar beste diru-sarrera | 13.338 | 14,5 | 1.745 | 100,0 | 13,1 | 8.206 | 23,9 | 61,5 | 10.485 | 18,9 | 78,6 |
| . Diru sarrera gutxiegi / ezegonkorrak | 50.951 | 55,6 | 0 | 0,0 | 0,0 | 21.150 | 61,7 | 41,5 | 31.747 | 57,3 | 62,3 |
| **Diru-sarrerarik gabe** | **27.404** | **29,9** | **0** | **0,0** | **0,0** | **4.928** | **14,4** | **18,0** | **13.202** | **23,8** | **48,2** |

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Lau urtera begirako perspektiban, sarrerarik gabeko pertsonen ia erdiek (% 48,2) uste dute sartu ahalko direla etxebizitza batean, eta zifra hori ez dago hain urrun diru-

sarrerak dituen populazioaren % 65,7tik (behar beste diru-sarrera dituzten pertsonen % 78,6 eta sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak dituztenen % 62,3). Lau urtera begirako eskaera potentzialari egiten zaion ekarpena, kasu honetan, EBEIn hautemandako guztizkoaren % 23,8raino igotzen da.

Espero izatekoa den bezala, etxebizitza premia bi eta lau urtera begira estaltzea oso lotuta dago etxe premian daudenek diru-sarrerak izateari buruz daukaten egoerarekin. Horrela, hurrengo bi urteetan etxebizitza premiari aurre egin ahal izateko aukera asko edo dezente dituztela irizten dioten pertsonen taldeak zifra hauek ematen ditu: behar beste diru-sarrera duten pertsonen % 61,4; diru-sarrerak izanagatik gutxiegi edo ezegonkorrak dituztenen % 41,3 eta diru-sarrera edo errenta propiorik ez dutenen % 17,6.

Epea lau urtera zabaltzen bada, perspektibak hobeak dira, baina nabarmena da oraindik norberaren errenten inguruko egoera. Diru-sarrera egokiak dituzten pertsonen % 61,3k hurrengo lau urteetan emantzipazio-prozesuari aurre egiteko aukera asko dituztela uste duten bitartean, proportzioa % 42,1era jaisten da sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak dituztenen artean, eta % 20tik behera mantentzen da diru-sarrerarik ez duten pertsonen taldean (% 19,4). Aldeak apur bat txikiagoak dira, baina oraindik garrantzitsuak, multzo bakar batean sartzen baditugu lau urteko epe horren barruan etxebizitza eskuratzeko aukerak (asko edo dezente) ikusten dituztenak (% 78,4, % 62,2 eta % 48, hurrenez hurren).

### 46. taula. Lehen etxebizitza eskuratzeko premia 2tik 4 urtera bitartean asetzeko aukerak, pertsona horiek dituzten diru-sarrera edo errenta propioen arabera. 2015

(Beharra duten pertsona guztien gaineko ehunekoak)

| 2009 | Diru-sarrera edo errenta propioren bat dutenak: Behar beste diru-sarrera | Diru-sarrera edo errenta propioren bat dutenak: Diru sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak | Diru-sarrera edo errenta propioren bat dutenak: **Diru-sarrerak dituztenen guztizkoa** | Diru-sarrerarik gabe | **Beharra dutenen guztizkoa** |
|---|---|---|---|---|---|
| **2 urterako aukera** | | | | | |
| Aukera asko | 23,8 | 9,3 | 12,4 | 4,4 | 10,0 |
| Aukera dezente | 37,6 | 32,0 | 33,2 | 13,2 | 27,2 |
| Aukera gutxi | 35,0 | 42,1 | 40,6 | 51,1 | 43,7 |
| Aukerarik ez | 3,7 | 16,6 | 13,8 | 31,2 | 19,0 |
| **GUZTIZKOA** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| **4 urterako aukera** | | | | | |
| Aukera asko | 61,3 | 42,1 | 46,2 | 19,4 | 38,2 |
| Aukera dezente | 17,1 | 20,1 | 19,5 | 28,6 | 22,2 |
| Aukera gutxi | 19,4 | 28,9 | 26,9 | 39,5 | 30,7 |
| Aukerarik ez | 2,2 | 8,9 | 7,4 | 12,5 | 8,9 |
| **GUZTIZKOA** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

(*): % bertikala (mota bakoitzean beharra dutenen guztizkoaren gainean).
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

### *Bai egoera profesionala eta bai ikasketa maila aldagai erabakigarriak dira emantzipazio prozesuari begira*

Behar beste diru-sarrera izanik lehen etxebizitzaren premian dauden pertsonen artean gizonezkoen pisua handitu den arren (guztizkoaren % 64,3), sexuaren araberako banaketa antzekoa da premian dagoen gainerako populazioan. Gizonen pisua % 55,6koa

da sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak dituzten pertsonen artean, eta zertxobait handiagoa sarrera gabeen taldean (% 56,3). Kasu guztietan, nolanahi ere, gizonezkoen kolektiboa da nagusi.

Ikasketa mailari dagokionez, lehen edo bigarren mailako ikasketa ez profesionalak dituzten pertsonek askoz pisu handiagoa dute diru-sarrerarik gabeko taldean, diru-sarrerak dituztenen taldean baino. Pertsona talde horren proportzioa diru-sarrerak dituztenen artean % 19,9koa den bitartean, % 38,7koa da diru-sarrerarik gabeko kolektiboan (% 11,4 eta % 21,8, lehen mailako ikasketak edo ikasketa gabeak direnen artean; % 8,5 eta % 16,9, bigarren mailako ikasketa ez profesionalak dituztenen kasuan).

Egoera profesionalari dagokionez, lehenengo etxebizitza eskatzen duten eta horri aurre egiteko behar beste diru-sarrera dituzten pertsonen % 76,7k kontratu finko bat dauka edo soldatarik gabeko langileak dira. Behar beste diru-sarrerarik ez duten edo diru-sarrera ezegonkorrak dituzten pertsonen taldean proportzio hori % 44ra jaisten da. Aldi baterako kontratua daukaten pertsonen pisu erlatiboa aurkakoa da. Behar beste diru-sarrera dituzten pertsonen % 23,2 dira, eta diru-sarrera gutxiegi eta/edo prekarioak dituzten pertsonen taldean, berriz, gehiengoa duen proportzioa da (% 50,6).

### 47. taula. Diru-sarrerak edo errenta propioak izatearen arabera, lehenengo etxebizitza eskuratzeko premia duten pertsonen ezaugarri sozio-demografikoak, EAE 2015

(Beharra duten pertsona guztien gaineko ehunekoak)

| | Diru-sarrera edo errenta propioren bat dutenak | | | | | | Diru-sarrerarik gabe | | **Beharra dutenen guztizkoa** | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Behar beste diru-sarrera | | Diru sarrera gutxiegi / ezegonkorrak | | **Diru-sarrerak dituztenen guztizkoa** | | | | | |
| | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % |
| **Sexua** | | | | | | | | | | |
| Emakumea | 5.578 | 35,7 | 25.379 | 44,4 | 30.957 | 42,5 | 13.681 | 43,7 | 44.638 | 42,8 |
| Gizona | 10.067 | 64,3 | 31.812 | 55,6 | 41.879 | 57,5 | 17.659 | 56,3 | 59.538 | 57,2 |
| **Ikasketa-maila** | | | | | | | | | | |
| Ikasketarik gabe/Lehenengo maila | 1.825 | 11,7 | 6.467 | 11,3 | 8.292 | 11,4 | 6.819 | 21,8 | 15.111 | 14,5 |
| Lanbide ikasketak | 5.761 | 36,8 | 19.883 | 34,8 | 25.644 | 35,2 | 8.757 | 27,9 | 34.401 | 33,0 |
| Bigarren mailako ikasketak | 1.052 | 6,7 | 5.151 | 9,0 | 6.203 | 8,5 | 5.294 | 16,9 | 11.497 | 11,0 |
| Unibertsitateko ikasketak | 7.007 | 44,8 | 25.691 | 44,9 | 32.698 | 44,9 | 10.470 | 33,4 | 43.168 | 41,4 |
| **Lan egoera** | | | | | | | | | | |
| Soldatapekoak ez direnak[12] | 3.230 | 20,6 | 6.465 | 11,3 | 9.695 | 13,3 | - | - | 9.695 | 9,3 |
| Lanean, kontratu finkoa | 8.780 | 56,1 | 18.692 | 32,7 | 27.472 | 37,7 | - | - | 27.472 | 26,4 |
| Lanean, aldi baterako kontratua | 3.635 | 23,2 | 28.921 | 50,6 | 32.556 | 44,7 | - | - | 32.556 | 31,3 |
| Lanik gabe | 0 | 0,0 | 2.162 | 3,8 | 2.162 | 3,0 | 19.306 | 61,6 | 21.468 | 20,6 |
| Beste egoera bat | 0 | 0,0 | 952 | 1,7 | 952 | 1,3 | 11.014 | 35,1 | 11.966 | 11,5 |

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Diru-sarrera gabeko populazioaren ezaugarriak kontuan hartzean, beste guztiaren gainetik dago langabeziaren garrantzia. Etxe premian egonik diru-sarrerak dituen populazioaren % 3 baizik ez dago lanik gabe, baina diru-sarrera gabeko populazioaren

[12] Besteen konturako langileak eta kooperatibako bazkideak barne

% 61,6 langabezian dago. % 35,1, berriz, beste egoera batean daude (ikasten edo aktibitate gabeko beste egoera batean), eta sarrerak dituen populazioaren % 1,3 baizik ez dira.

Emantzipazioa bilatzeko arrazoi nagusia ez da funtsean aldatu diru-sarrera mailaren arabera. Horrela, behar beste diru-sarrera dituztenen artean antzeko jokabidea antzeman da (independizatu nahi dutenak % 77,1 dira, eta bikotean bizi nahi dutenak, berriz, % 22,1), baita diru-sarrerarik ez daukatenen artean ere (% 76,4 eta % 22,0).

### 48. taula. Lehen etxebizitza eskuratzeko premiaren arrazoi nagusia, diru-sarrerak edo errenta propioak izatearen arabera, EAE - 2015

(Balio absolutuak eta ehunekoak beharra duten pertsonen guztizkoaren gainean)

| | Diru-sarrera edo errenta propioren bat dutenak | | | | | | Diru-sarrerarik gabe | | **Beharra dutenen guztizkoa** | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Behar beste diru-sarrera | | Diru sarrera gutxiegi / ezegonkorrak | | **Diru-sarrerak dituztenen guztizkoa** | | | | | |
| | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % |
| Guztizkoa | 15.645 | 100,0 | 57.192 | 100,0 | 72.837 | 100,0 | 31.340 | 100,0 | 104.177 | 100,0 |
| Bikotekidearekin bizitzea / ezkontzea | 3.455 | 22,1 | 14.043 | 24,6 | 17.498 | 24,0 | 6.881 | 22,0 | 24.379 | 23,4 |
| Independizatzea | 12.063 | 77,1 | 41.691 | 72,9 | 53.754 | 73,8 | 23.944 | 76,4 | 77.698 | 74,6 |
| Beste arrazoiren bat | 127 | 0,8 | 1.458 | 2,5 | 1.585 | 2,2 | 515 | 1,6 | 2.100 | 2,0 |

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Alokairu-erregimena aukeratzen duten pertsonak areagotu diren arren, ikusi da baliabide ekonomikoak eskura izateak jabetza-erregimena nahiago izateari eustea mesedetzen duela. Izatez, emantzipazioari ekiteko nahikoa baliabide badituela adierazten duen pertsonen taldean, % 42,5ek nahiago dute jabetza-erregimenaren aldeko hautua egitea. Zifra hori % 22,3raino jaisten da baliabide ekonomiko gutxiegi edo ezegonkorrak dituzten pertsonen artean, eta % 13,6ra inolako sarrerarik ez dutenen artean.

Multzoan hartuta, behar beste diru-sarrera duten pertsonen % 80,6k kontuan hartzen du, nolabait ere, etxea jabetzan hartzea (bata zein bestearen kategoria eta alokairuari lotutako erosteko aukera barne direla). Hain zifra altuetara iritsi ez arren, jabetzaren aldeko aukera potentziala nagusi da gainerako taldeetan ere (diru-sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak dituzten pertsonen % 68,7 eta diru-sarrera gabeko pertsonen % 60,1).

Alokairuaren aldeko aukera esklusiboa, erosteko aukera aintzat hartu gabe, argi eta garbi lotuta dago diru-sarrerei dagokienez egoera txarrenean dauden taldeei. Behar beste diru-sarrera duten pertsonen % 19,3k egiten dute aukera hori; % 31,4 dira, diru-sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak dituztenen artean, eta % 39,9 diru-sarrera gabekoei dagokienez.

## 49. taula. Lehen etxebizitza eskuratzeko premia duten pertsonek eskatutako etxebizitzen edukitze-erregimena, sarrera edo errenta propioei buruzko egoeraren arabera, EAE 2015

(Balio absolutuak eta ehunekoak, familien guztizkoaren gainean)

| | Diru-sarrera edo errenta propioren bat dutenak | | | | | | Diru-sarrerarik gabe | | **Beharra dutenen guztizkoa** | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Behar beste diru-sarrera | | Diru sarrera gutxiegi / ezegonkorrak | | **Diru-sarrerak dituztenen guztizkoa** | | | | | |
| | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % |
| **Guztizkoa** | 13.338 | 100,0 | 50.951 | 100,0 | 64.290 | 100,0 | 27.405 | 100,0 | 91.694 | 100,0 |
| Jabetza | 5.668 | 42,5 | 11.354 | 22,3 | 17.021 | 26,5 | 3.733 | 13,6 | 20.754 | 22,6 |
| **Alokairua** | 6.224 | 46,7 | 27.341 | 53,7 | 33.564 | 52,2 | 16.827 | 61,4 | 50.391 | 55,0 |
| *- Erosteko aukerarik gabe* | 2.580 | 19,3 | 15.989 | 31,4 | 18.569 | 28,9 | 10.924 | 39,9 | 29.493 | 32,2 |
| *- Erosteko aukerarekin* | 3.644 | 27,3 | 11.352 | 22,3 | 14.996 | 23,3 | 5.902 | 21,5 | 20.898 | 22,8 |
| Bata zein bestea | 1.447 | 10,8 | 12.257 | 24,1 | 13.704 | 21,3 | 6.845 | 25,0 | 20.549 | 22,4 |

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Lehen etxebizitza eskuratzeko premia adierazten duten pertsonen batez besteko adinari dagokionez, kasu guztietan, adin hori handiagoa da (urtebetetik gora) gizonezkoen populazioan. Narriadura horrekin batera, gainera, gero eta bereizketa handiagoa dago batez besteko adinean, sexuaren arabera. Horrela, batez besteko adin txikiena, bi kasuetan, diru-sarrera gabekoena da, zeina emakumeen 26 urteen eta gizonen 28,1 urteen artean kokatzen baita. Gizonen batez besteko adinean dagoen 2,1 urteko alde hori diru-sarrerak dituzten pertsonengan hautematen diren 1,2 urtetik 1,4 arteko aldeak baino handiagoa da (31,8 eta 30,6, behar beste diru-sarreraren kasuan; 30,6 eta 29,2, sarrera gutxiegi edo ezegonkorren kasuan).

## 50. taula. Etxe premian dauden pertsonen ezaugarri sozio-demografikoak, diru-sarrera edo errenta propioei buruzko egoeraren eta sexuaren arabera. 2009-2015

| | **Emakumeak** | | | | | **Gizonak** | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Diru-sarrera edo errenta propioren bat dutenak** | | | | | **Diru-sarrera edo errenta propioren bat dutenak** | | | | |
| **EZAUGARRIAK** | Behar beste diru-sarrera | Diru sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak | **Diru-sarrerak dituztenen guztizkoa** | Diru-sarrerarik gabe | **Beharra dutenen guztizkoa** | Behar beste diru-sarrera | Diru sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak | **Diru-sarrerak dituztenen guztizkoa** | Diru-sarrerarik gabe | **Beharra dutenen guztizkoa** |
| **Adina** | | | | | | | | | | |
| 18-24 urte artean | 8,0 | 14,3 | 13,2 | 48,6 | 24,0 | 9,5 | 11,5 | 11,0 | 36,6 | 18,6 |
| 25-34 urte artean | 73,4 | 71,2 | 71,6 | 41,6 | 62,4 | 56,5 | 68,6 | 65,7 | 48,1 | 60,5 |
| 35-44 urte artean | 18,5 | 14,5 | 15,2 | 9,8 | 13,5 | 34,0 | 19,9 | 23,3 | 15,3 | 20,9 |
| **Batez besteko adina (urteak)** | **30,6** | **29,2** | **29,5** | **26,0** | **28,4** | **31,8** | **30,6** | **30,9** | **28,1** | **30,1** |
| **Ikasketa-maila** | | | | | | | | | | |
| Ikasketarik gabe/Lehenengo maila | 0,0 | 5,0 | 4,1 | 20,9 | 9,3 | 18,1 | 16,3 | 16,8 | 22,4 | 18,4 |
| Lanbide ikasketak | 22,0 | 26,0 | 25,3 | 24,2 | 25,0 | 45,0 | 41,7 | 42,5 | 30,8 | 39,1 |
| Bigarren mailako ikasketak | 2,4 | 9,3 | 8,1 | 10,9 | 8,9 | 9,1 | 8,8 | 8,8 | 21,5 | 12,6 |
| Unibertsitateko ikasketak | 75,5 | 59,6 | 62,5 | 43,9 | 56,8 | 27,8 | 33,2 | 31,9 | 25,3 | 29,9 |
| **Lan-egoera** | | | | | | | | | | |
| Lanean, bere kontura | 19,9 | 6,0 | 8,5 | 0,0 | 5,9 | 21,1 | 15,5 | 16,9 | 0,0 | 11,9 |
| Lanean, kontratu finkoa | 47,0 | 35,9 | 37,9 | 0,0 | 26,3 | 61,2 | 30,1 | 37,6 | 0,0 | 26,4 |
| Lanean, aldi baterako kontratua | 33,1 | 53,4 | 49,7 | 0,0 | 34,5 | 17,8 | 48,3 | 41,0 | 0,0 | 28,8 |
| Lanik gabe | 0,0 | 2,7 | 2,2 | 55,3 | 18,5 | 0,0 | 4,6 | 3,5 | 66,5 | 22,2 |
| Bestelakoak (ikaslea...) | 0,0 | 2,0 | 1,7 | 44,7 | 14,9 | 0,0 | 1,4 | 1,0 | 33,5 | 10,7 |

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Diru-sarrera gabeko kolektiboetan 25 urtez azpiko populazioaren pisu handiagoa, bai gizonen eta bai emakumeen artean hautematen da. Hala eta guztiz ere, adin-talde horren presentzia handiagoa da emakumeen artean, sarrera gabeko emakumeen % 48,6 baitira eta gizonen kasuan % 36,6 (aldiz, % 13,2 eta % 11, sarrerak dituzten taldeetan). Aitzitik, 25-34 urte arteko adin-taldean daude sarrera gabeko gizonen % 48,1 eta egoera berean dauden emakumeen % 41,6 (% 65,7 eta % 71,6, hurrenez hurren, diru-sarrerak dituzten taldeetan).

Etxe premian dauden pertsonen ikasketa mailari arreta jartzen badiogu, sexua kontuan hartuta, ikusten da ikasketarik ez edo, lehen mailako edo bigarren mailako ikasketa ez profesionalak dituzten pertsonen pisu diferentziala handiagoa dela gizonen artean (% 43,9 eta, aldiz, % 31,8, emakumeen artean). Hala ere, diru-sarrerak dituen taldearekin erkatuta, aldea antzekoa da, edo apur bat handiagoa, emakumeen artean (% 31,8 baina % 12,2 etxe premian eta diru-sarrerak dituzten emakumeen artean; % 43,9 eta % 25,6, ordea, gizonen kasuan). Bai gizonen eta bai emakumeen artean, beraz, lanbide- edo unibertsitate-ikasketen falta diru-sarrerarik gabe eta etxe premian dauden pertsonen ezaugarri bereizgarria da.

Diru-sarrera ezari lotutako beste ezaugarri erabakigarriari dagokionez –okupazio ekonomiko falta–, langabeziaren pisua handiagoa da sarrera gabeko gizonen populazioan (% 66,5, baina % 55,3, emakumeen artean). Diru-sarrera gabeko emakumeek pisu handiagoa dute bestelako egoeretan (% 44,7 eta % 33,5).

## *2.6. Etxea eskuratzeko beharraren adierazle nagusien laburpena eta ondorioak*

Diru-sarrerak edo errentak dituzten pertsonen lehen etxebizitza eskuratzeko eskaera orokorrari dagokionez, ondorio hauek nabarmendu daitezke:

- 2015eko EBEIri esker, EAEn % 7,4 etxebizitza gehiago sortuko direla aurreikus daiteke, diru-sarrera propioak dituzten eta lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18 eta 44 urte bitarteko pertsonak oinarri hartuta. 64.290 etxebizitza beharko lirateke aipatutako beharrizana asetzeko. Diru-sarrerarik izan gabe etxe premian dauden pertsonak kontuan hartzen badira, beharrizana 91.693 etxebizitzataraino haziko litzateke.

- 2013arekiko, igoera txiki bat izan da eskuratzeko beharraren indizean (% 6,8tik % 7,4ra) eta beharrezko etxebizitzen guztizko zenbatekoan (59.318tik 64.290era). Azken biurtekoan igoera izan bada ere, zifra horiek 1997tik erregistratu diren apalenetakoak dira.

- Eskaera hazi egin da epe ertain eta luzerako perspektiban: bi urterako eskaeraren kasuan, 2013ko 21.111 etxebizitzatatik, 2015eko 29.356 etxebizitzatara igaro da; lau urterako eskaerari dagokionez, 2013ko 33.954 etxebizitzatik, 2015eko 42.233

etxebizitzatarainoko igoera izan da. Aitzitik, nabarmen murriztu da urtebeterako eskaera: 2013ko 5.843 etxebizitzatatik, 2015eko 1.745era.

- Lurraldearen araberako beharrizanaren indize handiena Bizkaian hauteman da (% 7,8), indizeak arinki gora egin baitu 2013arekiko (% 6,5). Araban ere gora egin du beharrizanak, % 5etik % 6,3ra, aldi bera erreferentzia gisa hartuta. Gipuzkoan, ostera, behera egin du lehen etxebizitza eskuratzeko beharrizan-indizeak, 2013ko % 8,1etik 2015eko % 7,5era jaitsi baita.

Lehen etxebizitza eskuratzeko premian dagoen populazioaren ezaugarrietara hurbiltzea ahalbidetzen duten alderdiei dagokienez, honako ondorio hauek atera daitezke diru-sarrera edo errenta propioak dituen kolektiboari buruz:

- Handitu egin da, azken bi urteetan, 18-44 urte bitarteko emantzipatu gabeko populazioa: 2013ko 267.256 pertsonatatik (18-44 urte arteko pertsonen % 35,7) 2015eko 281.082 pertsonatara (18-44 urte arteko pertsonen % 38,6). Aldiz, murriztu egin da 2013arekin alderatuta, guraso edo tutoreekin bizi diren eta emantzipatzeko diru-sarrerarik ez duten pertsonen ehunekoa (% 52,8 2013an, baina % 42,6, 2015ean).

- Etxebizitza eskuratzeko beharra duen populazioaren profila hau da: 30,3 urteko adina batez beste, eta ehuneko handiagoa gizonen artean (% 57,5) emakumeen artean baino (% 42,5). Pertsona horien erdiak baino gutxixeagok unibertsitate-ikasketak dituzte (% 44,9).

- 2013arekiko, handitu egin da apur bat bikotean eskuratzea planteatzen duten pertsonen ehunekoa, banaka eskuratzearekiko: 2013an pertsonen % 47,7 ziren bikotean eskuratzea planteatzen zutenak, eta 2015ean % 50,1.

- 2015ean etxea eskuratzeko beharra azaltzen duen arrazoi nagusia gurasoengandik independizatzeko nahia da, 2013an bezalaxe (% 73,8). Hala ere, hazi egin da pixka bat bikotearekin bizitzearen edo ezkontzearen garrantzi erlatiboa (% 22,2 zen 2013an eta % 24, 2015ean).

- Etxe premia duten pertsona gehienek (% 64,3) adierazten dute premiaren intentsitatea handia edo dezentekoa dela. Dena dela, kolektibo horren premia-egoeraren pisu erlatiboa etengabe murriztuz doala ikusi da 2007az geroztik (urte hartan guztikoaren % 87,8ko pisu erlatiboa zuen).

- Etxea eskuratzeko beharra duten bost pertsonatik hiruk baino gehiagok 2 urte baino gutxiago darama egoera horretan (% 61,7). 2013arekin alderatuta, handitu egin da etxe premia egoeran 2 urte baino gutxiago daramatenen kolektiboa, 2013ko % 50,8tik 2015eko % 61,7ra pasatu baita. Aitzitik, jaitsi egin da 2 eta 4 urte artean itxaroten dauden pertsonen garrantzi erlatiboa (2013ko % 26tik 2015eko % 16,5era), baita premia egoera horretan 4 urtetik gora daudenena ere (% 23,2, 2013an, baina % 21,9, 2015ean).

Behar diren etxebizitzen ezaugarri nagusiei dagokienez, honako emaitza hauek nabarmendu daitezke:

- Etxe premian daudenek 2015ean gehien eskatu duten aukera alokairu-erregimena izan da (% 52,2), jabetza-erregimena baino askoz gehiago (% 26,6). Epe luzera begira, ikus daiteke igoera nabarmena izan duela lehen etxebizitza alokairu-erregimenean eskuratzeko prest dauden pertsonen proportzioak (alokairua edo bata zein bestea), 2015ean % 73,4an kokatzeraino; 2013an % 63,3an geratu zen.

- Lehen etxebizitza behar duten pertsona gehienek egun bizi diren udalerriko etxebizitza batera aldatzea planteatzen dute (% 66,8). Nolanahi ere, kolektibo horretako pertsonen erdiek baino gehiagok (% 57,2) udalerria aldatzeko aukera kontuan hartuko lukete, beren behar eta ahalmenera egokitutako prezio eta ezaugarriak dituen etxebizitza bat eskuratu ahal izateko.

Lehen etxebizitza eskuratu ahal izateko ekonomia- eta finantza-gaitasunari dagokionez, honako emaitza hauek nabarmendu daitezke:

- Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen batez besteko diru-sarreren maila nabarmen jaitsi da azken bi urteetan. Batez beste, 1.297,8 euro kobratzen dituzte hilean 2015ean, eta 1.365,9 euro, berriz, hileko, 2013an.

- 2013arekiko, handitu egin da etxe premian egonik bikoteko bi kideen diru-sarrerekin erosketa finantzatuko dutela adierazten duten pertsonen proportzioa (% 35,2 da 2015ean eta % 33,6, berriz, 2013an).

- Diru-sarrerak murriztu badira ere, etxebizitza eskuratzeari aurre egiteko hileko ordainketa-gaitasuna handitu egin da, alegia, 2015ean 484 eurokoa da, eta 2013an, aldiz 385,2 eurokoa zen. Testuinguru horretan, hazi egin da estimatutako finantza-ahalegina, 2015ean % 36,8koa izateraino, 2013ko % 28,2ren gainetik, alegia.

- Etxebizitza premian dauden pertsonen % 7,8k bestek ezingo luke 600 eurotik gorako hileroko ordainketa bere gain hartu, 2015ean. Zifra horrek gainditu egiten du, doi bada ere, 2013ko maila (% 7), baina oso urrun dago 2011ko zifratik (% 15,6).

- Etxebizitza eskuratzeko gehieneko prezio ordaingarria, 2015ean, (135.593 euro), 2013koaren antzeko mailan mantentzen da (135.060 euro).

- Etxebizitza bat jabetzan eskuratzeko kasuan, etxe premian dauden pertsonen gehiengo handi batek mailegua eskatzera jo beharko luke (% 82,4). Proportzioak gora egin du apur bat 2013ko % 80,4ko zifrarekiko.

Azkenik, lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen kolektiboa genero-ikuspegitik aztertzen badugu, agerian geratzen da gizonezkoek pisu handiagoa dutela emakumezkoek baino, etxe premian dagoen kolektiboaren barruan (% 42,5 emakumeak

eta % 57,5, gizonak). Gainera, zenbait diferentzia hautematen dira kolektibo bakoitzaren profilean:

- Ikusten da 35-44 urte arteko gizonen proportzioak igoera nabarmena izan duela 2013arekiko; alegia, horien partaidetza % 12,1ekoa zen 2013an eta % 23,3koa, berriz, 2015ean. Emakumeen artean, oso gutxi aldatu da proportzio hori (% 15,7, 2013an eta % 15,2, 2015ean).

- Etxe premian dauden emakumeen ikasketa-maila gizonena baino handiagoa da: emakumeen % 62,5ek unibertsitate-ikasketak ditu, baina ehuneko hori % 31,9an geratzen da gizonen kasuan.

- Enplegua aldi baterakoa izateak nabarmen egin du gora etxe premian daudenen taldean 2013arekiko, eta kontratu mota horren presentzia handiagoa da emakumeen kasuan (% 49,7 emakumeen artean, eta % 41 eta gizonen artean).

- Etxe beharraren maila subjektiboa pixka bat handiagoa da emakumeen artean (62,7) gizonen artean baino (59,2), nahiz eta balio hori murriztu egin den 2013ko zifrekiko (63,4 puntu emakumeen artean eta 62,2, gizonen artean).

- Etxe premia egoeran 4 urtetik gora daramaten gizonen pisu erlatiboa (% 24,7) handiagoa da emakumeen artean hautemandakoa baino (% 18), nahiz eta bi kasuetan lehen etxebizitza eskuratzeko premian dauden pertsona gehienek 2 urte baino gutxiago daramaten egoera horretan: emakumeen % 65,6 eta gizonen % 58,7.

- Emakumeek neurri handiagoan hautatzen dute alokairu-erregimena (% 55,9), gizonek baino (% 49,4), nahiz eta bi kasuetan gehien eskatzen den aukera izan.

Ondorengo laburpen-taulan EAEko pertsona gazteek 2005-2015 aldian etxebizitza eskuratzeko duten premiaren adierazle kuantitatibo eta deskribatzaile nagusiak agertzen dira.

## 51. taula. Diru-sarreraren bat edo errenta propioak izanik, etxe premia duten pertsonen ezaugarri nagusien bilakaera, 2005-2015

| | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2013 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Kuantifikazioa** | | | | | | | | | |
| Behar-indizea (familien %) | 12,2 | 11,2 | 10,1 | 8,6 | 13,2 | 11,7 | 9,0 | 6,8 | 7,4 |
| Beharraren kuantifikazioa (etxebizitza kopurua) | 90.815 | 92.788 | 82.891 | 74.461 | 110.677 | 97.800 | 76.360 | 59.318 | 64.290 |
| ***Ezaugarri sozialen eboluzioa*** | | | | | | | | | |
| Batez besteko adina (urteak) | 27,5 | 28,1 | 29,1 | 28,7 | 27,8 | 28,5 | 28,8 | 28,8 | 30,3 |
| ***Etxebizitza eskuratzearen asebetetzearen eta beharraren eboluzioa*** | | | | | | | | | |
| Arrazoia: ezkontza - bikotean bizitzea (%) | 28,6 | 21,3 | 22,9 | 27,4 | 25,2 | 23,4 | 33,3 | 22,2 | 24,0 |
| Arrazoia: independentzia (%) | 69,7 | 76,8 | 76,1 | 69,2 | 71,8 | 73,5 | 65,0 | 74,7 | 73,8 |
| Beharra: handia eta nahiko handia (%) | 85,0 | 85,5 | 87,8 | 79,5 | 78,0 | 74,5 | 74,0 | 67,9 | 64,3 |
| Behar izandako denbora: < 2 urte (%) | 48,6 | 52,1 | 47,3 | 43,9 | 39,9 | 54,4 | 52,4 | 50,8 | 61,7 |
| Behar izandako denbora: > 4 urte (%) | 20,7 | 26,1 | 26,1 | 31,8 | 31,2 | 27,0 | 36,3 | 23,2 | 21,9 |
| 4 urtetan asetzeko aukera asko / dezente | 67,4 | 61,6 | 54,9 | 68,2 | 51,6 | 64,6 | 59,3 | 57,2 | 65,7 |
| ***Behar diren etxebizitzen ezaugarriak*** | | | | | | | | | |
| Behar den batez besteko azalera ($m^2$) | 64,1 | 64,3 | 67,8 | 64,1 | 73,6 | 67,3 | 71,2 | 69,8 | 75,8* |
| Edukitze-erregimena (alokairua + bata zein bestea) | 24,1 | 33,8 | 32,2 | 39,6 | 40,5 | 48,4 | 48,1 | 63,3 | 73,4 |
| ***Egoera ekonomiko-finantzarioa*** | | | | | | | | | |
| Hileroko diru-sarrera garbiak (€) | 1.345 | 1.469 | 1.389 | 1.603 | 1.427 | 1.251 | 1.564 | 1.366 | 1.297,8 |
| Diru-sarrera bat baino gehiago dutenen % | 36,9 | 34,4 | 31,1 | 23,6 | 38,0 | 31,0 | 36,2 | 33,6 | 35,2 |
| Hilero ordaintzeko gaitasuna | 445 | 495 | 457 | 580 | 470 | 435 | 434 | 385,2 | 484,0* |
| Ordain dezaketen gehieneko prezioa (*) | 143.215 | 164.455 | 157.920 | 168.072 | 152.902 | 154.401 | 145.833 | 135.060 | 135.593* |

*(*) 2015ean, emantzipazioari aurre egin ahal izateko behar beste diru-sarrera badituztela irizten dioten pertsonen informazioa soilik sartuko da.*

(**) 2009az geroztik, edukitze-erregimenean jabetza edo «bata zein bestea» aukerak planteatzen dituzten pertsonentzako bakarrik kalkulatzen da.

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

## 3. ALDAKETA-BEHARRA DUTEN ETXEBIZITZEN EZAUGARRIAK

### 3.1. Aldaketa-beharraren eta eskaeraren kuantifikazioa

**Etxebizitza aldatzeko premia hazi egin da Araban eta Gipuzkoan. Bizkaian, ostera, nabarmen murriztu da aldatzeko premia duten etxebizitzen zenbatekoa**

2015ean, EAEko 53.132 etxetan etxebizitza aldatzeko beharra aipatu zen, alegia, guztizkoaren % 6,2. Horrek esan nahi du aldatzeko premiak % 13,8 egin duela behera 2013an hautemandako 61.621 etxebizitzekiko, zifra hori urte horretako familia-etxebizitza guztien % 7,1 baitzen.

Beharrizanak behera egitea Bizkaian erregistratutako murrizketa handiari zor zaio. Lurralde horretan, 2013an aldatzeko beharra zuten 41.283 familia-etxebizitza izatetik, 2015ean 26.042 izatera igaro da, alegia, % 36,9 murriztu da. Aldaketa-beharraren pisu erlatiboa 2013an etxebizitzen % 9,0 izatetik 2015ean % 5,8 izatera igaro da.

Horrela, 2013an hautemandako egoeraren guztiz kontrara, EAEn etxebizitza aldatzeko behar txikiena duen lurraldea bihurtu da Bizkaia 2015ean. Hala ere, 2015eko % 5,8a 2011n erregistratutakoa baino altuagoa da; orduan lurraldeko familia-etxebizitzen % 4,9k adierazi zuten aldatzeko premia zeukatela (22.230 etxebizitza). 2010eko % 6,1 datutik ere ez da gehiegi urruntzen.

2015ean, ordea, Araban eta Gipuzkoan premiaren goranzko joera nagusi egin zen. Etxebizitza aldatzeko premiaren gorakadarik handiena Gipuzkoan izan da. Lurralde horretan, 2011n 9.218 etxebizitza egoera horretan egotetik (guztizkoaren % 3,4), 2013an 11.521 (guztizkoaren % 4,1) eta 2015ean 17.784 (% 6,3) egotera igaro da. Aldatzeko premiaren eraginpean dauden etxebizitzen kopurua % 25 hazi zen 2011 eta 2013 artean, eta 2013-2015 biurtekoan, berriz, hazkunde-erritmoa % 54,4koa izan da. 2005etik hona, termino absolutuetan, 2007an (22.584 etxebizitza) eta 2010ean (20.591) hautemandako premiek soilik gainditzen dute azken zifra hau. Termino erlatiboetara etorrita, 2015eko % 6,3, izatez, 2010eko % 7,7 eta 2007ko % 8,8ko maximoa baino dezentez beherago geratu da.

Arabak ere premiaren gorako dinamikan parte hartzen duen arren, gorakada nabarmen txikiagoa izan da. 2013an etxebizitza aldatzeko premia zuten 8.818 etxeetatik (guztizkoaren % 6,6) 2015ean 9.307 izatera igaro zen (% 7,1). Etxebizitza aldatzeko beharrak, kasu honetan, % 5,5eko gorakada izan du 2013 eta 2015 artean.

Araban, ordea, 2015ean bildutako datuek 2005az geroztiko maila altuenean kokatzen dute etxebizitza aldatzeko premia, 2005etik 2013rako aldian erregistratutako % 5,2 eta % 6,9 bitarteko zifren gainetik, hain zuzen ere. 2005etik, 2010ean baizik ez ziren erregistratu (% 6,9) 2015eko % 7,1etik hurbileko zifrak. Zifra absolutuetan, 2015. urteak, bigarren urtez jarraian, aldatzeko prozesuetan inplikatutako etxebizitzetan hautemandako zifra altuena markatu du, EBEI egiten hasi zenetik.

Hain zuzen, 2015ean, Araba EAEko gainerako lurraldeetatik nabarmendu egin da, lurralde horretan etxebizitza aldatzeko premiaren ehunekoa askoz handiagoa izan delako (% 7,1, baina % 6,3, Gipuzkoan, eta % 5,8, Bizkaian). 2008. eta 2011. urteetan

hauteman zen oso antzeko egoera, baina gaur egun eskaera maila handiago bati lotuta agertzen zaigu (EAE osoan % 6,2; aldiz, 2008an % 4,9koa izan zen, eta 2011n, berriz, % 4,5ekoa).

### 52. taula. Etxebizitza aldatzeko beharren kuantifikazioa, lurralde historikoaren arabera. EAE 2005-2015

(Balio absolutuak eta ehunekoak, etxebizitzen guztizkoaren gainean)

| | EAE | | Araba | | Bizkaia | | Gipuzkoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kop. | etxe guztien % | Kop. | etxe guztien % | Kop. | etxe guztien % | Kop. | etxe guztien % |
| 2005 | 49.559 | 6,4 | 6.061 | 5,5 | 26.260 | 6,3 | 17.173 | 6,9 |
| 2006 | 47.851 | 6,1 | 6.304 | 5,7 | 26.169 | 6,2 | 15.382 | 6,1 |
| 2007 | 64.393 | 8,1 | 7.559 | 6,6 | 34.255 | 8,0 | 22.584 | 8,8 |
| 2008 | 40.894 | 4,9 | 6.813 | 5,7 | 21.714 | 4,9 | 12.367 | 4,7 |
| 2009 | 56.652 | 6,7 | 7.676 | 6,2 | 37.936 | 8,5 | 11.040 | 4,1 |
| 2010 | 56.397 | 6,7 | 8.512 | 6,9 | 27.294 | 6,1 | 20.591 | 7,7 |
| 2011 | 38.048 | 4,5 | 6.601 | 5,2 | 22.230 | 4,9 | 9.218 | 3,4 |
| 2013 | 61.621 | 7,1 | 8.818 | 6,6 | 41.283 | 9,0 | 11.521 | 4,1 |
| **2015** | **53.132** | **6,2** | **9.307** | **7,1** | **26.042** | **5,8** | **17.784** | **6,3** |

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza beharren eta eskaeraren Inkesta. 2015*

### 28. grafikoa. Etxebizitza aldatzeko beharra, urtearen eta lurralde historikoaren arabera. 2005-2015




*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza beharren eta eskaeraren Inkesta. 2015*

EAE osoa kontuan hartzen badugu, Bizkaiaren bilakaera, edonola ere, erabakigarria izan da 2013 eta 2015 artean. 2015ean hautsi da, bereziki, 2013an hautemandako etxebizitza aldatzeko premiaren gorakada bortitzaren joera.

Epe luzeagoko ikuspegiarekin, 1990eko hamarraldiaren erdialdetik honako aldaketa-beharraren indizearen eboluzioak agerian uzten du 2003ra arte gainbeherako joera izan zuela; indizea % 7,1ekoa baitzen 1997an, eta % 4,1ekoa 2003an. Urte horretatik aurrera,

indizea nabarmen igo zen 2007ra arte, orduan harrapatu baitzuen % 8,1eko maximoa. 2008an kolpetik jaitsi zen behar-indizea, % 4,9raino; ondoren, 2009an eta 2010ean, % 6,7raino igoko bazen ere.

2011n, berriro, % 4,5eraino murriztu zen, seriearen erregistro historiko apalenetara hurbildurik (ordura arte, 1996, 2003 eta 2008koak). Aldiz, 2013an, bat-bateko gorakada bat egon zen, % 7,1erainokoa; horrekin, 1997ko zifrak berdindu zituen eta 2007ko erregistroa baizik ez zaio gainetik geratzen (% 8,1). Gero, beste jaitsiera bat izan du 2015ean, etxebizitzen % 6,2an kokatzeraino; eskaera maila hori, nolanahi ere, eskaera mailen eskalaren erdialde edo goialdean mantentzen da, 1996-2015 arteko aldia kontuan hartuta.

### 29. grafikoa. Etxebizitza aldatzeko beharraren indizearen bilakaera EAEn. 1996-2015




*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza beharren eta eskaeraren Inkesta. 2015*

***2015ean, etxebizitza aldatzeari buruzko epe labur eta ertaineko eskaera, oro har, maila maximoetara iritsi zen***

2015ean, etxebizitza aldatzeko eskaera estali ahal izateko perspektiba handitu egin zen termino absolutuetan zein erlatiboetan.

Horrela, 2015ean etxebizitza-aldaketa behar zuten 53.132 familietatik, hurrengo urtean aldaketari aurre egin ahal izatearen aurreikuspena % 31,1ean kokatu zen, hau da, 2011ko % 24,9aren eta 2013ko % 20,5aren gainetik. Zifra absolutuetan, eskaera, 2013an, 12.628koa izatetik, 2015ean 16.540koa izatera igaro zen, % 31ko urte arteko igoera, alegia. Berreskurapen horrek sendotu egin du 2010 eta 2013 artean antzemandako goranzko joera. Izatez, urtebeterako eskaerak 2007tik bildutako zifra altuena markatu zuen, 2009ko 14.733ko etxebizitza kopurua gaindituz (2007-2013 aldiko balio maximoa).

Bi urteko epean, estaldura aurreikuspena % 33,7tik % 48,0ra igo da 2013 eta 2015 bitartean. 2015eko zifrak 2010ean (% 31,3), 2011n (% 38,6) eta 2009an (% 46,4) bildutako zifrak ere gainditzen ditu. Termino absolutuetan, eskaerak gora egin zuen 2011ko 14.703 etxebizitzetatik 2013ko 20.744 eta 2015eko 25.508 etxebizitzatara, 2009ko maximoaren apur bat azpitik geratzeko (26.274 etxebizitza).

Epea lau urtera zabalduz gero, hobekuntza are handiagoa da etxebizitza aldatzeko premia duten familien artean. Hala, 2013an % 49,5 izatetik 2015ean % 70,5 izatera igaro zen; zifra hori ez zen 2007-2013 aldian gainditu (2008an % 57,3ko balio maximoa izan zuen). Zifra absolutuetan, eskaera 2011n 19.196 etxebizitzakoa izatetik 2013an 30.505 eta 2015ean 37.452 etxebizitzakoa izatera igaro zen, hau da, % 22,8ko igoera izan du 2013 eta 2015 artean. Hautemandako hazkundea kualitatibotzat har daiteke, bai berreskuratze-ikuspegiaren intentsitateagatik eta bai 2011ra arteko eskaeraren beheranzko joera aldatzea berresten delako.

### 30. grafikoa. EAEko etxebizitza aldatzeko beharraren eboluzioa, aldaketa egitea aurreikusitako dataren arabera. 2005-2015




*** 2005 eta 2007 bitarteko balioak berriro zenbatetsi dira, etxebizitza eskuragarrien datu berrien arabera.*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza beharren eta eskaeraren Inkesta. 2015*

### 53. taula. Etxebizitza-aldaketaren behar eta eskaeraren kuantifikazioa, EAE. 2007-2015

(Balio absolutuak eta ehunekoak etxebizitzen guztizkoaren gainean eta beharra dutenen gainean)

| | 2007 | | 2008 | | 2009 | | 2010 | | 2011 | | 2013 | | 2015 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | % | Etxebiz. kop. | % | Etxebiz. kop. | % | Etxebiz. kop. | % | Etxebiz. kop. | % | Etxebiz. kop. | % | Etxebiz. kop. | % | Etxebiz. kop. |
| **Beharrizana (*)** | **8,1** | **64.393** | **4,9** | **40.894** | **6,7** | **56.652** | **6,7** | **56.397** | **4,5** | **38.048** | **7,1** | **61.621** | **6,2** | **53.132** |
| Eskaera 4 urtera (**) | 47,2 | 30.406 | 48,1 | 19.678 | 57,3 | 32.460 | 45,8 | 25.810 | 50,5 | 19.196 | 49,5 | 30.505 | 70,5 | 37.452 |
| Eskaera 2 urtera (**) | 28,7 | 18.470 | 28,8 | 11.769 | 46,4 | 26.274 | 31,3 | 17.633 | 38,6 | 14.703 | 33,7 | 20.744 | 48,0 | 25.508 |
| Eskaera urtebetera (**) | 21,4 | 13.778 | 20,1 | 8.207 | 26,0 | 14.733 | 14,7 | 8.290 | 24,9 | 9.486 | 20,5 | 12.628 | 31,1 | 16.540 |

*(*) etxe guztien %;*
*(**) beharra duten etxe guztien %.*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza beharren eta eskaeraren Inkesta. 2015*

## 54. taula. Etxebizitza aldaketaren behar eta eskaeraren kuantifikazioaren aldaketa, EAE. 2007-2015 eta 2013-2015

(Balio absolutuak eta ehunekoak etxebizitzen guztizkoaren gainean eta beharra dutenen gainean)

| | | | | | | | 2007-2015 aldiko aldaketa | | | | 2013-2015 aldiko aldaketa | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2007 | | 2013 | | 2015 | | Absolutuak | | % | | Absolutuak | | % | |
| | % | Etxebiz. kop. | % | Etxebiz. kop. | % | Etxebiz. kop. | % | Etxebiz. kop. | % | Etxebiz. kop. | % | Etxebiz. kop. | % | Etxebiz. kop. |
| **Beharrizana (*)** | **8,1** | **64.393** | **7,1** | **61.621** | **6,2** | **53.132** | **-1,9** | **-11.261** | **-23,6** | **-17,5** | **-0,9** | **-8.489** | **-12,9** | **-13,8** |
| Eskaera 4 urtera (**) | 47,2 | 30.406 | 49,5 | 30.505 | 70,5 | 37.452 | 23,3 | 7.046 | 49,3 | 23,2 | 21,0 | 6.947 | 42,4 | 22,8 |
| Eskaera 2 urtera (**) | 28,7 | 18.470 | 33,7 | 20.744 | 48,0 | 25.508 | 19,3 | 7.038 | 67,4 | 38,1 | 14,3 | 4.763 | 42,6 | 23,0 |
| Eskaera urtebetera (**) | 21,4 | 13.778 | 20,5 | 12.628 | 31,1 | 16.540 | 9,7 | 2.762 | 45,5 | 20,0 | 10,6 | 3.912 | 51,9 | 31,0 |

*(*) etxe guztien %;*
*(**) beharra duten etxe guztien %.*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza beharren eta eskaeraren Inkesta. 2015*

## *3.2. Aldaketa-beharra duten etxebizitzen ezaugarriak*

### 3.2.1. Gizarte- eta egoitza-ezaugarriak

Atal honetan aldaketa-beharrarekin lotura duten familia-unitatearen eta beronen ohiko etxebizitzaren beraren ezaugarri nagusiak aztertzen dira.

Aldaketa-beharra duten etxebizitzetako titularren batez besteko adina, 2015ean, 2013an jada hautemandako 47,3 urtetan finkatu da. Bai 2009-2011 aldian –2010eko 45,8 urteko aldez aurreko maximoarekin– eta bai EBEI egin den urte gehienetan lortutako batez besteko adin erregistroak baino handiagoa dela esan behar da. 2007an eta 2008an bestetan ez ziren hauteman 2013-2015ean baino batez besteko adin handiagoak, 48,5 urte ingurukoak.

2013. urtearekin alderatuta, gora egin du 35 eta 44 urte bitarteko pertsona printzipalen partaidetzak, talde horrek eskatzaileen nukleo nagusi gisa finkatzeko joera hartu baitu. Hala, 2013an guztizkoaren % 35,3 izatetik 2015ean % 37,2 izatera igaro da, 2009-2011 arteko erregistroen gainetik, % 29,5 eta 33,6 artean baitzeuden haiek. Partaidetza nabarmen handitu duen beste talde bat 45 eta 54 urte arteko pertsona printzipalena izan da. Etxebizitza-aldaketaren premian talde horrek izan duen pisu erlatiboa, kasu honetan, % 25,5eraino igo da 2015ean, 2013ko % 22aren eta 2009-2011 aldiko zifren gainetik beraz (% 23,9ko balio maximoa 2011n).

Kontrara, 35 urtez azpiko pertsona printzipalen partaidetza murriztu egin da; alegia, 2013an guztizkoaren % 16,2 ziren eta gaur egun, % 13,6. Gauza bera gertatzen da 55 urteko edo gehiagoko populazioarekin, ordezkaritza galdu baitute aldaketa-premia duten familietan: 2013an % 26,6 baziren, gaur egun % 23,7 baizik ez dira.

Aldaketa-beharra duten etxebizitzen titularren jatorriari dagokionez, atzerritar nazionalitateko pertsonen proportzioa jaitsi egin da. Izan ere, 2013an % 16,5eko proportzioa izatetik 2015eko % 9,6raino murriztu baita. 2009, 2010 eta 2013an hautemandako % 15etik % 16,5era bitarteko zifretatik urrun geratzen da pertsona horien proportzioa, baina hurbil 2011ko % 10,2tik.

Familiaren batez besteko tamaina ere egonkor mantendu da azken urteotan: 3 pertsona inguru familiako, 2009-2015 arteko aldi osoan. Hala ere, hautematen dira zenbait diferentzia aldaketa-beharreko familien tamainaren banaketan. Alde batetik, murriztu egin da premia egoeran dauden 2 pertsonako familien proportzioa (2013an % 24,6 izatetik 2015eko % 17,3ra), eta dinamika horrek kontrastea egiten du pertsona bakarreko familien pisu erlatiboan hautematen den hazkundearekin (2013an % 13,6 ziren, eta 2015ean % 17,9).

Bestalde, hazi egin da, era berean, 3 pertsonako familien pisua (2013an % 27,8 izatetik 2015ean % 31,6 izatera); eta faktore horrek konpentsatzen du aurrez aipatutako joera, familia eskatzailearen batez besteko tamaina mantentzen lagunduz. 4 edo pertsona gehiagoko familien proportzioa, aldiz, nahikoa egonkor mantentzen da, nahiz eta beheranzko joera arin bat nabaritzen zaion: % 34, 2013an eta % 33,2, 2015ean.

Nolanahi ere, 2 eta 4 pertsona bitarteko unitateek nagusitzeko joerari eusten diote. Hala, premian dauden egoeren % 69,1 mota horretakoak ziren 2015ean. Pertsona bakarreko familien eskaera handitu izanaren ondorioz, hala ere, atzera egin duen proportzioa da 2013ko % 72,4ko zifrarekiko.

Epe luzeko perspektibatik ikusita, adierazgarria gertatzen da, azken urteotan, etxebizitza-premian dauden familien batez besteko tamaina 3 pertsona inguruan egonkortu dela. Ildo horretan, EBEI egiten denetik hautemandako gainbehera prozesua sendotzen du. 1997 eta 2001 artean 3,5-3,7 kide izatetik, 3,1-3,3 kide bitartera igaro zen 2001 eta 2007 artean, eta 2,8-3,0 bitartera, berriz, 2008tik aurrera.

Etxebizitza aldatzeko premia duten familia-unitateen tipologiari dagokionez, ikus daiteke seme-alabak dituzten bikoteen pisu erlatiboak nagusi izaten jarraitzen duela. 2013 eta 2015 artean, gainera, hazi egin da berorien ekarpen erlatiboa, 2013an % 45,6 izatetik, 2015ean % 53,2 izatera igaro baita. Horrela 2010eko % 53,7ra eta 2011ko % 54,5ra hurbildu da. Protagonismoa irabazten ari den beste kategoria bat bakarrik bizi diren pertsonena da. Kasu honetan, berorien pisua 2013ko % 13,6tik 2015eko % 17,9ra igo da; proportzio hori 2010eko % 18,1etik gertu dago, baina oso urrun 2011n lortu zuen % 24,6tik.

Beherantz egin du, aldiz, 2013 eta 2015 artean, bikotearekin soilik bizi diren pertsonen ehunekoak (2013ko % 15,1etik 2015eko % 11,9ra jaitsi da eta zifra horrek 2011ko % 7,9 baizik ez du gainditzen). Beheranzko joera garrantzitsua izan du, orobat, Beste egoera batean dagoen kolektiboak (2013ko % 11,9tik, 2015eko % 4,1era). Intentsitate apalagoan bada ere, eta 2011ra arte hautemandakoak baino maila handiagoei eutsiz, seme-alabekin bizi diren aitak edo amak ere murriztu egin dira: 2013ko % 13,9tik, 2015eko % 12,9ra.

## 55. taula. EAEn aldaketa beharra duten familien ezaugarri sozioekonomikoak, 2009-2015

| | 2009 | 2010 | 2011 | 2013 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Pertsona printzipalaren adina** | | | | | |
| 24 urtera arte | 1,3 | 3,5 | 3,2 | 0,4 | 1,9 |
| 25 eta 34 urte artean | 26,2 | 18 | 22 | 15,8 | 11,7 |
| 35 eta 44 urte artean | 32,5 | 33,6 | 29,5 | 35,3 | 37,2 |
| 45 eta 54 urte artean | 20,8 | 22,4 | 23,9 | 22,0 | 25,5 |
| 55 eta 64 urte artean | 9,4 | 10 | 12,1 | 14,5 | 12,2 |
| 65 urte eta gehiago | 9,7 | 12,5 | 9,3 | 12,1 | 11,5 |
| **Batez besteko adina (urteak)** | **43,7** | **45,8** | **44,4** | **47,3** | **47,3** |
| **Nazionalitatea:** | | | | | |
| Espainiarra* | 84,8 | 84,8 | 89,8 | 83,5 | 90,4 |
| Atzerritarra | 15,2 | 15,1 | 10,2 | 16,5 | 9,6 |
| **Etxebizitzako pertsonen kopurua** | | | | | |
| Pertsona 1 | 20,4 | 18,1 | 24,6 | 13,6 | 17,9 |
| 2 pertsona | 21,2 | 19,6 | 13,7 | 24,6 | 17,3 |
| 3 pertsona | 20,9 | 24,2 | 28,2 | 27,8 | 31,6 |
| 4 pertsona | 24,3 | 23,8 | 20,8 | 20,0 | 20,2 |
| 5 pertsona edo gehiago | 13,2 | 14,3 | 12,8 | 14,0 | 13,0 |
| **Batez besteko pertsona kopurua** | **3,0** | **3,0** | **2,8** | **3,0** | **3,0** |
| **Familien tipologia** | | | | | |
| Bakarrik | 19,7 | 18,1 | 24,6 | 13,6 | 17,9 |
| Bikotearekin | 14,5 | 13 | 7,9 | 15,1 | 11,9 |
| Bikotearekin eta seme-alabekin (bestelako seniderik gabe edo bestelako senideekin) | 48,7 | 53,7 | 54,5 | 45,6 | 53,2 |
| Ama/aita seme-alabekin | 8,7 | 8,5 | 10,5 | 13,9 | 12,9 |
| Beste egoera bat | 8,5 | 6,8 | 2,6 | 11,9 | 4,1 |
| **Lan-egoera** | | | | | |
| Lanean | 57,3 | 55,9 | 57,9 | 51,7 | 62,0 |
| Lanik gabe | 15,2 | 16,1 | 16,5 | 22,9 | 14,4 |
| Etxeko lanak | 7,9 | 9,9 | 10,3 | 7,3 | 7,8 |
| Erretiratua / pentsioduna | 11,4 | 15,5 | 10,3 | 16,2 | 14,6 |
| Beste bat | 8,1 | 2,6 | 5 | 1,9 | 1,1 |

**: Nazionalitate bikoitza espainiarren kategorian txertatu da.*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.*

Azkenik, etxebizitza aldatzeko premia duten familia-unitateetako pertsona printzipalen lan-egoerari dagokionez, aipatzekoa da 2015ean pertsona horien % 62 lanean ari zirela. 2009az geroztiko ehuneko altuena da, % 55,9 eta 57,9 bitarteko zifrak egon baitira 2011ra arte, eta 2013ak markatu zuen zifra minimoa: % 51,7. 2013 eta 2015 artean, lana duten pertsonen familia-unitateak 10 puntu baino gehiago hazi dira, etxe-aldaketa premia duten kolektiboan.

Langabezia-egoeran dauden pertsonen pisu erlatiboa, aldiz, murriztu egin da. 2013an % 22,9ko pisua izatetik 2015ean % 14,4koa izatera pasatu baita, zifra apalenera, alegia, 2009tik. Murriztu egin da, era berean, intentsitate apalagoan bada ere, pertsona erretiratu edo pentsiodunen kolektiboaren pisua: 2013ko % 16,2tik, 2015eko % 14,6ra.

## 31. grafikoa. EAEn aldaketa beharra duten etxebizitzetako pertsona printzipalaren batez besteko adina, 1997-2015




*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza beharren eta eskaeraren Inkesta. 2015*

## 32. grafikoa. EAEn aldaketa beharra duten familia-unitateen batez besteko tamaina, 1997-2015




*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza beharren eta eskaeraren Inkesta. 2015*

2015. urtean etxebizitza aldatzeko premia adierazi duten familia-unitateen artean, % 44,0k azaldu du ez duela aldatzeko premia zuzeneko eta objektiborik, baina epe labur/ertainean etxea aldatzea aztertzen ari direla. Gainerako % 56ak azaldu du etxebizitza aldatzeko zuzeneko premia duela.

Lurraldeei dagokienez, ongi bereizitako bi egoera ikus daitezke. Alde batetik, Araban eta Gipuzkoan, bi motatako beharrizanak neurri berean banatzen dira eta familien ia erdia etxebizitza aldatzea pentsatzen ari da, nahiz eta horretarako premia zuzeneko eta objektiborik ez izan (Araban familien % 50,1 daude egoera horretan, eta Gipuzkoan % 49,8). Bizkaian, ostera, hautematen da etxebizitza aldatzeko premia objektiboa duten familia-etxebizitzak direla nagusi. Bizkaian hautemandako aldaketa-beharra duten etxeen % 62 mota horretakoak dira.

Araba eta Gipuzkoako egoerak eragina du 2015ean hautemandako etxebizitza-aldaketa eskaeraren gorakadan. Bi lurralde horietan, baliteke aldaketa gertatzea azken urteetan etxebizitza eskaintzan erregistratutako berregituraketagatik, bai ezaugarriei dagokienez, bai merkatuan eskuragarri dauden etxebizitzen prezioari dagokionez. Litekeena da, era berean, egungo etxebizitzarekin arazo objektiborik ez duten zenbait talde etxebizitza aldatzeko posizio ekonomiko irekiagoan egotea ere.

### 33. grafikoa. Aldatzeko premia daukaten etxeen ehunekoa, premiari dagokion egoeraren arabera. 2015




*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza beharren eta eskaeraren Inkesta. 2015*

Analisia 2015ean aldaketa beharra zuten familiek okupatzen dituzten etxebizitzen ezaugarrietan zentratzen badugu, ikus daiteke etxebizitza horien batez besteko tamaina 74,4m$^2$-koa dela. 2013an erregistratutakoa baino (72,4 m$^2$) apur bat handiagoa, alegia.

Azaleraren araberako etxebizitzen banaketak erakusten du haien gehiengoa, % 60,6, bat datorrela 76 m$^2$ baino gutxiagoko etxebizitzekin. Ehuneko hori ia 1,5 puntutan murriztu da, ordea, 2013koarekin alderatzen badugu (% 62).

Antzinatasunari begiratuz gero, aldaketa-beharra duten familiek okupatzen dituzten etxebizitzak, batez beste, duela 39,2 urte eraikiak dira; batez besteko hori bi urte eta erdi murriztu da 2013 urtearekiko (orduan batez bestekoa 42,7 urtekoa zen). Nolanahi ere, 2006tik aurrera hautemandako balioetatik hurbil dagoen zifra da, hain zuzen, 39 eta 42,7 urte artean kokatzen baitira. Apur bat urtetsuagoak dira 1997-2005 aldikoekin erkatzen baditugu, aldi hartako zifrak 34 eta 38 urteen artean baitzeuden.

Nabarmentzekoa da 41 eta 60 urte arteko etxebizitzen garrantzi erlatiboa, % 36,3koa 2015ean, etengabe haziz joan baita 2009ko % 26arekiko. Dinamika horrek kontrastea egiten du antzinatasun handiagoko etxebizitzen ordezkaritzaren beheranzko joerarekin; hala, 60 urtetik gorako etxebizitzak 2013an % 23,1 izatetik 2015ean % 14,5 izatera pasatu dira (ehuneko apalena, 2009 eta 2010ean % 15etik hurbileko zifrak bildu zirenetik).

Hazkunde deigarria izan duen beste etxebizitza mota bat 15 urte edo gutxiagoko etxebizitzak izan dira. Azken horiek, 2013an, guztizkoaren % 12,1 ziren eta 2015ean, berriz, % 17,9.

Azken bi urteotan, etxebizitzan 2 urte edo gutxiago bizitzen egon den populazioaren pisuak behera egin du; izan ere, 2013an % 19,7 izatetik 2015ean % 10,4 izatera pasa dira, 2011ko % 10,2tik hurbil, alegia. Beherakada hori 2013 eta 2015 artean tarte ertainetan hautemandako gorakadak konpentsatzen du. Horrela, 3 eta 4 urte artean okupatutako etxebizitzak 2013an % 6,5 izatetik, 2015ean % 11,4 izatera igaro dira, eta 5-9 urte artean okupatuak 2013an % 22 baziren, 2015ean % 23,3 izatera igaro dira. Aldatzeko beharra duten eta etxebizitzan 10 urtez edo gehiagoz bizi diren familia-unitateen ehunekoa ere hazi da, 2013an % 51,8 izatetik 2015ean % 54,9 izatera igaro baita. Nolanahi ere, proportzioa 2011ko % 56,8ren azpitik mantentzen da.

Azkenik, aldaketa-premia duten etxeen artean, bereziki adierazgarria da ikustea, guztiz ordaindu gabe izan arren, etxebizitza bat jabetzan eduki eta etxea aldatzeko premian daudela adierazten duten familien bolumena modu esanguratsuan handitu dela azken urteotan. Egoera horretan daudenen pisu erlatiboa 2009 eta 2011 artean % 26 eta 27,4 artean egotetik, % 29,1era igo baita 2013an, eta % 33ra 2015ean.

Alokairu-erregimenean okupatutako etxebizitzari dagokionez, presentzia handieneko edukitze-erregimena izaten jarraitzen duen arren, erori egin da apur bat azken bi urteotan, 2013ko % 35,1etik 2015eko % 34,2ra igaro baita. Izan ere, 2010 eta 2011ko % 33tik hurbileko zifrak gainditzen dituen arren, urrun geratzen da 2009ko % 38,7tik.

Bestalde, igo egin da apur bat guztiz ordaindutako jabetzaren pisu erlatiboa. Hala, 2013ko % 28,1etik 2015eko % 29,9ra igaro da; urruti, nolanahi ere, 2010 eta 2011ko % 33tik hurbileko edo hortik gorako zifretatik.

### 34. grafikoa. Aldaketa-beharra duten etxebizitzen batez besteko azaleraren eboluzioa, 1997-2015




*(*) 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza beharren eta eskaeraren Inkesta. 2015*

## 56. taula. EAEn aldaketa beharra duten familia-unitateen egoitza-ezaugarriak, 2009-2015

| | 2009 | 2010 | 2011 | 2013 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Etxebizitzaren azalera erabilgarria** | | | | | |
| 60 $m^2$ baino gutxiago | 31,1 | 33,6 | 29,7 | 23,8 | 29,1 |
| 61 eta 75 $m^2$ artean | 25,6 | 32,7 | 29,5 | 38,2 | 31,5 |
| 76 eta 90 $m^2$ artean | 23 | 18,8 | 24,2 | 20,7 | 23,4 |
| 90 $m^2$ baino gehiago | 13,6 | 9 | 15,6 | 13,5 | 14,3 |
| Ed/Ee | 6,6 | 5,9 | 1 | 3,9 | 1,7 |
| **Batez besteko azalera ($m^2$)** | **71,4** | **68,1** | **72,9** | **72,4** | **74,4** |
| **Etxebizitzaren antzinatasuna** | | | | | |
| 60 urtetik gora | 14,8 | 15,1 | 16,2 | 23,1 | 14,5 |
| 41 eta 60 urte artean | 26 | 29,6 | 30,9 | 33,1 | 36,3 |
| 26 eta 40 urte artean | 26,1 | 28,3 | 33,7 | 11,9 | 13,6 |
| 16 eta 25 urte artean | 3,6 | 4 | 3,2 | 7,3 | 10,9 |
| 15 urte eta gutxiago | 13,5 | 10,1 | 10,4 | 12,1 | 17,9 |
| Ed/Ee | 16 | 12,9 | 5,6 | 12,5 | 6,7 |
| **Batez besteko antzinatasuna (urteak)** | **39** | **40,6** | **40,4** | **42,7** | **39,2** |
| **Etxebizitzan emandako urteak** | | | | | |
| 2 urte eta gutxiago | 11,2 | 15,7 | 10,2 | 19,7 | 10,4 |
| 3-4 urte | 20,9 | 11,4 | 15,4 | 6,5 | 11,4 |
| 5-9 urte | 24 | 21,3 | 17,6 | 22,0 | 23,3 |
| 10 urte eta gehiago | 44 | 51,5 | 56,8 | 51,8 | 54,9 |
| **Lehenengo etxebizitza** | | | | | |
| Bai | 57,1 | 58,7 | 50,7 | 45,4 | 54,0 |
| Ez | 42,6 | 41,3 | 49,3 | 54,6 | 46,0 |
| **Etxebizitzaren egoera** | | | | | |
| Berria | 16,1 | 20,3 | 21,6 | 20,7 | 26,6 |
| Erabilitakoa | 83,9 | 79,7 | 78,4 | 79,3 | 73,4 |
| **Etxebizitza Babestua** | | | | | |
| Bai | 10,6 | 13,5 | 11,1 | 10,0 | 16,2 |
| Ez | 89,4 | 86,5 | 88,9 | 90,0 | 83,8 |
| **Etxebizitza mota** | | | | | |
| Eraikin kolektiboa | 96,8 | 98,7 | 98,8 | 95,9 | 95,8 |
| Familia bakarreko eraikina | 3,2 | 1,3 | 1,2 | 4,1 | 4,2 |
| **Edukitze-erregimena** | | | | | |
| Jabetzan, erabat ordainduta | 29,7 | 32,9 | 35,9 | 28,1 | 29,9 |
| Jabetzan, zenbait ordainketa egiteke | 26,2 | 27,4 | 26 | 29,1 | 33,0 |
| Errentan hartua | 38,7 | 33,4 | 32,8 | 35,1 | 34,2 |
| Beste egoera bat (utzita, eta abar) | 5,5 | 6,4 | 5,2 | 7,6 | 3,0 |

**: Nazionalitate bikoitza espainiarren kategorian txertatu da.*

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.*

**35. grafikoa. Aldaketa-beharra duten etxebizitzen batez besteko antzinatasunaren eboluzioa, 1997-2015**




*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza beharren eta eskaeraren Inkesta. 2015*

**36. grafikoa. EAEn aldaketa beharra duten alokairu-erregimeneko etxebizitzen eboluzioa, 1997-2015**




*(*) 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza beharren eta eskaeraren Inkesta. 2015*

### 3.2.2. Etxebizitza aldatzeko beharraren arrazoiak

Etxebizitza aldatzeko premia duten familia-unitateen artean, etxebizitzaren tamaina desegokiak esplikatzen du etxebizitza aldatzeko premiaren % 32,4; ondoren dator irisgarritasuna hobetzea % 17,1ekin. Nabarmentzen diren beste arrazoi batzuk dira etxebizitzaren egoera txarra (% 11,8) edota alokairu merkeago baten beharra (% 9,8). % 7,6k etxebizitzaren kokapen txarra azpimarratzen du, eta % 6k lanetik hurbilago dagoen bat bilatzea. % 3,7k jabetzaren aldeko apustua egiten du eta % 0,8k dibortzio edo bereizketa arazoekin lotzen du. % 10,8k beste arrazoi batzuk aipatzen ditu.

## 37. grafikoa. Etxebizitza aldatzeko beharra duten familiak, arrazoi nagusiaren arabera. 2015




*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza beharren eta eskaeraren Inkesta. 2015*

2015ean aldaketa egiteko aipatutako arrazoi nagusiak, etxebizitzaren tamaina desegokia, intzidentzia-ildo nahikoa egonkorra erakusten du azken urteotan, eta etxebizitza aldatzeko faktore nagusi gisa mantentzen da 2007tik hona. Hala ere, nolabaiteko goranzko joera erakusten du azken urteetan eta horrek esplikatzen du 2015eko % 32,4ko zifra, arinki bada ere, 2013koak soilik gainditzen duela (% 33,1).

Irisgarritasun hobeko etxebizitza baten bilaketak ere (% 17,1), aldaketarako bigarren arrazoi garrantzitsuenak, gorakada izan du azkenaldian. 2008 eta 2011 artean % 13,9 eta % 15,7 arteko zifretan nahikoa egonkor iraun ondoren, 2013an % 11,1era erori zen aldaketa-premiarako zuen garrantzia, baina % 17,1era igo da, berriro, 2015ean. Zifra hori 2007an soilik gainditu zen (% 20,7).

Aitzitik, 2010-2013 artean hautemandako hazkundearen ondoren, alokairu merkeagoaren aukerak garrantzia galdu zuen, 2013 eta 2015 artean aldaketa faktore gisa zeukan garrantzia nabarmen erori baitzen (% 17,2tik % 9,8ra).

Bestalde, lehenean mantentzen da 2008tik hautemandako etxebizitza bat jabetza-erregimenean eskuratzeko gogoaren garrantzi galera etengabea. Hala, esandako faktore hori 2008an etxebizitza aldatzeko premiaren % 15,4 esplikatzetik 2015ean % 3,7 eskas batera igaro baita.

## 38. grafikoa. Etxebizitza aldatzeko beharraren arrazoi nagusien eboluzioa, 2008-2015




*(*) 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza beharren eta eskaeraren Inkesta. 2015*

## 57. taula. Etxea aldatu behar izateko arrazoia, EAE. 2007-2015

(Beharra duten etxeen gaineko ehunekoak eta etxebizitza kopurua)

| | 2007 | | 2008 | | 2009 | | 2010 | | 2011 | | 2013 | | 2015 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Etxebiz. kop. | %. | Etxebiz. kop. | %. | Etxebiz. kop. | %. | Etxebiz. kop. | %. | Etxebiz. kop. | %. | Etxebiz. kop. | %. | Etxebiz. kop. | %. |
| Guztizkoa | 113.396 | 100 | 40.894 | 100 | 56.652 | 100 | 56.397 | 100 | 38.048 | 100 | 61.621 | 100 | 53.132 | 100 |
| Tamaina desegokia | 33.633 | 29,7 | 12.255 | 30,0 | 14.184 | 25,0 | 18.017 | 31,9 | 10.281 | 27,0 | 20.390 | 33,1 | 17.215 | 32,4 |
| Egoera txarrean egotea | 8.278 | 7,3 | 6.773 | 16,6 | 4.474 | 7,9 | 7.878 | 14,0 | 3.471 | 9,1 | 5.102 | 8,3 | 6.252 | 11,8 |
| Irisgarritasun hobea | 23.428 | 20,7 | 5.926 | 14,5 | 7.958 | 14,0 | 7.818 | 13,9 | 5.974 | 15,7 | 6.847 | 11,1 | 9.062 | 17,1 |
| Kokapen txarra | 9.525 | 8,4 | 2.596 | 6,3 | 3.028 | 5,3 | 2.781 | 4,9 | 2.657 | 7,0 | 4.069 | 6,6 | 4.029 | 7,6 |
| Jabetzan izan nahi izatea | 9.525 | 8,4 | 6.282 | 15,4 | 5.905 | 10,4 | 4.865 | 8,6 | 2.232 | 5,9 | 2.446 | 4,0 | 1.980 | 3,7 |
| Dibortzioa, banantzea | 680 | 0,6 | 891 | 2,2 | 1.264 | 2,2 | 1.623 | 2,9 | 1.227 | 3,2 | 1.105 | 1,8 | 416 | 0,8 |
| Lanarekiko hurbiltasuna | 567 | 0,5 | - | - | 470 | 0,8 | 2.229 | 4,0 | 238 | 0,6 | 2.033 | 3,3 | 3.211 | 6,0 |
| Alokairu merkeagoa nahi izatea | 11.782 | 10,4 | 2.160 | 5,3 | 6.628 | 11,7 | 3.171 | 5,6 | 5.897 | 15,5 | 10.576 | 17,2 | 5.205 | 9,8 |
| Beste arrazoi bat | 15.977 | 14,1 | 4.011 | 9,8 | 12.742 | 22,5 | 8.014 | 14,2 | 6.071 | 16,0 | 9.054 | 14,7 | 5.763 | 10,8 |

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza beharren eta eskaeraren Inkesta. 2015*

### 58. taula. Etxebizitza aldatzeko premiaren arrazoien aldaketa, EAE. 2007-2015 eta 2013-2015

(Beharra duten etxeen gaineko ehunekoak eta etxebizitza kopurua)

| | 2007 | | 2013 | | 2015 | | 2007-2015 aldiko aldaketa | | 2013-2015 aldiko aldaketa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Etxebiz. kop. | %. | Etxebiz. kop. | %. | Etxebiz. kop. | %. | Etxebiz. kop. | %. | Etxebiz. kop. | %. |
| Guztizkoa | 113.396 | 100 | 61.621 | 100 | 53.132 | 100 | -60.264 | -53,1 | -8.489 | -197,8 |
| Tamaina desegokia (txikia) | 33.633 | 29,7 | 20.390 | 33,1 | 17.215 | 32,4 | -16.418 | -48,8 | -3.175 | -15,6 |
| Egoera txarrean egotea | 8.278 | 7,3 | 5.102 | 8,3 | 6.252 | 11,8 | -2.026 | -24,5 | 1.150 | 22,5 |
| Irisgarritasun hobea | 23.428 | 20,7 | 6.847 | 11,1 | 9.062 | 17,1 | -14.366 | -61,3 | 2.215 | 32,3 |
| Kokapen txarra | 9.525 | 8,4 | 4.069 | 6,6 | 4.029 | 7,6 | -5.496 | -57,7 | -40 | -1,0 |
| Jabetzan izan nahi izatea | 9.525 | 8,4 | 2.446 | 4,0 | 1.980 | 3,7 | -7.545 | -79,2 | -466 | -19,1 |
| Dibortzioa, banantzea | 680 | 0,6 | 1.105 | 1,8 | 416 | 0,8 | -264 | -38,8 | -689 | -62,4 |
| Lanarekiko hurbiltasuna | 567 | 0,5 | 2.033 | 3,3 | 3.211 | 6,0 | 2.644 | 466,3 | 1.178 | 57,9 |
| Alokairu merkeagoa nahi izatea | 11.782 | 10,4 | 10.576 | 17,2 | 5.205 | 9,8 | -6.577 | -55,8 | -5.371 | -50,8 |
| Beste arrazoi bat | 15.977 | 14,1 | 9.054 | 14,7 | 5.763 | 10,8 | -10.214 | -63,9 | -3.291 | -36,3 |

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza beharren eta eskaeraren Inkesta. 2015*

## 3.2.3. Ingurunearekiko / auzoarekiko asebetetze maila

Ingurune edo auzoarekiko asebetetze-falta ez da faktore esanguratsua EAEn etxebizitza aldatzeko beharra erabakitzeko orduan. Ildo horretan, ikus daiteke aldaketa-beharra agertzen duten familien % 77,5ek auzoarekiko aldeko iritzia duela, izan ere, % 46,3k asebetetze maila altua eta % 31,2k dezente altua adierazten baitute.

2009ko % 76,4tik 2011ko % 82,3ra modu jarraituan igo ostean, murriztu egin da apur bat aldeko iritzi orokorra (altua eta dezente altua) bai 2013an eta bai 2015ean. 2013ko % 78,5 eta 2015eko % 77,5 altuagoak dira, nolanahi ere, 2009ko % 76,4a baino.

Adierazitakoarekin koherente izanik, iritzi negatiboei dagokienez, murriztu egin da auzoarekiko asebetetze apala eta handitu asebetetze nahiko apala. Horrela, asebetetze apalaren proportzioa 2013an % 10,2 izatetik 2015ean % 5,6 izatera igaro da; asebetetze nahiko apalaren kasuan, berriz, 2013ko % 11,3tik 2015eko % 17raino igo da.

### 59. taula. Ingurunearekiko / auzoarekiko asebetetze maila. 2009-2015

| Asebetetze maila | 2009 | 2010 | 2011 | 2013 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| Altua | 44,2 | 47,6 | 35,3 | 44,7 | 46,3 |
| Nahiko altua | 32,2 | 33,9 | 47,0 | 33,8 | 31,2 |
| Nahiko apala | 15,0 | 10,4 | 9,2 | 11,3 | 17,0 |
| Apala | 8,6 | 8,0 | 8,5 | 10,2 | 5,6 |

*(*): % bertikala (beharra duten familien guztizkoarekiko)*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza beharren eta eskaeraren Inkesta. 2015*

Oro har, nabarmen hobetu dira aldaketa-premia duten familia-unitateen ingurunean/auzoan existitzen diren problematikak neurtzen dituzten adierazleak. Hala

eta guztiz ere, hauteman dira zenbait problematika espezifiko inkesta erantzun duten familiek bizilekutzat duten ingurune edo auzoari buruz dituzten asebetetze edo asebetetze faltaren aldaketak azal ditzaketenak:

- Aparkatzeko tokirik ez egotea arazo gisa aipatzen dute etxebizitza aldatzeko premia duten hamar familiatatik lauk 2015ean (% 41,1). Dena dela, problematika horrek beheranzko joera du, eta modu jarraituan erori da 2009ko % 70,7tik, 2013ko % 59,5ra eta gaur egungo % 41,1era.

- Aparkatzeko tokiaren falta alde batera utzita, 2015ean, arazoak dituzten familia-unitateen % 20ko atalasea kanpoko zaraten atalean soilik gainditu da. Kasu honetan, problematika % 28,1eraino iritsi da, eta esan behar da zifra horrek hobetu egiten duela 2013ko ehunekoa (% 33,3). Era berean, mailarik apalena da 2009tik

- % 15-16 arteko mailetan daude zerbitzuen urritasuna (2015ean % 16,6, baina % 27, 2013an), irisgarritasun falta (% 16,1, 2015ean, eta % 37,2, 2013an) eta kutsadura/usain txarren arazoak (% 15,4, 2015ean, eta % 21,8, 2013an).

  Problematika horien guztien inpaktua murriztu egin da kasu guztietan, intentsitate desberdinez bada ere. Adierazgarria da irisgarritasun faltaren murrizketa, 2013an adierazitako bigarren arazoa izatetik (% 37,2) 2015ean laugarrenean kokatzera igaro baita (% 16,1). Murrizketa are adierazgarriagoa da egungo erregistroa 2009-2010eko zifrekin alderatzen bada, garai hartakoak % 43-46 artekoak baitziren.

  Bestalde, zerbitzuen urritasunaren inpaktua hamar puntu portzentualetan gutxitu da 2013arekiko (% 16,6 2015ean, baina % 27, 2013an); hala ere, aldea txikiagoa da 2011ko % 20,6rekiko, urte hartan erregistratu baitzen, hain zuzen, 2009-2013 aldiko balio apalena. Kutsadura/usain txarrei dagokienez, adierazleak hobekuntza argia izan duen arren 2013arekin erkatuta (2015ean % 15,4 baina 2013an % 21,8), 2011koaren antzeko zifra erregistratu du (% 15,2).

- % 13-14 artean kokatu dira delinkuentzia/segurtasun falta arazoak (2015ean % 14,7, baina 2013an % 28,1) eta mantentze-lan ezarekin lotura dutenak (2015ean % 13, baina 2013an % 22,2). Bi kasuetan gutxitu egin da intzidentzia 2013arekin erkatuta, eta 2015ean agertu da 2009-2015 serieko balio txikiena.

- % 12tik behera kokatu dira berdeguneen urritasunari lotutako arazoak (% 11,8, 2015ean, baina % 27,5, 2013an), garbitasun falta/zabor bilketari lotuak (% 11,3, 2015ean, baina % 16,5, 2013an) eta komunikazio txar/garraioarekin zerikusia zutenak, arazo hori premia zuten familien % 8,9k adierazi baitute 2015ean, baina ez da ahaztu behar % 18,8k salatu zutela 2013an. Hiru alderdi horien kasuan, 2009-2015 serieko balio txikienak erregistratu dituzte 2015ean.

## 39. grafikoa. Ingurunean / auzoan hautemandako arazoen balorazioa aldatzeko beharra duten familietan, 2015




*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza beharren eta eskaeraren Inkesta. 2015*

Aurkeztutako datuek islatzen dute, dirudienez, beren egungo bizileku-inguruneaz ikuspegi askoz positiboagoa duten kolektiboak daudela etxebizitza aldatzeko premia horren atzean. Gauza daitekeen eskaeraren –bai epe laburrean eta bai ertainean– hazkundeari buruz jada hautemandako datuaren paraleloan, horrek erakusten du egun eskaera egiten duen kolektiboak testuinguru sozioekonomiko askoz hobea duela.

## 60. taula. Ingurunean / auzoan hautemandako arazoen balorazioa EAEn aldatzeko beharra duten familietan. 2009-2015

| Arazoak ingurunean / auzoan | 2009 | 2010 | 2011 | 2013 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| Kanpoko zaratak | 30,9 | 36,9 | 31,9 | 33,3 | 28,1 |
| Kutsadura-arazoak / usain txarrak | 17,8 | 24,4 | 15,2 | 21,8 | 15,4 |
| Mantentze-lanen falta | 20,7 | 21,1 | 16,1 | 22,2 | 13,0 |
| Garbitasun / zabor-bilketa eskasa | 12,3 | 12,5 | 14,4 | 16,5 | 11,3 |
| Komunikazio / garraio txarrak | 21,8 | 14,5 | 18,6 | 18,8 | 8,9 |
| Berdegune gutxi | 31,6 | 25,1 | 21,1 | 27,5 | 11,8 |
| Aparkatzeko arazoak | 70,7 | 68,6 | 67,0 | 59,5 | 41,1 |
| Zerbitzu gutxi | 24,5 | 22,5 | 20,6 | 27,0 | 16,6 |
| Irisgarritasun-falta | 46,3 | 43,1 | 27,1 | 37,2 | 16,1 |
| Delinkuentzia-arazoak / segurtasun-falta | 28,2 | 30,2 | 23,9 | 28,1 | 14,7 |

*(*): % bertikala (beharra duten familien guztizkoarekiko)*
*(**): Erantzun bat baino gehiago eman daiteke.*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza beharren eta eskaeraren Inkesta. 2015*

### 3.2.4. Beharraren eta eskaera-epeen gradu subjektiboa

Atal honetan aldaketa-beharraren analisia egin nahi da zenbait aldagairen bidez, hala nola aldatzeko beharra duten familiek hautemandako premia maila subjektiboa, behar-egoeran daramaten denbora eta etxebizitza aldatzeko aurreikusten dituzten epeak.

Aldaketa-beharraren maila adierazgarria da 2015ean behar hori aurkeztu duten familia-unitate gehienen kasuan. Horrela, kolektibo horren % 64,9k adierazten du etxebizitza aldatzeko behar handia edo dezentekoa duela (% 30,4 eta % 34,5, hurrenez hurren). Kontrako zentzuan, familien % 25,9k adierazten dute nolabaiteko beharra dutela eta % 9,2k, premia gutxi.

Aztertutako kolektiboaren hirutatik bik baino gehiagok 2015ean aldaketa-premia handia edo dezentekoa dutela adierazi arren, ikusi da erreferentziazko % 64,9 hori ia 10 puntu portzentual jaitsi dela 2013ko % 74,2arekiko. Izatez, bilakaera kontuan hartuta, aldaketa-beharraren batez besteko maila jaitsi egin da, maila hori (0tik 100erako[13] eskala batean neurtua) 2013ko 67,7 puntutatik 2015eko 61,7ra murriztu baita. Zifra hori, gainera, 2009-2015 aldian erregistratutako balio txikiena da, orain arteko apalena 2011ko 65,4 puntutan kokatzen baitzen.

**61. taula. Etxebizitza aldatzeko beharraren maila subjektiboa, 2009-2015**

| Beharraren maila | 2009 | 2010 | 2011 | 2013 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| Handia | 39,3 | 34,8 | 32,5 | 33,7 | 30,4 |
| Dezentea | 36,2 | 38,4 | 37,4 | 40,5 | 34,5 |
| Zerbait | 21,3 | 20,5 | 25,0 | 21,9 | 25,9 |
| Txikia | 3,2 | 6,2 | 5,1 | 3,8 | 9,2 |
| **Maila ertaina (0-100)** | **70,2** | **67,0** | **65,4** | **67,7** | **61,7** |

(*): % bertikala (mota bakoitzean beharra dutenen guztizkoa).
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

2013 eta 2015 bitartean hautemandako premia mailaren jaitsiera bai aldaketa-behar handia adierazten duten pertsonen ehunekoa (2013ko % 33,7tik 2015eko % 30,4ra) eta bai dezenteko premia adierazten dutenena (2013ko % 40,5tik 2015eko % 34,5era) jaitsi izanarekin lotzen da. 2015ean premia handia eta dezentekoa batuta lortutako % 64,9ko zifrak berresten du adierazle horrek beheranzko joera duela 2007tik hasita (2009 eta 2013ko salbuespenekin). Azken batean, 1997tik erregistratutako balio txikiena da, bost puntu portzentual apalagoa aurreko minimoa baino (2011koa: % 69,9).

[13] Beharraren batez besteko maila 0 eta 100 bitarteko eskalan kalkulatzen da. Elkarrizketatutako pertsonen banakako iritziei dagozkien erantzunen batez bestekoa erakusten du, honako eskala honen arabera: 100, asko; 66, dezente; 33, pixka bat; eta 0, gutxi.

### 40. grafikoa. Etxebizitza aldatzeko behar-mailaren eboluzioa (behar handiko edo dezenteko kategoriak) 1997-2015




* 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

Aldaketa-beharraren denborari edo antzinatasunari dagokionez, familien % 47k gutxienez bi urte daramatzate etxebizitza aldatzeko premian; eta esan behar da proportzio hori % 26,5ekoa dela egoera horretan lau urte edo gehiago daramatzaten familien kasuan.

2013 eta 2015 artean, % 58,1etik % 47ra murriztu dira aldaketa-premian bi urte edo gehiago daramatzaten familiak. Jaitsiera hori bai premia-egoeran 2 eta 4 urte artean daramatzaten familien artean (ehunekoa 2013an % 25,5ekoa izatetik 2015eko % 20,5era pasatu da) eta bai lau urte edo gehiagoz etxebizitza aldatzeko premian dauden familien artean gertatu da. Kasu honetan, 2010 eta 2011ko % 35etik gorako zifretatik, 2013ko % 32,6ra eta 2015eko % 26,5era igaro da.

Kontrara, hazi egin da urtebete eta 2 urte artean premia-egoeran dauden familien proportzioa (2013ko % 23tik 2015eko % 29,6ra) eta urtebete baino gutxiagoko premian daudenena. Azken hauek, premian zegoen kolektiboaren % 18,9 ziren 2013an, eta proportzio hori % 23,4raino igo da 2015ean.

### 62. taula. Etxebizitza aldatzeko premian egotearen denbora, 2009-2015

| Denbora premia-egoeran | 2009 | 2010 | 2011 | 2013 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| Urtebete baino gutxiago | 23,4 | 18,4 | 14,9 | 18,9 | 23,4 |
| 1 eta 2 urte artean | 27,2 | 26,4 | 23,8 | 23,0 | 29,6 |
| 2 eta 4 urte artean | 17,5 | 19,5 | 24,3 | 25,5 | 20,5 |
| 4 urte baino gehiago | 31,9 | 35,7 | 37,0 | 32,6 | 26,5 |
| **GUZTIZKOA** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

(*): % bertikala (mota bakoitzean beharra dutenen guztizkoa).
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

Epe luzeko ikuspegitik, etxebizitza aldatzeko premian 4 urte baino gehiago daramatzaten familien ehunekoa 2015ean berriro erortzeak esan nahi du 1997tik adierazle horrek erregistratu duen balio txikiena duela. 2015eko % 26,5eko zifra bost puntu portzentual txikiagoa da orain arte bildutako txikiena baino, 2009ko % 31,9, hain

zuzen. Horrela, epe luzean mantendutako premiak 2009a baino lehen erregistratutako mailak baino nabarmen apalagoak eskaintzen ditu (oro har % 48 eta % 60 bitartekoak).

### 41. grafikoa. Etxebizitza aldatzeko behar-egoeraren denbora > 4 urte. EAE 1997-2015




Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

Etxebizitza aldatzea aurreikusten den epea aztertuz gero, 2015ean etxe-aldaketa premia agertzen duten familia-unitateen % 48k uste dute aukera asko edo dezente daudela hurrengo bi urteetan aldatu ahal izateko (% 19,5ek hurrengo urtean, eta % 28,5ek bi urte barru). Proportzio hori % 70,5era igotzen da horizontea hurrengo 4 urteetaraino zabalduz gero (aukera asko % 48,6k eta aukera dezente % 21,9k).

### 63. taula. Aldatzeko premian dauden etxeak: etxebizitza aldatzeko probabilitatea bi urteko eta lau urteko perspektibarekin, 2015

| Aldaketa-probabilitatea | 2 urterako probabilitatea | 4 urterako probabilitatea |
|---|---|---|
| Aukera asko | 19,5 | 48,6 |
| Aukera dezente | 28,5 | 21,9 |
| Aukera txikia | 39,2 | 23,5 |
| Aukerarik ez | 12,8 | 6,0 |
| **GUZTIZKOA** | **100,0** | **100,0** |

(*): % bertikala (mota bakoitzean beharra dutenen guztizkoa).
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

Beharra bi edo lau urtera asetzeko aurreikuspenak nabarmen igo dira 2013arekiko, batez ere 4 urtera begirakoak. Bi urtera begirako perspektibaren kasuan, aldatzeko probabilitatea (aukera asko edo dezente) 2013ko % 33,7tik 2015eko % 48ra igaro da. Lau urterako eskaeraren kasuan, hazkunde portzentuala are handiagoa da, 21 puntukoa, hain zuzen, 2013ko % 49,5etik gaurko % 70,5era igo baita.

Oro har, 2015ean, 1998tik erregistratu diren balio maximoak lortu dira, etxebizitza eskuratzeko perspektibari dagokionez. Adierazleek islatzen dute, oro har, 1998-2013 aldi osoan hautemandakoa baino etxebizitza eskuratzeko probabilitate handiagoak daudela, batez ere 4 urtera baino gehiagora begirako perspektibaz ari bagara. Azken kasu horretan, 2015eko erregistroak (% 70,5) une horretara arte 1999an lortutako serieko balio maximoa gainditzen du (% 67,2). Hurrengo bi urteetan aldaketa egiteko

probabilitateari dagokionez, 1998tik jasotako erregistro guztiak gainditzen ditu, 2009ko % 48,1ekoa kenduta, zeinaren ia berdina baita.

### 42. grafikoa. Aldaketa-beharra duten familiak: lau eta bi urterako eskaera-perspektibaren eboluzioa (aukera asko edo dezente). EAE 1998-2015




Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

Lau urtera begira etxebizitza aldatzeko aukera asko edo dezente ikusten dituztela dioten familia-unitateen artean, bost familiatatik ia hiru (% 59,5) etxebizitzaren bilaketa aktiboan murgilduta daude 2015ean. 2008ko % 58tik hona erregistratutako zifra handiena da, zeina 2001, 2003, 2005 eta 2007an soilik gainditu baitzen, % 61etik 63ra arteko zifrekin.

### 43. grafikoa. Etxebizitza aldatzeko beharra duten eta bilaketa aktiboa egiten ari diren biztanleen eboluzioa. EAE 1998-2015

**Oinarria: 4 urteko epean etxebizitza aldatzeko aukera asko edo dezente**




* 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

Aurkeztutako datuek osatzen duten panorama ezin esan ohikoa denik. Funtsean, 2015ean hautemandako premia mailaren murrizketa bortitza –kontuan izanda, gainera, premia-egoeran egon beharreko denbora maila minimoetan dagoela– 2007tik izan den eskaera maximoarekin –gauza daitekeena– konbinatzen baita. Horri erantsi behar zaio historian izan diren maila maximoak iritsi direla aldaketa gauzatzeko aukerari dagokionez, hala 2 nola 4 urtera begira.

Etxebizitza aldatzeko eskaera handiena, neurri batean behintzat, etxebizitza hobetzeko perspektibari lotuta dago, eta ez horrenbeste ezinbesteko aldatzeko premiari. Gainera, 2015ean, boom ekonomikoaren aldi gorenean (2001-2007) bestetan agitu ez diren etxebizitza berriaren bilaketa aktiboari lotutako adierazleak hauteman dira.

### 3.2.5. Behar den etxebizitzaren ezaugarriak

Etxebizitza aldatzea planteatzen duten familiek behar dituzten etxebizitzen ezaugarriak aztertuz gero, deigarria da, lehenik eta behin, aurrez erabilitako etxebizitza bat eskuratzeko aukerak duen onarpen maila. Hala, premia duten familien % 69,2ri berdin zaio etxebizitza berria edo erabilia izatea. Premia duten familien % 12,3k nahiago du etxebizitza berria, eta % 11,9k, aldiz, erabilitako etxebizitzaren aldeko aukera esklusiboa egiten du.

Datu horiek adierazten dute murriztu egin dela apur bat etxebizitza berria edo erabilia izan berdin zaien familien kolektiboa. Hala, 2013ko % 73,5etik 2015eko % 69,2ra aldatu da proportzioa. Jaitsiera hori gorabehera, 2015eko ehunekoa 2009-2011ko balioez gaindi mantentzen da. Edonola ere, etxebizitza berriaren aldeko lehentasun esklusiboa etengabe beherantz doala ikusten da, 2009ko % 24,1etik 2015eko % 12,3raino gainbeherako joera jarraitua izan baitu.

**64. taula. Aldatzeko beharra duten familiek behar dituzten etxebizitzen ezaugarriak. 2009-2015**

| Ezaugarriak | 2009 | 2010 | 2011 | 2013 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| **IZAERA** | | | | | |
| Berria | 24,1 | 16,6 | 15,7 | 14,1 | 12,3 |
| Erabilitakoa | 34,1 | 13,4 | 35,7 | 9,1 | 11,9 |
| Bata zein bestea | 37,9 | 61,2 | 47,2 | 73,5 | 69,2 |
| Ed/Ee | 3,9 | 8,8 | 1,4 | 3,4 | 6,6 |
| **AZALERA ERABILGARRIA** | | | | | |
| 60 $m^2$ baino gutxiago | 15,1 | 18,8 | 16,9 | 15,1 | 18,5 |
| 61 eta 75 $m^2$ artean | 28,5 | 22,3 | 29,6 | 25,1 | 17,2 |
| 76 eta 90 $m^2$ artean | 30,6 | 28,5 | 30,8 | 35,3 | 37,7 |
| 90 $m^2$ baino gehiago | 18,3 | 21,8 | 20,6 | 20,1 | 23,6 |
| Ed/Ee | 7,4 | 8,6 | 2,2 | 4,5 | 2,9 |
| **Batez besteko azalera ($m^2$)** | **77,6** | **78,1** | **77,5** | **79,1** | **81,7** |
| **EDUKITZEKO ERREGIMENA** | | | | | |
| Jabetza | 64,9 | 62,9 | 65,7 | 51,7 | 54,2 |
| Alokairua | 27,0 | 24,8 | 26,5 | 35,1 | 28,5 |
| *- Erosteko aukerarik gabe* | - | - | - | - | 20,3 |
| *- Alokairua, erosteko aukerarekin* | - | - | - | - | 8,2 |
| Bata zein bestea | 8,1 | 12,3 | 7,8 | 13,2 | 17,3 |

*(*): % bertikala (beharra duten familien guztizkoarekiko)*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza beharren eta eskaeraren Inkesta. 2015*

Gehien eskatzen den etxebizitza-azalera 76 eta 90 $m^2$-ren artean kokatzen da oraindik. Izatez, handitu egin da tamaina horretako etxebizitza eskatzen duten familien ehunekoa

2009-2011 arteko % 30 edo hortik beherako zifretatik 2013ko % 35,3ra eta 2015eko % 37,7raino. Baina, era berean, hazi egin da orobat 90 $m^2$ edo gehiagoko etxebizitzen eskaerari lotutako ehunekoa. 2015eko % 23,6ak bai 2013ko % 20,1eko zifra eta bai 2009-2011 aldiko balio maximoa (% 21,8, 2010ean), biak gainditzen ditu.

Oro har, 76 edo $m^2$ gehiagoko etxebizitzen eskaerak modu jarraituan egin du gora 2009ko % 48,9tik 2015eko % 61,3raino. Horren ondorioz, eskatutako batez besteko azalera handitu egin da aipatutako aldian, 2009 eta 2011ko 77,5 eta 78,1 $m^2$ bitarteko zifretatik 2013ko 79,1 $m^2$-etara eta 2015eko 81,7 $m^2$-etara. Eskatutako batez besteko tamaina, dena dela, 2004an erregistratuaren antzekoa da (81,7 $m^2$) eta 2002ra arte jasotakora hurbiltzen da, 82 $m^2$ inguru edo gehiagorekin.

2013ko egoerarekin alderatuta, 75 $m^2$-tik gorako etxebizitzen eskaera erlatibo handiagoa, batez ere 61etik 75 $m^2$ bitarteko etxebizitzetara zuzendutako eskaeraren jaitsierarekin lotzen da, % 25,1etik 2015eko % 17,2raino murriztu baita. 60 $m^2$ edo gutxiagoko etxebizitzen eskaera, ostera, handitu egin da azken urteotan, 2013ko % 15,1etik 2015eko % 18,5era igo baita, ia-ia 2010eko zifra berdintzen duela (% 18,8).

### 44. grafikoa. Aldaketa-beharra duten familiek nahi duten batez besteko azaleraren eboluzioa. EAE 1997-2015




* 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

Etxebizitzaren edukitze-erregimenari dagokionez, jabetza da oraindik aldatzeko beharra duten familiek gehien eskatzen duten aukera esklusiboa, 2015ean % 54,2ko proportzioarekin. 2013ko zifra (% 51,7) gainditzen badu ere, 2009 eta 2011 artean hautemandako % 62,9 eta % 65,7 bitarteko tartea baino askoz ehuneko apalagoa da.

Azken urteotan, alokairua aukeratzen duten familien kolektiboaren jaitsiera adierazgarria hauteman da; izan ere, 2013an % 35,1eko proportzioa izatetik, 2015ean % 28,5 izatera igaro baita. Hala eta guztiz ere, azken zifra hori 2009-2011ko balioez gaindi mantentzen da (% 27 izan zen erregistro maximoa 2009an). 2015ean alokairuaren aldeko apustua (% 28,5) egin duten familien artetik, % 20,3k erosteko aukerarik gabeko alokairua bilatzen du, eta gainerako % 8,2k nahiago du alokairua erosteko aukerarekin.

Edukitze-erregimen bat edo beste berdin zaien familiek ere 2015ean harrapatu dute mailarik altuena 2009az geroztik, % 17,3ko zifrarekin, hau da, lau puntu gorago 2013ko % 13,2 baino.

Alokairua nahiago duten familiak eta etxebizitza berria jabetzan edo alokairuan eskuratzea berdin zaien familiak batera aztertuz gero, proportzioa murriztu egin da apur bat azken bi urteotan: 2013ko % 48,3tik 2015eko % 45,8ra. Hala ere, 2015ean erregistratutako zifra 1997az geroztiko serieko maila maximoetan kokatuta dago oraindik, urte hartan alokairuari atea irekitzen zion aukera % 11,7 baizik ez baitzen. 2006ra arte % 20tik beherako zifrak erregistratu ziren, 2001eko (% 21,3) eta 2002ko (% 23,9) edizioetan salbu. 2006-2007 urteetan, adierazlea % 25etik hurbileko zifretara hurbildu zen, eta 2008 eta 2011 artean, berriz, % 35etik hurbil kokatu zen. Bai 2013an eta bai 2015ean, jauzi kualitatiboa gertatu da, % 45eko atalasea gainditzen duten zifrekin. 2013ra arte, 2010ean erregistratu zen maximoa, aztertutako kolektiboak beharra zuten familien % 37,1 ordezkatzen baitzuen.

### 45. grafikoa. Alokairu-etxebizitza batera (alokairua + beste edozein) aldatzeko beharra duten familien premiaren eboluzioa. EAE 1997-2015




* 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

Hala ere, komeni da gogora ekartzea jabetzaren erreferentzia oraindik ere oso deigarria dela. Multzo berean sartzen badira etxe berria jabetzan edo alokairuan hartzea berdin zaien familia-unitateak, eta alokairua nahiago izanik erosteko aukera kontuan hartzen dutenak, jabetzak erreferentziako elementua izaten jarraitzen du familia-unitate guztien % 79,7rentzat.

Etorkizuneko etxebizitzaren kokapenari dagokionez, familia gehien-gehienek (% 79,1) orain bizi diren udalerri bera adierazten dute etxebizitza berriaren kokaleku modura. Familia-unitateen % 30,2k adierazten dute etxebizitza orain bizi den auzo beraren barruan aldatu nahi duela, eta familia-unitateen % 48,9k planteatzen dute udalerri berean baina beste auzo batean biziko liratekeela.

Hortaz, familien % 18,1ek bestek ez du zabaltzen etxearen bilaketa bizi den udalerritik harago, eskuratzea planteatzen duen etxebizitza berriaren kokapenerako. Proportzio

hori, dena dela, arinki igotzen ari da 2009-2013 aldiko zifrekiko, % 13,6 (2011) eta % 17,6 (2013) bitartean kokatzen baitziren haiek.

**65. taula. Aldatzeko beharra duten familiek behar dituzten etxebizitzen kokapena. 2009-2015**

| Lekualdaketa non egin | 2009 | 2010 | 2011 | 2013 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| Auzo berean | 30,8 | 30,6 | 28,5 | 29,6 | 30,2 |
| Udalerri berean | 49,2 | 50,7 | 54,3 | 51,5 | 48,9 |
| Eskualde berean | 10,5 | 13,0 | 10,7 | 13,6 | 11,8 |
| Beste eskualde batean | 4,2 | 3,9 | 2,9 | 4,0 | 6,3 |
| Ed/Ee | 5,4 | 1,8 | 3,6 | 1,3 | 2,8 |

*(*): % bertikala (beharra duten familien guztizkoarekiko)*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza beharren eta eskaeraren Inkesta. 2015*

## 3.3. Aldaketa-beharra duten familien finantza-gaitasuna

### 3.3.1. Diru-sarrerak

2015ean, aldaketa-beharra zuten familien hileko diru-sarrera garbiak 1.964,9 eurokoak ziren, batez beste[14]. Horrek esan nahi du 2013an erregistratuarekiko (1.690,5 euro) % 16,2ko igoera egon dela.

Epe luzeko perspektibatik ikusita, etxebizitza aldatzeko premian dauden familien hileko diru-sarrera mailak 1999tik hautemandako goranzko joerari eusten dio. Bi aldiz soilik murriztu izan da, 2009an (1.511,4 euro) eta 2013an (1.690,5 euro). Horrela, 2015ean erregistratutako balioak (1.964,9 euro) mailarik altuena harrapatzen du, 1998tik, termino arruntetan.

Familiek 2015ean deklaratutako diru-sarrera tartearen arabera duten banaketa aztertuz gero, ikusten da familien % 41,9k ez dituztela 1.650 euroko diru-sarrerak gainditzen hilean, alegia, diru-sarrera txikienak dituen kolektiboaren pisu erlatiboa jaitsi egin da 2013arekiko (% 55,6).

Erreferentzia-taldearen barruan, nabarmen igo da diru-sarrera handienak (2.160 euro baino gehiago) dituzten familien pisua. Berorien proportzioa etengabe igo da 2009ko % 16,1etik 2013ko % 22,1era eta 2015eko % 33,5eraino[15].

[14] Diru-sarrerak etxebizitza berriaren ordainketan parte hartuko duten pertsonen multzoari dagozkio.

[15] Aipatu behar da informazio-faltaren inpaktuak baldintzatu egiten duela analisia. Puntu honetan argitu behar da, hala ere, murriztu egin dela beren diru-sarrerak adierazi ez dituzten familien proportzioa. 2013an % 10,5 ziren arren eta 2015ean % 13,3, aurreko edizioetan % 20a gainditzen zuten, eta proportzio hori, 2009an, % 32,9raino heldu zen.

### 66. taula. Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien diru-sarrera maila. 2009-2015

| Hileko sarrera garbiak | 2009 | 2010 | 2011 | 2013 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| 840 euro arte | 14,2 | 11,6 | 8,2 | 16,7 | 12,5 |
| 841 eta 1.140 euro bitartean | 10,7 | 10,2 | 12,3 | 20,2 | 12,0 |
| 1.141 eta 1.410 euro bitartean | 11,1 | 16,6 | 10,8 | 10,3 | 10,5 |
| 1.411 eta 1.650 euro bitartean | 7,0 | 10,8 | 9,0 | 8,4 | 6,9 |
| 1.651 eta 2.160 euro bitartean | 7,9 | 11,7 | 11,7 | 11,7 | 11,4 |
| 2.160 euro baino gehiago | 16,1 | 18,8 | 20,6 | 22,1 | 33,5 |
| Ed/Ee | 32,9 | 20,3 | 27,4 | 10,5 | 13,3 |
| **Batez bestekoa (€)** | **1.511,4** | **1.585,7** | **1.776,6** | **1.690,5** | **1964,9** |

*(*): % bertikala (beharra duten familien guztizkoarekiko)*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza beharren eta eskaeraren Inkesta. 2015*

### 46. grafikoa. Aldaketa-beharra duten familien diru-sarreren eboluzioa, 1998-2015




* 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

## 3.3.2. Hilean ordaintzeko gaitasuna eta ordain daitekeen prezio maximoa

Etxebizitza-aldaketari aurre egiteko familia-unitateek aitortzen duten hilero ordaintzeko batez besteko gaitasuna 524,3 eurokoa da 2015ean; alegia, 2013arekiko (467,3 €), etxebizitza berria finantzatzeko baliabide ekonomikoak % 12,2 handitu dira.

Halaz eta guztiz ere, esan behar da asko aldatzen dela hilero ordaintzeko gaitasuna aurreikusitako edukitze-erregimenaren eta premia motaren arabera. Beharrizan motari dagokionez, ikusi da etxebizitza aldatzeko arrazoi objektiboren bat duela irizten dion taldeak batez besteko baliotik beherako gastatzeko gaitasuna duela: 454,7 eurokoa; batez besteko globala, berriz, 524,3 eurokoa da. Aitzitik, premia alde batera utzita, epe labur edo ertainean etxea aldatzeko asmotan dagoen taldean gastatzeko gaitasun dezentez handiagoa dagoela ikusi da (606,9 €).

Aurreikusitako edukitze-erregimen motari dagokionez ere alde nabarmenak hautematen dira. Kasu honetan, jabetza-erregimenaren aldeko aukera egiten duen taldeak dauka gastatzeko ahalmenik handiena (598,7 €). Batez bestekoaz azpiko zifrekin, ondoren datoz erosteko aukerarik gabeko alokairuaren aldeko taldea (477,9 €) eta alokairua zein

jabetza berdin zaien familiak (430,8 €). Erosteko aukera duen alokairua nahiago dutenak dira hilero ordaintzeko gaitasun txikiena dutenak (396,9 €).

### 47. grafikoa. Aldaketa-premian dauden familien hilero ordaintzeko gaitasuna aurreikusitako edukitze-erregimenaren eta premia motaren arabera. 2015




Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

2013an eta 2015ean, hilero ordaintzeko gaitasunean hautemandako igoera 2008ra arte (522 euroko maximoa) hautemandako goranzko joeraren jarraipena izan da. 2009an (470 €) murrizketa erregistratu zen ordaintzeko gaitasunean eta egonkortu egin zen 2009-2013 aldian, 470 eta 485 € artean. 2015eko zifrak, testuinguru horren barruan, argi eta garbi goranzko joerari berriro heltzea esan nahi du. Izatez, 2015ean erregistratutako balioa 1998tik jaso den balio altuena da.

### 48. grafikoa. Aldaketa-beharra duten familien hilean ordaintzeko gaitasunaren eboluzioa, 1998-2015




* 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

Zenbatetsitako ordainketa-gaitasuna batez besteko diru-sarrerekin erlazioan aztertuz gero, ikusten da 2015ean familiek diru-sarrera garbien % 26,7 bideratzen dutela etxebizitza berriaren ordainketari aurre egiteko. Zifra hori puntu portzentual bat beherago dago 2013koarekin (% 27,6) alderatuta eta 2011koaren antzekoa da (% 26,5).

Eboluzioari begiratzen bazaio, 2008 eta 2011 bitartean, beheranzko joera hautematen da etxebizitza aldatzea planteatzen duten familia-unitateek egin dezaketen finantza-ahaleginean. Horrela, ahaleginaren adierazlea 2008an % 32,1 izatetik 2011n % 26,5 izatera igaro zen. Zifrak goranzko joera hartu zuen, lehen aldiz, 2013an, % 27,6raino iristeko, eta gero jaitsi egin da berriro 2015eko % 26,7ra. Azkeneko hori maila apalenetako bat da EBEI egiten denetik eta 2011ko balio minimoarekin soilik aldera daiteke (% 26,5). Halaz eta guztiz ere, egiaztatu den bezala, bateragarria da gastatzeko gaitasunaren maila absolutuaren goranzko joerarekin, termino arruntetan.

**49. grafikoa. Aldaketa-beharra duten familien finantza-ahaleginaren eboluzioa, 1998-2015**




* 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

Aldaketa-premian dauden familien artean, 2015ean etxebizitzagatik planteatzen den batez besteko prezio maximo onargarria 188.623 eurokoa da. Zenbateko hori % 0,9 hazi da 2013ko 186.936 euroekiko, nahiz eta oraindik urrun dagoen 2011an erregistratutik (213.672 €).

Prezio maximo horrek 1998az geroztik izandako eboluzioa aztertuz gero, ikus daiteke modu jarraituan hazi dela 2007ra arte, batez ere 2003 eta 2007 artean, azken urte horretan iritsi baitzen 229.085 euroko balio maximora. 2007tik aurrera, 2011ko gorakada salbuetsita, beheranzko joera nagusitu da, balio maximoa 2013ko 186.936 euroraino erori zelarik. Testuinguru horretan, 2015eko zifrak 188.623 eurorainoko gorakada arin bat ekarri du. Hala ere, oraindik 2007tik erregistratu den zifra apalenetako bat da.

2015eko zifra (188.623 €) 2010ekoaren antzekoa da (188.501 €) eta 2004ko datuetara jo behar da 2015ekoa baino txikiagoa aurkitzeko[16].

### 50. grafikoa. Aldaketa-beharra duten familien erosketa-prezio maximoaren eboluzioa, 1998-2015 (**)




* 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.
** 2009 eta 2013 artean, ez dira kontuan hartzen alokairu-erregimena soilik planteatzen duten familiak. Honako oinarri hau aplikatzen da: **Jabetzan edo beste nolanahi aurreikusitako edukitze-erregimena**
** 2015az geroztik, ez dira kontuan hartzen alokairu-erregimena soilik –erosteko aukerarik gabe– planteatzen duten familiak. Honako oinarri hau aplikatzen da: **Aurreikusitako edukitze-erregimena, jabetzan, alokairuan –erosteko aukerarekin– edo bata zein bestea**
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

Diferentzia handiak hautematen dira ordain daitekeen prezio maximoan eta aldatzeko beharra duten familiek nahiago duten edukitze-erregimenaren aukeran. Etorkizuneko etxebizitza jabetzan izango dutela adierazten duten familien kasuan, batez besteko prezio maximoa 216.875 eurokoa da, 2015eko batez besteko balioa baino handiagoa (188.623 €). Zifra hori nabarmen murrizten da 130.810 eurotaraino etxebizitza jabetzan edo alokairuan hartzea berdin zaien familien kasuan, eta 108.890 eurotaraino, berriz, etxea alokairuan baina erosteko aukerarekin hartzea nahiago duten familientzat.

Beharrizan motari dagokionez, ikusi da etxebizitza aldatzeko arrazoi objektiboren bat duela iriztén dion taldeak 2015eko batez besteko baliotik beherako prezio maximoa adierazten duela: 159.526 euro; 2015eko batez bestekoa, berriz, 188.623 eurokoa da. Aitzitik, premia alde batera utzita, epe labur edo ertainean etxea aldatzeko asmotan dagoen taldeak batez besteko balioa baino dezentez handiagoko prezio maximo onargarria adierazi du (219.573 €).

Nahi den etxebizitza-erregimena kontuan hartuta, jabetza nahiago dutenen kasuan harrapatzen du prezio maximo onargarriak balio handiena (216.875 €). Zenbatekoa askoz handiagoa da bata zein bestea berdin zaien familiek planteatutako 130.810 euroak baino; baita alokairua nahiago izanagatik erosteko aukera baloratzen dutenek adierazitakoa, 108.890 euro, baino ere.

[16] 2009az geroztik, ez da kontuan hartzen edukitze-erregimena alokairuan soilik planteatzen duten familiek adierazitako prezioa. Honako oinarri hau aplikatzen da: **Jabetzan edo beste nolanahi aurreikusitako edukitze-erregimena.**

## 51. grafikoa. Etxebizitza aldatzeko beharra duten pertsonek adierazitako prezio maximo onargarria, aurreikusitako edukitze-erregimenaren arabera. 2015

**Oinarria: Jabetzan edo beste nolanahi aurreikusitako edukitze-erregimena**




* 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

Hautemandako aldeak ulertzeko ohartu behar dugu etxebizitza jabetzan eskatzen duten familien taldeak finantzaketa-gaitasun handiagoa duela gainerako kategoriek baino. Ildo horretan, diru-sarrera gehieneko familia-taldeak dira (2.344,6 € batez beste). Horri esker, hilero ordaintzeko gaitasun handiagoa dute (598,7 € batez beste), finantza-ahalegin txikiagoarekin (diru-sarreren % 25,5). Egoera horrek prezio handiagoko etxebizitzak eskuratzea ahalbidetzen die (216.875 € batez beste).

Beste aldeko muturrean, premiari aurre egiteko larrien dabiltzan familiek alokairua hautatzen dute, egoera ekonomikoak hobera egiten dien kasuan erosi ahal izateko itxaropenarekin. Familia horiek, batez beste, hilean 1.499 euroko diru-sarrerak dituzte, eta egoera horrek ahalbidetzen die hilean 396,9 € ordaintzea eta har dezaketen prezio maximoa 108.890 eurokoa izatea.

Etxebizitza jabetzan edo alokairuan hartzea berdin zaien familien eta, erosteko aukerarik gabe, alokairua esklusiboki hautatzen dutenen profila aurrez aipatu den taldearen oso antzekoa da. Zentzu horretan, familia horien batez besteko diru-sarrerak askoz xumeagoak dira jabetzaren aldeko hautua egiten duten familienak baino (1.423,5 €, erosteko aukera gabeko alokairuaren kasuan, eta 1.612,6 €, bata zein bestea berdin zaien familietan).

Hilero ordaintzeko gaitasuna ere apalagoa da, nahiz eta apur bat handiagoa izan erosteko aukera gabeko alokairuaren kasuan (477,9 €, baina 430,8 €, berdin zaien taldean, eta 396,9 € erosteko aukera duen alokairua hautatzen dutenen artean). Horrek erosteko aukera gabeko alokairua hautatu dutenek finantza-ahalegin handiagoa beren

gain hartzearekin du lotura (% 33,6, baina % 25,5etik % 26,7rainoko zifrak bildu dira beste talde guztietan, jabetzaren aldeko apustua egin dutenena barne).

Antzeko aldeak egiaztatu dira premia motaren araberako familiei dagokienez. Izan lezaketen beharra alde batera utzita, epe labur edo ertainean etxebizitza aldatzeko asmotan dauden familiek adierazle hobeak dituzte etxea aldatu ahal izateko etxebizitza aldatzeko arrazoi objektiboren bat dutenek baino. Hileroko diru-sarrerei buruz, lehen taldekoek 2.316,6 euroko batez besteko sarrerak dituzte, eta bigarrenekoek 1.682,6 eurokoak. Diru-sarrera horiei esker, lehen taldekoek hilero ordaintzeko gaitasun handiagoa dute (609,9 €) bigarren taldekoek baino (454,7 €).

Etxebizitza bat jabetzan, alokairuan –erosteko aukerarekin–, edo batean zein bestean hartzeko kasuan, sarrera handienak dituen taldeak onar dezakeen etxebizitzaren prezio maximoa dezentez handiagoa da sarrera gutxien duenak onar dezakeena baino (219.573 € lehen kasuan eta 159.526 € bigarrenean). Horrek diru-sarrera maila desberdinarekin du zerikusia, finantza-ahalegina oso hurbilekoa baita bi taldeetan (% 27,0 eta % 26,2, hurrenez hurren).

**67. taula. Diru-sarrerak, hilero ordaintzeko ahalmena, finantza-ahalegina, eta onar daitekeen erosketa-prezio maximoa, aurreikusitako edukitze-erregimenaren arabera. 2015**

| | | Aurreikusitako edukitze-erregimena | | | | Beharrizan mota | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztizkoa | Jabetzan | Alokairuan, erosteko aukerarik gabe | Bata zein bestea | Alokairuan, erosteko aukerarekin | Etxebizitza aldatzeko premia du | Beste etxe batera aldatzea pentsatzen ari da epe labur/ertainean |
| **FINANTZAKETA AHALMENA** | | | | | | | |
| Diru-sarrerak | 1.964,9 | 2.344,6 | 1.423,5 | 1.612,6 | 1.499,0 | 1.682,6 | 2.316,6 |
| Hilero ordaintzeko gaitasuna | 524,3 | 598,7 | 477,9 | 430,8 | 396,9 | 454,7 | 606,9 |
| Finantza-ahalegina. | 26,7 | 25,5 | 33,6 | 26,7 | 26,5 | 27,0 | 26,2 |
| Ordain dezaketen gehieneko prezioa | 188.623 | 216.875 | - | 130.810 | 108.890 | 159.526 | 219.573 |

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015.

### 3.3.3. Finantzaketarako formulak

Finantzaketa-formulen analisiari dagokionez, aurreko urteetan bezala, 2015ean ere bi bide nagusi identifikatzen dira etxebizitza-aldaketa finantzatzeko: kreditua eskuratzea eta aurreko etxebizitza saltzea. 2015ean, aldaketa beharra duten familien % 44,3k kreditura jo beharko lukete etxebizitza-aldaketa finantzatzeko, eta % 48k aurreko etxebizitza saltzea aurreikusten du. Hala ere, 2009tik hona lehenbiziko aldiz, kreditu baten bitartez finantzatzea aurreikusita duten familien ehunekoa (% 44,3) apalagoa da aurreko etxebizitza saltzearen bitartez finantzatzeko asmoa dutenena baino (% 48).

Kreditura jotzea, dena dela, etxebizitza aldatzeko beharra duten familien artean 2009tik hona nabarmen murriztu den bidea izan da. Bide hori aipatzen duten familien

proportzioa, hartara, % 78,9tik % 71,7ra murriztu da 2009tik 2010era bitartean, baina askoz era trinkoagoan horren ondoren, 2011n % 56ra, 2013an % 54,7ra eta 2015ean % 44,3ra jaitsi baita. Prozesu horretan eragin handia izan du alokairuaren aldeko hautua egin duten familien etengabeko hazkundeak, modu horretara kreditura jo gabe lortzen baitute etxebizitza; baina baita etxebizitza-aldaketa aurrekoa saltzearen bitartez eta kreditura jo beharrik gabe finantzatzen duten familia-unitateen pisu gero eta handiagoak ere.

Zentzu horretan, oraingo etxebizitza saltzea planteatzen duten familien proportzioak gora egin du berriro azken bi urteotan. Kasu honetan, 2013 eta 2015 arteko hazkundeak (% 40,7 eta % 48, hurrenez hurren) 2009an eta 2010ean hautemandako mailetara (% 50 eta % 51 arteko zifrak lortu ziren) hurbiltzea ahalbidetu du.

Norberaren aurrezkietara jotzeak ere garrantzia berreskuratu du azken bi urteotan, 2013ko % 23,9tik 2015eko % 28,1era igo baita, baina urruti oraindik 2011n (% 33,4) edo 2009an (% 48,8) erregistratu ziren ehunekoetatik. Deigarriagoa da laguntza publikoen garrantziaren galera, % 8,3k baizik ez baitute finantza-bide hori aipatzen 2015ean. Finantzaketa-bide horretan pentsatzen zuten familien ehunekoa, 2009an, % 34,5 izan zen, baina % 15-16 ingurura murriztu ziren 2010-2011 aldian, % 8,5era 2013an eta % 8,3ra, 2015ean.

Jabetza-erregimenaren alde egiten duten familiak, erosteko aukera duen alokairua hautatzen dutenak edota alokairua edo jabetza berdin zaienak multzo batean aztertzen badira, ikusten da esandako horien guztien ia erdiek ez dutela kreditu bidezko finantzaketara joko 2015ean (% 48,4). Mota horretako familien artean, era berean, murriztu egin da etxebizitzaren prezioaren % 75 baino gehiago eskatzeko asmoa dutenen pisu erlatiboa. Hala, 2013an, aztertutako kolektiboaren % 19,2k etxebizitzaren prezioaren % 75 eta 100 artean eskatzea aurreikusten zuen; proportzio hori, ordea, % 12,4ra murriztu da 2015ean, 2011ko maila minimoetara (% 11,2) hurbildu delarik.

2015ean, etxebizitzaren prezioaren % 50 eta % 74 bitarteko kreditua eskatzeko asmoa duten familien proportzioa % 10ekoa da, eta % 14,2k prezioaren % 50 baino gutxiago eskatzea aurreikusten dute. Oro har, azken bi urteotan, kreditua eskatzeko asmoa duten eta etxebizitzaren prezioaren % 75 baino gutxiago beharko duten familien proportzioa hazi egin da 2013ko % 21,5etik 2015eko % 24,2ra. Zifra hori, nolanahi ere, 2009ko % 30,1 eta 2010eko % 33,9aren azpitik geratu da.

Aitzitik, aztertutako taldean, 2011tik aurrera nabarmen handitu da kreditua eskatzeko asmorik ez duten familien proportzioa. 2009an eta 2010ean % 20tik gorakoak izatetik, 2011ko % 40,8ra, 2013ko % 42,5era eta 2015eko % 48,4ra pasatu da[17].

[17] Baliteke joera horretan eragina izatea eskatu izan diren kredituei buruz egon den erantzun-faltaren eboluzioak. Erantzun-falta hori 2009an % 30,6koa izatetik 2013an % 16,8 izatera erori baitzen.

**68. taula. Etxebizitza aldatzeko beharra duten familiek aurreikusitako finantzaketa-formulak. 2009-2015**

| | 2009 | 2010 | 2011 | 2013 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| **FINANTZAKETA ITURRIAK (*)** | | | | | |
| Kredituak | 78,9 | 71,7 | 56,0 | 54,7 | 44,3 |
| Beren aurrezkiak | 48,8 | 34,5 | 33,4 | 23,9 | 28,1 |
| Familiaren laguntza | 11,7 | 8,9 | 11,1 | 8,9 | 5,9 |
| Lehengo etxebizitza saltzea | 50,8 | 50,3 | 55,3 | 40,7 | 48,0 |
| Beste ondasun baten salmenta | 3,2 | 4,1 | 1,4 | 2,0 | 2,8 |
| Etxebizitza alokatzea Aurrekoa | 7,2 | 4,1 | 1,4 | 2,2 | 4,1 |
| Laguntza publikoak | 34,5 | 14,8 | 16,1 | 8,5 | 8,3 |
| Beste batzuk | 10,9 | 4,6 | 6,9 | 10,4 | 9,9 |
| **Oinarria: Aurreikusitako edukitze-erregimena, jabetzan, alokairuan –erosteko aukerarekin– edo bata zein bestea** | | | | | |
| **KREDITUAREN % / PREZIOA (**)** | | | | | |
| % 0 (ez du krediturik eskatu) | 20,4 | 22,7 | 40,8 | 42,5 | 48,4 |
| % 1 - % 25 | 3,8 | 8,8 | 5,9 | 4,3 | 5,6 |
| % 25 eta % 49 bitartean | 14,5 | 13,7 | 7,6 | 8,2 | 8,6 |
| % 50 eta % 74 bitartean | 11,8 | 11,4 | 9,2 | 9,0 | 10,0 |
| % 75 eta % 100 bitartean | 19,0 | 18,2 | 11,2 | 19,2 | 12,4 |
| Ed/Ee | 30,6 | 25,2 | 25,4 | 16,8 | 15,0 |

*: erantzun anitzen %
**: % bertikala (beharra dutenen guztizkoa).

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015

## *3.4. Aldaketa-beharraren adierazle nagusien laburpena eta ondorioak*

2015ean, EAEn, guztira, 53.132 familiak planteatu dute ohiko etxebizitza aldatzeko beharra, alegia, EAEko familien guztizkoaren % 6,2k.

2013arekiko, 2015ean jaitsiera esanguratsua hauteman da behar hori adierazten duten familien kopuruan, izan ere, urte hartan, guztira, 61.621 familia baitziren aldaketa-premian zeudenak (guztizkoaren % 7,1). Hala eta guztiz ere, zifra hori, argi eta garbi, 2011ko minimoaz gainetik mantentzen da, urte hartan % 4,5 baitziren premia-egoeran zeuden familiak.

Zehazkiago adierazteko, nabarmentzekoak dira 2015ean aldaketa-beharrean dauden familiei buruzko ezaugarri hauek:

- Ikusten da moteldu egin dela aldaketa-premian dauden familien beharraren intentsitatea, alegia, familien % 64,9 dira ohiko etxebizitza aldatzeko behar handia edo dezentekoa dutela adierazten dutenak, maila apalena 2005etik. 2015ean berretsi egin da aldaketa-premiak (handia edo dezentekoa) markatutako errealitateen beheranzko joera, izan ere, 2009an % 75,5 izatetik, 2010eko % 73,2ra, 2011ko % 69,9ra eta 2015eko % 64,9ra igaro baita, 2013an erregistratutako % 74,2ko igoeraren salbuespenarekin.

- Hala eta guztiz ere, etxebizitza eskatzen den epeari dagokionez, 2013arekiko handitu egin da aldaketa-beharrari urtebeteko epean aurre egiteko asmoa duten familien ehunekoa (% 20,5 ziren 2013an, baina % 31,1, 2015ean). Hazi egin da, halaber, bi urterako eskaera (% 33,7 zen 2013an, eta % 48, 2015ean); baita lau urterakoa ere (% 49,5, 2013an; 2015ean, ordea, % 70,5).

- Araban eta Gipuzkoan hazkundea hauteman da etxebizitza aldatzeko premien indizeetan, 2013arekin alderatuta. Nolanahi ere, hazkunde horien intentsitatea oso desberdina da. Araban, aldaketa-premia handiagoko mailatik abiaturik, hazkundea neurritsuagoa da, 2011ko % 5,2tik, 2013ko % 6,6ra eta 2015eko % 7,1era igaro baita; Gipuzkoan, ordea, duela gutxiko igoera handiagoa izan da, 2011ko % 3,4tik, 2013ko % 4,1era eta 2015eko % 6,3ra pasatu delako. Bizkaiaren kasuan, aitzitik, nabarmen jaitsi da behar-indizea (2013an % 9 izatetik 2015ean % 5,8 izatera pasatu baita).

- Aldatzeko beharra duten familia-unitateen profil sozio-demografikoari dagokionez, aldatzeko beharra duten familien titularren batez besteko adina 47,3 urtekoa da. Gehienek espainiar nazionalitatea dute (% 90,4) eta 3 pertsonaz osatutako unitate batean bizi dira.

- Premia-egoeran dauden familien etxebizitzen ezaugarriak, oinarrian, honako hauek dira: batez beste, 74,4 $m^2$-ko etxebizitzak dira eta 39,2 urteko batez besteko antzinatasuna dute. Murriztu egin da apur bat, azken bi urteotan, alokairu-erregimeneko familien pisu erlatiboa (2013ko % 35,1etik 2015eko % 34,2ra).

- Tamaina ezegokia izatea da aldatzeko beharra azaltzeko arrazoi nagusia. Hala adierazten dute behar hori duten familien % 32,4k, nahiz eta arrazoi horren eragina gutxitu egin den apur bat 2013arekiko (% 33,1). Irisgarritasuna hobetzea (% 17,1) eta etxebizitzaren egoera txarra (% 11,8) dira etxebizitza aldatzeko arrazoiak esplikatzeko orduan pisu gehien duten beste bi arrazoiak.

- Familia gehienak pozik daude orain bizi diren ingurune eta auzoarekin (% 77,5), baina proportzio hori murriztu egin da pixka bat 2013ko zifrarekiko (% 78,5). 2015ean, familien % 18,1ek udalerria aldatzea planteatzen zuen etxebizitza aldatzeko, eta proportzio horrek gora egin du zerbait 2013ko % 17,6tik.

- Etxebizitza aldatzeko beharra duten EAEko familiek behar dituzten etxebizitzen ezaugarriak aztertuz gero, ikus daiteke 81,7 $m^2$-ko batez besteko azalera duen etxebizitza eskatzen dela, familia horien egungo etxebizitzen batez besteko tamaina baino 7,3 $m^2$ handiagoa. Familien erdiak baino gehixeago etxebizitza jabetzan izatearen alde daude (% 54,2), hau da, 2015eko % 51,7 baino gehiago. Alokairu-erregimenaren alde egin duten familien garrantzi erlatiboak behera egin du 2013ko % 35,1etik 2015eko % 28,5era.

- Aldatzeko beharra adierazten duten familien hileko diru-sarrera garbiak 1.964,9 eurokoak dira, batez beste, eta horrek esan nahi du igoera adierazgarria gertatu

dela 2013an erregistratutako batez besteko diru-sarrerekiko (1.690,5 €). Beraz, mantendu egiten da 2003 eta 2015artean hautemandako diru-sarrera mailaren goranzko joera, 2013ko murrizketa salbuetsita.

- Etxebizitza aldatzeko beharrari aurre egiteko familien hileko ordainketa-gaitasuna, 2015ean, 524,3 eurotan kokatu da, hau da, diru-sarrera mailaren % 26,7an. 2008tik aurrera, behera egin du beharrezkoa zen finantza-ahaleginaren mailak, izan ere, 2013an igoera txiki bat izan ostean (% 27,6), 2015ean berriro jaitsi baita (% 26,7), 2011n jasotako zifren antzekoetara etorririk (% 26,5).

- Familia horiek ordain dezaketen prezio maximoa hazi egin da pixka bat 2015ean, 188.623 euroko batez besteko zifran kokatu arte (2013an 186.936 euro ziren); nolanahi ere, 2011n erregistratutako 213.672 eurotatik urrun daude oraindik.

- Etxebizitza aldatzea finantzatzeko orduan, gora egiten jarraitzen du kreditu bidezko kanpo finantzaketa planteatzen ez duten familien proportzioak. 2010ean familien % 28,3 baizik ez ziren izan etxebizitza aldatzea finantzatzeko kreditua eskatzeko asmorik ez zutela adierazi zutenak, 2011n ehuneko hori % 44,0ra igo zen, baina gorakada mantendu egin da 2013ko % 45,3ra eta 2015eko % 55,7ra heldu arte.

- Alde adierazgarriak hauteman dira familien finantzaketa-gaitasunari dagokionez, premia-motaren eta etxebizitza berrirako aurreikusten duten edukitze-erregimenaren arabera. Finantzaketa-gaitasun handiagoa dute, izan dezaketen premia alde batera utzita, epe labur edo ertainean etxea aldatzeko asmoa duten familiek, izatez etxea aldatzeko arrazoi objektiboren bat dutenek baino. Edukitze-erregimenari dagokionez, etxea jabetzan eskuratzea planteatzen duten familiek finantzaketa-gaitasun handiagoa dute erosteko aukera duen alokairua hautatzen dutenek baino.

Laburbiltze aldera, jarraian EAEn 2005-2015 aldian etxebizitza nagusia aldatzeko beharrari loturiko adierazle nagusien laburpen-taula ageri da.

## 69. taula. Aldatzeko beharra duten etxeen ezaugarri nagusien eboluzioa, 2005-2015

| | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2013 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Kuantifikazioa** | | | | | | | | | |
| Behar-indizea (etxeen %) | 6,4 | 6,1 | 8,1 | 4,9 | 6,7 | 6,7 | 4,5 | 7,1 | 6,2 |
| Beharraren kuantifikazioa (etxebizitza kopurua) | 49.559 | 47.851 | 64.393 | 40.894 | 56.652 | 56.397 | 38.048 | 61.621 | 53.132 |
| ***Behar den etxebizitzaren ezaugarriak*** | | | | | | | | | |
| Pertsona printzipalaren batez besteko adina (urteak) | 46,1 | 46,2 | 48,3 | 48,6 | 43,7 | 45,8 | 44,4 | 47,3 | 47,3 |
| Familia-unitatearen batez besteko tamaina (pertsona kop./familia) | 3,2 | 3,1 | 3,1 | 2,8 | 3,0 | 3,0 | 2,8 | 3,0 | 3,0 |
| Etxebizitzaren batez besteko azalera ($m^2$) | 69,0 | 66,4 | 71,4 | 67,9 | 71,4 | 68,1 | 72,9 | 72,4 | 74,4 |
| Etxebizitzaren batez besteko antzinatasuna (urteak) | 36,2 | 41,7 | 39,4 | 39,0 | 39,0 | 40,6 | 40,4 | 42,7 | 39,2 |
| Alokairu-erregimenaren % | 26,6 | 32,8 | 23,0 | 36,6 | 38,7 | 33,4 | 32,8 | 35,1 | 34,2 |
| ***Aldaketa-beharraren eboluzioa*** | | | | | | | | | |
| Arrazoia: tamaina eta egoera txarra (%) | 39,5 | 44,7 | 37,0 | 46,6 | 32,9 | 45,9 | 36,1 | 41,4 | 44,2 |
| Arrazoia: jabetzan izan nahi du (%) | 13,6 | 9,1 | 8,4 | 15,4 | 10,4 | 8,6 | 5,9 | 4,0 | 3,7 |
| Beharra: handia eta nahiko handia (%) | 84,2 | 83,4 | 82,9 | 73,0 | 75,5 | 73,2 | 69,9 | 74,2 | 64,9 |
| Behar izandako denbora: > 4 urte (%) | 50,4 | 48,5 | 43,1 | 52,5 | 31,9 | 35,7 | 37,0 | 32,6 | 26,5 |
| 4 urtetan estaltzeko aukera asko / dezente | 48,9 | 40,6 | 47,7 | 48,1 | 57,3 | 45,8 | 50,5 | 49,5 | 70,5 |
| ***Nahi diren etxebizitzen ezaugarriak*** | | | | | | | | | |
| Bilatzen den batez besteko azalera ($m^2$) | 76,4 | 74,4 | 74,8 | 71,3 | 77,6 | 78,1 | 77,5 | 79,1 | 81,7 |
| Erregimena (alokairua + berdin dio) | 17,1 | 26,6 | 24,7 | 36,5 | 35,1 | 37,1 | 34,3 | 48,3 | 45,8 |
| ***Egoera ekonomikoa*** | | | | | | | | | |
| Batez besteko diru-sarrerak | 1.514 | 1.609 | 1.618 | 1.625 | 1.511,4 | 1.585,7 | 1.776,6 | 1.690,5 | 1.964,9 |
| Hilero ordaintzeko gaitasuna | 416 | 471 | 477 | 522 | 470 | 485 | 471,6 | 467,3 | 524,3 |
| Ordain dezaketen gehieneko zenbatekoa (*) | 195.900 | 209.220 | 229.085 | 214.369 | 203.465 | 188.501 | 213.672 | 186.936 | 188.623 |

(*) 2009az geroztik, ez da kontuan hartzen alokairu-erregimena soilik planteatzen duten familiek adierazitako prezioa. Honako oinarri hau aplikatzen da: **Jabetzan edo beste nolanahi aurreikusitako edukitze-erregimena**

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015

## 4.1. Birgaitze-beharraren eta -eskaeraren kuantifikazioa

**2013 eta 2015 artean, birgaitzeari lotutako esku-hartze premiak % 35,6 egin du behera. Beherakada hiru lurralde historikoetan antzeman da, baina bereziki Araban eta Bizkaian**

Etxebizitzen beharrei eta eskaerari buruzko inkestak agerian utzi du 2015ean EAEko 58.017 etxebizitzak birgaitzea behar dutela. Zifra hori EAEko etxebizitzen % 6,7 da, eta ikusten da birgaitze-ekintzarako beharra nabarmen jaitsi dela 2013ko % 10,3arekiko. Modu absolutuan, 32.122 etxebizitza gutxiago daude esku-hartze beharrean, alegia, 2013an baino % 35,6 gehiago (90.139 etxebizitza). Izan ere, 2015ean erregistratutako zifra 2005etik erregistratutako birgaitzeko premiako balio minimoa da.

Nabarmentzekoa da Araban hautematen den premiaren beherakada handia. Lurralde horretan, 2013an birgaitzea behar zuten 18.132 etxebizitzetatik 2015ean 6.684 etxebizitza izatera pasa dira, alegia, hautemandako beharrean % 63,1ko beherakada egon da. 2015eko zifra 2011. urtean birgaitzea behar zuten 7.829 etxebizitzen kopurua baino txikiagoa da. Premia duten familia-etxebizitza guztien % 5,1 bakarrik hartuta, Araba da birgaitze-premia txikiena duen EAEko lurraldea 2015ean. 2013an, berriz, premia handiena zeukan lurraldea zen (% 13,5).

**52. grafikoa. Birgaitzeko beharra, urtearen eta lurralde historikoaren arabera. 2005-2015**




*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Premiak behera egin duen arren, termino absolutuetan Bizkaia da orain ere birgaitze premia duten etxe bolumen handiena duen lurraldea: 27.612 etxebizitza, alegia, lurraldean dauden familia-etxebizitzen guztizkoaren % 6,1. Nahiz eta ez den Arabaren kasuan bezain deigarria, Bizkaian ere nabarmen murriztu da etxebizitzak birgaitzeko beharra, alegia, % 37,9 murriztu da 2013an hautemandako 44.499 etxebizitzetatik.

Birgaitze premian dauden etxebizitzen ehuneko handiena duen lurralde historikoa Gipuzkoa izan da 2015ean, familia-etxebizitzen % 8,4 hartuz. Lurralde horretan birgaitze premiak behera egin duen arren, beherakada Araban eta Bizkaian baino txikiagoa da. Kasu horretan, familia-etxebizitza guztietatik birgaitze premia 2013an 27.508 etxebizitza izatetik (% 9,8) 2015en, berriz, 23.720 etxebizitza izatera jaitsi zen (% 8,4).

***Birgaitze premia balio minimoetan dago 2005etik hiru lurralde historikoetan***

2013 eta 2015 artean birgaitzeko premia murriztearen ondorioz, azken urtean ikusitako zifrak azken hamar urteetan jasotakoak baino baxuagoak dira. Hala, 2015ean birgaitze premia zutenen % 6,7 modu argian 2010. urteko (% 9,7) eta 2011. urteko (% 8,9) ehunekoen azpitik zeuden; birgaitzeko esku-hartze premiak EAEko etxebizitzen % 10 baino baxuagoak izan ziren soilik urte horietan.

Bilakaera terminoetan, egiturazko joera duen fenomeno batez ari gara. Hala ere, 2013an antzemandako gorakada salbu, 2009az geroztik behatzen ari zen etxebizitza birgaitzeko beharraren murrizteko joerari eutsi zaio 2015ean. EAEn, ehuneko hori 2009an % 16,9 izatetik 2011n % 8,9 izatera igaro zen, eta 2015ean % 6,7, 2013an % 10,3ko gorakadarekin.
2015eko % 6,7 da 1996tik hona jasotako balio txikiena.

Bizkaia 2009ko % 20,5etik 2011ko % 8,6ra igaro da, eta, gero, 2015eko % 6,1era. 2013an baizik ez zuen egin gora, % 9,7ra iritsi zen-eta. Arabako kasuan, lehenengo beherakada 2008-2009 aldian izan zen, % 15,3tik % 6,6ra. 2010ean % 10,3ra igo arren, premiaren ehunekoa % 6,2ra jaitsi zen 2011n eta % 5,1era 2015ean (nahiz eta berreskurapen gogorra izan 2013an: % 13,5ekoa). Beheranzko joera hain nabarmena izan gabe, Gipuzkoan premiaren murrizketa etengabea da; 2009an % 15,6, 2011n % 10,6, 2013an % 9,8 eta 2015ean % 8,4.

## 70. taula. Etxebizitza birgaitzeko beharren kuantifikazioa, lurralde historikoaren arabera. EAE. 2005-2015

(Balio absolutuak eta ehunekoak, etxebizitzen guztizkoaren gainean)

| | EAE | | Araba | | Bizkaia | | Gipuzkoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kop. | etxe guztien % | Kop. | etxe guztien % | Kop. | etxe guztien % | Kop. | etxe guztien % |
| 2005. urtea | 111.469 | 14,3 | 15.152 | 13,9 | 60.748 | 14,5 | 35.566 | 14,3 |
| 2006. urtea | 134.028 | 17,0 | 18.112 | 16,3 | 70.975 | 16,8 | 44.950 | 17,8 |
| 2007. urtea | 113.396 | 14,2 | 13.957 | 12,3 | 63.181 | 14,7 | 36.264 | 14,2 |
| 2008. urtea | 128.669 | 15,5 | 18.231 | 15,3 | 71.544 | 16,1 | 38.893 | 14,7 |
| 2009. urtea | 142.099 | 16,9 | 8.174 | 6,6 | 91.995 | 20,5 | 41.930 | 15,6 |
| 2010. urtea | 80.969 | 9,7 | 12.785 | 10,3 | 40.942 | 9,2 | 27.242 | 10,2 |
| 2011. urtea | 75.342 | 8,9 | 7.829 | 6,2 | 38.649 | 8,6 | 28.864 | 10,6 |
| 2013. urtea | 90.139 | 10,3 | 18.132 | 13,5 | 44.499 | 9,7 | 27.508 | 9,8 |
| **2015. urtea** | **58.017** | **6,7** | **6.684** | **5,1** | **27.612** | **6,1** | **23.720** | **8,4** |

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

### 53. grafikoa. EAEn etxebizitza birgaitzeko beharraren indizearen eboluzioa, 1996-2015




*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

***Hobera egin du, halere, premiari aurre egiteko gaitasunak; horren adibide dira urtebeterako, bi urterako eta lau urterako eskaeraren hobekuntza nabarmenak. Horren ondorioz, bada, eskaeraren beherakada beharraren beherakada baino askoz txikiagoa da.***

Birgaitzeko premia txikiago hori hautematearekin batera, biztanleriak behar horri aurre egiteko ahalmen handiagoa du. Horrela, 2015ean birgaitzeko esku-hartzea aipatzen duten 58.017 familien % 26,8k datorren urtean horri aurre egiteko gai izango dela adierazi du. Ehuneko horrek gorakada handia dakar 2013an erregistratutako % 18,9arekiko. 2007az geroztik, 2011ko % 32,2a bakarrik da txikiagoa.

Behin urtebeteko epea igarota, esku-hartze lanei ekiteko ahalmena hobetzeari dagokion ikuspegiak maila berean jarraitzen du. Hala, datozen bi urteetan lanak egin ahal izatea aurreikusten duten etxebizitzen ehunekoa handitu egin da 2013 eta 2015 bitartean, % 37,7tik % 58,8ra. Gainera, datu hori 2011koa baino handiagoa da (% 53,7).

Era berean, eskaera efektiboaren ehunekoak ere handiagoak dira lau urteko eperako. Hortaz, 2013an lau urtera birgaitze lanak egin ahal izango zituztela esan zuten % 50,2 familiako kopurua % 67,6ko zifrara igaro zen 2015ean. Kopuru hori familien jarduteko gaitasunari buruzko adierazleen goranzko joeraren adibide garbia da; hobetu egin da 2011ko % 58,4a, are 2007ko % 63,7a ere.

Aurreko datuetatik, birgaitze-eskaera aztertzeko oso garrantzitsuak diren bi alderdi azpimarratzekoak dira. Batetik, ikusten da 2015ean familiek jarduteko beharra eskaera bihurtzeko duten ahalmen-adierazleak 2008-2013 aldiko maximoetan kokatzen direla. Hori gertatzen da bai bi urtera begirako eskaeran (2015ean % 58,8 eta % 53,7, berriz, 2011n, 2007-2013 aldiko maximoa) eta lau urtera begirakoan (2015ean % 67,6 eta % 63,7, berriz, 2007an). Salbuespen bakarra urtebeteko eskaerari dagokio, 2015ean % 26,8ko zifra baitzen. Zifra horrek, nahiz eta 2013ko zifrak gainditu (% 18,9), ez du 2011n jasotako maximoa gainditzen (% 32,2).

## 54. grafikoa. Etxebizitza birgaitzeko beharraren eboluzioa EAEn, aurreikusitako dataren arabera. 2005-2015




*(*) 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.*
*** 2005 eta 2007 bitarteko balioak berriro zenbatetsi dira, etxebizitza eskuragarrien datu berrien arabera.*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Bilakaera on horrek premiaren jaitsieraren inpaktua nabarmen apaltzen du, baina ez da nahikoa jaitsierak eskaeraren zifra absolutuen beherakada eragitea ekiditeko. Era horretan, eskaera zifra absolutuetan aztertuz gero, premiari urtebetera eta lau urtera aurre egitea aurreikusten duten etxebizitzen kopuruak behera egin du. 2015ean, guztira, 15.562 familiak adierazi zuten hurrengo urtean birgaitze lanari aurre egin ahal izango ziotela; 2013an, berriz, kopurua 17.047familiakoa zen. Lau urteko eskaerari dagokionez, 2015ean 39.227 familiak eskatu zuten; 2013an, berriz, 45.286k.

Bi urtera bakarrik egin du gora eskaerak zifra absolutuetan. Hala, 2015ean birgaitze-lanak eskatzen zituzten familiak, guztira, 34.129 ziren, 2013. urtean erregistratutako zifra baino apur bat altuagoa (33.958 familia-etxebizitza).

## 71. taula. Etxebizitza-birgaitzearen beharraren eta eskaeraren kuantifikazioa. EAE. 2007-2015

(Balio absolutuak eta ehunekoak etxebizitzen guztizkoaren gainean eta beharra dutenen gainean)

| | 2007. urtea | | 2008. urtea | | 2009. urtea | | 2010. urtea | | 2011. urtea | | 2013. urtea | | 2015. urtea | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | % | Etxebiz. kop. | % | Etxebiz. kop. | % | Etxebiz. kop. | % | Etxebiz. kop. | % | Etxebiz. kop. | % | Etxebiz. kop. | % | Etxebiz. kop. |
| **Beharrizana (*)** | **14,2** | **113.396** | **15,5** | **128.669** | **16,9** | **142.099** | **9,7** | **80.969** | **8,9** | **75.342** | **10,3** | **90.139** | **6,7** | **58.017** |
| Eskaera 4 urtera (**) | 63,7 | 72.194 | 61,6 | 79.273 | 61,5 | 87.321 | 54,1 | 43.787 | 58,4 | 44.026 | 50,2 | 45.286 | 67,6 | 39.227 |
| Eskaera 2 urtera (**) | 49,1 | 55.655 | 50,3 | 64.733 | 51,6 | 73.319 | 39,2 | 31.753 | 53,7 | 40.485 | 37,7 | 33.958 | 58,8 | 34.129 |
| Eskaera urtebetera (**) | 26,7 | 30.270 | 26,6 | 34.265 | 26,4 | 37.474 | 14,7 | 11.934 | 32,2 | 24.274 | 18,9 | 17.047 | 26,8 | 15.562 |

*(*) etxe guztien %a. (**) beharra duten etxe guztien %.*
*Denbora-epe bakoitzerako eskaera-zifretan epe laburragoetarako adierazitako eskaera barne hartzen da. Hau da, bi urtera begirako eskaerak barne hartzen du urtebetera eskatzen duten familien eskaera; eta, lau urtera begirakoen kasuan, barne hartzen ditu familiek urtebetera eta bi urtera egindako eskaerak.*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

**72. taula. Etxebizitza birgaitzeko eskaera eta premien kuantifikazioaren aldaketa. EAE 2007-2015 eta 2013-2015**

(Balio absolutuak eta ehunekoak etxebizitzen guztizkoaren gainean eta beharra dutenen gainean)

| | | | | | | | 2007-2015 aldiko aldaketa | | | | Aldakuntza 2013-2015 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2007. urtea | | 2013. urtea | | 2015. urtea | | Absolutuak | | % | | Absolutuak | | % | |
| | % | Etxebiz. kop. | % | Etxebiz. kop. | % | Etxebiz. kop. | % | Etxebiz. kop. | % | Etxebiz. kop. | % | Etxebiz. kop. | % | Etxebiz. kop. |
| **Beharrizana (*)** | **14,2** | **113.396** | **10,3** | **90.139** | **6,7** | **58.017** | -7,5 | -55.379 | -52,6 | -48,8 | -3,6 | -32.122 | -35,0 | -35,6 |
| Eskaera 4 urtera (**) | 63,7 | 72.194 | 50,2 | 45.286 | 67,6 | 39.227 | 3,9 | -32.967 | 6,2 | -45,7 | 17,4 | -6.059 | 34,6 | -13,4 |
| Eskaera 2 urtera (**) | 49,1 | 55.655 | 37,7 | 33.958 | 58,8 | 34.129 | 9,7 | -21.526 | 19,9 | -38,7 | 21,2 | 172 | 56,2 | 0,5 |
| Eskaera urtebetera (**) | 26,7 | 30.270 | 18,9 | 17.047 | 26,8 | 15.562 | 0,1 | -14.708 | 0,5 | -48,6 | 7,9 | -1.485 | 41,8 | -8,7 |

*(*) etxe guztien %;*
*(**) beharra duten etxe guztien %.*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

## 4.2. Birgaitze-beharra duten etxebizitzen ezaugarriak

### 4.2.1. Gizarte- eta egoitza-ezaugarriak

Atal honetan familia-unitatearen eta birgaitze-beharrari loturiko ohiko etxebizitzaren beraren ezaugarri nagusiak aztertzen dira.

Birgaitzeko beharra duten etxebizitzen titularren batez besteko adina 59,2 urtekoa da, 2013an erregistratutakoa (54,3 urte) baino lau urte handiagoa, eta urtebete txikiagoa 2011koa baino (58,2 urte). Hain zuzen ere, 1996-2015 aldiko zifra altuena da.

2013rekiko, gehiago areagotu da 65 urte edo gehiago dituzten pertsona nagusien partaidetza; horiek, 2013an % 22 izatetik 2015ean % 34,6 izatera igaro dira. 45 urtetik beherako taldeek, ordea, partaidetza txikiagoa dute; 2013an % 25,2 izatetik egun % 13,9 izatera igaro dira. Hala, 35 eta 44 urte bitartean dituztenen partaidetza 2013ko % 18tik 2015eko % 11,6ra jaitsi da. 34 urtera artekoena, aldiz, % 7,2tik % 2,3ra jaitsi da aldi berean.

Birgaitze-premian dauden etxebizitzen titularren nazionalitateari erreparatuta, atzerritarrak ez dira premia duten etxebizitza guztien % 2ra iristen 2009tik hona. 2015ean, erreferentziako pertsona ia guztiak espainiarrak edo nazionalizatuak dira.

Familiaren batez besteko tamaina ere egonkor mantendu da azken urteetan (2,5-2,7 pertsona inguru etxeko), eta 2,7 zen 2015ean. Tarteen araberako banaketari behatuz gero, familia-tamaina ohikoena familiako 2 pertsonakoa zen, kasu horrek etxebizitza aldatzeko beharra duten familien % 34,2 hartzen baititu (2013an, % 28,8, baino bost puntu pasatxo gehiago). Neurri txikiagoan hazi da hiru kideko familien partaidetza; hala, 2013an guztizkoaren % 22,4 izatetik 2015ean % 24 izatera igaro ziren. Hazkunde horien aldean, behera egin du kide bakarrekoenak. Kategoria horretan birgaitze-beharren % 24,5 zeuden 2013an, baina % 18, berriz, gaur egun.

Eboluzioari behatuz gero, 2015ean birgaitzeko aurreikuspenak (2,7 pertsona) tamaina txikiko familien birgaitzeko premiari loturikoa izaten jarraitzen du, 2006az geroztik 2,5 eta 2,8 kide bitarteko familiei loturik jarraitzen baitu. Pasa den hamarkadaren erdi aldean behatutako jaitsieraren ostean, horrek haustura garbia markatzen du 1996 eta

2005 bitarteko premia motarekiko, orduan familien batez besteko tamaina 3,1 eta 3,4 pertsonakoa baitzen.

Etxebizitza birgaitzeko beharra duten familien tipologiari dagokionez, seme-alabak dituzten bikoteen familiek (bestelako senideekin edo gabe) jarraitzen dute kategoria nagusia izaten, eta 2015ean % 39,9 ziren. Proportzio hori gutxi igo da 2013 urtearekiko, urte hartan % 39,3 baitziren.

2013aren aldean, behera egin du bakarrik bizi diren pertsonen ehunekoak (% 24,5 ziren 2013an eta % 18, 2015ean), orobat, hein txikiagoan, beste egoera batzuei dagokienen ehunekoa (% 5,1 2013an eta % 3 2015ean). Bestalde, gora egin du ezkontidearekin edo bikotekidearekin bizi den pertsona taldearen partaidetza (% 19,6 2013an eta % 27,4 2015ean). Seme-alabak dituzten gurasoei erreparatuta, ez da desberdintasunik hauteman (% 11,5 2013an eta % 11,7 gaur egun).

Azkenik, birgaitzeko beharra duten etxeetako pertsona nagusien lan-egoerari dagokionez, aipatzekoa da 2015ean pertsona horien % 43,5 landunak zirela (ehuneko hori 2013an erregistratutakoa, % 44,6, baino zertxobait txikiagoa da).

Era berean, nabarmen egin du gora pertsona erretiratuen pisu erlatiboak. % 34,8ko partaidetza dute 2015ean, 2013an % 26 ingurukoa bazen ere. Nolanahi ere, murriztu egin da langabeen kolektiboaren pisua, eta 2013an % 15,9 izatetik 2015ean % 11,3 izatera igaro dira.

### 55. grafikoa. EAEn birgaitzeko beharra duten etxeetako pertsona printzipalaren batez besteko adina. EAE, 1996-2015




*(*) 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

## 56. grafikoa. EAEn birgaitzeko beharra duten etxeen batez besteko tamaina. EAE, 1997-2015




*(*) 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

## 73. taula. EAEn birgaitzeko beharra duten etxeen ezaugarri sozioekonomikoak, 2009-2015

| | 2009. urtea | 2010. urtea | 2011. urtea | 2013. urtea | 2015. urtea |
|---|---|---|---|---|---|
| **Pertsona printzipalaren adina** | | | | | |
| 34 urtera arte | 8,8 | 5,0 | 5,6 | 7,2 | 2,3 |
| 35 eta 44 urte artean | 16,4 | 14,3 | 14,6 | 18,0 | 11,6 |
| 45 eta 54 urte artean | 23,8 | 29,1 | 22,5 | 29,9 | 28,3 |
| 55 eta 64 urte artean | 24,3 | 22,7 | 22,0 | 22,8 | 23,3 |
| 65 urte eta gehiago | 26,7 | 28,9 | 35,3 | 22,0 | 34,6 |
| **Batez besteko adina (urteak)** | **55,4** | **56,6** | **58,2** | **54,3** | **59,2** |
| **Nazionalitatea** | | | | | |
| Espainiarra* | 98,3 | 98,6 | 98,9 | 98,4 | 100,0 |
| Atzerritarra | 0,7 | 1,4 | 1,1 | 1,6 | 0,0 |
| **Etxebizitzako pertsonen kopurua** | | | | | |
| Pertsona 1 | 22,1 | 19,5 | 23,9 | 24,5 | 18,0 |
| 2 pertsona | 27,5 | 30,0 | 30,1 | 28,8 | 34,2 |
| 3 pertsona | 25,4 | 21,4 | 26,2 | 22,4 | 24,0 |
| 4 pertsona | 17,7 | 20,2 | 17,0 | 16,2 | 14,7 |
| 5 pertsona edo gehiago | 7,4 | 8,9 | 2,8 | 8,2 | 9,2 |
| **Batez besteko pertsona kopurua** | **2,6** | **2,7** | **2,5** | 2,6 | **2,7** |
| **Familien tipologia** | | | | | |
| Bakarrik | 22,3 | 19,5 | 23,9 | 24,5 | 18,0 |
| Bikotearekin | 20,4 | 20,0 | 22,3 | 19,6 | 27,4 |
| Bikotearekin eta seme-alabekin (bestelako seniderik gabe edo bestelako senideekin) | 36,7 | 44,7 | 36,0 | 39,3 | 39,9 |
| Ama/aita seme-alabekin | 14,3 | 11,7 | 14,8 | 11,5 | 11,7 |
| Beste egoera bat | 6,3 | 4,1 | 2,9 | 5,1 | 3,0 |
| **Lan-egoera** | | | | | |
| Lanean | 48,3 | 42,6 | 42,2 | 44,6 | 43,5 |
| Lanik gabe | 7,7 | 8,1 | 5,1 | 15,9 | 11,3 |
| Etxeko lanak | 10,8 | 16,4 | 18,5 | 11,7 | 9,8 |
| Erretiratua / pentsioduna | 30,6 | 31,8 | 33,4 | 26,0 | 34,8 |
| Beste bat | 2,6 | 1,1 | 0,9 | 1,8 | 0,6 |

**: Nazionalitate bikoitza espainiarren kategorian txertatu da.*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Analisia 2015ean birgaitzeko beharra zuten familiek okupatzen dituzten etxebizitzen ezaugarrietan zentratzen badugu, ikus daiteke etxebizitza horien batez besteko tamaina 85,1 $m^2$ dela. Tamaina hori 2013an (80,1 $m^2$) nahiz aurreko edizioetan (80 $m^2$ zen 2011n, 79,9 2010ean eta 79,2 2009an) erregistratutakoen oso antzekoa da. 2015ean hauteman da tamainarik handiena 1996az geroztik, 2013 eta 2015 artean hautemandako tamaina handiagoko etxebizitzen taldea handitu delako.

Azaleraren araberako familien sailkapenak agerian uzten du gehienak (% 56,4) 61 eta 90 $m^2$ bitarteko tamaina duten etxebizitzetan bizi direla (% 29,3 76 eta 90 $m^2$ bitartekoetan eta % 27,1, berriz, 61 eta 75 $m^2$) bitartekoetan). Mota horretako etxebizitzen ehunekoa nabarmen murriztu da 2013aren (% 61,4) eta 2011ren (% 61,9) aldean, baita 2009aren (% 57,8) aldean ere. 2013 eta 2015 bitartean, maila bertsuan geratu da 60 $m^2$ baino gutxiagoko etxebizitzen pisu erlatiboa (% 14,7tik % 14,8ra). 2013-2015 biurtekoan tamaina ertaineko etxebizitzek izan duten hazkundea tamaina handiagoko etxebizitzetan (90 $m^2$ baino gehiago) gertatuko gorakada nabarmenaren ondorio da. Mota horretako etxebizitzak premia duten etxebizitzen % 22,8 dira, 2013an % 26,5 baziren ere.

Antzinatasunari begiratuz gero, inkestak agerian uzten du birgaitzeko beharra duten familiek okupatzen dituzten etxebizitzak, batez bestez, duela 44,9 urte eraiki direla; batez besteko hori bi urte igo da 2013 urtearekiko (orduan batez bestekoa 43,1 urtekoa zen). Gorakada nabarmena gertatu da 26 eta 40 urte artean dituzten etxebizitzetan (2013an % 26,1 eta 2015ean % 28,8). Era berean, neurri txikiagoan izan arren, hazi egin da antzinatasun handieneko etxebizitzen partaidetza: 41 eta 60 urte artean dituztenak % 39 ziren 2013an eta % 39,6 2015ean, eta 60 urte baino gehiago dituztenak % 17,6tik % 18,3ra igaro dira aldi berean. Aitzitik, 25 urte baino gutxiago dituzten etxebizitzen partaidetza murriztu egin da (% 13 2013an eta % 10,6 2015ean).

Epe luzera begira, ikusten da 1996 eta 2008 bitartean etxebizitzen batez besteko adinak pixkanaka gora egin duela, 1996an 32,2 urtekoa izatetik 2008an 42,9koa izatera. Egonkortu egin da adierazlea 2008 eta 2011 urteen artean, 42 eta 42,4 urteen artean. Gorakada txiki bat izan zuen 2013an, 43,1era, eta deigarriagoa, berriz, 2015ean, 44,9 urtera. Hala, 2015eko erregistroak inkesta hau egiten denetik jaso den balio handiena islatzen du.

2013 eta 2015 bitartean desberdintasun handiak hauteman dira birgaitzeko beharra duten familiek etxebizitzan bizitzen daramaten urte kopuruan; hala, % 84,5ek 10 urtez edo gehiagoz okupatu du uneko etxebizitza 2013an, baina 2015ean % 89,1ek. Familiek 10 urte baino gutxiago bizitzen daramaten etxebizitzen partaidetza, berriz, murriztu egin da birgaitzeko premian. 2013an % 15,5 ziren, egun % 10,8.

Familien % 62,1entzako, birgaitu beharreko etxebizitza familia osatu zuenetik okupatu duen lehen etxebizitza izan da. Erosteko unean, kasuen % 65,5ean bigarren eskuko etxebizitza edo etxebizitza erabilia eskuratu zen, eta kasuen % 34,5ean, berriz, etxebizitza berria.

Kasuen % 91,6an birgaitzeko beharra duten etxebizitzak eraikin kolektiboetan kokatutako etxebizitzak dira. Behera egin du, bestalde, birgaitu beharreko familia bakarreko etxebizitzen partaidetzak (% 12,2 2013an eta % 8,4 2015ean). Kasuen % 87,5ean erregimen libreko etxebizitzak dira. Babestutako etxebizitzaren pisuak gora

egin du, 2013ko % 10,1etik egungo % 12,5era; alabaina, ez dira gainditu 2009ko (% 13,8) eta 2010eko (% 16) datuak.

### 74. taula. EAEn birgaitzeko beharra duten etxeen egoitza-ezaugarriak, 2009-2015

| | 2009. urtea | 2010. urtea | 2011. urtea | 2013. urtea | 2015. urtea |
|---|---|---|---|---|---|
| **Etxebizitzaren azalera erabilgarria** | | | | | |
| 60 $m^2$ baino gutxiago | 17,2 | 16,4 | 14,2 | 14,7 | 14,8 |
| 61 eta 75 $m^2$ artean | 27,4 | 28,1 | 30,1 | 30,1 | 27,1 |
| 76 eta 90 $m^2$ artean | 30,4 | 29,6 | 31,8 | 31,3 | 29,3 |
| 90 $m^2$ baino gehiago | 22,6 | 23,4 | 23,4 | 22,8 | 26,5 |
| Ed/Ede | 2,3 | 2,4 | 0,6 | 1,1 | 2,3 |
| **Batez besteko azalera ($m^2$)** | **79,2** | **79,9** | **80,0** | **80,1** | **85,1** |
| **Etxebizitzaren antzinatasuna** | | | | | |
| 60 urtetik gora | 17,8 | 15,2 | 20,7 | 17,6 | 18,3 |
| 41 eta 60 urte artean | 33,2 | 34,8 | 32,4 | 39,0 | 39,6 |
| Duela 26 eta 40 urte artean | 34,1 | 36,1 | 32,6 | 26,1 | 28,8 |
| Duela 16 eta 25 urte artean | 6,1 | 5,8 | 10,5 | 8,6 | 7,1 |
| 15 urte eta gutxiago | 4,9 | 4,1 | 3,3 | 4,4 | 3,5 |
| Ed/Ede | 4,0 | 4,0 | 0,6 | 4,3 | 2,8 |
| **Batez besteko antzinatasuna (urteak)** | **42,3** | **42,0** | **42,4** | **43,1** | **44,9** |
| **Etxebizitzan emandako urteak** | | | | | |
| 2 urte eta gutxiago | 2,1 | 3,2 | 2,1 | 2,2 | 1,2 |
| 3-4 urte | 5,0 | 2,5 | 2,4 | 3,2 | 1,9 |
| 5-9 urte | 12,3 | 8,5 | 10,4 | 10,1 | 7,7 |
| 10 urte eta gehiago | 80,5 | 85,8 | 85,1 | 84,5 | 89,1 |
| **Lehenengo etxebizitza** | | | | | |
| Bai | 56,7 | 66,3 | 60,6 | 58,4 | 62,1 |
| Ez | 43,0 | 33,7 | 39,2 | 41,4 | 37,9 |
| Ez/Ede | 0,3 | 0,0 | 0,2 | 0,2 | 0,0 |
| **Etxebizitzaren egoera** | | | | | |
| Berria | 38,3 | 43,7 | 40,5 | 36,7 | 34,5 |
| Erabilitakoa | 61,7 | 56,3 | 59,5 | 63,3 | 65,5 |
| **Etxebizitza Babestua** | | | | | |
| Bai | 13,8 | 16,0 | 8,3 | 10,1 | 12,5 |
| Ez | 86,2 | 84,0 | 91,7 | 89,9 | 87,5 |
| **Etxebizitza mota** | | | | | |
| Eraikin kolektiboa | 92,0 | 91,6 | 92,5 | 87,8 | 91,6 |
| Familia bakarreko eraikina | 8,0 | 8,4 | 7,5 | 12,2 | 8,4 |
| **Edukitze-erregimena** | | | | | |
| Jabetzan, erabat ordainduta | 61,0 | 62,4 | 65,8 | 51,9 | 57,2 |
| Jabetzan, zenbait ordainketa egiteke | 27,2 | 24,6 | 22,3 | 31,9 | 27,3 |
| Errentan hartua | 5,1 | 4,7 | 3,6 | 4,7 | 2,3 |
| Beste egoera bat (lagapena eta abar) | 6,8 | 8,3 | 8,4 | 11,4 | 13,2 |

**: Nazionalitate bikoitza espainiarren kategorian txertatu da.*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Edukitze-erregimenari dagokionean, birgaitzeko beharra duten familien artean nabarmen handitu da etxebizitza jabetzan eta erabat ordainduta duten familien proportzioa. Proportzioa handitu egin da (2013ko % 51,9tik 2015eko % 57,2ra), baina ez du gainditu 2011ko datua (% 65,8), ezta 2009koa eta 2010ekoa ere (% 61 eta % 62,4, hurrenez hurren). Bestalde, behera egin du jabetza-erregimena duten baina ordainketen

zati bat falta zaien familien partaidetza. 2013an gora egin ostean (% 31,9), 2015ean behera egin du ostera ere (% 27,3), 2009ko baliotik hurbil geratuz (% 27,2).

Alokairu-erregimenean, birgaitzeko premia oso txikia da, guztizkoaren % 2,3, hau da, zifrarik baxuena 2009tik hona. Aldiz, bestelako edukitze motei (lagapena, doakoa eta abar) loturiko premiak etengabe egin du gora. Mota horretakoak birgaitzeko premia dutenen % 6,8 ziren 2009an; 2015ean, % 13,2.

### 57. grafikoa. Birgaitzeko beharra duten etxebizitzen batez besteko azaleraren eboluzioa, 1997-2015




*(*) 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

### 58. grafikoa. Birgaitzeko beharra duten etxebizitza nagusien batez besteko antzinatasunaren eboluzioa, 1997-2015




*(*) 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Birgaitzeko beharra duten etxebizitzek eranskinak eskuragarri izateari dagokionez, 2015ean ikusi da etxebizitzen % 49,9k trastelekua dutela eta % 29,7k garajea dutela etxebizitzari lotuta. Zifra horiek 2013an behatutakoak baino handixeagoak dira, data hartan etxebizitzen % 44,5ek trastelekua baitzuten eta % 28k, garajea.

Eraikinaren irisgarritasuna aztertuz gero, ikus daiteke birgaitzeko beharra duten etxebizitza gehienek igogailua dutela (% 67,2) eta etxebizitza dagoen eraikina egokituta dagoela kasuen % 53an. Kasu horretan, zifrek 2013an behatutakoak baino baldintza

hobeak islatzen dituzte, urte hartan etxebizitzen % 56,7k igogailua baitzuten eta % 51,5 egokitutako eraikinetan baitzeuden.

2015ean hautemandako ezaugarrien arabera, egoera 2009an baino hobea da, bai eraikinaren egokitzapenean (2009-2013 aldiko maximoa 2013an izan zen, % 51,5) bai igogailua edukitzean (maximoa, 2009an; % 60,4).

**75. taula. EAEn birgaitzeko beharra duten etxeen eranskinak eta irisgarritasuna, 2009-2015**

| Etxebizitzak honako hauek ditu: | 2009. urtea | 2010. urtea | 2011. urtea | 2013. urtea | 2015. urtea |
|---|---|---|---|---|---|
| **Trastelekua** | | | | | |
| **Bai** | 41,7 | 46,8 | 45,7 | 44,5 | 49,9 |
| **Ez** | 58,3 | 53,2 | 54,3 | 55,5 | 50,1 |
| **Garajea** | | | | | |
| **Bai** | 28,6 | 26,9 | 31,0 | 28,0 | 29,7 |
| **Ez** | 71,4 | 73,1 | 69,0 | 72,0 | 70,3 |
| **Igogailua** | | | | | |
| **Bai** | 60,4 | 59,5 | 51,0 | 56,7 | 67,2 |
| **Ez** | 39,6 | 40,5 | 49,0 | 43,3 | 32,8 |
| **ERAIKINA EGOKITUTA DAGO?** | | | | | |
| **Bai** | 40,2 | 37,8 | 32,8 | 51,5 | 53,0 |
| **Ez** | 59,8 | 62,2 | 67,2 | 48,5 | 47,0 |

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

### 4.2.2. Birgaitzeko beharraren arrazoiak eta birgaitzearen ezaugarriak

***Birgaitzeko premia handiagoa dute familia-etxebizitzen elementu pribatiboek zati komunek baino***

Etxebizitzek behar duten birgaitze-lanaren tipologiari dagokionez, % 44,3 etxebizitza barneko hobekuntza-beharrei dagokie. % 25,0k birgaitzea etxebizitza barruan eta eraikineko eremu komunetan behar dute. Gainerako % 30,7k eraikineko eremu komunei soilik dagozkien birgaitze lanak behar ditu.

**59. grafikoa. Birgaitzeko beharra duten etxebizitza duten familiak, birgaitze motaren arabera. EAE. 2015**




*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Eboluzioari dagokionez, alderdi nabarmenena elementu komunetan erreformak behar dituzten birgaitze-prozesuen gorakada da. Jarduketa horien pisu erlatiboa 2013ko % 18,4tik 2015eko % 30,7ra igaro da. Hala ere, ez du gainditzen 2011ko % 47,1. 2013 eta 2015 artean gertatutako gorakadaren aldean, behera egin dute elementu komun nahiz pribatiboak birgaitzeko obrek, 2013ko % 31,8tik 2015eko % 25era. Horrez gain, etxebizitzaren barrualde pribatiboan esklusiboki hobetzeko ekintzen pisuak ere behera egin du 2013 eta 2015 artean, hain zuzen ere % 49,8tik % 44,3ra.

## 76. taula. Beharra duten etxebizitzen birgaitze-mota, EAE. 2007-2015

(Beharra duten etxeen gaineko ehunekoak eta etxebizitza kopurua)

| | 2007. urtea | | 2008. urtea | | 2009. urtea | | 2010. urtea | | 2011. urtea | | 2013. urtea | | 2015. urtea | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Etxebiz. kop. | %. | Etxebiz. kop. | %. | Etxebiz. kop. | %. | Etxebiz. kop. | %. | Etxebiz. kop. | %. | Etxebiz. kop. | %. | Etxebiz. kop. | %. |
| Guztira | 113.396 | 100 | 128.669 | 100 | 142.100 | 100 | 80.969 | 100 | 75.342 | 100 | 90.139 | 100 | 58.017 | 100 |
| Elementu pribatiboak | 47.672 | 42,0 | 61.468 | 47,8 | 51.080 | 35,9 | 41.011 | 50,7 | 24.702 | 32,8 | 44.844 | 49,8 | 25.708 | 44,3 |
| Elementu komunak | 57.424 | 50,6 | 47.303 | 36,8 | 59.499 | 41,9 | 14.781 | 18,3 | 35.470 | 47,1 | 16.594 | 18,4 | 17.796 | 30,7 |
| Elementu pribatiboak eta komunak | 8.301 | 7,3 | 19.898 | 15,5 | 31.521 | 22,2 | 25.177 | 31,1 | 15.170 | 20,1 | 28.700 | 31,8 | 14.513 | 25,0 |

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

## 77. taula. Beharra duten etxebizitzen birgaitze motaren aldakuntza, EAE. 2007-2015 eta 2013-2015

(Beharra duten etxeen gaineko ehunekoak eta etxebizitza kopurua)

| | 2007. urtea | | 2013. urtea | | 2015. urtea | | 2007-2015 aldiko aldaketa | | Aldakuntza 2013-2015 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Etxebiz. kop. | %. | Etxebiz. kop. | %. | Etxebiz. kop. | %. | Etxebiz. kop. | %. | Etxebiz. kop. | %. |
| Guztira | 113.396 | 100 | 90.139 | 100 | 58.017 | 100 | -55.379 | -48,8 | -32.122 | -161,4 |
| Elementu pribatiboak | 47.672 | 42,0 | 44.844 | 49,8 | 25.708 | 44,3 | -21.964 | -46,1 | -19.136 | -42,7 |
| Elementu komunak | 57.424 | 50,6 | 16.594 | 18,4 | 17.796 | 30,7 | -39.628 | -69,0 | 1.202 | 7,2 |
| Elementu pribatiboak eta komunak | 8.301 | 7,3 | 28.700 | 31,8 | 14.513 | 25,0 | 6.212 | 74,8 | -14.187 | -49,4 |

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

## 60. grafikoa. Birgaitzeko beharra duten etxebizitzen kopurua, beharra duten etxebizitzen birgaitze motaren arabera, EAE. 2007-2015




*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Oro har, 2015ean etxebizitza nagusia birgaitzeko beharra duten familien % 69,3k gutxienez etxebizitzaren elementu pribatibo bati loturiko birgaitze-jarduerak aipatzen dituzte. Proportzio horrek beherakada nabarmena izan du 2013ko % 81,6aren eta 2010eko % 81,8aren aldean. Alabaina, 2007, 2009 eta 2011 urteetako zifrak baino handiagoa da.

Birgaitze-ekintzak behar dituzten familien % 55,7k eraikinaren elementu komunen batekin erlazionatutako lanak aipatzen dituzte. Kasu horretan, 2013ko % 50,2a gainditzen da, baina 2011ko % 67,2tik eta 2009ko % 64,1etik nabarmen behera dago.

### 61. grafikoa. Etxebizitza nagusian birgaitzeko beharra duten elementu moten eboluzioa (%). EAE. 1996-2015




*(*) 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Gutxienez etxebizitzaren elementu pribatibo bat birgaitzeko beharra duten etxebizitzak guztira 40.221 dira. Komuna eta sukaldea aldatzea da EAEn 2015ean gehien aipatu diren elementu pribatiboak, birgaitzeko beharra duten etxebizitzen % 46,5ean aipatzen baitituzte. Ondoren ateak / leihoak aldatzea (% 29,2) eta zorua aldatzea (% 21,3) daude. Pisu gutxiago dute ur- edo elektrizitate-instalazioak konpontzeak (% 13,9), berokuntza instalatzeak (% 9,8), tabikeak botatzeak edo altxatzeak (% 6,9) edo bestelako elementuek (% 6,6).

2013 urtearekiko, gehien eskatutako etxebizitzako elementu pribatiboak birgaitzeko beharrak behera egin duela hautematen da. Horrela, 4 ehuneko-puntu baino gehiago egin dute behera familiek beren birgaitze-beharrak finkatzeko orduan adierazten dituzten elementu pribatiboek: komuna / sukaldea aldatzea (2013an beharra zuten familien % 55,3, eta 2015ean, berriz, % 46,5), leihoak nahiz ateak aldatzea (% 37,8 zen 2013an eta % 29,2, berriz, 2015ean) eta lurzorua aldatzea (2013an % 25,3 eta 2015ean % 21,3). Bi elementu pribatibok bakarrik egin dute gora, oro har, aurrekoak baino gutxiago eskatzen direnak: ur- eta elektrizitate instalazioen konponketak (2013an % 12,8 eta 2015ean % 13,9) eta berokuntza instalatzeak (2013an % 9 eta 2015ean % 9,8).

Gutxienez etxebizitzaren elementu komun bat birgaitzeko beharra duten etxebizitzak, guztira, 32.309 dira. Fatxada birgaitzea da 2015ean gehien eskatu den elementua, izan ere, birgaitze-beharren bat duten familien % 33,9k aipatzen dute; ondoren, igogailua instalatzea dator (guztizkoaren % 16). Pisu gutxiago du teilatua konpontzeak (% 14,7) eta beste elementu komun batzuekin erlazionatutako jarduerek (% 6,3).

### 78. taula. EAEn birgaitzeko beharra duten etxebizitza nagusietan birgaitu beharreko elementuak, 2009-2015

| | 2009. urtea | 2010. urtea | 2011. urtea | 2013. urtea | 2015. urtea |
|---|---|---|---|---|---|
| *Birgaitzeko beharra duten etxeak* | 142.100 | 80.969 | 75.342 | 90.138 | 58.017 |
| *Elementu pribatiboren bat birgaitzeko beharra duten etxeak* | 82.601 | 66.188 | 39.872 | 73.544 | 40.221 |
| *Etxeen %a, elementu pribatiboren baten kasuan* | *58,1* | *81,7* | *52,9* | *81,6* | 69,3 |
| *ELEMENTU PRIBATIBOAK (*)* | | | | | |
| *Bainugela-sukaldea aldatu* | *41,7* | *60,3* | *39,2* | *55,3* | 46,5 |
| *Tabikeak bota / eraiki* | *9,3* | *13,8* | *6,8* | *9,2* | 6,9 |
| *Lurzorua aldatu* | *24,2* | *31,9* | *22,5* | *25,3* | 21,3 |
| *Uraren eta elektrizitatean instalazioak konpondu* | *14,8* | *23,6* | *12,8* | *12,8* | 13,9 |
| *Berokuntzaren instalazioa* | *15,2* | *21,9* | *12,1* | *9,0* | 9,8 |
| *Leihoak / ateak aldatu* | *30,5* | *39,3* | *26,6* | *37,8* | 29,2 |
| *Beste batzuk* | *15,7* | *11,9* | *7,5* | *11,3* | 6,6 |
| *Elementu komunen bat birgaitzeko beharra duten etxeak* | 91.020 | 39.958 | 50.640 | 45.294 | 32.309 |
| *Etxeen %a, elementu komunen baten kasuan* | *64,1* | *49,3* | *67,2* | *50,3* | 55,7 |
| *ELEMENTU KOMUNAK (*)* | | | | | |
| *Fatxada* | *29,8* | *23,8* | *29,8* | *19,8* | 33,9 |
| *Teilatua* | *17,8* | *16,0* | *19,9* | *13,5* | 14,7 |
| *Igogailua* | *26,7* | *19,8* | *34,6* | *17,4* | 16,0 |
| *Gas naturala* | *3,3* | *3,1* | *4,2* | *1,3* | 1,7 |
| *Beste batzuk* | *18,3* | *9,9* | *12,1* | *12,1* | 6,3 |

*(*) Erantzun bat baino gehiago eman daitezke. Behar hori dutela baieztatzen duten familien ehunekoa, birgaitzeko beharra duten familien guztizkoarekiko.*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

**62. grafikoa. EAEn birgaitzeko beharra duten etxebizitza nagusietan birgaitu beharreko elementuak (etxeen % / beharra duten etxeak), 2015**




*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitzen beharrei eta eskaerari buruzko inkesta. 2015. urtea*

Elementu komunetan, 2013ren aldean, nabarmen egin du gora fatxada birgaitzeko jarduketen beharrak, 2013ko % 19,8tik 2015eko % 33,9ra. Bestalde, igogailua instalatzea edo konpontzea gero eta gutxiago eskatzen da: 2011n, etxebizitzen % 34,6k; 2013an, askoz ere gutxiagok, % 17,4k; eta 2015ean, apur bat gutxiagok, % 16k. Alegia, ehunekorik baxuena da 2004az geroztik. Fatxada birgaitzean, puntu bat egin du gora beharrak, 2013ko % 13,5etik egungo % 14,7ra.

Birgaitzeko beharra zehazten duten elementu nagusien epe luzerako eboluzioaren hurbilketa egitean, ikusten da edizio guztietan komuna eta sukaldea izan direla gehien eskatutako aldaketak, nahiz eta gorabehera handiekin (beharra duten familien eskaeren% 37 eta % 60 bitartean).

Kasu horretan, jardutea eskatzen zuten familien proportzioa % 45-49 ingurukoa zen 1996 eta 2001 bitartean, eta urte horretatik aurrera jarduteko beharra % 57 ingurura hurbiltzen da 2003 eta 2004 urteetan. 2004tik aurrera, proportzioa bat-batean erortzen da 2007ko % 37,5eko minimoraino; zifra hori 2011n berriro ere % 40tik behera kokatu zen (% 39,2). Dena den, 2008az geroztik, zifrak berreskuratzeko joera hautematen da eta 2010 eta 2013 bitartean birgaitzeko beharra zuten pertsonek adierazitako maximoetako batzuk behatzen dira (% 60,3 eta % 55,3). 2015eko zifra (% 46,5) ez da 2010 eta 2013 urtetakoak baino handiagoa, bai ordea 2006tik aurrerako gainerako edizioetakoa baino handiagoa (% 46,4).

Gehien eskatzen den bigarren elementua aldatu egiten da urteetan zehar, birgaitze motaren arabera behatutako gorabehera ugariak direla eta. 1996 eta 2002 bitartean, etxebizitzako ateak edota leihoak aldatzeko beharra zuten etxebizitzak zeuden bigarren posizioan, % 26-34 bitarteko ehunekoekin. 2003-2006 aldian, zorua aldatzea eta leiho / ateak aldatzea gehien eskatutako bigarren edo hirugarren elementu gisa kokatzen dira.

2007 eta 2013 urteen artean gorabeherak hauteman dira bi elementu horien eskaeran (zorua eta leihoak / ateak), eta aldi horretan gora egin zuen aipatutako bi elementuekin lehian dagoen igogailu-beharrak. Oro har, leihoak / ateak aldatzea da bigarren aukera, batez ere 2008an (% 28,3), 2010ean (% 41,7) eta 2013an (% 37,8). 2009an ere bigarren posizioa izaten jarraitzen du (% 30,5), nahiz eta, aurten, fatxada konpontzeko aukeratik oso hurbil (% 29,8). Edonola ere, 2015ean gorakada nabarmena izan du fatxada konpontzeak, eta birgaitzeko beharra duten elementuen artean bigarren kokatu da, % 33,9ra iritsita. Bigarren tokian jarri den aurreneko aldia da 1996az geroztik. Fatxada-konponketetan izandako gorakada handiaren ondorioz, 2015ean hirugarren kokatu da leihoak / ateak aldatzea (% 29,2) eta laugarren, berriz, lurzorua aldatzea (% 21,3).

Bestalde, igogailua instalatzeko edo erreformatzeko beharrak pixkanaka gora egin du, 1996an % 4,8 izatetik 2001ean jasotako % 15,4raino. 2007 (% 28,4) eta 2011 (% 34,6) urteetan bigarren aukera gisa ageri da. Baina beharra % 17,4ra jaitsi da 2013an, eta % 16ra 2015ean, familiek planteatutako birgaitze-elementu handiekiko posizio baxuenean. 2003ra egin behar da atzera (% 13,6) 2015eko zifra (% 16) baino baxuagoa den bat topatzeko.

**63. grafikoa. Etxebizitza nagusian birgaitzeko beharra duten elementu nagusien eboluzioa. EAE. 1996-2015**




*(*) 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

### 4.2.3. Ingurunearekiko / auzoarekiko asebetetze-maila

Birgaitzea behar duten familia gehien-gehienek aldeko iritzia dute egoitza-ingurune edo auzoari dagokionez. Alegia, % 92,5 pozik ageri dira; asebetetze-maila altua da kasuen % 65,6an eta nahiko altua % 26,9an.

2015eko asebetetze-maila ertainari behatuz gero (85,3 puntu), lau puntu baino gehiago egin du gora 2013arekiko (79,7 puntu); izan ere, familia-proportzio handiagoak du asebetetze-maila altua ingurune edo auzoarekiko (% 65,6; eta 2013an, berriz, % 54,6 ziren). Batez besteko asebetetze-maila 2015ean 2010ekoaren antzekoa da (84,8 puntu). Urte horren aldean 1,5 puntu hobetu da asebetetze-maila altua duten pertsonen ehunekoa (% 65,6 % 64ren aldean).

**79. taula. Ingurunearekiko / auzoarekiko asebetetze maila. 2009-2015**

| Asebetetze-maila | 2009. urtea | 2010. urtea | 2011. urtea | 2013. urtea | 2015. urtea |
|---|---|---|---|---|---|
| Handia | 53,1 | 64,0 | 36,4 | 54,6 | 65,6 |
| Nahiko handia | 37,2 | 27,5 | 55,1 | 34,3 | 26,9 |
| Nahiko apala | 8,5 | 7,0 | 7,6 | 7,6 | 5,9 |
| Apala | 1,2 | 1,5 | 0,8 | 3,5 | 1,6 |
| **Asebetetze-maila ertaina[18]** | **79,8** | **84,8** | **75,4** | **79,7** | **85,3** |

*(*): % bertikala (beharra duten familien guztizkoarekiko)*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Ingurunearekiko asebetetze-maila altua izan arren oro har, zenbait arazo espezifiko hautematen dira birgaitze-beharra duten familiak bizi diren etxebizitza dagoen ingurune edo auzoan.

- Aparkatzeko tokirik ez egotea aipatzen dute etxebizitza birgaitzeko beharra duten familien % 63,1ek 2015ean. Hala ere, proportzioak etengabe behera egin du 2009ko % 77,9tik 2013ko % 64,6ra eta egungo % 63,1era.

- Aztertutako familien % 23,6k kanpoko zaraten arazoa aipatzen du 2015ean, 2013ko % 28,2a hobetuz. Bigarren arazo aipatuena den arren, 2009az geroztikako balio txikiena du. Horrenbestez, aurreko minimotik behera dago (2011ko % 25,7a).

- 2015ean, % 15-16ren inguruan daude irisgarritasun-falta (% 15,6), eragina nabarmen murriztuta (2013an % 36,1ek aipatzen zuen), eta zerbitzu-gabetasuna (% 15,3). Azken horrek ere nabarmen murriztu du eragina, baina irisgarritasun-faltak baino gutxiago; izan ere, beharra zuten etxeen % 24,5ek aipatzen zuen 2013an, eta 2015ean, berriz, % 15,3k.

[18] Asebetetze-mailaren batez besteko indizea 0 eta 100 bitarteko eskalan kalkulatzen da. Elkarrizketatutako pertsonen banakako iritziei dagozkien erantzunen batez bestekoa erakusten du, honako eskala honen arabera: 100, asko; 66, nahikoa; 33, pixka bat; eta 0, gutxi.

- Delinkuentzia/segurtasun-faltaren arazoak ere nabarmen hobetu dira 2013 urtearen aldean; 2013an % 26,3 ziren, eta egun % 13,4. 2013an apur bat gora egin arren (% 26,3), delinkuentzia/segurtasun-faltaren arazoak ere gutxitzera egiten du epe luzean. Hala, 2009an % 32 zen, 2010ean % 29,8 eta 2015ean, berriz, % 13,4.

- Aztertutako gainerako arazoak % 8-10 inguruan kokatzen dira: kutsadura/kirats arazoak (% 9,5), garbiketa falta edo zaborrik ez biltzea (% 9,4), berdeguneen falta (% 8,9), mantentze ezari loturiko arazoak (% 8,6) eta komunikazio/garraiobide txarrak (% 8,6). Eraginak nabarmen egin du behera kasu guztietan 2013 urtearen aldean, nagusiki, mantentze-faltaren kasuan (2013an, % 20,7; 2015ean, % 8,6), komunikazio/garraiobide txarretan (2013an, % 20,8; 2015ean, % 8,6), berdegune faltan (2013an, % 19,6; 2015ean, % 8,9) eta kutsadura/kirats arazoetan (2013an, % 19,4; 2015ean, % 9,5). Murrizketa ez da hain nabarmena garbiketa-faltan/zaborrik ez biltzean (2013an, % 10,8; 2015ean, % 9,4). Kasu hori, ordea, birgaitze-beharra duten etxeetan aipatutako garrantzi gutxieneko arazoa zen 2013an.

### 64. grafikoa. Ingurunean / auzoan hautemandako arazoen balorazioa birgaitzeko beharra duten familietan, 2015




*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

## 80. taula. Ingurunean / auzoan hautemandako arazoen balorazioa EAEn birgaitzeko beharra duten familietan. 2009-2013

| Arazoak ingurunean / auzoan | 2009. urtea | 2010. urtea | 2011. urtea | 2013. urtea | 2015. urtea |
|---|---|---|---|---|---|
| Kanpoko zaratak | 26,1 | 34,8 | 25,7 | 28,2 | 23,6 |
| Kutsadura-arazoak / usain txarrak | 16,7 | 20,1 | 12,1 | 19,4 | 9,5 |
| Mantentze-lanen falta | 16,1 | 22,4 | 9,9 | 20,7 | 8,6 |
| Garbitasun / zabor-bilketa eskasa | 9,0 | 13,3 | 9,2 | 10,8 | 9,4 |
| Komunikazio / garraio txarrak | 14,5 | 19,3 | 18,8 | 20,8 | 8,6 |
| Berdegune gutxi | 22,3 | 22,5 | 19,0 | 19,6 | 8,9 |
| Aparkatzeko arazoak | 77,9 | 74,9 | 72,8 | 64,6 | 63,1 |
| Zerbitzu gutxi | 22,7 | 22,9 | 23,9 | 24,5 | 15,3 |
| Irisgarritasun-falta | 44,5 | 36,0 | 28,8 | 36,1 | 15,6 |
| Delinkuentzia-arazoak / segurtasun-falta | 32,0 | 29,8 | 24,7 | 26,3 | 13,4 |

*(*): % bertikala (beharra duten familien guztizkoarekiko)*
*(**): Erantzun bat baino gehiago eman daiteke.*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Birgaitze-beharra duen ohiko etxebizitzarekiko batez besteko asebetetze-mailak gora egin du 2013 eta 2015 bitartean, eta 71 puntutik 76,4ra pasa da[19]. Hala ere, 2015eko indizeak 2009ko edizioan (78,4 puntu) eta 2010ekoan (76,6 puntu) jasotakoak baino zertxobait baxuagoa izaten jarraitzen du.

2015ean, bi familiatik batek asebetetze-maila altua adierazi zuen egoitza-etxebizitzarekiko (% 50,9, 2013ko % 40,9 baino 10 puntu gehiago), eta horiengandik hurbil zeuden maila nahiko altua adierazi zutenak (% 32,4). Asebetetze-maila baxua edo nahiko baxua dutenak % 16,7 dira 2015ean, 2013ko % 20,6a baino gutxiago. Azken urteetan, zifra hori 2009koak (% 10,9) bakarrik gainditu du.

## 81. taula. Birgaitze-beharra duten familien ohiko etxebizitzarekiko asebetetze-maila. 2009-2015

| Asebetetze-maila | 2009. urtea | 2010. urtea | 2011. urtea | 2013. urtea | 2015. urtea |
|---|---|---|---|---|---|
| Handia | 50,5 | 51,1 | 19,5 | 40,9 | 50,9 |
| Nahiko handia | 38,6 | 32,3 | 55,2 | 38,5 | 32,4 |
| Nahiko apala | 7,5 | 13,0 | 18,8 | 14,2 | 12,4 |
| Apala | 3,4 | 3,7 | 6,5 | 6,4 | 4,3 |
| **Asebetetze-maila ertaina[20]** | **78,4** | **76,6** | **62,1** | **71,0** | **76,4** |

*(*): % bertikala (beharra duten familien guztizkoarekiko)*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

[19] Asebetetze-mailaren batez besteko indizea 0 eta 100 bitarteko eskalan kalkulatzen da. Elkarrizketatutako pertsonen banakako iritziei dagozkien erantzunen batez bestekoa erakusten du, honako eskala honen arabera: 100, asko; 66, nahikoa; 33, pixka bat; eta 0, gutxi.

[20] Asebetetze-mailaren batez besteko indizea 0 eta 100 bitarteko eskalan kalkulatzen da. Elkarrizketatutako pertsonen banakako iritziei dagozkien erantzunen batez bestekoa erakusten du, honako eskala honen arabera: 100, asko; 66, nahikoa; 33, pixka bat; eta 0, gutxi.

### 4.2.4. Beharraren eta eskaera-epeen gradu subjektiboa

Atal honetan aldaketa-beharraren analisia egin nahi da zenbait aldagairen bidez, hala nola eraginpeko familiek hautemandako behar-maila subjektiboa, behar-egoeran daramaten denbora eta etxebizitza birgaitzeko aurreikusten dituzten epeak.

Birgaitze-beharra handitu egin da 2013arekiko –urte hartan 60,2 puntuko behar-indizea erregistratu zen (0 eta 100 bitarteko eskala)–; 2015ean, 64,8 puntukoa da. Emaitza hori lortu da kolektibo horren zati handienak 2015ean egoitza-etxebizitza birgaitzeko behar handia (% 34,1), dezentekoa (% 30,6) edo nolabaitekoa (% 31,9) dutela aitortu dutelako, eta laugarren posizioan geratu delako birgaitze-behar txikia dutenena (% 3,5). Baina 2013an beharra zuten familia gehienek birgaitzeko behar dezentekoa zutela adierazi zuten (% 36,8), eta ondoren nolabaiteko beharra aitortzen zutenak zeuden (% 30,4). Behar handia zutenak (% 25,9) hirugarren posizioan zeuden.

Nahiz eta hautemandako beharraren intentsitateak gora egin duen 2013arekiko, 2015eko datuek 2009an behatutako egoeraren antzekoa islatzen dute (urte hartan batez besteko behar-maila 65,8koa izan zen). Hautemandako susperraldiaz gain, 2015eko batez besteko beharraren adierazlea oso urrun dago 2011n erregistratutako maximotik (73 puntu).

**82. taula. Etxebizitza birgaitzeko beharraren maila subjektiboa, 2009-2015**

| Beharraren maila | 2009. urtea | 2010. urtea | 2011. urtea | 2013. urtea | 2015. urtea |
|---|---|---|---|---|---|
| Handia | *36,0* | *27,3* | *42,4* | *25,9* | *34,1* |
| Dezentekoa | *34,7* | *33,5* | *37,9* | *36,8* | *30,6* |
| Nolabaitekoa | *21,1* | *31,9* | *16,8* | *30,4* | *31,9* |
| Txikia | *8,3* | *7,4* | *2,9* | *6,9* | *3,5* |
| **Maila ertaina (0-100)[21]** | ***65,8*** | ***59,9*** | ***73,0*** | ***60,2*** | ***64,8*** |

(*): % bertikala (mota bakoitzean beharra dutenen guztizkoa).
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015

Birgaitze-beharraren denbora edo antzinatasunari dagokionez, familien % 41ek adierazten du egoera horretan lau urte baino gehiago daramala. 2013ko % 51,4tik behera dago, baita 2009ko % 46,4tik behera ere, eta inkestak 2013 bitartean behatutako zifra minimoa da. Epe luzeko ikuspegiarekin, lau urterako edo gehiagorako eskaeraren proportzioa nahiko maila baxuetan dago, 2002 eta 2008 urteetako % 55eko eta % 60ko zifretatik oso urrun.

Aldiz, bi urterako eskaeraren proportzioa nabarmen handiagoa da 2015ean (% 40,6), bai 2002-2008 aldiaren aldean (aldiko zifrak % 27tik beherakoak dira; gehienetan % 25etik beherakoak) bai 2013ko % 27,5aren aldean.

2015ean goia jo du behar-egoeran 2 urte baino gutxiago daramatela dioten familien proportzioak, orain arteko maximoa, 2009ko % 35,6a, gaindituta. Igoera bereziki

[21] Beharraren batez besteko maila 0 eta 100 bitarteko eskalan kalkulatzen da. Elkarrizketatutako pertsonen banakako iritziei dagozkien erantzunen batez bestekoa erakusten du, honako eskala honen arabera: 100, asko; 66, nahikoa; 33, pixka bat; eta 0, gutxi.

deigarria da urtebete eta 2 urte artean daudenen eskaerari dagokionez (% 18,7 2013an eta % 29,8, 2015ean).

## 83. taula. Etxebizitza nagusia birgaitzeko behar-egoeraren denbora, 2009-2015

| Denbora premia-egoeran | 2009. urtea | 2010. urtea | 2011. urtea | 2013. urtea | 2015. urtea |
|---|---|---|---|---|---|
| Urtebete baino gutxiago | 15,5 | 12,9 | 5,5 | 8,8 | 10,8 |
| Duela 1 eta 2 urte artean | 20,0 | 16,7 | 17,2 | 18,7 | 29,8 |
| Duela 2 eta 4 urte artean | 18,0 | 18,8 | 27,3 | 21,1 | 18,4 |
| 4 urtetik gora | 46,4 | 51,6 | 50,0 | 51,4 | 41,0 |
| **GUZTIRA** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

(*): % bertikala (mota bakoitzean beharra dutenen guztizkoa).
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015

## 65. grafikoa. Etxebizitza nagusia birgaitzeko behar-egoeraren denbora (< 2 urte, 2 eta 4 urte bitartean eta > 4 urte). EAE. 2002-2015




*(*) 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Etxebizitza birgaitzea aurreikusten den epea aztertuz gero, 2015ean birgaitzeko behar hori agertzen duten familien % 58,8k uste du aukera asko edo dezente daudela datozen bi urteetan aldatu ahal izateko (% 26,6 eta % 32,2, hurrenez hurren). Proportzio hori % 67,6ra igotzen da horizontea datozen 4 urteetaraino zabalduz gero (aukera asko % 58,8 eta aukera dezente % 8,8).

Beharra bi edo lau urtera asetzeko aurreikuspenak handitu egiten dira 2013arekiko, batez ere 2 urtera begira. Azken kasu horretan, beharrari aurre egiteko asmoa duten familien proportzioa 2013an % 37,6 izatetik 2015ean % 58,8 izatera igaro da (2011ko % 53,7a ere gainditz). Lau urterako eskaeraren kasuan, beharra estaltzeko ikuspegia hamazazpi ehuneko-puntu handitu da, 2013an % 50,3 izatetik 2015ean % 67,6 izateraino.

**84. taula. Birgaitzeko beharra duten etxeak: etxebizitza birgaitzeko probabilitatea bi urteko eta lau urteko perspektibarekin, 2009-2015**

| Birgaitzeko probabilitatea | 2009. urtea | 2010. urtea | 2011. urtea | 2013. urtea | 2015. urtea |
|---|---|---|---|---|---|
| **2 urterako probabilitatea** | | | | | |
| Handia | 28,9 | 14,7 | 35,3 | 19,6 | 26,6 |
| Nahikoa | 22,7 | 24,6 | 18,4 | 18,0 | 32,2 |
| Txikia | 31,6 | 21,7 | 25,6 | 32,2 | 25,3 |
| Aukerarik ez | 16,8 | 39,0 | 20,7 | 30,1 | 15,9 |
| **4 urterako probabilitatea** | | | | | |
| Handia | 52,2 | 41,5 | 54,0 | 39,2 | 58,8 |
| Nahikoa | 9,2 | 12,6 | 4,5 | 11,1 | 8,8 |
| Txikia | 26,1 | 21,0 | 26,0 | 28,7 | 20,2 |
| Aukerarik ez | 12,4 | 24,9 | 15,5 | 21,1 | 12,2 |

(*): % bertikala (mota bakoitzean beharra dutenen guztizkoa).
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015

### 4.2.5. Etxebizitza aldatzea, birgaitzearen alternatiba gisa

Birgaitzeko beharra duten familien barruan, bostetik lauk ez dute etxebizitza aldatu nahi 2015ean (% 81,9), eta % 11,9k bakarrik nahiago du etxebizitza aldatu. Azken familia mota horretan, etxebizitza ez aldatzeko aipatzen den arrazoi nagusia da baliabide ekonomikorik ez izatea. Faktore hori birgaitzearen aurrean aldaketa aukeratuko luketen familien % 64,4k aipatzen du, 2013an % 84,1 ziren arren.

Bestalde, etxebizitza aldatzeko beharra adierazten duten familien barruan, familien % 17,1ek etxebizitza birgaitzea plantea lezakete etxebizitza aldatzearen alternatiba gisa.

**85. taula. Birgaitzeko beharra duten etxeak: aldaketa nahi izatea. Aldatzeko beharra duten etxeak: birgaikuntza nahi izatea, 2009-2015**

| | 2009. urtea | 2010. urtea | 2011. urtea | 2013. urtea | 2015. urtea |
|---|---|---|---|---|---|
| ***Oinarria: Birgaitzeko beharra duten etxeak*** | | | | | |
| **Aldaketa nahiago izatea? (*)** | | | | | |
| Bai | 18,6 | 22,0 | 20,7 | 20,8 | 11,9 |
| Ez | 76,4 | 71,6 | 75,8 | 74,5 | 81,9 |
| Ez/Ede | 4,9 | 6,4 | 3,5 | 4,6 | 6,2 |
| ***Oinarria: birgaitzeko beharra duten, baina etxebizitza aldatzea nahiago duten familiak*** | | | | | |
| **Zergatik ez da aldatzen? (***)** | | | | | |
| Arrazoi ekonomikoak | 77,3 | 84,5 | 88,1 | 84,1 | 64,4 |
| Bestelako arrazoiak | 17,6 | 12,9 | 9,5 | 13,1 | 27,0 |
| Ez/Ede | 5,1 | 2,6 | 2,5 | 2,8 | 8,6 |
| ***Oinarria: aldatzeko beharra duten etxeak*** | | | | | |
| **Birgaitzea aldatzearen alternatiba gisa (**)** | | | | | |
| Bai | 18,8 | 17,1 | 13,5 | 18,7 | 17,1 |
| Ez | 77,1 | 74,5 | 84,6 | 78,0 | 79,2 |
| Ez/Ede | 4,1 | 8,4 | 1,9 | 3,2 | 3,7 |

(*) Birgaitzea behar duten familiekiko
(**) Aldatzea behar duten familiekiko
(***) Birgaitzea behar duten baina aldatzea nahiago duten familiekiko
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015

Bilakaerari erreparatuta, birgaitzea baino gehiago etxebizitza aldatzea nahiko luketen familien % 11,9a inkestak 1997tik hona jasotako baliorik txikiena da, orain arteko minimoa, 2009ko % 18,6a, baino nabarmen txikiagoa. 2008ra arteko erregistroak ez dira % 22,5etik jaitsi; 1998an, 1999an eta 2002an % 27 eta % 28 bitarteko zifrak egon ziren, eta 2004 eta 2006 bitartean, berriz, % 30 eta % 33 bitartekoak.

Aldiz, etxebizitza aldatzeko beharra duten eta uneko etxebizitzaren birgaitzea alternatiba gisa plantea lezaketen familien ehunekoari dagokionez, 2015eko datua (% 17,1) 2013koa (% 18,7) baino txikiagoa den arren, inkestak jasotako altuenetako bat da. 2015eko % 17,1a 2008koa (% 18,7), 2009koa (% 18,8), 2013koa (% 18,7) eta inoizko handiena den 2004koa (% 20,9) baino zertxobait txikiagoa da. Gainera, urrundu egiten da 1997 eta 2003 urteen nahiz 2005 eta 2007 urteen artean erregistratutako % 14az azpiko zifretatik.

**66. grafikoa. Etxebizitza nagusia aldatzea nahiago izatea, birgaitzeko alternatiba gisa, eta alderantziz. EAE. 1997-2015**




*(*) 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.*
*(**) Oinarria: etxebizitza aldatzeko beharra adierazten duten familiak.*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

## *4.3. Etxea birgaitzeko beharra duten familien finantza-ahalmena*

### 4.3.1. Diru-sarrerak

2015ean etxea birgaitzeko beharra zuten familien hileko diru-sarrera garbiak 1.962,1 euro[22] ziren batez bestez. Erregistro horrek esan nahi du 2013an erregistratuarekiko % 14,9ko igoera egon dela (1.707,6 euro).

[22] Diru-sarreretan familiaren diru-sarrera edo errenta guztien multzoa sartzen da.

Familiek 2015ean aitortutako diru-sarreren araberako banaketa aztertuz gero, ikus daiteke pisu erlatiboak behera egin duela diru-sarrera gutxiago dituzten familien kasuan. Hain zuzen ere, lau familiatik batek (% 25) ez ditu gainditzen hilean 1.410 euroko diru-sarrerak; horrek esan nahi du kolektibo horren pisu erlatiboak nabarmen behera egin duela 2013 urtearekiko (urte hartan kolektibo hori birgaitze-beharra zuten familien guztizkoaren % 41,1 zen).

Bestalde, ikus daiteke etxebizitza birgaitzeko beharra duten familien % 25,4k hilean 2.160 euro baino gehiago eskuratzen dituztela aitortzen dutela, eta horrekin gorakada arin bat erregistratu da kolektibo horretan 2013 urtearekiko (% 24,5).

Epe luzean, birgaitzeko beharra duten pertsonen diru-sarrera arrunten 2015eko batez bestekoa (1.962,1 euro) inkestak inoiz jasotako handiena da, 2011koa (1.850 euro) ere gaindituta.

## 86. taula. Etxea birgaitzeko beharra duten familien diru-sarrerak. 2009-2015

| Hileko sarrera garbiak | 2009. urtea | 2010. urtea | 2011. urtea | 2013. urtea | 2015. urtea |
|---|---|---|---|---|---|
| 840 euro arte | 8,0 | 11,7 | 12,1 | 14,3 | 6,2 |
| 841 eta 1.140 euro bitartean | 8,8 | 10,3 | 8,4 | 14,8 | 12,2 |
| 1.141 eta 1.410 euro bitartean | 8,9 | 10,1 | 11,8 | 12,0 | 6,6 |
| 1.411 eta 1.650 euro bitartean | 5,2 | 8,8 | 8,8 | 7,3 | 7,5 |
| 1.651 ets 2.160 euro bitartean | 10,1 | 12,3 | 9,8 | 12,7 | 15,1 |
| 2.160 euro baino gehiago | 15,5 | 22,6 | 26,9 | 24,5 | 25,4 |
| Ez/Ede | 43,5 | 24,2 | 22,3 | 14,4 | 27,0 |
| **Batez bestekoa (€)** | **1.630,6** | **1.668,3** | **1.850,0** | **1.707,6** | **1.962,1** |

*(*): % bertikala (beharra duten familien guztizkoarekiko)*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

## 67. grafikoa. Birgaitzeko beharra duten etxebizitza nagusiak dituzten familien diru-sarreren eboluzioa, 1996-2015




*(*) 2009az geroztik, aldaketa metodologiko bat egon da inkestak egiteko prozesuan, laginketa-tamaina handitu baita eta inkesta guztiak elkarrizketa pertsonalen bidez egin baitira.*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

### 4.3.2. Birgaitzearen kostu aurreikusia

Etxebizitzaren elementu pribatiboak birgaitzeko beharra duten familiek jotzen dute elementu pribatiboen erreformaren kostua, batez bestez, 16.407,9 eurokoa dela[23]. Kopuru hori 2013koa (15.201,7 euro) baino nabarmen handiagoa da, eta, 2009-2015 aldian, 2011koak bakarrik gainditzen du (16.752,5 euro).

Etxebizitzaren berezko elementuak birgaitzea aurreikusten duten familien artean, % 20,4k jotzen du lanak 12.001 eta 30.000 euro bitarteko kostua izango dutela; ondorengo taldeak jotzen du 6.001 eta 12.000 euro bitarteko kostua izango dutela (% 13,4) eta eta azkenik kostua 3.001 eta 6.000 euro bitartekoa (% 11,8) izango dela dioen taldea dago. Aipatzekoa da, hala ere, familia askok ez dutela galdera erantzuten edo ez dutela kostua ezagutzen (% 44,8). Gainerako % 9,6k jotzen du erreformaren kostua 30.000 euro baino gehiagokoa izango dela.

**87. taula. Etxebizitza nagusiko elementu pribatiboak birgaitzearen kostu aurreikusia. 2009-2015**

**Oinarria:** Etxebizitza nagusiko elementu pribatiboak birgaitzeko beharra duten familiak

| Aurreikusitako kostua | 2009. urtea | 2010. urtea | 2011. urtea | 2013. urtea | 2015. urtea |
|---|---|---|---|---|---|
| 3.001 eta 6.000 euro bitartean | 9,6 | 11,2 | 15,3 | 14,5 | 11,8 |
| 6.001 eta 12.000 euro bitartean | 11,6 | 18,8 | 7,7 | 17,9 | 13,4 |
| 12.001 eta 30.000 euro bitartean | 12,2 | 14,3 | 17,2 | 22,4 | 20,4 |
| > 30.000 euro | 10,4 | 12,9 | 13,2 | 9,5 | 9,6 |
| Ez/Ede | 56,2 | 42,8 | 46,5 | 35,8 | 44,8 |
| **Batez besteko kostua (eurotan)** | **16.309,1** | **15.615,2** | **16.752,5** | **15.201,7** | **16.407,9** |

*(*): % bertikala (elementu pribatiboak birgaitzeko beharra duten etxe guztizkoarekiko)*
*(**) Ez dira kontuan hartu 3.000 eurotik beherako elementu pribatiboen kostuak*
*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskaeraren Inkesta 2015*

Etxebizitzen elementu komunen birgaitzearen kostuari dagokionez, behar hori duten familiek jotzen dute birgaitzearen batez besteko kostua 15.474,5 eurokoa izango dela 2015ean. Zifra hori 2013an jasotakoa (11.579.7 euro) baino nabarmen handiagoa da, eta 2009an zein 2010ean aurreikusitako kostuetatik urrun dago (maximoa, 2010ean; 14.942,30 euro).

Etxebizitzaren elementu komunak birgaitzea aurreikusten duten familien artean, % 11k jotzen du lanak 12.001 eta 30.000 euro baino gutxiagoko kostua izango duela; ondorengo taldeak jotzen du 6.001 eta 12.000 euro bitarteko kostua izango dutela (% 10,6) eta azkenik kostua 3.001 eta 6.000 euro bitartekoa (% 9,5) izango dela dioen taldea dago. Inpaktu txikiagoa dute 30.000 eurotik gorako (% 8) eta 3.000 euro arteko (% 5,8) kategoriek. Kontuan hartu behar da, halaber, bi familiatik batek baino gehiagok ez duela ezagutzen birgaitzearen kostu zenbatetsia, edo ez duela erantzuten (% 55,1).

[23] Ez dira kontuan hartu 3.000 eurotik beherako elementu pribatiboen kostuak.

## 88. taula. Etxebizitza nagusiko elementu komunak birgaitzearen kostu aurreikusia. 2009-2015

**Oinarria:** Etxebizitza nagusiko elementu komunak birgaitzeko beharra duten familiak

| Aurreikusitako kostua | 2009. urtea | 2010. urtea | 2011. urtea | 2013. urtea | 2015. urtea |
|---|---|---|---|---|---|
| 3.000 eurora arte | 7,7 | 6,0 | 9,2 | 14,0 | 5,8 |
| 3.001 eta 6.000 euro bitartean | 9,8 | 9,9 | 12,2 | 12,7 | 9,5 |
| 6.001 eta 12.000 euro bitartean | 12,2 | 15,5 | 12,7 | 13,0 | 10,6 |
| 12.001 eta 30.000 euro bitartean | 8,0 | 13,9 | 9,7 | 10,0 | 11,0 |
